

Jean-Baptiste ORPUSTAN

## **EUSKAL-GRAMATIKA**

**Nabar-lapurtarreko "ohitza onaren"**

**laburpena**

**\***

**\*\*\***

**\***

*"Nabarra hitz zaharra ezta hitz bat. Euskaldun sortzen da, euzkaraz mintzatzen eta euskaldun hiltzen. Euskara hemen aberria da, abantzu erran dut erlisionea..."* Victor Hugo, *Euskal-herrirako bidaia*, Ed. Pimientos, 1999, or. 56.

\*

\*\*

\*\*\*

\*\*

\*

### Aitzin solas.

Henri O'Shea-k 1897-an agertu zen *La maison basque* liburuan, orrialde 17-ko ohar lehenean aiphatzen zuen Alfred Maury (1817-1892) Institut-eko ideak hari bidali eskutitz bat, euskararen ethorkiaz eta "familiaz" hau ziona:

"Euskal-hizkuntzaren eta mintzo zuten jendalden ethorkia ezta batere gauza argi bat, jakileak azkarki berexiak utzi ditu. Hizkuntza hori ezta nabariki indo-europatarra, eta jakintsun gehienek, hala nola Bonaparte printzeak, hain ezagulea gai hortan, hizkuntza uraldarren familiari eratzikitzen daukote. Zorigaitzez, aldizka tura-niarra edo hungaro-xaponiarra izendatu den familia horrek eztu, bere abarr berezietan, hizkuntza zemitiken familian eta indo-europatarrenean (aldaxka ariarr et iraniarr) ikusten den ahaidego hertsirik eskaintzen. Gainera, eztitugu hizkuntza uraldarrak egiazki molde aski berri batzuetarik baizik ezagutzen, eta badiduri hizkuntza horiek, aroan zeharr, ohargarriki aldatu direla. Dena den, euskaraz eta filologia erkidatuaz ari direnek gramatikako berdintasun batzu aurkitu dituzte hizkuntza horren eta Finlandian, Eztonian eta Ural auzoko herrialdetan oraino derabiltzaten mintzakien artean. Ezta ahatzi beharr, alta, gramatikari doakonean, berdintasun bitxi eta aski ohar-garri batzu aurkitu direla euskararen eta Mundu Berriko hizkuntzen artean. Azkenik erran diren berdintasun horiek eztoaz, bertzalde, euskararen eta hizkuntza uraldarren artean onhartzen den ahaidegoaren kontra. Abantzu se-gurr da gaurregun Ipharr Amerikako leinu indiarrek bere lehenbiziko ohakoa Asia ipharraldean ukan dutela, Ziberian, Mantxurian, han oraino hizkuntza hungaro-xaponiarrak mintzo baitira, Uralgo hizkuntzen eta Finlandako ur-golko bazterretakoen moldakuntza berekoak direnak."

## Sarr-hitza

Egin diren orduko, eta gero ithurburu bakarr batetik edo itxura gehiagorekin bat baino gehiagotarik abiatuz, oraikotz zorroztasun zenbaitekin ezin muga daitekeen aro batean, hizkuntzek elgarr hunki dute giza-multzoen ethengabeko mugimenduetan. Eta Ertaroko aurkintza handietarik hasiz harreman lehia-tuen gehitzeaz egin den eta oraiko teknologien aitzinamenduek handitu duten borobilaren heineko "herrixka mundutarrak" egite aski badu leiendetako mithologiak asmatu zuen "Babelgo dorrearekin": oraino 6000 baino gehiago hizkuntza lerrokatuak, baina ainitz dudarik gabe galtzeko bidean, ez bakarrik mintzale multzo ttipien itzaltzeaz, molde batean "naturalaz", baina ere hizkuntza "menperatzalen" indar-pean, hortan latina behazun on bat izan baitzen - bertze batzuen artean eta aitzinean, bertze aro batzuetan ere naski - Imperio erromatarraren eremu guzian. Horr mende gutiz itsabasi dira behin betikotz, idazki bekan batzuez salbaturik hoberenean, Europa sartaldeko bakarrik, hizkuntza menperatzalearen eta haren aldakuntza erromanen abantaileko, etruzka, liguriarra, galesa, iberiarra eta bertze.

Latina Imperio erromatarraren iraupenaz baliatu da, hamarr mendeko bat hurbil "Erromaren hastapen mithikatik" hasiz, Sartaldeko azken emperadore Romuluz Augustuluz-en erorterano 476-ean, eta lurraldetan haren hedamenaz. Mende bat lehenago (380) gertatua zen latinaren ondoko hizkuntza erromanen ohigabeko hedatzearen agintzale, Theodoze "Handia" deritzotenaren erabakia, Imperio guzia bortxatzen zuena, mundu grekan eta bizantinan salbu latinaz baliatzen zen erlisione girixtino bakarrera, eta bertze guziak debekatzen zituena.

Sartaldeko Europak begiratu ditu, Imperio latinetik sortu hizkuntza erromanen gainera, ipharreko herriak, Alemania, irla britaniarrak bezala berant edo ez osoki latinduetan, ala Erroma jabetu etzen sortaldeko Europa bezalako lurraldetan (irla greziarrak eta haien imperio ohi gaurregun Grezia bakarrera bildua

bazterrera utziz), hizkuntza batzu ez latinkiak baina ethorki "indo-europatarr" berekoak: grekatik hara, hizkuntza zeltak (Irlanda bakarrean eta Britanian gaurregun), germanikak eta eslabak. Gune bakarr batzuek dituzte European atxiki, arrazoin ez argi batzuen gatik euskararendako bezala, edo hartu, hedamen "indo-europatarra" baino lehenagoko hizkuntza batzu: lurralde erromatarraren kampoan edo mugetan jarriak, hala nola alde batetik Kaukaziako lurrak, bertzetik Eztonia, Finlandia eta ipharburuko eremuak (Inuit), edo berantago ethorri jendalde batzuek hartuak, hala nola Hungariako Magiarrak IX-garren mendean, Extebe erregeaz girixtinotuak XI-garrenean; eta salbuespenez imperio erromatarraren barne-barnean edukia zen euskal-eremua, Pirenetako bi aldapetan, alta gure adina baino bi mende hurbil lehenago Erromak hartua zuen Hizpaniako ipharraldean, eta guti 50 inguruan egina zuen Galiako sartalde-hegoaldean. Zardeñako sortaldean gelditu eta E. Blasco-Ferrer-en thesian ikhertuak diren euskal-arako hatzek mugagailu bat badagite gaurregun urrun-urrunduak dauden aro eta leku horien artean.

Euskara hizkuntza latin-erroman eta ingurunetako indo-europatarretarik errotik berexten duten edo kontra doazkon berezitasun horiek eta bere iraupenean ehola "arkaikak" izan eztaitezkeenak mugatuz dira beraz lehenik hizkuntzako nortasun egiazkoaren begiratzeko bideak hartuko. Baina bi mila urte baino gehiagoko auzotasun luze hortan bildu berezitasunek ere sistema han edo hemen aldatua dute, eta Ertarorik hunara aro berrirano hizkuntza euskalkietan banakatu duten egile indartsuenetarik bat izana da. Hortan barne emaiten da ere, beti mugatu ahal ukan gabe erkidagai aski zorrotz eta zuzenen eskasez, euskarak berak, azken mila urte horietako berexkuntzaren gatik, moldatu ahal duena, behazunez aditzaren jokabideko gaian.

Nabar-lapurtarr "ohitza oneko" euskal-gramatika hau oraiko euskara ahozko eta idatziaren erabilpenaren ikherraldi kritikaritik sortua da, XX-garren mende erdi leheneko mintzatzale oraino guti "erdalduen" ohitzerr eta XVI-XVII-garren

mendetako literatura "klasikako" ohiduratik hurbil zirenerrek erkidaturik, eta ere itzulpenaren ezagutzatik. Hots, bere gain hartzen du euskararen ixtorioa hartan jartzen den "aro luzeko" zati bat, aro berriko eginara oraikoenean emaiten duen batean.

Euskararen "ohitza on" horren abantaileko, aro klasikako euskal-idazki eta literaturatik eta hizkuntzaren berezitasun baitezpadakoen begiratzetik ondoretuareneko, atxikitzea osoki egingarri da eta ondorio on bati eta aitzinamenduari hitzeman, euskara ohiko eta "jendetarr" bateko eremu batzuek eztituztenaz geroz berezitasun horietako gehienak, batzuetan guziak, galdu, XXI-garren mende hasteko aro huntarano.

\*

\*\*

\*

## Zati lehena.

### Euskararen ahotsara.

Euskal-idazkiak zuzen itxuratzen du, jarri den idazmoldearen araura, ahozkamoldea: zuzen izaitea huni dago. Ezta beraz "euskal-orthografiarik" frantseseko edo angeleseko eta b. den bezala, idatzarako aldapenen ondorioz egiazko ahozkatzearen eretzean. Euzkaraz ezta idatz molde edo "grafia" bat baizik, ontsa xoilta 'ta berdindua, salbuespen osoki gutirekin, erdi-joiletako bezala *y* ("yod") eta *w*: behazunez *joan* silaba bakarr ahozkatua da *ywan*, aditz izena *ywaite*, eta hortik erathorriak berdin, molde jokatuek mintzogai edo bokal beteak berremaiten dituz-telarik alta: *doa* bi silabetan, idazki zaharr batzuetan hats-emaiteaz azpimarraturik ere batzuetan *doha*.

Euskararen eta inguruneko hizkuntza indo-euro-patarren arteko ezperdintasuna ahotsarari doakonaz joile edo konsonanten egituran dago gehienik, *a*, *e*, *i*, *o*, *u* mintzogaiak zuzenez sudurkatze gabe, latinekoak edo españolekoak izanez. Ere zu-berotarrean bakarrik gaineratzen zaie sabaiko mintzogai ezpainkatua edo "biri-bildua" *ü* idatzirik ("u" frantsesekoa edo ... turkakoa bertze batzuen artean, hetan *y* greka).

\*

## Berezita I.

### Joileak edo konsonantak.

#### 1. Huts egiten duten joileak.

Euskarak bertze hizkuntza zaharr batzuek bezala etzituen ahozkatzen hizkuntza indoeuropatarretan ohikoak diren joile edo

joile-multzo batzu, zenbait batere ez hala nola ezpain-horzkariak: *f* idazten den gogorra eta *v* ozena, eta *muta cum liquida* ("herskariak ubilaz jarraikiak") dieten joile-multzoak *bl*, *br*, *pl*, *pr*, *gl*, *gr*, *kl*, *kr*, *dl*, *dr*, *tl*, *tr* idatziak; bertze batzu hitzeko gune batzuetan, hala nola hitz hastapenean *r*- dardaria, herskari gogor *p*-, *k*-, *t*- idatziak, eta ziztukari "afrikatuak" diotenak (herskari bat-etik hasiak) *ts*-, *tʃ*-*tx*-; eta bururapenean *-d* hortzetakoa eta *-b*, *-m*- eta *-p* bi ezpainetakoa.

Auzoko hizkuntza ofizialki bakarrik erabiliek edo nagusiek ahots horiek imitatzez ala ere beharrez azkenean ahozkarazi dituzten aroa baino lehen, guti edo aski goizik eta erregularki aro eta leku arau, euskarak ahozka-molde batzu erabili ditu ahots horien aldatzeko eta bere fonologiako egiturari egokitzeko, eztituenean baztertu.

## 2. Ezpain-horzkarien egokitzea: *f* latina, *v* erromana.

Ufari gogorr latin edo erroman *f* bi ezpainetakoa *b* herskari ozen bilakatzen da (*faba* > *baba*, *fasta* > *besta*, *firme* > *berme*), noizten gogorr haskatu *ph*- (*fagu* > *phago*, *fricatu* > *pherekatu*, *filu* > *phiru*, euskalkiz *phesta* *besta*-ren orde) ; hats-emaitea idatzi gabe baina itxuraz ahozkatu da *ficu* latinetik egin > (XIV-garren mendean) *piko*, eta euskalkiz (bizkaitarrez) *Fernando* > *Pernando*. Akitaniako *phentze* hitza, Espainiako *euntze* bezala, dudarik gabe frantsesez "foin" eman duen *fenu* latinetik erathorria da (\*). Joile hori hazkatze xoilera ekharria zen ere euskaran (*fovea* > *hobi*, *fugatu* > *huiatu*, *furca* > *hurka* > *urka*) hala nola gaztelaran (*famine* > *hambre*, *fabula* > *habla*) eta gaskoinean (*faba* > *habe*, *famine* "gosete").

(\*) Erro latinki *eun* horrek egin du dudarik gabe *Eunate* Nabarrako kaperaren izena, ez "ehun" zenbaki mirazkoak erran eta errepikatzen den bezala, zortzi aldetakoa delarik, alde guziak kamputik sei arku idekietako lerroaz inguratutik.

Bizkitartean euskarak bere erdal-auzotasunetik eta agian elizako latinetik aski goizik ahozkatu du *f* eta ziren bezala atxiki

ditu *falsu, familia, fede, fruitu* (berant harturik latineko *-ct-* erroman aitzineko *-it-* bilakatua zenean jadanik) bezain hitz erabili batzu eta b. Ahozkatzeko berri laxatuan *f*ufariak ordaindu du ere haskatze zaharra: han edo hemen errexki eta gaizki erran da *aho*-ren orde *afo*, *obe*-ren *ofe*, abantzu orotan *aubari*-ren orde *afari*, XIV-garren mendean herskariarekin *abari* Nabarrako Foru Orotakoan, hitza *aho*-tik erathorria delarik iduriz. "Ohitza onak" ageriki nahi du hitz bereziki euskaldun horien guzieren berremaitea bere molde zaharrean ahoz idazkiz bezala, eta *f*-ren atxikitzea ohiko mailegu latin-erromanentzat eta bertze.

Frantsesko ezpain-horzkari ozena *v* latineko erdi-joile *w*-tik sortua eta *w* hori bera *b*-ra herskatu dira ere: *versu* > *ber(t)su* (neurtitz xoietik multzora aldaturik erran-nahian), *virgine* (erlisisineko hiztegiari harturik dudarik batere gabe) > *birjina*, *voluntate* > *borondate*, *virtute* > *bertute*, *viride* > *verde* (erdaran) > *berde*, *viva* > *biba* ... Jakina da ahozkatzeko aldapen hori iragan dela gaskoinera edo horr gelditu, hizkuntza hortan eman ahal baitu *vivere* "bizitze" eta *bibere* "edate"-ren berdintasunaz hitz-joko ezaguna.

Salbuespen batzu badira guneka hetan orotako egituraren kontra erdarako *v* gogortu baita *f*-ra: erran eta idatzi da *berde*-ren orde *ferde*, eta hori da Espainian derabilaten *Nafarroa* Nabarraren izenaren ithurburua, Oihenartek jadanik hartua eta erabilia zuena XVII-garren mendean, ohidura nabar-lapurta ezaguna euskal-ahotsararen arabera *Nabarra* delarik (*Baxe-Nabarra* zioten ez aspaldi orotan) batzuetan *Nabarre* (*Baxe-Nabarre*ko Estatuaren euskal-idazkia XVIII-garren mendean, Mendiague lapurtarraren kantua XX-garrenean), izen frantsesari hartua iduri duen azken *-e* batekin. Ahots erdalki bikuna da egiazki *Nafarro*: 1° *navarru(m)* "nabartarr" izen-laguneko *w*-ren aldatzea *-b*-tik *-f*-ra iragaite segurraren ondotik (*navarro* 1240-ko gaztelaraz Orotako Foruan baitezpada *nabarro* ahozkatu zen), *ꝛubi* hitzak *ꝛufi* ahozkatuak eta idatziak ere ukana zuen euskalkizko aldapen hori; 2° izen-lagun latinaren *-u(m)* gaztelaraz eta hortik euskaraz *-o*-ra iraganaren atxi-

kitzea, erran-nahiko aldapen aski ohitu batekin jende izena herriarenera iragan-araziz.

### 3. Hastapeneko *r-* dardari latin eta erromana, eta euskarako *-r* eta *-rr* bi dardarariak.

Bi euskal-dardarariak mihi puntakoak izan dira hizkuntza zaharr eta erroman gehienenetakoak bezala, espāñolekoa bezala eta frantsesa ere XVIII-garren mende azkenerano bederen eta oraino XX-garrenean bereziki hegoko herrialde askotan.

3.1. Dardarari xoilak edo joitaldi bakuneko *-r* beharrez mihipuntakoa gelditzen da haren auzo / bazterkaria bezala, hunkin nahasten baita ainitz aldiz mintzatzale arrotzen baitan bezala idazki zaharretan ere, eta hortik argitzen da euskalkietan adlatibo xuberotarrean *-ra*-tik *-la*-ra aldatzea. Baina ezperdintasuna osoki eragingarria da euskarari: *ara* "moldea" (hitzeko *-a* azkenak bateratzen du beti bezala *-a* mugatzalea) eta *arra* "ordotsa", *arrotz* eta *arrotz*, *ero* eta *erro*, *horri* erakuslea datiboan eta *hori* atsolutibo eta margo, *oro* eta *orro* eta b.

3.2. Dardarari azkarra edo "ainitz jotaldiduna" *-rr* puntakoa ere ezta Akitanian "gangaileko" edo "girgorraturik" ahozkatua frantsesean bezala XX-garren mendeko bigarren zatitik baizik. Ahozkoan berriz mihi puntako emaita "euskal-ohitza onean" espāñola, italiarra eta b. ikasten dituztenek egitea bezain zuzen lizateke; deusek ezpadu ere hortara bortxatzen oso gelditzen denaz geroz bi dardarien ezperdintasuna.

Kontrakapena eragingarri da ere teorikoki hitz ondarrean baina osoki bekana, salbu *ur* eta *urr*, *haur* erakuslea (gaurregun dardaririk gabe ahozkatua *han*) eta *haurr* izena. Hitz zenbaitetan hala nola *lurr* azken joilea itxuraz ahula lehenago (leku izen *Luro*, hitz batzuetan *lupe*, eta batzuen azkenean *erregelu* eta b.), azkartu ahal da azkenean aski usu bezala behar bada errankortasunez, hala nola *hezurr*, *elburr*, eta kontrara *zur*. Errextasunaren gatik azkeneko euskal-dardari azkarra beti *-rr* idatziko da hemen, ohidura Ertaroko idazkietan aski erabili hori galdu bada ere

(Lhanderen hiztegi ezagunak *r* atzentodunaz idazten zuen oraino, errex ezten gauza). "Ohitza onekoa" lizateke ere horren sartzea zuzenez idazkian, alemanak dagien bezala behazunez: *herr* "jaun".

3.3. *Haur* erakuslearen azken dardararia ahozka-leku bereko sudurkarira aldatu da genitiboan: *\*bauren* > *bunen* edo *bonen*, horrek egiten baitu ere bertze ahozkatze 'ta moldameneko bide batetik (inesibo edo lekuzko mugimendu gabea) *hemen*. Dardararitik sudurkarirako aldapen berak ditu *jaun* (latineko "dominus") hitzetik egin hitz batzun edo atzizkituak *jauregi*, *jauretze*, *Jaurgain*, *jaurgo* eta b.; berdin ere *belhaun*-etik egiten da molde bietan *belhauniko*/*belhairiko* ...

3.4. Hitz batzundu eta atzizkituetan bururapeneko *-r* ahula barneko bilakaturik ahozkamolde hurbileko *-l-* bazterkarira aldatzen da: hortik *euskara*-rendako *euskal-* moldea bezalakoak, *Euskal-herri*, *euskalki* (hemen *-ki* gaiko atzizkia), *gari*-ren orde *galepherr*-etan *gal-*, batzuetan ohidurak hitz oso bilakaturik hala nola *aubal* aditz erroa *aubari*-tik eta b. *Ur* hitzean dardaria abantzu orotan Ertaro hastetik ezabatua zen hats-emaiteak ordaindurik *ubalde*, *uharte* bezalako hitz batzun hain hedatuetan, *urarte* bezalako behazun bekan batzu izanik ere idazlez bermol-datuak iduriz. Hor hunkitzen dira zati bigarreneko Berezita III-an erakutsiak diren hitzen atzizkitzeko eta batzuntzeko eginarak.

#### 4. Hastapenako joile gogorr latin eta erromanen ozentzea.

4.1. Orotakoa izana da lehenago: *calza* > *galza*, latineko *camera* > erroman-aitzineko *cambra* eta hortik > *gambara*, *candelariu* > *ganderailu* (hizki-aldapen jostagailu batekin), *castellu* (*castru*-ren ttipitzalea) > *gaztelu*, *certatu* > *gertatu* (erran-nahiz aldapenarekin), *corpus* > *gorputz* (azken xixtukari herskaria emanik, hori ezabatuz egiten baita euskalkiz *gorpu*) (\*), *pace* > *bake*, *pice* > *bikhe*, *pascua* > *Bazco*, *potere* (latin-aphalean *posse*-ren orde) > *botere*, *quadragesima* ozendua eta laburtua *garizuma*-ra eta b. Hastapeneko *k-* gogorra

galdu da bigarren *-k*-rekin ezperdintzez *Urkulu* leku izenean (Garazi hegietako dorre-garhaikin biribila) *circulu*-tik jalgia.

(\*) Ageriki arrazoin gabea da, hoberenean, hitz horrentzat bertze ithurburu zenbaiten bilatzea. Euskal-hitz zuzena hortako *soin* da bere erathorriekin (*soineko* eta b.), *gorputz* beharr bada erlisioneko hiztegitik sarturik, horren lekua hartu gabe alta.

4.2. Hastapeneko *d*- et *t*- horzkariek ahotsarako izantza doi bat berezia dute euskaran. Herskari gogorr hastapenekoa ozendu da zuzenez: *tempora* ainitzekoa latinean > *dembora* euskaraz ainiztasuna galdurik, *tendero* gaztelarakoaren erroitik (erran-nahiz eta atzizkiz aldaturik) > *dendari*, *turre* > *dorre* (jadanik gaztelaran eta handik euskaran), *torculariu* laburturik > *dolare* (orotakoago erran da *lako* latineko *lacu*-tik), *turpe* (latinean "itsusi" zen) > *dorpe* (erran-nahiz aldaturik). Baina latin edo erromaneko gogorra aski usu atxiki da, hala nola *tabula*-tik > *taula*-n, eta hainbat hitz latin edo erromaneko errepika xoiletan: *tapa*, *tinki*, *tipula* (latineko *caepa*-ren ttipitzale *cepulla*-tik herskaria aldaturik), *topa*, *traba*, *tresna*, *trixte*, *tropa* eta b.

Hastapeneko *d*- ozena bera osoki bekan da euskal-hiztegi ez mailegatuan: *daldara* hitz errankorr edo hots-izena (*ikbaha*-ren ondoan), *deiadarr* (*dei* "oihu" eta *adarr*-ez egina), *dirdira* erran-kortasunezkoa ere, *diti* ohiki *titi*, *ditare* biziki hurbil oraino *digitale* ithurburu latinetik, *deus* silaba bakunean (bitxiki Ertaroko frantsesean *deus* edo "jainko" silaba bakunean ahozkatuak laburpenez *dex* izkiriitzen zenaren berdina), *durduza* edo *durdura* "gogoko nahasmen" erran-nahian, ahotsara errankorrean ere.

Hastapeneko horzkari ozen hori usu ahosabaikarira aldatu da euskaraz eta *j*- idazten, hala nola *jeus deus*-en orde, *jantzza dantz*a-ren, erdalki zaharr "taster"-tik (orai "tâter") *jasta* aditza eta b. Egiaz *d*- hastekoarekin aditzak eztiren euskal-hitz gehienak, guti orotara, mailegu erromanak dira, P. Lhande-ren *Dictionnaire*-ko izarttoek derakutsaten bezala nahiz ezten gai hortan osatua, *des*- eta *dis*-ez aurhizkituak diren ezezko guziak barne alabaina.

Gainera, hastapeneko *d-* hori baztertuz, mailegu batzuek *l-* bazterkarira aldatua dute: "danger" *lanjerr* bilakatzen da, erathorria *lanjeros*, "diverti" > *liberti* eta erathorriak, eta hastapeneko gogorretik berdin *teca* > *leka*.

Horren arrazoina da segur-segurki euskaraz *d-* hastapeneko aditz jokatu guzien oraia emaiten duen morfema edo balioa gramatikakoa duen hitz edo hizkia dela, aurrizkitua beharrukeen egile edo jasaile bakuna "**ez erraitetik beretik errana den**" heren personakoa denean, horren gatik modal-aroko aurrizki *d-* horrek baitaduka haren lekua eta, izanaldi beretan, alda baitaiteke laur euskal-modu-aroen emaiteko: *d-* oraiarekin, *z-* iragana (*-(e)n* atzizkiaz berhaturik), *l-* baldintza, *b-* heren personan manuzko moldamenekoa, lehen eta bigarren personetakotik ezperdina. Baina nabariki aditz oraia da usutasunean urrundik nagusi hitzaldi orotan, horrek baitagi emaiten duten hastapeneko *d-* joilea dela bakarrik ahotsarari doakonaz izanara osoki berezi hortan. (Ikus aditzaren jokabidea 3-garren zatian).

## 5. Joile multzoen erabilara.

**5.1 Indoeuropearreko "muta cum liquida" joile multzoa** hautsia da arteko mintzogai baten sartzeaz ("anaptix") ainitz aldiz harmonian edo berdintasunean ondotik heldu den mintzogaiaekin, edo laburtua:

5.1.1. *-r*-rekin: *libra* (diru eta phizu) > *libera*, *libru* > *liburu* XIV-garren mendean emana, latineko *cruce* "croutsé" ahozkaturik erroman zaharrenean > *g/**kurutzē*, latineko *vitrina* ("berineria") > leku izen *Bitirina* (erroman "Beyrie" Amikuzen);

5.1.2. *-l*-rekin multzoa laburtu da herskariaren ezabatzez: *gloria* > *loria*, *ecclesia* > *eliza*, *flore* > *lore*, *pluma* > *luma* ...

Ohidura hori galdu da gero: *tresna* gaztelara zaharretik hartua da, eta oraiko hizkuntzan hitz mailegatu ainitzek bada-txikate multzoa: *trein* ("tren, train"), españoleko "fresco" > *frexko*, *tripa* ("tripe"), *troxatu* ("troussé", erran-nahian "langé"), *brentsa*

(mahats lehertzeko tresna) latin eta erromaneko *prensa*-tik (frantsesez "presse"), *flakoin* ("faucon"), *graspa* ("grappe") eta b.

Hitz mailegatu horiek aski usu ordaindu dituzte euskal-ahotsara bereziko hitz batzu, zaharr ala ez. Horrela "tripa" edo *baltsarr* da (erdaraz "entrailles") edo *sabel* (erdaraz "ventre") edo *zorro* (balio du *zaku* erdalkia ere, erdaraz "bedon"); *flakoin*-endako euskal-hitza *sapalats* da, edo *mirotz* hau latineko *milu*-k emana duen *miru*-tik erathorri zaharra. (\*)

(\*) Hemen ezartzen dut M. Morvan-ek igorri agerbide baten itzulpena: "Hastapeneko joile multzorik ezta ural-altaikan, ez ondotik ere molde aldatu eta laburtu batzu baizik, hala nola turkeko *köprii* "zubi" *köpürü* zaharrago batetik jiten datekeena (erroa *\*kop-/gob-* "molde gupi edo askatua" izanez ere). Hastapeneko *f-* bada baina molde aldatua bezala eta usuenean *\*p*-tik. Izan da aldapen bat *\*p- > f- > b-*. Mantxuan eta mongolki batzuetan aurkitzen da *f-*. Hungariarreko *fa* "zuhatz" *\*pV*-tik jiten da (finesea *puu* "zuhatz"). Laponak, bere hizkuntza nagusian, *\*p-* uraldarra finesean *p-* gelditua *b-*ra ozendua du. Uraldarrak badu *r-* hastapenekoa baina altaikak ez *l-*az ordaintzen baitu".

## 5.2. Bertze joile multzoak.

5.2.1. Latineko zitzukari hastapenekoa herskariatz jarraiki-rik erromanean bezala egokitzen da aitzin-mintzogai emaitetz harmonian ala ez: *scriptu > izkiribu*, *spiritu > izpiritu*, *sponda* "ohe bazterr" erran-nahiz aldaturik "hegi, bazterr" *> ezponda*, hor mihi-bizkarreko zitzukari latina atxikirik, berantagokoetan euskarak mihi-puntako bat ezartzen duelarik: "sparte"-tik *> espartin*, *schola > frantses zaharrean escole > eskola*.

5.2.2. Baina barneko joile multzo batzuna hala nola *-rsk-*, *-rst-* edo *-rsp-* laburtzera ari badira ahozkatzeko errextasunez hitz zaharr *orsto > osto*, *arsto > asto* bezala, egituran sartzen dira eta aldapenik gabe onhartuak.

Aldiz *-ktr-* bezalako multzo batzuna barnekoak zatiz laburtu dira *-tr-*ra arte-mintzogairik ("anaptix") gabe geldituz: "doctrine" *> dotrina* ja XVII-garren mendean, "électrique" *> eletrika* ... nahiz erroman imitatzea ari den multzo horien berremaitera.

### 5.3. Barneko *-r(t)z-* multzoa: *bertze* 'ta *ortzi*.

Lekuko jende izen *Garzia* XI-garren mendeko ja ahozkatzez *Gassie*-ra aldatua zen idazki gaskoinetan. Ertaro azkenean lekuko boteredunen hizkuntza gaskoinean idatzi zen Zuberoko zerga-liburuan *larzabal* leku izen euskaldun hedatua *lastabau* ezarria da, izen hortako euskaran ehoiz sartu ezten ahozkaran. Baina aldapen berak *bertze* ereman du *beste*-ra, lehenik eukalkietan: XVI-garren mendeko Espainiako eremu zabal batean, XVIII-garren azkenetik Zuberon eta ondoko herrialdetan, XX-garren mendean bakarrik bertze lekuetan, *ber*-tik hala nola *berdin* eta iduriz *berri* erathorri *bertze*-ren "ohitza ona" itzali gabe halere, *bost*-en orde *bortz*-etan egina den baino gehiago: *Bortziriak* Nabarran, *Borciriette* zatiz erdaldurik Baigorriin.

Molde berean aldatzera egin duen *ortzegun* izena dudarik gabe "Ortzi-ren eguna" da euskaraz, erdaraz "jeudi" *Jovis die* latinekotik "Jupiter"-ena den bezala: *ortzia* euskaraz "zerua" zen oraino Zalgizen atsohitzetan (1600 inguruan) 'ta hortik "ortzantz" (iduriz \**ortzi-azantz*), XII-garren mende hastapenean Kompostelako beilariaren hiztegi ttipian oraino "jainkoa" balio omen zuen *urcia* ("urzia" ahozkatutik orduko latinean) euskal-hitzetik jalgia, eta ez *ostia* zenbaitetik.

Aldapen horren onhartzeara are gehiago itxuragabea da nun gaurregun *ortzi* emaiten baita gizon izen ttipitako, eta horren erathorriak *ortzadarr*, *ortzantz*, *ortzkorri* ardura *ozkorri* eta ere *oskorri*-ra aldaturik, hitz usu erabiliak baitira eta "ohitza ona" manatzen baitute hortan; eta molde berean ortzegunaren ondotik, *ortziralea*.

Multzo horrek orotan atxikia du hastapenako ahozkatzea ezin zenbatuak diren aditz izenetan: *artze*, *hartze*, *erortze* edo *erorte*, *jartze*, *urtze* (zuzenean "ur bilakatze", ithurburu beretik delarik ere dudarik gabe "urte" izena), *urratze* eta b., zaharrena iduri lukeen aditz- izen atzizkia *-te* ezten orotan.

## 6. Ziztukariak eta sabaikatzeak.

**6.1. Euskarako sei ziztukariak gogorak dira** eta ahozka gunetik mugatuak, mihi-punttaren (latinez "apex"), aho sabaiairen eta hortz-hobien artean.

### 6.1.1. Hirur pherekari edo jarraikiak:

*s* mihi punttako eta hortz-hobietakoa euskararen berezitasuna frantseseko ozen *j* edo *-ge* eta b. idazten denaren arauko gogorra da; punta-hobietako horrek oraiko ohiduran eremua irabazten ari du arrazoin baliagarririk batere gabe hizkuntzako hein onaren kaltetan, bereziki erdal-mailegu ainitzetan, "erregela" bat baliz bezala, badirelarik alta ez bakarrik *gauza*, baina *azjeta* eta bertze.

*ʒ* mihibizkarr eta hobietakoa, frantsesean "s, ss, ç" idatzia, *causa* latinaren bera da euskarako *gauza* maileguan;

*x* mihibizkarr eta sabaikoa (zenbaitek "bustia" zioten, frantsesez *ch* idatzia) itxura guzien arabera beti lehenbiziko bat edo bertzearen aldapena da bereziki ttipitasunezko, amultsutasunezko eta bertze erran-nahi batzuetako xedetan, beraz bigarren mailekoa.

### 6.1.2. "Afrikatuak" edo ez pherekatuak.

Pherekariak badituzte arau berdineko hirur "afrikatu" edo "ez pherakatu" herste batetik hasten direnak eta ez jarraikiak, hortako idazten baitira *t*-tik hasten den hizki biekoaz: *-ts*, *-tʒ*, *-tx*. Espainiako euskalkietan ez bezala, hetan mihibizkar-sabaikoa jarraiki baitzako ahozkara gaztelarako *ch* idatzi eta *tch* ahozkatuari Ertarotik idazkien arabera, "ez pherekatuak" eztira behin ere hastapenean euskara nabar-lapurtarrean: idatzi beharr dira beraz eta ahozkatu hastapenako pherekariarekin *xori*, *xakurr*, *xokolet*, *xuri* eta ez gaztelaraz ahozkatuak bezala *txori* eta b.

Ziztukari mihi-punttakoan eta bizkarrekoan edo pherekari eta ez pherekatuen arteko ezperditasuna beti zuzena da: *iz̃i* eta *hisi*, *hasi* eta *haz̃i*, *haz̃* eta *has*, *hats* eta *hatz̃*, *oso* eta *otso*, *usi* eta *uz̃i* eta *utz̃i*, *sare* eta *zare*, *sorr* eta *zorr*, *su* eta *zu*, *hits* eta *hitz̃* eta *hiz̃*, *hots* eta *hotz̃* eta b.

**6.1.3. Sabaiko ziztukariak** orotara beti "bigarren mailekoak" dira, errankortasun amultsutasuneko, familiako, ttipitasunekoak leku eta ingurunearen arabera (ingurune familiakoa bereziki): *bits* eta *bitx*, *atso* eta *atxo* eta b. Sabaiko ahozkamoldea erabili bakarra den aldiak, hala nola *etxe*, ezin bekanagoak dira eta arrazoinez errankortasun ttipitzale zaharr bat hitzeraturik sortuak.

**6.1.4. Ziztukarien gainera** euskarak sabaikatzen ditu ere baldintza beretan horzkariak, gogorr *t* eta ozen *d* orotara idatzia ez *dd* baina *j*: *andere* 'ta *anddere/anjere*. *J* hizkia horzkari sabaikoaren ahozkatzeko *yod* zaharr hastapeneko baten aldapena da ere: *jaun* ezta *\*daun* zaharr zenbaiten sabaikatzea *joan* aditza *\*doan* edo *jakin* *\*dakin* zenbaitena den baino gehiago eta b.

Sabaikatzen dira ere *l* bazterkaria *ll* idatzia, eta *n* sudurkaria españolean bezala tilderekin *ñ* idatzirik: *uli* eta *ulli*, hitz hunek baitu ere, ahozkatzeko ttipitzale horiek ainitzetan bezala, moldamenezko ttipitzale zaharr bat *eltzo*, *\*enli*-ren mintzoki biekoa *eu*-agertzen baita bi moldetan laburturik: *eu-* > *e-* eta *eu-* > *u-*.

Sabaikatze ttipitzaleak hunkitzen ditu bereziki erran-nahiak berak ttipitasuna hetan adiarazten duen hitz batzu: horrela *ñaña* (*nanu* latinetik) ehoiz ezta sabaikatze bikunarekin baizik erabiltzen; berdin begiko *ñiñika* (ttipitzale bikunarekin: ahozkarakoa eta gainera *-ka* ez moldamenezko baina ttipitzeko atzizkia hemen) *ñiñi* "haurr ttipi"-tik erathorria, sabaikatzerik gabekoak *nini* irri-garriki erran-nahi handitzalea hartzen baitu orduan: "lele, ñuku handia".

Erran-nahizko gibelune larriago batzu sala dezazke ere sabaikatzeak: *xori* ohiko hitza ahozkaran berez ttipitzale da, baina sabaikari gabe *zori* ezta bekan baizik "hegztin handi" erraiteko erabiltzen, baina egin dituen *zorigaitz* eta *zorion* hitz batzunetan bezala "suerte", "halabeharr" erran-nahian: ezkira hor jendearen sineste zaharretako "zotal gaitzeko xori" hartarik urrun.

## 7. Hats-emaitea eta joile hastunak.

**7.1 Hastapeneko edo mitzogai-arteko hats-emaitea** beti azkarki ahozkatua da, eta beraz zuzenez idatzia, euskalki eremu batzuek eragin erromanaren azpian, frantsesaren bezainbat espagnolaren, horr ahozkoan izaite gabea bilakatu baita (behazunez hizkuntza angeles-alemanertan ez bezala), ahultzera ekharri badute ere edo ezabatzerara. Euskal-eremu akitaniarrean aldiz hats-emaiteak ainiztera egin du, Espainiakoaren kontrara, Lapurdin Ertarotik (hortik jende izen ofizialen idatzarak: Hiriart eta Iriart, Hiribarne eta Iribarne eta b.), horrek bortxatzen baitu hala ere hautu batzuen egitera hizkuntzaren eta hunen errextasunaren erabilpen oneko.

7.1.1. Hitz mailegatuetan hastapeneko hatsaren atxikitzea edo ez eta ezabatzea aski ustegabekoak dira edo guti argigarriak, baina ohitzan ontsa jarriak: horrela *harma* (hatsak balio errankorra duke hitz hortan) eta hortik *apho harmatu* eta b. Baina *ixtorio*, latineko *historia* hitzak zuen hats-emaitea galdurik frantsesean bezala españolean, gabe hartua da ere euskaran, baina hitza andana batean sartzen duen atzizkiarekin: *bozkario*, *laudorio*, *mixterio* (hau grekatik jalgi latineko *mysteriu*-ren ondore zuzena, erlisionekeo hiztegitik hitz lerro horren ithurburua itxuraz) eta b.

7.1.2. Hastapeneko hats-emaiteak berex-arazten ditu hirur erakusleak xoilik ala deklinabidean beti izenaren ondotik euskaraz egiteko mugatzalean: *haur* hurbila, *hori* artekoa, *hura* urruna, latinarekin aski erkidagarri den egitura batean *hic*, *iste*, *ille*. Bertze euskal-hitz ainitzek badute hastapeneko hatsa beti ahozkatua eta entzuna nabar-lapurtarrean:

silaba bakun hala nola *barr*, *hats* eta *has*, *hauts* (izen eta aditz-erro), *bel*, *hets*, *hits*, *hitz*, *hots*, *huts* (eta b.;

silaba bikun hala nola *hari*, *harri*, *hemen*, *herri*, *hobi*, *hori* erakusle 'ta margo) eta b.

7.1.3. Mintzogai arteko haskatzeak, batzuetan sudurkatzez gabetzearen ondorioa, euskal-hitz andana bat handia hartzen du:

bi silabako hala nola *abi, abo, aburr, aiberr, auberr, eho, eibarr, ibi, obarr* (izen eta aditz-erro euskal hitz gehienak bezala), *oba, obi, obil, oibu, ubaitz, ubarr, uberr* eta b.;

edo hirur silabako (usu batzunduak edo atzizkituak) hala nola *abari, ebaili, ibizi, obaide, ubalde, uburi* eta b.

Zuzen ahozkatu eta idatzi batzundu batzuetan ezpada, hatsa ezta bigarren silabatik hara agertzen.

**7.2. Joile hastun barnekoak eta bekan hastapenekoak:** bazterkari *-lb-*, sudurkari *-nb-*, dardarari *-rb-*, herskari *(-)kb-*, *(-)ph-*, *(-)th-*.

Euskal-ahotsara zaharraren berezitasun osoak eremu guzietan (San Millán de la Cogolla-ko paperak XI-garren mendean), eremu iberiarrean galdu diren joiletako hats-emaite horiek iharduki dute euskalki akitaniarretan. "Ohitza onean" hautu batzuen egitea beharr edo bederen hobe da eta leku batzuetan horien atxikitzea.

### 7.2.1. Ethorkizko hastunak:

1) Latineko *f-* baten ondorioak: *fagu* > *phago, fricatu* (*fricare* "thorratze") > *pherekatu*; edo *p-* batenak hala nola *pulsu* > *pholsu* batzuetan *folsu*; edo ere herskari bikun baten, hala nola *abbas* > *aphez* (aldiz *apezpiku* hatsik gabe *episcopu*-tik > *ipizpiku* XVII-garren mendean berdintzez gero aldatua).

2) Batzuntze batetik jalgi hitzetan, behazunez *urbats* egina *urr* "hurbil" (badu erathorri ainitz: leku izenetan *urruti* "haraindi" erran-nahian, *urko* "auzoko", *urrun* ...) eta *hats*-ekin (*haste*-ren erroa), edo *urthats* "urteko egun lehena" *hats* berarekin *urte* osatuz... Batzundu horietan arrazoinik ezta zuzenean eta ahoz-kara onean, beraz idazkian, osagailuen aldatzeko: *atsotbitz* (erran-nahian "zaharr hitz"), *ilharri* (*bil(h)arri*-rekin batean), *ilharthitz* ...

Berdin doa silaba hirurkunetan, usu batzuntze edo atzizkitze baten ondorioak, *aphairu, enhoa* mailegua (baina *enoa* ahozkarako idazki onean ezezko aditza da: ikus aditzen baiezezko aurrizkiak), *ithurri* (hain nasaia leku-izendegi zaharrean), *ethorr* aditza etxaitzinetako idazki *ongi-ethorri* hain usuetan oraino.

**7.2.2. Hastun berexkailuak:** osoki baliagarri dira elgarr iduriko hitzen berexteko, horrela *ote* galdezkoa eta *othe* landarea; *eri*, *erhi* eta *herri*; *ala*, *alba* (hitza iduriz latineko *alare*-tik hartua bada ere) eta *hala*, *Orby* mendi hegia (dardari hastuna beharrez aski azkarra da bertzalde eta euskaraz *Ori* idaztea aldi hortan hutsezkoa ezpada irrigarria idatzarak derakharren ahozkarako) eta *ori* "oizu!" ...

**7.2.3. Hastun errankorrak:** *kebe*, *phutz*, *thu* ... Batzuetan hastapeneko joile hastun herskaria euskal-ozen baten azkartze errankorraren ondorioa da: *phutz* aditz-erroa iduriz *bizi* hitzetik jalgia da; *garr*-etik egin da *gartsu* erran-nahi zuzenean eta erran-nahi gogokoan *kbartsu*.

#### **7.2.4. Bertze joile hastun batzu.**

Balio du ere hats-emaite idatzi eta ahozkatuaren begiratzea silaba bikun zaharr ainitz erabilietan eta haien erathorki eta batzundu zenbaitetan: *apho*, *athe*, *elhe*, *itbo*, *olha*, *opho*, *orhe* ... Ez baitezpada orotan: behazunez *auru* latinari mailegatua eta azkartua denez - beharr bada *aureu* "urrez-tatu" izen-lagunaren bitartez - eztagun *urre* hitzean. Hitz ainitz erabili batzu, hala nola *ikas*, *ikus* eta hauen erathorriak hatsik gabe entzunak dira oraikotz abantzu orotan; baina *ikhuz*-etan atxik daiteke baliagarriki, *ekharr* edo *ikherr*-etan bezala.

### **8. Sudurkatze 'ta sudurkariz gabetze.**

**8.1. Mihipunttako sudurkaria n-** euskal-ahotsaran eta moldakuntzan egiteko ainitz eta baitezpadakoak daduzkana da.

1) Izen deklinabidean:

-*n* inesibo edo leku mugimendu gabeko atzizkia;

-*n* "jabetasunezko" *-(re)n* genitibo lehenaren azken hizkia, *-re* duten genitibo zaharretan salbu (egiteko hortan berdintzezko hedamena dela uste ukaitera uzten baitu).

2) Aditz jokabidean:

*n-* lehen persona egileko aurrizkia iragangaitz oraian eta iragankorr ez-oraian, *ni* izenordearen ordain;

*nind-* aurhizki beraren molde luzea iragangaitz ez-oraian, eta ere iragankorr ez-oraian jasaile errana beharrez aurhizkitua lehen persona denean (bertze personentzat leku berean ikus 3-garren zatia: Aditza eta erranaldia, Berezita III Jokabidea);

-*n-* 2-garren persona eme hikatuko arthizki-atzizkia (euskarako sesu-motako ikurr bakarra *-k-* bere osagai arrarekin);

-(*e*)*n* aditz iraganen atzizkia.

3) Hastapeneko *n-* hiztegian galde-oihuzko ez mugatuen eta hauen erathorrietan da: *nor ?*, *non ?* (eukalkietan *nun-*era aldatua mintzogaiairen hestez sudurkari aitzinean), *nola ?* Ezta beraz ustegabetzeko mihi-punttako *n-* sudurkaria guti agertzen bada euskal-izen hastapenean.

## 8.2. Sudurkari artekoak edo "epenthesiak": *aitzin*, *aintzin* eta b.

Mihi-punttako *n-* sudurkariaren egitekoen eta erabiltzearen ainiztasunak argitzen dituzkete euskalkiek erakusten dituzten ezperdintasunak, aro eta leku arau, sudurkari horren atxikitzean, ezabatzean edo hedatzean. Hitza bakarrik edo atzizkitu eta batzundurik usu agertzen den Ertaroko leku-izenetan jadanik, *aitzin(e)* batzuetan horrela sudurkari batekin herskari aitzinean agertzen da *aintzin*, ohitza nabar-lapurtarreko leku batzuetan gelditu dena bereziki Lapurdin.

Ezta dudarik alta sudurkari hori eztela ethorkizkoa, hitz-erroak erakusten duen bezala *aitzi* "kontra" erran-nahikoan eta hortik erathorri *aitzitik* "kontrara" hitzean, gogamenez "aitzin" lotua baita "kontra" izanari. Hemen *-n* azken sudurkariaren errepikatze aitzineratu bat da egiazki, hori bera iduriz lekukotasunezko kasu eta erran-nahi lehenaren erraile: ikus 2-garren zatia, Berezita III, izenaren deklinabidea (\*). Bertzalde *obantzē* "etzangia", gehienik "xori kafira" erran-nahian erabilia, *obe*-tik zuzenean egin *obatzē* ("etzangia" eta "etzate") aditz-izenaren atzizkiko ziztukari afrikatuari sudurkari aitzin emanaren ondorioa da. Ziztukari afrikatuaren aitzineko sudurkari horrek argitzen ditu ere *abatzirentzat abantzē* bezalako aldapen batzu euskalkietan, "Haunze"

("Haux") ahozkatzea Zuberoan ertaroko idazki gaskoinetan *aox/ aoux* idazten den herri izeneko, berdin ere oraiko "Idaunze" ("Idaux") Ertaroan *udaus/ idaux* eta b. Afrikatu aitzineko sudurkari hori batzuetan Ertarotik sudurkatzea galdurik bazterkari bilakatua zen *eltzin* (sic) emanez *aintzin*-en orde, *intzaurr*-en orde *eltzaur* eta b. bereziki Lapurdin.

(\*) Leku mugimendu gabeko kasu "inesiboak" argitzen ditu, aro ala guneko erran-nahia alabaina errangabea den hitzetan, *orai* akitaniarra eta *orain* espainiarra bezalako euskalkietako aldapen batzu, eta itxura guzien arabera *egun* hitzaren azken sudurkaria, molde batzundu zaharr batzuetan hor eztena hala nola *egubakoitz* > *ebiakoitz* ("egun bakoitza" edo "bakarra"), *eguberri* neguko ekhigeldiaren izendatzeko dudarik gabe mitologia girixtinoko besta IV-garren mendean asmatu zen baino biziki lehenago, *eguzki* arrazoinez *iguzki* aldapena baino zaharragoa.

### 8.3. Mintzogai arteko sudurkarien ixiltzea edo atxikitzea.

Mintzogai arteko hats-emaitea, ahozkarako aldi eta ingurumen berezi batzuetan, latineko sudurkari baten ondorio zaharra izan daiteke hala nola *anate* > *abate*, *honore* > *ohore* eta b. Aldapen hori egin ahal da, aro eta gune arau erregulartasunik gabe, euskal-hiztegian berean, erathorriek erakutsia batzuetan: *mibi* aro aski urrun batean *\*minbi* zatekeen, *mintzo* (*\*min(hi)tze* "miharen erabiltze" aditz-izen zaharr batetik sortua beharr bada), *mintza*, *mintzatze* eta *milika* aditz-lagun eta erroak agertzen dutenaz geroz sudurkari zaharra bazterkari *-l*-ra aldaturik.

Mintzogai arteko sudurkari zaharraren itsabastea *anate* > *abate*, *honore* > *ohore* ezagunek erakutsia, emana da batzuetan halako lege orotako bat bezala, aro eta leku guzietako baliagarria eta euskal-ahozkararen berezitasuna, eta ere, irakurtzen da batzuetan, "proto-euskara" noizpateko batena, euskara beretik urrunago erkidatzeko lanik batere gabe. Deus holakorik ezta egiazki.

Hitz-barnean nabar-lapurtarrarak latineko *catena*-tik egiten du *gatina*, ez gaskoineko gune batzuetan bezala *cadea* edo *cadeya* eta hurbiltasunez zuberotarrean *kate*, eta berdin euskalki espaniarretan; *corona*-tik > *korona*, eta ere gaurregun ahartzixea dugun

bigarren bat *k(h)oroa* hau alta elizagizonen ilemotz gune biribil-arendako begiratu, edo *coro* mailegu españoletik kantari multzo-aren, eta berezikiago lehenago elizan kantorea eta "xantrea" zauden lekuarendako.

Aditz jokabideko kapituluan ikusiko da *eç*-en aurhizkitzeak *-n*-ren aitzinean (eta *-h-* eta *-l-*renean ere) ziztukaria galtzen duela (\*): hortik sudurkatzea galdu ondoan *ehorr* erregularra XVI-XVII-garren mendetako euskal-idazlen baitan, *eç-norr* zuzenaren orde, eta horren ondorioa euskaldi espainiarretan *iñorr* eginara beretik, hemen sudurkariaren aitzinean *en-* > *in-* mintzogaiairen hesteaz seinalatua, urrunago *-on* > *-un* bezala, zuberotarrean *bana* > *bena* eta b. Oraiko *nebor* molde ohikoa *nor*-en hastapeneko *n*-rekin berdintzeaz berregina da, eta, erran-nahiaz erdarako "ne" ezezkorekin.

(\*) Ziztukari ixiltze hori aurkiten da ere leku-izendegi zaharreen: behazunez *ametç-nabarr*-en orde *amenabarr*.

**8.4. Mailegu erromanetako azken sudurkariak** *-o* eta *-u* mintzogai sabaikoen ondotik arteko erdi-mintzogai *-y-* baten sortzera egiten baitu *-oi(n)-*, *-ui(n)-* biek mintzogai bat emanaraziz orduan (ikus II. Mintzo-gaiak), "baron" bezalako hitz batek *baroin* egiten zuen: XVII-garren mendean Orzaizeko etxe bat *Baroina-rena* izendatzen zen, Lekornen XX-garren mende hasterano Garro-ko "baroina" han bizi zenean oraino, mende azkeneko herritarr batek aro hortaz orhoituz bazakien "jaun moina" erraiten zizakola, *baroina* molde zaharragoa sudurkaturik eta ahozkoan laburturik.

Bieko bokal emaita hori ezta bertzela ere edo ezta gehiago nabar-lapurtarrez orotakoa: behazunez indar-jokoetan "le ballon" hitz berriagoa xoilki *balona* erraiten da; eta euskaraz *-n*-ren aitzinean mintzogai heste ohikoarekin (euskalkietan *on-*etik egiten dira (*h*)*un*, *untsa* aditz-laguna eta b.) *betuna*, *kamiuna* eta b. Hitz latinetako *-tione(m)* bururapena (frantsesez > *-tion*) latinari hurbil sudurkariarekin *-çione* gelditua da zuberotarrean bezala (*occupatione devotac*, Tartas 1672) nabar-lapurtarrean: *benedizione*, *deboçione* eta b.

Latineko *lectione* ("irakurtze") orotan *leitzone* erraiten zen *irakurr* eta *erakats*-etik egin hitz egiazkiago euskaldunak erabili baino lehen.

Sudurkaria aldi guzietz erori den euskalkietan, hitz beretako *baloin*, *baroi* ahozkamolde ohikoek erakusten dute bakarrik sudurkari gabetzea bieko mintzogai emaitaren ondokoa dela eta gertakari aski berantekoa eta lekuan lekukoa bakarrik. Nabar-lapur-tarra badarraika erraiten eta idazten *amoina* (gaskoinez *amouyne*), *fazoin* eta "lion"-entzat (frantses zaharr edo gaztelerako *leon*-etik) haskatze 'ta silaba bikunarekin *leboin*, "saison"-entzat (españolero *sazon*-etik) *sasoin* eta ez *liou* edo *sasou* (hortik euskalki zuberotarrean *sasu*) gaskoinean bezala hor sudurkariaren galtzea zuzena baita.

**8.5. Bi ezpainenako sudurkaria m-** sudurkatze gabetzen ahal da hala nola gaskoineko *mie godanbe*-etan ("erdizka irabazte") euskaraz *bigodain* egiten baitu. Kontra moldean hastapeneko bi ezpainenako herskaria ohiki sudurkarira aldatzen da hala nola "Miarritze" Biarritz-en orde, eta mintzogai arteko *-b-* herskariaren sudurkatze aitzintzeak molde zaharr batzu egin ditu hala nola *etchembehety* (*etxe beheti*: "behereko etxea") "Etxemaiti" sudurkari xoilera laburtu dena.

Sudurkari horrek egiteko errankorr orotara irrigarri edo trufari bat badu *nahas-mahas* moldeko errepikapenen lerroan: *elhemelhe*, *itzuli-mitzuli*, *kuku-muku*, *zinak* eta *minak* eta b.

## 9. Joilen aldapenak elgarr hunkitzean eta mintzogai artekoen gogortzea euskaraz.

Horren gatik batzuetan "lotzalea" erraiten den euskarak batzuntzen baititu, erran nahi da elgarrekin batzen hitz berenaz berexak hauetaz hitz bakarr baten egiteko, eta atzizkituz ala atzizki bat baino gehiago emanaz (euskaraz ezta aurrizkitzerik aditz jokatuan baizik) hitzak nahitara erathortzen, hortik datoz ahozkarako aldapen aski zuzen batzu.

### 9.1. Hitz batean elgarr hunkitzen duten joilen aldape- nak bi motakoak dira:

1) Azken zitzukari barneko bilakatuen ondotik herskariak gogortuak dira batzuntze aitzinean ozenak baziren. Horrek egiten du hastapenean *d*-rekilako aditzek oraian ozena *t*-ra gogortzen dutela ezezko hitzerraneko *e*z- aurrizkiturik, ikusi den bezala: *da*, *dut* ahozkatzen eta idazten dira orduan *e*zta, *e*zta (gertaldiz baiezkoa aitzinean ere: *bada*, *badut*, *e*zpada, *e*zpadut). Eginara hitz batzundu eta atzizkitu guzietara hedatzen da: *sos* (diru) maileguarekin *-dun* atzizkiak *sostun* egiten du, bertzela *aberats* erraiten ere dena gaskoinean *aver* bezala *abere* mailegu latinetik (*habere* "ukaite"); zitzukari ondotik *-be* hitz atzizkituak *bebe* edo *behere*-ren laburpenez, egiten du *harizpe*, baina aldapenik gabe *bidabe* edo *mendibe*. Bizkitartean aditz-laguna herskari gogortu aldatzez *-p* > *-k*- erran-molde *\*biz-pi-t-artean-etik* jalgia da.

2) Kontrara sudurkari *-n*-ren eta bazterkari *-l*-ren ondotik herskaria orotara ozena da edo ozendua: *-toi/-doi* multzoetako atzizki arthizkituaren ondotik Ertaroko aiphaldietan jadanik badi-tugu zuzenki *hariztoi* eta *arandoi*, berdin *joare*-tik *joaldun*, *elgarr* bezala (bertze euskaldi batzuetan *elkarr*), *e*zpel > *e*zpeldoi. Partizipa bururakorreko *-tu* atzizkia, uste ahal baita balio bereko *-tu(m)* latinari dela mailegatu eta ohiki ezpaititu hastapeneko mintzogaidun euskal-aditz zaharr jokagarriak hunkitzen (ikus 3-garren zatia), gertaldi beretan aldatzen da, salbuespen gutirekin: *hartu*, *hoztu*, *sortu*, *phiztu*, baina *heldu*, *landu*, *ondu*, *gizondu*, aldiz *emaztetu*. Aldapen hori ezta edo ez beti erregulariki euskalki zuberotarreko eremuan egiten. Nabar-lapurtarrean salbuespena bekan da, hala nola *hantu* uste baita "haplologiaz" (\*) edo arte-silaba baten erortez *handitu*-ren laburtze bat dela eta egiten baitu ere molde ohigabeko aditz-erroa *hant* (ikus II-garren zatia, Berezita II aditzaren moldamena).

(\*) "Haplologia" silaba ainitzetako hitzetan ahozka-molde bereko edo hurbileko bi silaba auzoetan baten galtzea da, hemen *-ditu*-ko *-di*.

Euskarak eginara hori ainitz erabiltzen du batuntzez edo atzizkitzez luzatu hitzen laburtzeko.

3) Aditz-izenetan *-tze* atzizkia ezta aldatzen aitzineko joilearen araura: *lantze*, *hartze* bezala. Baina ziztukariarekilako aditz erroen ondotik aditz-izen atzizkia *-te* da: *haste*, *hazte*; eta erro-partizipa *-n-ez* duten aditz zaharretan aditz-izenak sudurkaria galtzen du edo *yod* batez ordaintzen: *egon/egoite*, *eman/emaite*, *izan/izaitte* eta b.

Bururapena *-ance* moldekoa duten mailegu usuetan euskarak ziztukari pherekaria zuzen ahozkatzen du sudurkariaren ondotik: *esperanza*, idazki zaharr ezin zenbatuek erakusten duten bezala, iragan gabe baitezpada *-tza* ez pherekatutik edo afrikatutik, bizkitartean beteki sudurkariaren ahozkatzekotan, latinez egiten zen bezala, aitzineko mintzogaia sudurkatu gabe (ikus urrunago).

## 9.2. Mintzogai arteko herskarien gogortzea.

Hizkuntza erromanen kontrara, mintzogai arteko herskari latinak ozendu baitituzte 'ta gero ixildu (latin *calciata* ahozkatua *kalkiata* gero *kaltsata* > euskara *galzeta*, > español *calzada*, > gaskoin *caussade*, > frantses *chaussée*), euskarak begiratzen ditu mintzogai artean lehenbiziko herskari ozen eta gogorr haskatzeaz azkartuak ala ez: *adarr*, *athe*, *hobetu* eta berdin *-tu* partizipa guziak (ikus gorago), *leku* latineko *locu* bezala (> español *luego*, frantses *lieu*). Baina usu gogortzen ditu hastapeneko ozenak batzuntzez barneko bilakaturik: *hats-ez* egiten dira hatsa galdurik *atsegin*, *atseden* eta *gabe-ri* loturik *atsekabe*; *bide-k* egiten du *biz-i-ri* loturik *bizipide*; *elhe* eta *gorr* loturik egiten da *elkorr*, *su* eta *bazterr-ez* *supazterr*, *su* eta *garr-ez* *suk(h)arr*.

Hitz barneko gogortze horrek emaiten ditu nabarr-lapurtarreko aditz datiboak hala nola *danku*, *-gu-ren* orde *-ku-rekin* ("guri"), eta arau berdintasunez *-tzu* ziztukari ez pherekatua *-zu* pherakatuaren orde *dautzu* (ikus urrunago mintzogai biekoak) "zuri" eta b. Horri zorr zazko ere iduriz aditzek hartzen dituzten hastapeneko gogorr edo ez pherekatuak *bai(t)-* kausazko aurriz-

kiaren ondotik (baiezko aditz orotan agertzen ezten *ba*-ren kontrara): *da*, *gira* eta bertze horrelakoek egiten dute *baita*, *baikira* eta b.

Batzuntzean azkeneko eta hastapeneko herskari baten aurkintzak herskari gogorr xoilera laburtzen ditu: *bat batez*-ek egiten du *bapatez*, *merkat* (gaskoinez eta zuberotarrez) eta *bide*-k egiten dute *merkapide* ...

## 10. Hots-izen eta hitz errankorren joileak.

Mintzara ohikoan leku eta ingurumen arau ainitz erabiliak diren hitz mota horien zati handi bat atheratzen da aitzinean erakutsi den joilen egituratik. Hitz horiek badituzte ainitz aldiz ethorki hurbilak edo biziki hurbilak frantsesean eta bertze hizkuntzetan. Behazuntzat aipha daitezke:

*f*-rekin: *faranda*, *farfal*, *farrasta*, *firrifarra*, *flus*, *frixt*, *furfuria* ...

hastapeneko herskari eta multzoekin: *briu-brau*, *kilika* (-*ka* aditz-lagun atzizkiarekin), *klak*, *klask* edo *krask*, *klik* eta *kilimiliklik* (-*mili*- hemen *mihi* da), *klixk*, *kurrinka*, *tarrat*, *tirrit*, horren tipitzezko *tirritt* "deus ez" eta "mamutxa", *thu*, *turru* eta b.

\*

## Berezita II. Mintzogaiak.

### 1. Euskal-mintzogai sudurkatuen hutsa eta salbuespenak.

1.1. Latin klasikak etzituen, hizkuntza erromanek dagiten bezala, joilez jarraikiak izanik ere *-n* eta *-m* sudurkarien aitzineko mintzogaiak sudurkatzen eta beteki ahozkatzen zituen joile horiek: *graNN-dis*, *caM-pus* eta b. Itxura handia badu euskara zaharrak berdin egiten zuela *baNN-di*, *iNN-darr*, *oNN-du*, *oNN-gi*, *oNN-tze*

eta b. Baina "ohitza onak" nahi baluke ere sudurkarien ahozka-molde bete hori aitzineko mintzogaian ez sudurkatze-arekin jarraik ladin euskal-ahozkararen arautzen idazkiarekin, euskal-mintzaleak oro erdaldunak izanez, egitea lan zaila da.

1.2. Egitekoa gaizten da bi ezpainetako sudurkari herskari-  
 riez jarraiki latinez beti *-mb-* eta *-mp-* idatzien aldian, baina arrazoinean baino gehiago ohiduran eta zer nahi den ez ahozkatze-  
 zeko euskal-egituran eta ahozkararen jarria den erabilpen batek orai *-nb/p-* izkiriartzen dituenean, sudurkaria mintzogatik berex  
 batere ahozkatu gabe hortakotz, latinak egiten zuen bezala. Eus-  
 karako orthografiaz mintza daitekeen aldi bakarretarik bat da, eta  
 ez ahozkoaren itxurako idatzara xoilaz.

Lerro hauen egileak aspalditik hautatua du, ikhermenaren argitasun arroinezkoan fidatuz, *-mb/p-* idatzararen begiratzea ithurburu latineko edo bertzetako mailegu bakarretan, hala nola *kampo* (ez *landa* erran-nahian españolean bezala), eta "Cambo" bezalako izenetan, *Kambo* idatziz ohi den bezala *kaNN-bo* sudur-  
 kari mihi punttakoarekin ahozka laiteela uste ukaitera utz baile-  
 zake, izen hori euskarak zuzenean hastapeneko ozen batekin idazten zituen moldetarik bat delarik alta: *Gamo* Garazin Buzu-  
 narizko izena aldatzen ikusten dena XIV-garren mendeko *gamo*e-  
 tik hitzaren eta *-a* mugatzalearen arteko mintzogaia agertzen ikus-  
 ten baita *yod*-ekin ahozkatu oraiko "Gamy" bi silabakora heltze-  
 ko, edo *Gamue* Amikuzen eta *Gamere* Zuberon erdal-izen ofizia-  
 leko "Camou"-rendako. "Cambo" hala nola "Camou" guziak eta  
 ere Garazin "Gamarte" ("Gamo-arte"koa": oraino *gamoart* idatzia  
 XIV-garren mendean), eta Landesetan "Gamarde" (euskal-izen  
 batzunaren molde erdaldu bat datekeena), hastapeneko gogorr  
 gero ozendua ikusiz, euskarakoa eztaitekeen hitz erro ber batetik  
 eginak dira, aski zuzen den bezala urrundikako jende batzu han  
 ibili ziren eta izendatu zituzten ur sendagailuetako leku batzuetan.

Osoki bertzela doa "sudurkari-herskari" jarraipena, ainitz  
 aldiz, euskal-hitzen batzuntze batetik denean: (*b*)*aran* eta *burn*-ez  
 egiten da *haraNNburu* horren euskal-ahozka molde zuzena baita

sudurkari aitzineko *-a-* sudurkatu gabe, hizkuntza erroman ofizialak Frantzian manatu duen idatzara (*h*)*aramburu* gelditu bada ere etxe izen zaharretarik jalgi errexixtro-izenetan.

Berdin *hainbat* (ainitz aldiz mintzogai biekorik gabe *hanbat* ahozkatua), *hoinbertze* bezalako ez mugatuetan, usu idazki zaharretan "erromanaran" irakurtzen direnak *hambat* eta b., *hain* erakusleko genitibo *haren*-etik jalgia, *hoin honen*-etik, ondotik *bat* eta *bertze*-rekin; ahozkarak "ohitza onean" idatzarari eta hitz-ethorkiari arautua gelditu beharr du. Erraiten eta idazten dena bezala *hantu* egiten da *hanpatu*, hitza lotura zuzenean bada ere erdarako *ampoule*-ekin (hau latineko *ampulla*-tik: "untzi zorro handia").

## 2. Mintzogai biekoak eta biekotzeak.

2.1. Lehenbizikoak uste ukaiten ahal diren mintzogai biekoak eta haien aldapenak ez tira idazkian mintzogai oso elgarr hunkitzen duten eta bi silbakoetarik berexten. Hetan ainitz bigarren mailekoak dira eta bertze ainitz mintzogai bakarrera laburtu.

Mintzogai bieko egiazkoak silaba bakunekoak dira, eginak *a, e, i, o, u* mintzogai bete batez erdi-mintzogai *y* ("yod" deritzotena) beti *i* idatziarekin, edo bekanago *w* beti *u* idatziarekin gibelean edo batzuetan aitzinean:

"yod"-ekin:

*ai* eta *aiberr, baina, ekhain, alai, etsai, gai, garai ...*

*eiharr, leial, erein, sei, hogei ...*

*oiban, oihu, oin, othoitze* eta *othoi, sagarroi ...*

*w*-rekin:

*auben, auberr, hauts* eta *erhauts, laur, hau(r)* eta *haurr, blau* (latineko *planu*-tik), *gau ...*

*euli (uli), euri, euskara, geurtze, burreu ...*

2.2. Bigarren maileko mintzogai biekoak:

2.2.1. Mintzogai biekoak euskaraz egiten dira edo ezabazten aro eta lekuetan hizkuntzako ara eta beharren araura: *handi* latineko *grandis*-ekin lotua badiduriena gune batzuetan *haundi*

ahozkatzen da, baina *aurpegi* egina *aurr* (hortik *aurki*) eta *begi-ez* euskalkiz *arpegi*, hitzaren luzetasunak eta *aurr* eta *begi*-en ez hartzeak errextu duten laburpena.

Onharmena nabar-lapurtarrez *ba* da eta molde hortan gelditzen orotan baiezeko aditz-aurhizkian (*badut* eta b.), baina biekotzen kausako balioa hartuz *baitut*-etan eta b. Molde hisit-zekoan, hala nola *ezetxi!* - moldatua -xi lankai atzizkiaz edo \**ez-ez* errepika xoiletik - ziztukari lehenik pherekaria azken lekuan ez pherekatura iraganik hizkuntzako ixuri betikoaren araura, *baietxi* bisilabakoa mintzogai arteko *yod* beharrezkoarekin da, eta *eza* bezala *baia* du molde mugatua. Itxura handia badu "moztegitz" mota hori dela *bai* mintzoki biekotaen ethorkia, lehenik balio hisituan behar bada, gero hitz bilakaturik orotakotzera doana nabar-lapurtarrean ikastegien bitartez gehienik. Berdintasunez *ba*-ren mintzogai biekotze hori mintzara arthatuan nunbait han orotakotu den aditz-lagun *baina*-ra iragana da, nabar-lapurtarreak zuzenez *bana* ahozkatzen duelarik eta zuberotarrak *bena* sudurkari aitzineko mintzokiaren hestez, berdin ere erkidatzeko aditz-laguna *bano* eta *baino*.

2.2.2. Ahozko mintzogai-biekotze bat *-i*- idazten den *yod* baten arteratzez usu gertatu da *-n* eta *-l*-ren aitzinean: *eskuin* > *eskuin*, \**Lekuon* (Bonloc) > *Lekuin(e)*, "façon" > *fazoin*, "coupole" > *gopoil*, behar bada *anitz* > *ainitz* ... Zuhatz baten *ondo*a (latineko *fundu*-tik jalgi *ondo* "barne, zola" hitz berdinetik berex) *oin*-en ttipitzalea bada didurien bezala, mintzogai biekota galdu da.

Biekota hori agertzen ere da atzizkietan: *-rano* deklinabide bururapenekoa (*-ra* "aldera" eta *-no* "harano" gaineraturik) eta *-raino*, hiztegian *-txale* egile atzizkia (aditz *-izen* mugatuko *-txe-a* laburtuaz edo *-txa* batzuntzeko eta egileko *-le* atzizkiez egina) eta *-txaile* ... "Ohitza onean" urrundik hobe da debalde eta anitzetan berantekoak diren biekota horien baztertzea. Are gutiago behar lizatezke atzizki batzuen horiek "gaizki moztu" hitz hutsezko batzuen egiteko, hala nola *-txale*, urrunago ikusiko den bezala.

2.2.3. Erakusle *haur*-en eta erathorrien deklinabidean eremu akitaniarrek aspaldidanik genitiboa *hunen* du *\*hauren*-en *-au*-biekoa laburtzen duena *-u-* sabaikari berezia begiratur: berdin erathorrietan *hunentzē* ohiki *hoinentzē*-ra laburturik hala nola *horrentzē*, eta *harentzē* berdin *haintzē*; eremu espainiarrean gehinik (molde bikuna da oraino Dechepare Garaztarreren baitan 1545 *hon-* eta *hun-*) *-au-* biekoa *-o-*ra laburtu delarik erroman aran (*causa* > *cosa* eta b.) eta *horren* bigarren erakuslearenarekin berdintzez. Batek eztu "ohitza onean" bertzearen gaineko lehentasunik egina ezten ethorkiko ikhermen xehegorik gabe: La Fontainen "ezperdin-tasun dut ikurburua" ezaguna da ere euskararen euskalkitze naturalaren eta zatiz bederen azkarki zaharraren berezitasuna.

#### 2.2.4. Aditz jokatueta : languntzale eta bertze.

Aditz molde horien erabiltzeko usutasunak ekharri du berak mintzogaian artean ahozgara bereko edo hurbileko joilen erortzetik sortu biekoen laburtzea mintzogai xoil batera. Horrela da zuzenez *izan*-en molde zaharr *\*diza* batetik sortu dateke, *du* berdin *\*edun*-etik. Berdin, euskalkietako aldapen batzuekin, bereziki ukaileko kasu edo datiboan: *danku* nabar-lapurtarrek oraino badaduka ezaguna ezten *\*da(d)u-* batetik sortua datekeen biekoa. Baina euskalkietan *-au* biekoa egiteko bereko *yod* batek ordaindu duen *-t-* loturazko arte-herskariaz ez gerizaturik (*\*dauyo* ez ezaguna baina teorikoki segurra bertze aditz batzuetan bezala) ahots berdintze jarraiki batzuetan aldatuz (> *\*denyo* > *\*deyo*) nabar-lapurtarrean salbu bi silabako *dio*-ra laburtu da, orduan *dio* "erraiten du" (*dio* "erraiten dut" bezala) ohikoaren berdina, hau *\*ion* berregiten den erro zaharr ez erabili batetik.

*Egon* aditzaren molde jokatuak zuzenez *dago*, *nago* eta b. dira. Baina ainitzeko moldeak *daude*, *gaude*, *zauden* eta b. ageriki sortu dira ezagunak eztiren *\*dagote*, *\*gagote*, *\*zagoten* eta b. molde zuzenetarik ahotsarako higatze xoil batzuen bidez: *-te* atzizki ainitzekoaren ozentzea berdintzez *-de*-ra, ezperdintzez *-g-* arteko herskariaren erortze ondotik (\*). Molde beteak gelditu dira

bekanago erabili eta beti hobeki begiratu diren bi personako jokabide molde aintzekoetan, iragangaitzean ukaileko kasuarekin, hala nola *gagozke(i)o*, *zinagozkieten* (ikus 3-garren zatia).

(\*) 1657-an Oihenarten baitan irakurtzen den *dagotenari* molde bekanak badu *-te-* ukaile aintzeko atzizkia, *daude-* moldean hartua izan elizatekeena hor *-de* heren persona ez erranaren jasaileko kasu ainitza baita: egiazki *-e* aintzekoa da *-t-* loturazko joilea berdinduz *-d-* ozendurik aitzinean. Aintzeko ukaileak aintzeko jasailearekin behar luke bi ainitzen errepikatzea, ukailea jasaileaz jarraikirik azkenean: *\*dautete* (ikus 3-aren zatia: jokabidea).

## 2.5. Orotako hiztegian.

Ahozko biekotzea azkeneko *-e*, *-o* edo *-u* mintzogai baten eta mugatzale *-a*, *-ak* eta bertzeren elgarr hunkitzeko ondorioa da. Bierarteko moldeak *yod* bat arteraturik agertzen dira 1545-ean argiratu zen euskal-olerkietako lehen liburuan, "bermoldatzerik" gabeko ahozgara egiazkoa itxuratuz: *burua* > 1545 *buruya* > orai ahozkoan *buria* hirur silabetan gelditua, aldiz *astoa* > *-w-*rekin *-o-*ren orde bi silabako *astwa* delarik eta b. "Ohitza onak" nahi du ahozkoan idazkian bezala ara betean eta moldamenez zuzenean edo zuzenenean egoitea, leku eta etxe izenen idatzaran, *-a* mugatzalearekilako bururapenekin ohi bezala eta beraz *-ea* eta *-ua* zuzenekin abantzu orotakotu diren *-ya* (idatzia *-ia*) silaba bakarreko edo *-ia* bi silabakoen orde, horrela Garatea, Haranburua, Landaburua, Ospitalea eta b. Nun nahi ezarri diren pankarta ofizialak eretz hortan urrun daude bizkuntzako zuzentasun xoietik, guziez onhartua beharr lukeelarik alta aintzek mendek iragan dituzten izen horientzat.

# Zati bigarrena.

## Hiztegia. Hiztegiaren eta gramatikako egitekoen moldamena.

### Berezita I.

#### Hiztegi berezi eta hiztegi mailegatu.

Jakina da hiztegi oro galtzen dela eta beraz ordaintzen eta aldatzen aroetan zeharr. Euskarak orotara derabiltzan edo erabil dezazkeen bizpahirur hamarr mila hitzetan ehuneko 80-a nunbait han latinari eta auzoko hizkuntza erromaner (gaskoin eta gaztelara Ertarotik, ftantsesa XV-garretetik hasiz) hartua zaien arren, jadanik ikusi diren egokitze moldekin ala ez, gelditzen diren ehuneko 20-etan aurkitzen da, aldi eta gaien araura, euskal-erranaldi baten osagailuetako gehiena edo berdin osoa dagien oinarria, hitz et hizki. Oinarri hori lotua izaiten ahal zako "ural-altaikak" deritzoten hizkuntza zaharraren eremu zabalari.

#### 1. Latinean eta hizkuntza erromanetan hartu ezten orotako hiztegi zaharra (\*).

(\*) Hitz horiek eta bertze ainitz aurki daitezke "Liburutegi laburpenean" aiphatzen den Michel-Morvan-en lanean.

*ama, aita*: abantzu hizkuntza orotakoak dira; *ama* zumeriarretik drabidiarrera, dogonetik inuitera: hizkuntza hortako *amaama* errepikatua "diti/titi" da, eta euskarako haurr-elhean *mama* "edari"; *aita* zeltako *atta*-tik turkako *ata*-ra hortik *Ata Türk* izengoiti ezaguna "Turken aita";

*agin*: zardara zaharrean *agini*;

*apurr* "guti": hungariarrean *aprö* "ttipi";

*baso* "oihan": turk *basu* "alhorrr", tunguza *bosog* "oihan";

*buru*: turk *burun* "buru", munda *buru* "mendi";

*egin*: yukaghir *gin*; mongol, ainu *ki* eta b.;

*elhe*: mongol *xele*, dagur *bele* eta *b*;  
*eman*: oztiak, tunguza, amerindiarr *ma*;  
*eri*: drabidiarrean "sukharr, min";  
*etxe*: khoizan *etsa* ("etxe"); turk *etch*, *esbe* "barne, -tegi";  
*ež*: altaika *ež*, mongol zaharr eta xaponiarr *ese*, uraldarr *e*-,  
*ebe*;

*gabe*: eurasiarr *gab-* "hustu";  
*gari* "ogi landare": armeniar *gari*; kuxitika *gari* "bihi, hazi";  
*garagarr*: kaukaziarr *gargar*, *gerget*; hebrearr *gargar* "bihika";  
*gatž*, *gazž*: drabidiarr *kas* eta mongol *gasi* "kharats"; kexua  
*katchi*;

*goi*: zamoieda "ordoki gora";  
*gurr*: euraziarr *gur/ kur* "gurtu";  
*bagin*: Kaukaziako gunzib *bagin*, *xagin* "hortz";  
*hauts* eta *erhauts* (\*): ieniziarr *bu's* "erhauts";  
 (\*) Euzkaraz *hauts* erroa "erhauts" erran nahian izana dateke  
 aldizkatua izan baino lehen *erre-hauts*-ekin ("errearen hautsa!");

*hi*: tunguza *hi*, giliak *tchi*, algonkin *ki*;  
*iben/ ipin*: kaukaziarr, ural-altaika, drabidiarr *pin*, *pen*;

*ile*: drabidiarr *ile*;

*ikus*: turk *kus*, *kur*;

*iri*, *hiri*: iberiar *ili*, zumeliarr *uru*, *iru*;

*jan*: auztroneziarr *ian*;

*lagur*: magiarr zaharr *legun*, oztiak *lag-*;

*larre*: oztiak *lar* "phentze, soro";

*lobi*: uzbek *loi*;

*lurr* eta *el(h)urr* behin erro berekoak izanak datezke:  
 txetxenean *lea* "lurr" eta *luo* "elhurr"; altaikan *tur* eta zumeriarrean  
*dur* "lurr";

*marro*: turk eta albaniar *mar* "ahari", afrik-aziarrean *maru*;

*mebe*: drabidiarr *mehi*;

*muga*: drabidiarr *mug-* "buraratze";

*neska*: *-n* emazte hikatzeko hizkia (*no!* emazte bati); uraldarr  
*ne* "emazte", lapon *n'i*, korearr *en*, turk *-n*, algonkin *ni*;

*ni*: zamoieda *ni*, giliak *n'i*, korearr *en*, turk *-n*, algonkin *ni*;  
*nigarr*: mingreliarr *ngar* "nigarr egite";  
*ohol, olha*: mongol *ól* "olha";  
*ogi*: kaukaziarr *og* "garagarr";  
*sagu*: kaukasiarr *tagv, stagw*;  
*su*: zamoieda *su, shu*, tunguza, finlandiarr *sü-*, ainu *su*  
 "egoste";  
*ur*: zamoieda "ur";  
*ɣur*: tunguza *su*;  
*ɣuri*: txubaxa *sur*, kopi, manzi *sor*, ieniziarr *sur* "urdin" eta b.

## 2. Hitz zaharr eta hitz mailegatu.

Hitz bilduma oso edo abantzu osoek (euskal-hiztegi orotarik ezta zinez hala gaurregun) hartu dituzte han edo hemen euskal-idazkietan erabili diren erdal-hitz elementuak, hitz ethorkizkoak edo aspaldidanik bederen hizkuntzari egokituak bazirelarik zin-zinez. Behazun aipatu baten ez hartzeko baizik euskara orotara gaitasun ohigabekoa duen idazle baten baitan, Joanes Leizarraga, 1571-an Erroxelan haren gastuz imprima-arazia zuen *Testamendu berri*-ko eskaintzan Nabarrako erregina legezko Juana Labrit 1560-an protestant bilkatua zenari, bere "aphaltasuna" erret-boterearen aitzinean erraiten du *bachotasun* hitzaz, P. Lhande jesuistak bere *Hiztegi* aipatuan (*Dictionnaire basque-français*) emaiten ere etzuen, arrazoin onez beharr bada, nahiz ezartzen duen *baxo*. Hitza espanyoleko *baxo*-ri hartua da, eta etzenean oraino XVI-garren mendean gaztelarako "jota"-rekin ahozkatzen baina xixtukari sabaikatuarekin, frantsesez "bas", hitz horrek egin baitzuen aro berean "Basse-Navarre" *Baxe-Nabarra* ("garaiko"-tik eta Iruñe hiri nagusitik 1530 inguruan berexia), euskarazko *-tasun* atzizkiarekin. Horrekin berarekin erabil zezakeen erran-nahi bereko *aphal* Ertaroko hitz zahar osoki hedatua, eta egin *aphaltasun* itxura hobeko bat.

Euskara akitanianak mailegatu ditu berak etzuen azken *-e* mutuarekilako hitz frantsesak, hortaz hitz-egiturako *-a* bat eginez,

horrela "téléphone" > *telefona*, ordainkatze bat baizik eztena, Ertaroko erdarak, gaskoin ala frantses, euskarako *-a* hitz egiturakoak edo mugatzaleak *-e-ra* aldatuak zituenaz geroz: Mendiaga > "Mendiague", Mendiburua > "Mendiburue" (XII-garren mendean Akizeko Kartategian) oraiko "Mendiboure". Horrela egin da *telebixta* erdal-mailegu bertzela ohikoa den españoleko *vista*-rekin (euskaraz *ikuspen*, *ikuste*).

Ilabeten euskal-izenek, zuzenki "ilargiak" edo "ilargitaldiak", *ekhi* (hitz hortan eta zuberotarrean atxiki da, bertzetan hortik erathorri *eguzki* edo *iguzki*) gorenaren edo *gain*-aren "ila" den *ekhaina* salbu, bertzelakatzeko gutirekin euskalki eta aroen araura, jasan dute batzuetan egutegi erromatarr ofizialen eragina. Ustegabetzen da noizten herrialdeko galdekatzetan hain gilika diren euskal-kulturako atzinekoek nolaz eztuten, ezpada bortxatu horien boterea gaintitzen baitu, bederen hemen egiten den bezala aholkatu izen egiazkoenen hautatzea:

*ephail* landareak ephaiten edo "mozten" diren ila;

*jorrail* horiek berak jorratzen direna (nahiz latineko *april*-tik hartu den *ap(b)iril*-aren ahozkarako egokitzea hitz hortan hauta den eta zaharra);

*o(r)staro* edo *ostail* orstatzeko "aro" edo "ila", *maiatz*-en orde (iduriz erdalki *maiade* ilabete hortan ordaintzen zen arno eta sagarnoen zerga zaharretik);

*negil* "neguko ila" *abendo*-ren orde ilabeteko, hitz hori geldituko delarik nahitez liturgiako, ez *abendu*, nabar-lapurarrak mendez geroz eta elizako hiztegitik aldi hortan (latin *adventu* "ethortze"), bertze batzuetan ez bezala (latin *caelu* "kaelu" ahozkatutik gero erroman zaharr *tzelu* > *zeru* euskaraz), hemen *-u* latinak *-o* eman baitu ainitz aldiz bezala (lat. *nigellu* > euskal-etxe-izen > *negelo*).

Zorionez nabar-lapurarrak begiratu du *agorri* "agortzeko ila" latinki aldatu *abuztu* (< *Augustu* lehen emperadorea Erroman) baino lehen.

Hautu bera egin behar da *athe* bezalako hitz ezagunetako, ez *borta*, *bereziki* (bada ere *espesuki* hobeki egokitua) ez *partikulazki*, *bakarrik* ez *solamente* eta b.

Izan daiten zaharrak ala mailegatuak balio handia du hitz onen hobesteak euskal-ahozkarako bere molde ohikoan. Hizkuntza erroman nagusiak, ala "ofizialak" ala "estatukoak", aro guti edo aski luze batean hizkuntzako berezitasun beharrezkoak hunkitu edo gaizkitu ere ahal baditu, euskalkietako hiztegi guziek begiratu dituzte, hizkuntzako egitura osoan bezala, egiazko euskal-ekhai beteginak, ala hitz-erroetan beretan ala haien molde erathorrietan, eta egin.

### 3. Hiztegiko silabaldea.

Baztertzen badira zenbata moldea bezala aldagaitza duten izen-lagunak, nahiz deklinagarriak izan beharr duten, eta aditz-lagun moldatuak, izenaren, izen-lagunaren eta aditzaren motak handizki orobatekoak dira euskaraz moldearen aldetik, hizkaiak izan daiten xoilak ala hitz-erro bakarr batera erakhargarriak, barneko ikhermenak (euskaran berean) edo kampokoak (bertze hizkuntzekin erkidatuz) delibera dezakeen neurrian, ala batzunak.

**3.1. Silaba bakunekoak**, ehoiz ez ahots bakarr batekoak, ainitz dira. Hitz-oihu batzu salbu (*ai!*, *atx!*, *oi!*, *au!*), silaba bakuneko hitz guti dira hasteko mintzogai garbidunak hatsik gabe: *arr*, *ez*, *iz* ("ur" hiztegi zaharrean), *il*, *or* ("zakurr"), *ur*, *urr*, *utz*, edo hasteko mintzogai bikunarekin *ai* ("malda"), *aitz*, *oin*.

Ainitz dira aldiz hasteko joilekilako silaba bakunak, *ba* edo *bai*, *bil*, *boz* ("algera"), *gal*, *garr*, *gorr*, *harr*, *hats*, *harz*, *horr*, *lan*, *lats*, *lats*, *lurr*, *moz*, *mun*, *sarr*, *sal*, *sorr*, *su*, *zorr*, *zu* ...

Joilez hasi silaba bakun batzu bieko mintzogaidun dira: *hain*, *haun*, *haur*, *haurr*, *hauts*, *hein*, *hain*, *hoin*, *gau* eta *gaurr*, *haun*, *jauts*, *jeik*, *joan*, *lau* (mailegua *planu* latinetik), *laur*, *sai*, *sei*, *soil* eta *xoil*, *soin*, *zail*, *zain* ...

**3.2. Bi silabako ainitz** (aditz molde jokatuak erran gabe) hastapeneko mintzogai bakarr edo biekodunak dira; huna hemen zenbait:

*adin, agerr, agorr, akherr, ala, ale, alba, ama, apha, apha, apho, ara, ari, aro, arotz, ase, aste, asti, asun, atso, atzo; aza ...*

*aiberr, aiphu, aita, auberr, auzi, auzo ...*

*edan, ederr, edo, egin, egon, egun, egurr, eho, ehor, ehun, ekharr, ekhi, eman, elbe, eli, eme, ephe, eri, erbi, erne, ero, erro, etsi, etzi, ezen, ezin*

...

*eiharr, eiki, euri ...*

*ibai (lehenago bai), ibarr, ibi, igan, igorr, ilbarr, ilun, ipharr, irin, irun, itsu, izotz ...*

*odol, oharr, ohe, ohoin, okherr, olba, olo, omen, opil, ophorr, otso ...*

*oibal, oihan, oihu, oilo;*

*ubel, ubil, uda, uharr, uherr, ukho, uli, ume, une, urbats, urin, urrin, urrun, usain, uzi ...*

Hastapeneko joilekin bisilakako ainitz egiten da, behazunez: *beso, bete, beti, bizi, buru, diru, gero, guti, beda, bedoi, hiri, hura, jeinu, joko, lauso, musu, muturr, p(h)iko, sasu, satsu, sudurr, zalu, zilo, zimurr, zobi, zubi ...*

**3.3. Hitz hirur eta gehiago silabadun** gehienak batzunduak eta atzizkituak dira edo maileguak: *askari, auhari, azeri, auherkeria, bahazuzza, baketsu, ebasle, errege, errepublika, garagarr, halaberr, zorion, zorigaitz ...*

Euskal-hitzak, gehienetan laburrak, batzuntzen edo atzizkitzen dira nahitara, Berezita III-an erakusten diren molde ontsa mugatu batzuen bidez egiten dena.

\*

## Berezita II.

### Izenordeak eta izenaren mugabidea.

Izenorde guziak euskaraz izen ez mugatuak bezala deklinatzen dira sintagman edo erranaldian duten egite-koaren araura.

#### I. Personako izenordeak eta mugatzale jabetasunezkoak.

##### 1. Elgarrizketako personak.

Bakuna: lehenean *ni*; bigarreanean *bi*.

Ainitza: lehenean *gu*; bigarreanean *zu* lehenagoko ainitza ezta erromanean bezala "zuka" mintzatzeko baizik erabiltzen, beraz jendetasunezko bakunean. Euskarak ainitz berri bat egin behar ukan du *zu*-ri izen ainitzaren deklinabideko atzizkiak emanez: nominatibo (iragan-gaitzeko gai eta iragankorreko jasaile) eta ergatibo (iragankorreko egile) *zuek* eta b.

Izenorde personalak izen mugagabeak bezala deklinatzen dira, *-a* atzizki mugatzalerik gabe (ezpada izenordea izeneratuz erran nahi *nia* eta b.), baina atxiki dituzte "aitzinarokotzat" harr daitezkeen *-re* (bertzetan eta geroztik *-ren*) atzizkiarekilako genitiboak, izenen mugatzale edo jabetasunezko izen-lagun bezala erabiltzen direnak: *hire*, *zure* eta b.

Aditz jokatu molde guzietan egintzako personak, egile edo gai, jasaile, ukaile, hizkiez itxuratuak dira: aurrizki, atzizki ala arthizki (edozein atzizki badenean ondotik):

*ni* aditz jokatuan ondoko moldetan agertzen da:

1) aurrizkiturik *n-* iragangaitzeko gaia oraian (*ni*?) eta, jasailea ezpada bera persona lehen edo bigarrena, iragankorreko egile ez-oraian: *nuen*, *baldin banu*;

2) aurrizki luzatuan *nind-* ez-oraian (iragan eta baldintza): lehenik iragangaitzeko gai (*nindoan*); eta bigarrenik iragankorreko jasaile: *ninduen*, *ninduzun*, *ninduzuen*, (*baldin*) *banindute*;

3) atzizki edo arthizki *-t(-)*:

3.1. iragankorreko egile bezala oraian (*bada(d)ukai*) eta jasaile beharrez aurhizkitua bera persona 1 edo 2 denean ez-oraian (*ikusia hindutan*);

3.2. ukaile (datibo) bezala iragankorrean: *emana daut, emana dautazu, emana zinautan, emana baldin balaut*; eta iragangaitzean ukailearekilako jokabidea ohikoa baita euskaran: *egon zait*.

*hi* agertzen da *ni*-ren aldi beretan, baina sesuaren araura molde laburr atzizkitu eta arthizkituetan bi ahots ezperdinetan: **-k** arra, **-n** emea, eta, berriz erraiteko, euskal-moldakuntza 'ta juntaduran arr-emeak agertzen diren aldi bakarra da;

**h-** edo **hind-** aurhizkiturik (*hiz, hintzan, hinderamatan*), **-k** edo **-n** arthizkitu edo atzizkiturik: *ikusi nauk, eman daunat*. (\*)

(\*) Ahotsarako arautzea *n-* eta *-t-* mihi puntaz ahozkatu joilen artean aski ageri bada, eta berdin usu aldizkatzen diren zintzurrean ahozkatu *h-* eta *-k* herskariaren artean, ahotsara eta moldameneko arr eta emearen arteko aldizkatze horrek mintza-molde biziki zaharr batzuetara digorra.

**gu** eta **zu**, hau *-e* ainiztzalea gaineratuz ainizturik *zue-* (nominatibo eta ergatiboan *zuek*, genitiboan *zuen*), egitura beraren araura agertzen dira:

**g-de**, **z-de**: iragangaitzeko gai, *gira* lehenago *girade* ainitza errepikatzen duen *-de*-rekin, *gaude*, *zaude*: ainitzean gaineratu behar izan da ainiztasuneko atzizkia *zaudete* eta ere *-z-* ainitzekoa berdintasunez *zaudezte*;

**git-**, **zait-**: iragankorreko jasaile (euskalkietan ber-dintzez *gait-*, *zait-* literaturako hobeak edukitzen direnak batzuetan), *g-* eta *z-* personako aurhizki laburtuerr emai-ten zaie *-it-* ainitzeko arthizki errepikazkoa hemen eta 3-garren personan *dit(u)-* beharrezkoa den ainitzarena, *d-* oraiko aurhizkia izanez, ez personakoa;

**gin-**, **zin-**: ez-oraian 1) iragangaitzeko gaia, 2) iragankorreko egilea, eztenean jasailea persona edo ainitza: *ginauden*, *ginuen*, *baginakien*, *baldin baginaki*;

**gin(in)t-, zin(in)t-**: personako jasaile gorago bezala ainitz errepikatuarekin, egile errana persona 1 edo 2 balin bada: *ikusiak gintuzun, (baldin) bazintuzten ...*

Erakusle hurbil *haur*-ekin batzundu personako izenordek egiten dituzte balio indartu edo hantuzko izenordeak: *nihaur, hihaur, gubaur, zuhaur* jendetasunezko bakunean *zubaurek ikus*, ainitzean *zibaurek*.

## 2. Hirugarren persona eta erakusleak.

Hirugarren persona (latinean bezala: *ille, iste ...*) izenorde erakusletarik batek erraiten du euskaraz: *haur, hori, hura*.

Euskal-erakusleak, izenorde, ala izen mugatzale bezala beti izenaren edo izeneko multzoaren ondotik ezarririk, bakunean eta ainitzean deklinatzen dira bere edo izeneko multzoaren egitekoaren arabera. Horien deklina moldek berezitez batzuetan badituzte orotako deklinabidearen eretzean (ikus Berezita II).

Aditz jokabidean, 3-garren personako gai edo egile bakuna ezta euskaraz errana, horrek erakusten baitu eztela berez egiazki "persona" eta molden araura (ikus gorago eta beherago) modu-aroetako aurrizkia agertzera uzten: *d-* oraia, *z-* iragana, *l-* baldintza, *b-* manuzkoa.

Salbu:

2.1. ainitza delarik, orduan ainitzeko (ez personako) hizkiak agertu beharr baitu:

iragangaitzeko gaian atzizki *-de* edo *-te*, *-z* edo *-tza*: *dirade* lehenago orai *dire* edo *dira*, *daude*, *doaz*, *dabiltza*;

iragankorreko jasailean *-it-* arthizkia *-u-* aditz-erroaren aitzi-  
nean *\*edun-*etan: *ginituen*; bertze aditzetan erroaren ondotik *-zki-*:  
*jakin-*en *-aki-* erroarekin *bagin-akizkien* haplologiaz laburturik  
*baginazkien*; edo *-tza*: *eraman/ereman-etik bagineramatzan*;

2.2. ukaile-datiboa delarik aditz guzietako *-o-* da bakunean, *-e-* ainitzean (\*): atzizki-arthizki *-o-* horrek *yod* bat aitzinean du aditz-erroari lotzeko euskalki batzuetan, eta bertze batzuetan *-k-* herskaria, *\*edun-*en erroa *-au-* (*-adu-tik*) gerizatu duena erdiko

nabar-lapurtarrean eta zuberotarrean: *joan zako* edo *zaiio*, *egon zeztee*, *eman daukot* edo *diot* (\*\*), *eman hauen* (ahozkoan *been*-era laburtua).

(\*) Ezta jakina *-o-* bakuna *hori* bezalako erakusle baten hatza denez. Euskaraz *-e-* ainitzaren orotako seinale bat da.

(\*\*) Bisilabako *diot* molde hori, *diot* ("erraiten dut") *\*ion* erro zaharretik eginaren berdina, *\*dauyot* > *\*deyot* > *diot* ahotsarako aldakuntzaren ondorioa da.

### 3. Jabetasunezko "izenlagun" mugatzaleak.

Personako izenorde *-re* zahartua erran daitekeen genitiboan deklinatuaz eginak dira eta beraz beti izen mugatuaren aitzinean ezarriak eta aldagaitzak.

Genitiboko izenorde horiek mugaturik egiten dituzte izenorde deklinatu berriak: *hirea*, *gureak*.

Erakusle batek genitiboan balio du jabetasunezko heren persona eztenean hau egilera edo gaira itzulia: *ikusit dut hunen lana*. Jaberera itzuliarendako ikus urrunago izenaren mugatzea.

Jabetasuneko izenlagunek badituzte molde apurr bat hantu batzu biziki erabiliak: *neure*, *heure*, *geure*, *zeure*, izenorde azkartuerr lotuak *nihaur* eta b. (ikus gorago), iduri baitute horien genitibo zaharrak; badira jadanik *nerre* bezala Veleiako idazkietan (IV-garren mende inguruan).

### 4. "Elgarrekilako" izenordea.

Ainitz aldetarik elgarrizkatzeko hizkuntza den euskarak badu elgarrekilako izenordea, nominatiboa *elgarr* (balio du "bat eta bertzea" bakunean, ainitzean "batzu eta bertzeak"), izenorde baizik izan eztaikeena eta nehoiz izenaren mugatzale.

Zenbakirik eta zenbaki markarik gabe izanez, bakuna edo ainitza izan daiteke ingurumenaren araura. Ezin daiteke erranaldiko gai edo egile izan: *\*elgarr egon dira* ezin errana da, baina *bata 'ta bertzea egon dira* edo lehena mugatu gabe *bat eta bertzea ...* Erranaldi iragankorretan berdin *elgarrek egin dute* ezin da edo

bederen ez erabilia. Aldiz erraiten denean *elgarr ikusi dute* edo *elgarr entzun dugu* izenordeak nominatiboan jasailearen egitekoa du, 3-garren personako egilea *-te* aintzeko atzizkian agertzen delarik eta lehena *-gu* izenorde atzizkituan.

*Elgarr* izenordea personetako egoki diren bertze kasu guzietan deklinatzen da: datibo *elgarri*, izen osagailu *elgarren*, laguntzale *elgarrekin*, lekuko geldi *elgarretan*, norapaiteko *elgarretara*, nubaitikako *elgarretarik* eta b.

## II. Izenorde eta mugatzale erakusleak.

**1. Hirur euskal-erakusleak** eta haien erathorriak ezagugarri dira hastapeneko hats azkarr batetik eta berez derakutsatzate hurbiltasunezko hirur mail mintzale egiazko ala alegiazkoaren eretzean, hortan aski erkidagarri hirur erakusle latinekin: *hic*, *iste*, *ille*:

**haur:** *herri haur*,

**hori:** *etxe hori*,

**hura:** *emazte hura*.

Hitz horien ahotsarako egitura ezta orobatekoa zer ere duen erran nahi. Guzien hasteko hatsaren ondotik badira: 1) lehenik hurbilean *-a-* mintzogaia *-au-* biekoan, *-o-* artekoan, eta *-u-* urrunean; 2) bigarrenik joile dardari ahula *-r(-)* orotan (oraiko ohitza ahozkoan ezabatua hurbilean baina ez erathorrietan); 3) hirugarrenik mintzogai jarraipena aldizkatua *-au/-u-a-* hurbilean eta urrunean.

Izenorde ala beti izenaren ondotik mugatzale, deklinatuak dira bere edo mugatzen duten izen ala izen multzoaren egitekoen araura bakun eta ainitzean. Eta ezpaitaiteke edozein hitz erakusle izan bakunean ez mugatua, deklinatzen dira ez mugatuan erran nahi da ordaintzen duten *-a* mugatzale berezia gabe.

**2. Erakuslen deklinabideak** berezitasun batzu badaduzka bere moldamenen beren, erabilpen luzearen eta euskalkitzearen ondorioak direnak, hala nola genitiko jabetasunezkoan: *\*hauren > hunen/honen*.

Nominatino edo "absolutiboan" (iragangaitzeo gai eta iragankorreko jasaile), ergatibo edo egilean eta bakuneko eta ainitzeko genitiboan gelditzeko, nabar-lapurtarrez, bertze kasu guziak horien erathorriak baitira, huna moldeak:

nominatibo bakuna:	<i>haur,</i>	<i>hori,</i>	<i>bura.</i>
ainitza:	<i>hauk,</i>	<i>horiek,</i>	<i>haiek/hek.</i>
ergatibo bakuna:	<i>hunek,</i>	<i>horrek,</i>	<i>harek/bark.</i>
ainitza:	<i>hauek,</i>	<i>horiek,</i>	<i>haiek/hek.</i>
genitibo bakuna:	<i>honen/hunen,</i>	<i>horren,</i>	<i>haren.</i>
ainitza:	<i>hauen,</i>	<i>horien,</i>	<i>haien.</i>

Molde mintzogaibidunak ezperdinki laburtuak dira eta aspaldidanik, hala nola *hek* < *haiek*, *hetan* < *haietan* XVI-garren mendea baino lehen (Dechepare). Irakurtzen ere da eta oroz gainetik ohiki erraiten *hauk*-en orde *hok*, *haiek* edo *heiek*-en *hek* bezala, eta arteko ahots bat sortzen da molde bekanago batzuen egiteko: *hekiek* eta b.

### 3. Hirur erakuslek egiten dituzte:

3.1. lekuzko aditz-lagun batzu lekuko kasuetan deklinagarriak:

*haur*-ek inesibo (mugimendu gabeko lekua) zaharr *\*hauren* aldaturik egiten du *hemen* (sudurkaririk gabe zuberotarrez *heben* eta ere *hebe*), eta hortik norapaitekoa *hemendik*, lekuko genitiboa *hemengo*: *hemengo etxekanderea*; baina *hunara* norakoa, *hunen/honen* genitibo moldetik eta *hunarano* bururakoa berdin;

*hori*-k egiten du *horr* (uste ukan daiteke *\*horiren* lekuzko zaharr baten aldapena dela), eta hortik, *horrara*, *horrarano*, genitiboan *horke*: *horke aroa*;

*bura*-k egiten du *han* inesiboa (iduriz *\*buran* baten laburpena), eta hortik nunbaitikakoa *handik*, norakoa *hara*, bururakoa *harano* eta genitiboa *hango*: *hango jendeak*.

Euskara lotzaleak aski ohikoa duen atzizkien metatzeak molde debaldetan luze batzu egiten ditu eta horren gatik "ohitza oneko" guti egokiak, hala nola *hunaradino*, argitzen baita *-at* atzizkiarekilako norapaitekoa bezala *-no* bururakoari loturazko *-e*-su-

durkari aitzinean *-i-* hetsiaz estekatua. Gehiago luza daiteke: *hunaradinokoan* (5 atzizki eta loturazko mintzogaia) *hunaranokoan*-en orde, edo *hunara(te)koan*.

3.2. arazko aditz-lagunak *-la* atzizkiarekin (ikus atzizkitzea): *bola, hunela, horla, horrela, hala*.

Frantsesez bezala lehen biek bakarrik dituzte aditza balio duten erakusle beti aitzinean ezarriak egiten: *huna uda, horra negua*, iduri baitute xoilki erakusle erroak *-la* aditz-laguneko atzizkiari hurbil den (horrekin berdintzen da euskalkiz zuberotarrean) eta itxura guzien arabera *-a* harateko atzizki zaharra denarekin (orai *-ra*: *hunara*)

**4. Genitiboko erakusletarik** erathortzen dira edo batzuntzen izen-aditz lagun edo mugatzale indardunak eta nasaitasunezkoak:

4.1. *hoin* eta *hain* (*hauren* eta *haren* genitiboetarik) bakarrik eta izen-lagunaren aitzinean (*hoin handiak dira*) beharrez oihuzko doinuaren emaila dira: *hain urrun daude!*

4.2. *-bat*-ekin loturik: *hoinbat, horrenbat, hainbat* eta b. izen ez mugatuaz jarraikirik: *horrenbat etxe*;

4.3. *-bertze*-rekin arau berdintasun bat erraiten dute *hoinbertze, horrenbertze, hainbertze*, eta batzuetan *bertze* aitzinetik errepikatuz berdintasuna azpimarratzen: *bertze hainbertze diru badute*;

4.4. erakusle ez mugatu horiek lekuko galdatzale *nun* egin-tzazko *-bai(t)-ez* aurhizkitu aditzaz jarraikirik ondoriozko erranaldi menperatu bat egiten dute: *hainbat egin dute nun ... , hain handiak ziren nun ...* Egitura horrek erromanaren errepika iduri du eta ohitza onean *nun/non* baztertzen ahal da ezpada erran-nahiko dudarik.

### III. Galdezko izenorde, aditz-lagun eta mugatzaleak.

Euskarak moldetik berexten ditu galdezko hitzetan bi lerro: bat izenorde eta aditz-lagun *no*-tik hasiena, bertzea *ze*-tik

dagitzana ere erathortzez mugatzale orotakoak. Zuzenez galdea hasten dute bertze galdezko ikurrik batere gabe:

### 1. *No-tik hasten den lerroa.*

*nor(r) ?* personako bakarra da: *nor ikusi duzu?* Azken dardaria errankortasunez azkartu da ainitz aldiz azkenean bezala baina ahula zen lehenago deklinabidean gelditu den bezala: datibo *nori*, genitibo *noren*;

*non ?* (zein lekutan?) lekuzko kasu inesiboko *-n* atzizkiarekin, nabar-lapurtarrez sudurkari aitzinean mintzogai hestetik *nun?* baina dardari aitzinean orotan *nora ?*;

*nola ?* (zer moldez?) aditz-laguneko *-la* arako atzizkia-ekin: *nola da?*

Ezezko batzundu ethorkizko ez ezagunek, *\*e<sub>z</sub>-norr*, *\*e<sub>z</sub>-non*, *\*e<sub>z</sub>-nola*, ezabatu dukete hastapenetik (\*) euskal-ahotsarari jarraikiz aditz jokabidean bezala (ikus 3-garren zatia) sudurkari aitzineko ziztukaria eta eman *\*enorr*, *\*enon*, *\*enola* hirur moldetan aldatu direnak:

1) Espainiako euskalkietan mintzogaiaren hestez sudurkari aitzinean *\*inorr*, *\*inon*, *\*inola*, hau gero sabaikaturik espaniarran *iñorr*, *iñon*, *iñola*;

2) Akitaniakoetan mintzogai arteko sudurkaria hatsaz ordainduz *ehorr*, *ehon*, *ehola* "ohitza onak" berriz erabili behar lituzkeen molde klasikak baitira;

3) azken horiek, galdezko hitzekin berdintzez, eta ezezko hitz erromanen eragin zenbaitekin ere, *n-* sudurkaria aitzinean berregin dira: *neborr*, *nebon* edo *nibun* eta *nebola*. Ez mugatu horiek deklinatzen dira eta erathortzen aditz-lagun berriak eginez: *nihundik e<sub>z</sub>*, *nebolaz ere*, *neholatan ...*

(\*) Edo bederen *e<sub>z</sub>*-ek mongol eta xaponiarr zaharretako *e<sub>ze</sub>* ordaindua ukan zukeenetik, uraldarrean *-e*: euskaraz ohiki entzuten da ziztukari gabeko *eee* luze bat itxura gutiko zerbaiten ezeztatzeko, frantsesez "noon" bezala.

## 2. Hasteko *ze*-rekilako lerroa.

**2.1. Zer:** *zer egin duzu?* Egiten dira horren erathorri batzundu edo ez mugatuan deklinatuak: *zergatik*, *zertako* (errannahian aitzinekoarekin hutsez nahasten den prolatiboa), *zertara*, *zertan* ...

Galderik gabe eta *-a* mugatzalearekin *zer* galdezkoak egiten du *zera* "gauza" errannahian, *zer bat*, eta ere *zera* "Holakoa" izen berezia ixiltzen edo ahazten zakon norbait erranez. Ezezko *e*-aurhizkiturik *ezer* "deus, deus ez" da. Baditu molde deklinatu batzu aditz-lagun balioan gelditu direnak:

genitibo (edo inesibo) *zeren* edo *zeren eta*, aditz *bai(t)*-ez aurhizkituaz jarraikirik ala ez Axularren erran-bidean bezala: "*ceren nola ezpaicara bi mendetako ... esperantça baitut ...*"

partitibo *zerik* "hala nola, bezala" erkidapen eginez.

*Zer*-ek egiten ditu ere erran edo itzuli batzu: *zer nahi* ("edozein gauza, nahi dena, nahi den bezainbat") ohian hitz bakarr idazten dena, *zer nahi den* zuzenki erraiten ere dena *zer den ere*. Aditz-lagun eta *ere* lokailuarekilako itzuli horrek aditz-erro batekin egiten ditu kontra-gogoko balioa duten itzuli azkarki erabiliak: *zer gerta ere* ...

### 2.2. Zein:

Galdezko hori idazlez aintz erabilia izan da erlatibo erroman ez estekatu baten balioko bezala bereziki itzulpenetan: *liburu hura, zeintan hau irakurtzen zen* eta b. Nahiz aspaldidanik ezaguna idazkian, egitura hori erdarako errepika da: lehengo mintzalek etzuten ezagutzen ez eta zinez behin ere erabiltzen, izenorde erakusleak *bai(t)*-menperatzaleaz aurhizkitu aditzarekin ordaintzen baitzuen ohiki: *hartan hau irakurtzen baitzen* (ikus urrunago erranaldi erlatiboa).

*ze(i)nbat*-ek (*zein* gehienetan bieko mintzogai gabeaz eta *bat*-ez egina) ainiztasunaz galdekatzen du.

Galdezko horiek izenaren aitzineko mugatzaleak izan daitezke eta orduan beti aldagaitzak dira: *zer lan*, *zein liburu*, *zenbat diru?* *zein liburu(e)tan?* *zenbat dirurekin?*

Berak oihuzkoen egiteko erabiltzen dira: *zer lanak! zein urrun den!*

Galdezko *no*-dunekin berdintzez, *zein*-en lerroa (galda daiteke sudurkari aitzineko biekoa hor eztenez bigarren mailekoa) ohiko hizkuntzak berant moldegaiztu du *zein*-era, "ohitza onak" baztertzeraz gomitatzen duena lekuko ohidura berantekoa sobera ontsa jarria eta guti zuzendua izana gatik.

### 3. Galdezko izenorde eta mugatzaleak ordaintzen dituzten edo horierr gaineratzen zezteen galdezko morfe-mak: aditz atzizki *-a* eta hitz galdekari *ote*.

Galdezko hitzik erabili gabe euskalki akitaniarrak aditz atzizki *-a* berak galde egiten duenaz baliatzen dira: *ikusia duk* galderik gabe eta *ikusia duka* ?, frantsesean hitza lekuz aldatuz bezala: "tu l'as vu, l'as-tu vu?"

Galdezko hitzerr gaineratzen ahal zaie *ote* aditz-lagun aldagaitza (*othe* landare izenaren hurbila) ala galdearen azpimarratzeko ala segurtasun eskas nahasi baten erraiteko. Erranaldia adiztuna denean galdezkoaren ondotik jartzen da eta aditz jokatuaren aitzinean, eta beraz aditz batzunduetan partiziparen eta laguntza-learen artean: *nor ote? norke egingen ote du? zer gertatu ote da? zer egin ote dute?* Galdezko bertze hitzik gabe galdearen egiteko aski izaiten ahal da: *jin ote dira?* Erran-nahi hortan jartzen ahal da erranaldi buruan eta berezirik, baina *-a*-rekilako aditz galdekariaren ondotik: *ethorriak direa, ote?*

Hitz hori sartzen da ere galde menperatuetan, erranaldi menperatuetan sartzen direnak eta 3-garren zatian ikusiko.

## IV. Mugatzale berezleak eta orotakoak.

1. **Mugatzale *-a* atzizkia** euskarako "artikulu bakun berezlea" bezala hartua da eta mugatu eta berezi nahi den izen edo izen multzo orori emaiten zako (ezpada berez mugatuak diren izen "berezleak" erranetan) (\*), azken hizkia ukan dezan mintzogai ala joile: *larre, larrea, ur, ura, ur handia*. Izen borrela

mugatuak egiten du aditz iragangaitzaren gaia edo iragkorraren jasailea izan daitekeen kasu nominatiboa edo izen hutsa: *ura da, ura badu*. Atzizki *-a* horrek izenlagun egiten ditu genitiboan atzizkitu hitz mota guzietakoak: *Baionako, Baionakoa; hire, hireak* eta b.

(\*) Izen berezi bezala hartzen diren eta idazkian hastapeneko hizki nagusia hartzen duten euskal-etxen izenak egiazki Ertaroaz geroztik bederen leku izen zuzenki mugatuak dira eta ahozkoan hala geldituak: idazten eta erraiten da *Etxegorria*. Erdal-admiztrazionetik iragaitean, gaskoinean lehenik frantse-sean gero errexistroko izen bezala, *-a* mugatzale berezia abantzu beti galdu dute Frantzian, Ezpainiako euskal-izenek atxiki dutelarik: *Urrutia* izeneko etxe batetik egun batez jalgi familiako izenetan eremu akitaniarrean aurki-tzen dira "Urruti" edo "Durruty" errexistroko izenak eta eremu iberiarrean "Urrutia". Orotako erregela da.

Ainitzean mugatzale berezia *-k* atzizkitzen da: *urak argi(ak) dira, larreak ikusi ditut*; baina egileko (ergatibo) ainitzean ordaintzen du *-ek* atzizkiak: *urek hartu dute larrea*. Azken hizkia *-a* duten hitzetan nominatiboko edo ergatiboko atzizkiak ordaintzen du (aldi *-aek* baten ondotik behar bada ainitzean) azken mintzogaia: *gauza, gauzek*. Euskal-hitzetan eta aditz jokatuetan *-e* arthizki-atzizkiak ainitza erraiten du.

Norbaiti mintzatzean haren lerro edo kargu izenarekin edo gabe, latinez hel egitekoan bezala, euskarak izen huts mugatua ezartzen du: *Anderea, Jaun-Andereak, Jauna, Jaun auzapbeza*, bataio izenak (izen "tipiak") beharr bezala ez mugatuak gelditzen direlarik.

Euskaraz "Jainko" girixtinoaren izena mugatua da: *Jainkoa, Jainko ona* (\*), aldiz egiazki edo idazki batean erreinuan den erregearena mugatu gabe gelditzen delarik izen berezi bat bezala baina hizki nagusirik gabe: *errege, Espainiako errege*. Hortan gelditu beharr du ohitza onak.

(\*) Goga daiteke berezitasun hori hitzaren itxurazko ethorkiarekin arautua dela: euskaki espainiarretan atxiki den *jaungoikoa* bertze moldez "gaineko jauna". Kompostelako Beilari-aren hiztegiak XII-garren mendean *deum* (jainko) latinaren euskal-itzulpenetako emaiten du *urcia*, orai *or(t)zia*

"zerua" *ortzegun* izenean duguna, erdaraz "jeudi" latineko *jovis die*-tik ("Jupiter-en eguna").

**2. Erakusle mugatzale edo izen-lagunak** izenorde erakusleak berak dira, *haur, hori, hura*. Aldagaitz gelditzen den izenaren ondotik ezartzen dira beti eta hartzen dituzte deklinabideko marka guziak, ainiztasun eta egiteko mugatzale, *-a* berezleak bezala: *lan ederr horiek egin ditu* (ikus gorago II).

**3. Jabetasunezko euskal-mugatzaleak** personetako izenordeak dira *-re* genitiboan izenaren aitzinean ezarriak eta aldagaitz.

Persona 1 eta 2-etan hauk: bakunean *ene* (\*), *hire*; ainitzean *gure*, *zure* (jendetasunezko bakuna edo "zuka") eta *zuen* (egiazko ainitza: ikus gorago).

(\*) Molde lehena *nire* izan dateke *hire* bezala, batzuetan berremana ikastetxetako liburuetan eta euskalki batzuetan, baina *ene* bakarra da nabarr-lapurtarrean eta zuberotarrean eta lehenago orotakoa izana XVI-garren mendetik (Lazarraga arabarraren idazkiak) eta aro berrirano ("*Ai ene!*" D. Aguirre bizkaitarraren *Kresala* elhaberriko lehen erranaldia).

3-garren personako mugatzale jabetasunezkozkat, euskarak latinak bezala (*suus* jabera itzulia, *ejus* ez), baina modu apurr bat ezperdinetan, kontraktzen ditu aditzaren bidez jabera itzulia (egilera edo gaira, batzuetan bertze adizlari batera) *bere* (*ber* genitibo zaharrean), eta ez jabera itzulia adizlarietarik berex. Ez jabera itzuli hori genitiboko erakusle batez erraiten da, hunkitzen duenaren urruntasuneko arauan, *hunen, horren, haren* bakunean, *hauen, horien, haien* ainitzean: *hau da haien liburua*. Erran-nahi berean aditz iragankorra erabiltzen da euskaraz eta jabera itzulia nahi du orduan: *hau du bere liburua*. Aldiz *hau da bere liburua* gero 'ta gehiago entzuten dena erroman kopia hutsa eta gaitza euskaraz hutsezkoa da eta mintzale bakarr batek etzuen duela guti oraino ez asmatuko ez erranen: alabaina erranaldi hortan hari eratzikia izaiteko adizlaririk (gai, egile, edo ukaile) ezta emana. Atzizki

mugatzale berezleaz *bere* izenorde bilakatzen da bertze jabetasunezkoak bezala: *berea* eta berdin jabera ez itzulian *harena*.

Euskarak *bere burua* erranmolde deklinatuaz du 3-garren personako izenorde jabera itzulia erraiten: *nork edo bakoitzak bere buruari beha bez*<sup>o</sup>; bertze personetan berdin jabetasunezko hanturarekin ainitz aldiz bakunean: *neure, heure burua*, eta *gure, zure/ zuen* ainitzean.

Bada *bere*-ri genitibo ainitzeko *-en* atzizkiaren emaiteko ixuri bat; baina orok erakusten du eta erabilpen zaharr ohikoak baieztatzen arrazoin gabeko molde berdintzeko bat dela: *berea* bakuna da, baina ainitza ere *gurea* den bezala, eta *zurea* erroman zaharrari hartu zakon "zukatzeak" ainitzeko genitibo berri bat *zuen* egin ukan zuen baino lehen.

## 4. Mugatzale zenbakietakoak.

**4.1. Zenbaki zuzenak** nunbait han berak dira euskaran eta iberiarrean, eta mugatzale bezala izenaren aitzinean dira gehienetan, salbu *bat* beti ondotik eta beraz deklinaturik.

*bat* "un/uno" erdarako "artikulu" ez berezlearen balioan erabiltzen da: *etxe bat*; egiten ditu *bakoitz* eta *bakarr* izen-lagunak: *etxe bakoitza*, *etxe bakarra*; eta ere aditz lagun banakatzaleak: *bana* ("bakoitzak bat") eta *bedera* ("batentzat bat"); mugatzen ahal da *bata* izen huts eta *batak* egile (*bata 'ta bertzea* edo *bat eta bertzea*) eta zuzenki ez mugatuan deklinatzen (*bat*, *batek*, *bati* eta b.), *batean* inesiboak laburturik *betan* hartzen duelarik aditz-lagun errannahia: *kanta dezagun bada orok betan*;

*bi* izenorde ez mugatu bezala *biga* bilakatzen da: *biga ikusi ditut*, baina mugaturik *biak*: *bi herri*, *bi herriak*, eta ondokoetan berdin:

*hirur*, *laur* (\*), *bortz*, *sei*, *zazpi*, *zortzi*, *bederatzi* (\*\*), *hamarr*, *hamaika/hameka* (\*\*\*), *hamabi* eta b. *hoge*-tarano (mintzogaia berdinduz ohiki *hogo*), *hoge*-*ta bat* eta b. Gero hogeika *berrogei* ("bietan" edo "berriz hoge"), *berrogei 'ta bat* eta b.; *hiruretan hoge*, horrek emaiten baitu euskaraz gehitzeko moldea *-etan* lekuzko

atzizki ainitzarekin; horrela *ehun*-erano, *berrehun* eta b., *bederatzi* *ehun* eta *berrogei* 'ta *hemeretzi*-rano (999). Hortan gelditzen da euskarazko zenbakitaldi berezia; gero latinetik *mila* ...

(\*) Bi zenbaki horien azken dardararia *-r* ahozkoan galdu da *haur* erakuslearena bezala, baina "ohitza oneko idazkian" ezartzea baliagarri, atxiki denaz geroz *heren* lehenagoko *\*hiruren* baten laburpena eta *laurden* ordenukoetan.

(\*\*) Noizpaiteko edo "ixtorio aitzineko" zenbaki batzuen hatzak badira *zortzi* eta *bederatzi*-etan: *bat*-etik erathorri *bedera*-tik ("batentzat bat") ondoriotzen da: 1) *-(a)tz*i lehenagoko "hamarr" bat dela, "bederatzi"-tik "bat"-ez berezia, eta "bi"-z "zortzi"-tik, nekerik gabe erakusten dena emaztearendako *izorr* "haurr beharretan" delakotz eta "haurr" edo "ume egite" *erditze*, "bietan zatitze".

(\*\*\*) *Hamaika* edo *hameka* zenbakia egina da *hamarr* et *eka/ika*-z, hizkuntza zaharr batzuetan "bat" erran nahi duena hala nola *eka* sanskritan.

**4.2. Ordenukoak** zuzenez izenaren aitzinean ezartzen dira nahitara ondotik ezarr daitezkeen arren mugaturik izenaren orde: *lehen aldia* eta *aldi lehena*. Zuzenki izen aitzinean izanez badute genitiboko *-(r)en* (eta euskarak gehieneko erabiltzen ere duen) atzizkiaren idurikoa luzaturik *-garren*:

*lehen* "aspaldi, noizpait" aditz lagunen erran-nahian erabilia ere, *bat*-en ordenukoa, bakarra da hortarik erathorri eztena, eta aieru emaiten du izan dela *\*le(r)*- zaharr bat *\*leren* horren erathorri zuzena izan ahal dena eta *lehen* utzi duena.

*bigarren*, batzuetan lehenago *biren* (Oihenart-en atsothitzetan XVII-garren mendean): ezta jakina *biga* ikusi den *bi*-ren moldea denez atzizki horren ethorkia ala *biga* denez aldiz ordenuko atzizki luzearen gaizki moztea, edo ere beharr denez igan *\*ika*-tik (ikus *hamaika*) hasten zen zenbakitze zaharr baterano;

*heren* eta *hirugarren*, *laurden* eta *laurgarren*-ek erakusten dute frantsesean bezala ("tiers/troisième", "quart/quatrième") molde zaharraren iraupena berriagoaren ondoan, hau berdintzez hedatu baita erabilpeneko berexkuntza batzuekin: *laurden* erabiltzen da "laurgarren zati" erraiteko eta *laurgarren* ordenuko; *heren* atxiki da

*herenegun*-etan, beraz "aitzineko hirugarren eguna egungotik hasiz", eta lehenago erraiten zen *heren estatua* ("le Tiers-Etat");  
*borzkarren*, *seigarren*-etik aitzina lerroa zuzena da.

## 5. Zenbateko izenorde eta mugatzale orotakoak.

Izenaren mugatzale bezala zuzenez ondotik ezarriak dira hetarik guti berexen diren izen-lagun batzu bezala, beraz deklinatuak.

*Ainitz* (biekorik gabe *anitz* ohikoa da): *ainitzek badakite*; salbuesenez ezartzen ahal da izen aitzinetik edo ondotik: *bada ainitz liburu* edo *liburu ainitz*.

*Bat* zenbakiaz gainera "edozein, zein nahi" erran-nahian erabiltzen da. Ainitzean *batzu* egiten du *-zu* izanez ainizlea, egile ergatiboan *batzuek* berdintasunez (*-k* aski izanen zen) eta ainitzean berdin deklinatua: *badira etxe batzuetan*.

*Guti*: *etxe guti*. Lehenago izen-laguntzat erabili da "eskas" erran-nahian *apur* garbikiago izen-lagun dena bezala.

*Guzi-guzia ikusi dut*, *zoko guziak ikhertu ditu*.

*Oro*: aitzinekoaren "osotasuneko" erran-nahi berekoa edo bakunean edo ainitzean baina mugagabean deklinaturik: *gizon orok egin dezake* (edo *dagike*), *orok egin dezakete* (edo *dagikete*).

*Oso*: gauza batez "den guzia betean" erran nahi du: *liburu osoa irakurri dut*. Hitz hortarik erathorri dira euskaraz "ontsa izaitea" dioten hitz biak: *osagarri* izen-lagun atzizkiarekin erathortze ez egokian (ikus beherago izen-lagun atzizkiak), eta *osasun*; molde ezagunagoan baina ez erran-nahi hortan *osotasun* (ikus beherago gogamen hutseko eta orotako izen atzizkiak).

*Zenbait* batzuetan ainizturik *zenbaitzu* (ikus *batzu*) mugarik gabeko zenbaki baten erraiteko, uste denaz lehenagoko erranaldi bat moztuz sortua da *zein baita ere*, eta ez erran-nahiz aski zuzen lizatekeen *bat*-ekin batzundurik eta beraz kausazko aditz-aurhizki *bai(t)*-ekin berdintzez. *Zerbait* berdin "motaz mugatzen ezten gauza bat" erranez, aldiz mugatzaletzat bekan erabilia da.

Egitura eta ethorki berekoak dira *noizpait, nolazpait, nunbait* aditz-lagunak. Atzizkitzen dira *-ko* genitiboan izenorde bilaka daitezkeen izen-lagunen egiteko: *noizpaiteko liburu bat, noizpaitekoak* eta b.

## V. Izen-lagun tinki, atributu, ondoratu.

### 1. Izen eta izen-lagun.

Izena eta izen-laguna handizki ezpada osoki (moldamenaren egitatez) orobat dira euskaran erranaldian duten egitekoaz bertzela: erran daiteke *gizon jende bat* (latineko *gente-tik*) "ontsa ikasia" erran-nahian (hortik *jendetasun* izena) *gizon handi bat* erraiten den bezala.

Ohiko euskal-hitz lerro oso bat izen edo izen-lagun da erabilpenaren eta egitekoaren arabera: *ageri* (\*), *abalge, ase, barur, bazter, egarri, ikhara, izerdi, orhoit, urrun* ...

(\*) *Agertz*e aditz-izena *agerr* erro azken dardarari azkardunetik egina da, *Agerre* Ertaroko aintz leku izen bezala (*Agirre* eremu espianiarrean) "leku ageria", *ageri* partizipa, izen-lagun eta izeneko moldea dardarari ahularekin delarik.

**2. Izen-lagun tinkia** euskaraz izenaren ondotik ezartzen da eta beraz deklinabideko ezagugarriak hartzen ditu izen multzoak erranaldian duen egitekoaren arabera: *ikusi dut etxe gorria, hemen etxe guzietan badituzte hegaztegi gorriak*. Aurki daitezke poesian gehienik aitzineko izen-lagun tinkiak aldagaitz gelditzen direnak orduan deklinabideko markarik gabe: *euskaldun jendea*.

Ertaroko leku-izenen lekukotasunaren arabera gune guzietan erabilpena libreago zen euskara zaharrean izenak eta lagun tinkiak hitz bakarr bat egiten baitzuten, etxe izenetarik jalgi errexixtroko izenetan gelditu dena. Izen lagun bera xoilik (*barr*) edo mail gehienez (*barren*) (\*) izan zaitezkeen aitzinean edo ondotik: *Barretxe* eta *Etxebarr* (herria Zuberoan), *Barrenetxe* eta *Etxebarren*, *Bazterretxe* eta *Etxebazter*, *Etxebehere* eta *Beberetxe*, *Goietxe* eta *Goiri*, *Iturgoi*, *Etxegoien* eta *Goinetxe* eta b. Margo izen eta alde-

rekin aurkitzen dira *Gorrialde*, *Urdinalde*, baina *Etxamendi/Etxemendi*, *Etxesarri/Irisarri*-etan *mendi*, *sarri* izenek izen-lagun balioa hartzen dute.

(\*) Ertaroko *barren* hori *barne* bilakatzen da Akitanian Ertaro azkeneko eta izen-lagun balio guzia galtzen du eraikuntza bateko "leku hetsi" ororen erraiteko.

(\*\*) Eremu orotan oraiko euskarak *hiri* lapurtarreko molde berezi hastuna hautatu du erdarako "ville" hitzaren balioan. Molde zaharra *iri* izen berezietan gelditua dena *ili* iberriarreko bera zen, latineko *villa* "baserriko egoitza, etxaldea" erran-nahian, erdaraz "ville" bilakatu denaren erran-nahiko aldapen berarekin.

Euskarak osoki onhartzen du izen-lagun tinkien andana baten jarraipena lokailurik eman gabe, azkenak bakarrik ekharriz mugatzale deklinatua: *bi liburu eder gorri handiak*.

### 3. Atributua: izenari aditzaz lotu izen-laguna.

1) Aditz iragangaitzeko gaiari lotu izen-laguna orotara eta xede berezirik gabe gaiaren ondotik da horren zenbakiko markak errepikatuz GILA (gai-izen-lagun-aditz) ordenuan: (*goiz huntan airea hotza da*; eta berdin aditz iragankorreko jasailearen ondotik jasailearena: *etxeak ttipiak dituzte*).

Lokailuekin ala ez atributuak jarraikitzen direnean aditz-lagun bakoitza lotua zakon hitza bezala mugatua izaiten ahal da: *karrika hek hutsak, hotzak, euriaz bustiak ziren; badazkite kantu batzu ederrak eta airosak*, edo *eder eta airosak*. Izen-lagunak lagun tinki xoil batzu balire, izenaren ondotik lizatezke lokailurik gabe; baina azkenak bakarrik luke sintagmaren egiteko eta zenbakiko marka (hemen *batzu* ainitzeko erran-nahia duen mugagabe nominati-boa): *kantu eder airos luze batzu bazazkiten*.

Ahal den neurrian hitzen ordenu ohikoaren aldatze orok agerian ezartzea balio duelako legearen araura (ikus 3-garren zatia), *hotza zen goiz hartan airea* erraitean agerian ezartzen da *hotza*, eta iragankorrean *ttipiak* berdin: *ttipiak zituzten han bisitegiak*.

2) Aldi batzuez izen-lagun aditzaz lotua mugagabe gelditzen da:

2.1. izen-lagunak mintzalearentzat orotakotasun balioa duenean: *lan hori ederra da* mugaturik, baina *lan hori ederr da*, edo *horrelako lan bat ederr da*;

2.2. erran zaharren aran aditz gordearekin orotako erran-nahira doana ere: *Hor gose, loz ase* (Oihenarten 250-garren atso-thitza, 1657).

2.3. Izen-laguna berez mugagabe den zatizkoan partitiboan izan daiteke aditza erranik ala gorderik: *heldu ziren bozik* edo *bozik heldu ziren*; Oihenarten atsothitz bigarrean: *adiskidea zabarrik* (azpientzuna "beharr da").

2.4. Izen-lagun lotutzat erabili izen batzu aldagaitz gelditzen dira zein den ere zenbakia: horrela *abalge, beldurr, lotsa, samurr dira* edo *da*; ala *egarri, gose, ase, izzerdi ...*

2.5. *Mintzo dira* bezalakoetan izen aldagaitz eta *izan* edo *\*edun/ukan* lehenbiziko aditz laguntzaleaz egin euskarazko erran-moldetara sartzen da: *mintzo izan, orhoit izan, nahi ukan* eta b. Baina izen horiek bertze guziak bezala aditz-erro bilaka daitezke euskaraz eta sarr laguntzalearekilako jokabidean.

#### 4. Izen-lagun edo izen ondoratua.

4.1. Ondoratu bat beti berexia da, gakotxaz edo doinuaz, eratxikia zakon hitz gertaldiz aditz jokatuaren adizlaritzat errana denetik, izan dadin hitz bakarr bat, izen-lagun ala ez, edo erran-aldi erlatibo berexi bat, eta gehinean baditu eta errepikatzen hari doakon hitzaren zenbaki eta deklinabide markak. Lekua erranaldian eztu errankortasun eta idatzarako beharraz baizik mugatua, ezpada erranaldi erlatibo ondoratua, hau beti hartarik berexia den hitzaren ondotik heldu baita:

*mendiak ikusi ginituen urrundik, gorak, elburrez estaliak;*

*mendiak (...), orduan elburrez estaliak zirenak;*

*mendietara joan ginen, elburrez estalieta.*

Ondoratua bertzelakatzen da, doi-doia, *bat* orotakoaz mugatu izen baten izen-lagun tinkitik mugatzale berezi *-a* (ainit-

zean *-ak*) gaineratuaz eta berexte arin batez: *egin ginuen aubari bat, ona* eta *aubari on bat egin ginuen*.

4.2. Ondoratua aldagaitz geldi daiteke edo zatizkoan jarri harekin egite baduen izen-lagun tinkia bezala:

*ban zauden mendiak, gora, iratzze eiharrez gorri;*  
*abiatu nintzan barurik, edo: ... ontsa aserik.*

\*

## Berezita III.

### Izen, izen-lagun, aditz-lagun eta aditzen moldamena.

#### I. Izenaren deklinabidea.

Euskarako deklinabide bakarra izenari emaiten zazkon hamalaurko bat edo gehiago atzizkiek egiten dute, izen edo izen sintagmako zenbakiaren (bakuna, ainitza, ez mugatua) eta erranal-diko egitekoen erraiteko, izena bera den gutienik aldatu gabe. Salbuespenez, izen ez mugatu atzizkirik gabe aitzin emanak ondoko izenaren osagailua balio du.

Bi loturako ahots "soinu gozatzekoak" erran daitezkeenek lotzen dituzte hizkaiak eta atzizkiak: *-e-* mintzogaia azkeneko eta hasteko joilen lotzeko, eta *-r-* joile dardarari ahula mintzogai azkenaren (ainitz aldiz *-a* mugatzale berezia) eta hastekoaren lotzeko. Euskararen berezitasun lotzalearen ahots-moldameneko ondorioetarik bat da. Deklinabideko atzizkiak elgarri gaineratzen ahal zeztee "deklinabide batzuna" erran daitekeenaren egiteko.

Deklinabideko atzizkiak euskaraz emaiten zeztee ere aditz molde izenarakoer, aditz-izen ala partizipa, eta aditz jokatuari berari erran-nahi berezi batzuen hartzeko deklinabidean duten erabilpenaren arabera.

Nahi bezain batzuna izan dadin izen multzoa, haren azken hitzak bakarrik ekhartzen du deklinabideko atzizkia: *etxeAK* egile bakuna da iragankorrean eta gai ainitza iragangaitzean, beraz: *atzõ ikusiak zinituzten / leibo gorriekilako / etxe guziAK / saldu dira*. Hitzen ordenua, multzoz multzo eta osoan, zuzenki frantsese-koaren kontrarakoa da.

## 1. Aditzari lotu egiteko nagusiak: adizlariak.

### 1.1. Nominatibo edo atsolutiboa: iragangaitzeko gai, iragankorreko jasaile:

ez mugatu (hitza murriztuz, markarik gabe): *etxe bat, zekin etxe? zer lan mota?*

mugatu bakun -a: *etxea, lana* (\*);

mugatu ainitza -ak: *etxeak, lanak*.

(\*) Hitzeko -a-ren ondotik aurkitzen da bekan nominatiboko -a mugatzalea -ra lotua poesiako estiloan (1545 Dechepare *eguiara*, 1657 Oihenart *oin-zolara*) eta ere Ertaroko aiphaldi batzuetan (1350 *ezpondara* latineko *sponda*-tik). Ohidura zaharr baten hatza da beharr bada euskarako atzizki moldamenaren araberakoa, baina aspalditik galdua, bi -aa horiek -a bakarrera biltzen baitira, leku berean -ae- eta -ee- bezala -e-ra.

### 1.2. Ergatiboa: iragankorreko egile:

ez mugatu -ke edo -ek: *zekin etxek du? etxe batek;*

mugatu bakun -ak: *etxeak badu baratze bat;*

mugatu ainitz: -ek (\*): *etxek badituzte baratzeak, lanek akhitzten dute*.

(\*) Hitz azkeneko -e eta atzizki hasteko -e- horien errepikatze ohidura ikastetxetan ezta baliagarria eta debaldetan trabatzen ditu idatzara eta ahozkoa, are gehiago mintzogai teorikoki bikun -ee- hori ezpaitzen senditzen hoberenean luzatze arin-arin ez markatu batez baizik (latinean bezala, mintzogaiaren gaineko marra ttipi bat egokiago izanen zen) eta gehienean ez batere. *Gauza* eta *ama* eta bertze hitzen azken -a alta -e-tik bertzelakoak eztu \**gauzaek* ez *amaek* egiten, ez *gauzaak* eta *amaak* baino gehiago, baina *gauzek*, *amek*. Mintzogai errepika egiazkoa izana bada lasterr baztertua izan daiteke hizkuntzako ekonomia ohienaren gatik. Eztu -ee- errepika horrek balio segurrik ahozkoan barne aditz jokatueta baizik (ikus 3-garren zatia).

### 1.3. Ukailea edo "datiboa" (osagailu bigarren):

ez mugatu: *-i* edo *-ri*: *zein lani? zein etxeri?*

mugatu bakun: *-ari*: *lanari, etxeari*;

mugatu ainitz: *-eri* edo *-err* (\*): *lanerr, etxerr*.

(\*) Baxenabarran eta Zuberon datiboko azken *-i*, alta osoki berezia (*-e* zen Espainiako iberiarr Erromaren irabazte ondotik galdu zen hizkuntzan) ainitzean XVII-garren mendea baino lehen eroria zen Oihenarten lekukotasunaren arabera. Aldiz idazki lapurtarrek XVI-garren mendekotz galdua zuten mintzogai arteko dardarari ahula ohi bezala ahozkatzean higiturik: Leizarragak idazten zuen 1571-an *Heuskalduney*.

### 1.4. Zatizkoa, ezezko eta galdezko aditz iragankorren jasaileko kasu, eta bertze erabilpenak:

Zatizkoa ("partitiboa") "ezin zenbakagarri"-aren erraile berez mugagabea *-ik* edo *-rik*- atzizkiaz da usuenean.

1) Euzkaraz aditz iragankorren osagailu ez mugatuak emaiten ditu ezezko eta galdezko erranaldietan eta iragangaitzen gaia berdin:

*baduka ogirik? - Ez, eztiat ogirik, ogirik ezta;*

*badea etxerik, lanik? - Ezta etxerik ez lanik.*

Kontra doako mugatu berezi bakuna edo ainitza:

*baduna ogia, badituna ogiak? - Ez, eztinat ogi hura.*

2) Baiezko erranaldian osagailu erran-nahiz ez mugatu batek zatizko moldea hartzen du:

*liburu horrek badu onik; bada libururik aski edo liburu aski.*

3) Izen-lagun ondoratu baten aditz-laguneko balioa (egin-ara, izanara ...) zatizko atzizkiaz erraiten da: *airosik badoa*.

4) Izen baten balio bera *-tik* atzizkia duen zatizko molde batez erraiten da: *gogotik ari da*. Edozein osotasunetik hartu zati ez mugatu bat erraiten duen zatizkoa eta norapaiteko lekuzkoa gogamenean hurbil dira (ikus urrunago).

5) Gehientzeko baten osagailua *-(r)ik* atzizki zatizkoan jartzen ahal da edo *-etan* inesibo ainitzean: *irakurria zuen libururik ttipiena*, edo *liburuetan ttipiena*;

6) Partizipak zatizkoan betegina balio du: *hori ikusirik abiatu ginen*; eta *ere* duenean ondotik kontra-gogoko erranmolde

bat egiten: *hori eginik ere bazen zer egin*. Usu partizipari *eta* baten ondoratzeak balio du ondoratua, zatizkoan "ukan ondoan" errannahia hartzen duena: *bura ikusi eta joan ginen*.

## 2. Aditzari lotu egiteko bigarren mailekoak edo gertaldizkoak.

### 2.1. Hirur kasu lekuzkoak eta bururapenekoa edo hurbiltzekoa.

**2.1.1. Mugimendu gabeko lekuzkoa edo "inesiboa"** (latinez *in*):

ez mugatu *-(e)n* edo *-(e)tan*: *zein etxetan, lanetan?*

mugatu bakun *-an* edo *-(e)an*: *etxean, lanean;*

mugatu ainitz *-etan*: *etxetan, lanetan*.

Mugimendu gabeko atzizki ez mugatua *-(e)n* emaiten da aditz partizipa bururagaitzaren erraiteko (gaizki "iraganekoa" diotena): *egite(a)* eta *egiten*. Izenetan, iduriz biziki urrundik gelditu *etxen, ibizín* bezalako aldi ohigabekoetan ezpada, *-tan* ez mugatuko atzizkia nahasten da guti edo aski, eta osoki izen azkenean *-e* denean, *-etan* ainitzarekin. Egia da lekuetako izendegi zaharrear *-eta* atzizkia mugagabea dela ainitzeko erran-nahi berezirik gabe eta hori baitezpada baztertuz hala nola *zubieta* ("zubi bakarr lekua" nahitez). Gogoan zenbakiari aierurik gabeko ez mugatua eta bakuna baztertzen duen ainitza elgarri aski lotuak dira. Oharr hunek hirur lekuzkoetako balio du.

Azken joilekilako leku-izenetako *-en* lekuzkoak hala nola *Biarritzzen, Lohizunení*, Frantzian berant utzi du izen horien izen huts edo "nominatiboan" azken *-e* bat (*Biarritzze* eta b.) deklinabidean joilen arteko mintzogai soinu-zuko hutsa baizik eztena, izen ohikoetan ehoiz ez erabiltzen, eta idazki ala ahozko "ohitza onean" baztertu beharra lizatekeena.

**2.1.2. Norapaitekoa** edo leku batera buruzkoa (latinez *a* edo *ad*):

ez mugatu *-tara* edo *-etara* (\*): *zein etxetara, zein lanetara?*

mugatu bakun *-ra* edo *-era*: *etxera, lanera;*

mugatu ainitz -etara: *etxetara, lanetara*.

Akitanian euskalkiz azken joile *-t* bat gaineratu da ohian: guzia, *-a* bezainbat *-at*, ezta hain zuzen latineko *a* edo *ad* aitzin-hitzaz orhoit-arazi gabe, jakinez ere euskarak itzultzen duela hitz multzoen jarraipena hitzena bezala eta azken joile ozenik eztuela. Ezta *-a* atzizkiaren egiteko hori euskaraz, izen ala aditzetan, hizkuntzak dituenetarik bat baizik.

(\*) Lehengo norapaitekoa loturazko joilerik gabe *-a* zatekeen, *aitzina!* ("sar zaite") bezalako eta aiphaldi zaharr batzuetan gelditua hala nola *Uztaritzza* XVIII-garren mendean, orai *Uztaritzera*. Norapaiteko hori da *hemendik aitzina, herrian barna* bezalako erranmoldeetan.

### 2.1.3. Nunbaitikakoa (latinez *e* edo *ex*):

ez mugatu eta mugatu bakun -tik edo -etik (\*): *etxetik, lanetik z Joan*,

mugatu ainitz -etarik: *etxetarik, lanetarik itzultzen zen*.

Nunbaitikakoan *-gatik* ondo-hitzak, mugimendurik gabeko *-gan* eta urrunago ikusten diren jenden bertze osagailu moldeetan *-ga* erro batetik jalgiak iduriz, *-re(n)* genitiboko izen edo izenorde bat aitzinean arrazoinezko osagailu gertaldizkoak hasten ditu: *horren gatik, zure eta haurraren gatik*. Ondo-hitz horrek "arrazoin kontrako" baten erran-nahia har dezake ingurumenaren arabera bereziki nominatibo baten ondotik: *hura gatik*.

Nominatibo mugatuaren ondotik *amorea gatik* erran-molde berezia egiten du: *haren amorea gatik egina da hori*.

(\*) Aldapenak badira euskalkietan: zuberotarrez atzizkia *-ti* da (Oihénart 1657: *anserati ez jan zati*), eta euskalki espainiarrek ainitzeko *-etatik* ezartzen dute, nabar-lapurtarrak bezala herskari errepika baztertzen duen *-rik* zatizkora hel egin gabe.

**2.1.4. Bururapenekoa** edo "hurbiltzezkoa" hirur lekuzkoak osatzen ditu helgunearen, mugimenduak harano deraman mugaren erraiteko. Molde laburrenean *o* edo *-no* atzizkiaz erraiten da, *-ra* norapaiteko atzizkiari gaineraturik *-rano* egiten baitu, eta sudurkari aitzineko mintzogai biekoarekin *-raino* (ikus Zati lehena, Berezita II)(\*). Atzizki laburrena hitz eta erran-molde batzuetan gelditua da:

*arteo* ahozkoan *-e-* laburtuz *yod* batera *artyo* bi silabakoan ahozkatua: *biharr arteo*, *ikus arteo*. Damu da zinez "ohitza oneko" hitza ezten abantzu gehiago *-o* bururapeneko atzizkia ekhentzen duen moldean baizik erabilia. Iruñeko Amendux (Baxe-Nabarra-ko herri hortarik erathorria) poeta presunerraren ilharthitz olerkia XVI-garren mendean erranbide ederr huntan bururatzen da: *bitarteo lo dagigun*.

Aditz-lagun *orai*-tik egiten da *oraino* (erran-nahiz "ordu huntarano" eta "berriz ere"), eta *ba/bai*-tik *bano/baino* erkidatze-tan.

ez mugatua *-tarano*: *zeintarano?*

mugatu bakuna *-rano* edo *-erano*: *herrirano*, *urerano*;

mugatu ainitza *-etarano*: *bi herrietarano*.

Euskarako atzizki ainitzetako behazun on bat da.

(\*) Norapaiteko *-rat* atzizkitik (ikus gorago) bururapenekoak bazerman nahitez *-no*-ren aitzinean arteko mintzogai baten emaitera: hortik *etxeradino* bezalako moldeak *etxerano*-ri buruz luzamen osoki debaldeko-arekin.

**2.1.5. Lekuzko personalak** jende zenbaiti dagozkion osagailuetako ondo-hitza *ga(n)* gehienetan izenari ez atzizkitu-arekin eta deklinatzen denarekin egiten dira:

1) mugimendu gabekoa: euskalki espainiarrek dute bakarrik hor ezartzen *gan*, akitaniarrek derabiltzatelarik horren orde: edo inesibo ohiko ez mugatua *-tan* izenordekin: *zu(e)tan*; edo *baitan* ondo-hitza (\*) jende izenekin bakarrik, berezi ala ez: *Axularren baitan*, *amaren baitan*, *Piarresen baitan*.

(\*) *Bai* hitza *-tarik* nunbaitikako ez mugatuan lehen aldiko agertzen da lehenbiziko erran-nahian oraino 1415-ko eskuthitz batean Iruñen: *errege baytaric* "erregeren baimenetik" (Evreux-ko Karlos III-garrena Nabarrako errege orduan). Elatibo horren gaizki moztez *baita* hitz bat moldatu da gero, eta erran-nahiz aldatu jendez ari denean erraiteko "etxean" itsasaldeko lapurtarrean eta Uztaritzarano, hor berant etxeak izendatu baitira jende izen hutsaren ondotik *baita* ezarriz: *Apheza baita* edo "aphezaren etxea, egoitza".

2) norapaitekoa *gana*: *Piarresen gana*, *zure gana*;

3) nunbaitikakoa ganik: *zure ganik* (ikus gorago *gatik* ez bakarrik osagailu personalena).

**2.2. Laguntzazkoak edo "komitatiboak"** (latinez *cum*) atzizki bikun bat erabiltzen du: laguntzazko *-kin* berezia, aitzinean genitiboko *-(a)re-* bakunarekin edo *-e-* (lehenagoko *-ere-* baten laburpena iduriz) ainitzarekin:

mugatu bakuna *-arekin* (\*): *etxearekin erosi du beratztea*;  
ez mugatua eta mugatu ainitza *-ekin*: *zein liburuekin? bi liuruekin*.

(\*) Zuberotarrak beharr bada berdintasunezkoa den azken sudurkaririk ez, horrek egiten baitu laguntzazko *-ki* orduan izaite edo gauza baten gaia (*zurki* "zurezko") dion *-ki*, eta arako aditz-lagunen berdina izanen zela (ikus aditz-lagun atzizkiak).

**2.3. Lankaiezkak** erraiten ditu ingurumenaren arabera artekoa, tresna, gauza baten gaia edo natura eta sendipen, egintza, gogoeta batena eta b.:

ez mugatua *-z* edo *-ez*: *eskuz, gogoz, zurez*;  
mugatu bakuna *-az*: *eskuaz, lanaz*;  
mugatu ainitza *-ez*: *bi eskuez* (\*).

(\*) Lekuzko ainitzekin berdintzerako errextasunez usu irakurtzen eta entzuten da lankaiezko ainitzean *-etaz*. Baina ezta deusetan lekuzko kasua eta "ohitza onak" beti *-ez* nahi du ainitzeko.

**2.4. Zertarakoak** edo "prolatiboak" (latinez *pro*) erraiten du zerbait edo norbait zeren egiteko, zein ofizioko eta b. egina edo gogatua den eta molde bat baino gehiago hartzen ditu:

*-ko* bigarren genitiboaren edo izen osagailuaren atzizkia gauza izen ez mugatu batekin : *hori etxeko da*;

*-tzat* atzizkia: 1) persona izen edo izenorde genitibo lehen-ean deklinatuarekin: *Piarresentzat, zuretzat, zuentzat* (\*); atzizkia batzuetan ekhertzen da eta genitibo bakarra gelditzen "zertarako" erran-nahian: *hori Piarresen*; 2) lehen genitibo mugatuan edo

ez mugatuan ezarri gauza izen baten ondotik: *herriarentzat*; *zein herrirentzat*?

(\*) Ikhermenak erakusten du aditz-izen atzizki molde bat *-tze* edo izaitekotz *-(t)z* lankaiezkoa *-at* norapaitekoa (ikus gorago) gaineraturik eta hartan urturik.

Atzizki batzun *-kotzat* eta *-tako* moldez kontrakoetan, lehenak goragoko *-ko* xoilaren balio bera du: *etxekotzat*; bigarrena *-tzat*-ekin aldizkatzen da ez mugatuan erran-nahizko berexkuntzarik gabe: *etxetako* edo *etxetzat*.

Mugimendu gabeko ez mugatua *-tan* gaineraturik aditz-izenak zertarakoan xedezko edo estakuruko gogo bat erraiten du: *lanera joaitekotan* ("joaiteko estakuru").

Baxe-nabartarrez ohiki erabiltzen da atzizki batzun ez mugatua *-(r)endako*, mugatu bakuna *-arendako* (laur atzizki: *-a-enda-ko*, *-tzat*-en laburpenez *-da*), ainitza *-endako*.

### 3. Izenaren osagailuak.

#### 3.1. Bi genitiboak.

Izan dadin izen eta izen multzo ala erranaldi menperatu "erlatibo mugatzale" izenekoa (ez berezia), izenaren osagailua, hizkuntzako lege orotakoaren araura, beti izenaren edo multzoaren aitzinean ezarria da euskaraz. Osagailu ez mugatua denean aitzin-emaite xoilak genitiboa balio du: *etxe oihala*. Poesiako idatzarak onhar dezake lekuz aldatzea (erdaraz bezala baina kontra moldera) eta jabetasunezko genitiboaren ezartzea izenaren ondotik, baina erlatibo mugatzalearena nehoiz ez "mugatzale" izaiteko berezitasuna ekhenduz baizik.

**3.1.1. Genitibo lehenak edo "jabetasunezkoak"** erraiten du jende edo gauza batek duena edo alde bat edo bertzetik hari doakona: *jendearen gogoa*, *herriaren geroa*, *harriaren gogorra*. Ukana du *-re* atzizki molde zaharr bat agian lehenbizikoa, ezpada bederen hastapenean *-e* mintzogai xoil bat baizik izan (*-i* datiboko bezala) loturazko dardari ohikoa *-r-* erabiltzez lotu lizakokeena:

ez mugatu: - *re* edo -*ren*,  
 mugatu bakun: -*aren*,  
 mugatu ainitz: -*e(re)n*.

Izenorde personalen jabetasunezko genitiboetan gelditu da -*re* hori jabetasunezko mugatzale bakuneko eta ainitzekoak egin-  
 ez: *hire, gure, zure, bere* eta b., ikusi den bezala *zuen* ainitza salbu, *zure* jendetasunezko bakun bilakatu denetik berexteko.

Anitzeko -*en* horrek izeneko mintzogaiaaren ondotik eztu loturazko joilerik, itxura guzien arabera galdua eta berrezartzea eztena arrazoinik are gutiago zuzentasunik gabe (mintzogai -*ee*-errepika guti arrazoinezkoa eta gainera debaldekoa baino hobeki), -*ren* ez mugatuak badakharrelarik: *etxearen lekua; zein etxeren lekua? gure etxe(re)n lekua*.

Ikusi da genitibo hori erabiltzen dela atzizki multzoarekin deklinatzen den zertarako kasuaren oinarritako: -*rentzat, -rendako*. Aditz partizipa bururakorrari gaineraturik egiten ere ditu, aditz eta euskalki arau -*ko* bigarren genitibokoarekin aldizkatuz, aditz laguntzale lehenarekin moldatu geroko partizipak: *eginen dugu, ikusiko duzu*. Baina -*ren* atzizkitu lehen genitiboak bakarrik egiten du aditz-izen bera beti deklinatuaren osagailua: *bere lanaren egitekotan*.

Izen-lagun egiteko -*rena* atzizki batzunak aitzinean jende izen batekin (jabe ala egoile) egiten ditu Ertaro azkenetik jendaldearen handitzearekin etxen izen ezin zenbatuak eta hortik errexixtroko deiturak *Arotzarena, Luisena* moldekoak eta b. Ohidurak atzizkitze hori moldegaiztu du gehienetan -*enea* eginez, hortik atzizki bereziarekilako *Enea* ikurr jostagarri batzu, hartzen baita orduan *ni*-ren genitibo *ene*-izenordeturik bezala, euskaraz bertzela ere osoki zuzena. Ohitza onak nahiko luke etxe izen horiek oro (horiek bezala bertze ainitz) bere molde egiazkoan berrezarr daiten, errexixtroko izenak jadanik legez finkatuak izanez, baina gehienetan -(*r*)*ena* molde zaharrear.

**3.1.2. Genitibo bigarren "lekuzkoa"** diotenak -*ko* atzizkia du, izen ez mugatuari gaineratzen zakona eta nehoiz ez -*a* (\*)

mugatuari. Jende izenen eta izaite bizidunen edo lekuzko berexkuntza gabeko gauzen osatzetik baztertua da: *etxeako leihoak, mendiko bidea, baina gizonaren lana, xoriaren begalak, leizarraren orstoak*.

(\*) Paper batean irakurtzen zen "Ospitalea-ko" gaitzeko huts bat da, Ospitalea izena ("Ospitalea izendatu etxea", ordena ospitalari zaharren etxe 'ta komandarien izen ohikoa) izen berezi mugatua baldin bada ere, Euskal-Herriko etxe izen guziak bezala.

1) Atzizki *-a* eta horren moldekin mugaturik *-ren* genitiboak, eta *-a* gabe ez mugaturik *-ko* genitiboak egiten dituzte izenorde erran-nahiz bereziak: *etxearenak dira* ("etxea dute jabea") eta *etxeakoak dira* jabetasuna azpimarratu gabe; *etxeakoak* ainitzean erraiten du ere "etxeako egoiliarrak, jendeak, familia" erran-nahi zabalenean, "herrikoak" bezala edo "herritarrak".

2) Atzizkiak ainiztuz *-ko* (zuzenez *-go* sudurkari ondotik) atzizkiarekilako izen osagailua hitz jadanik atzizkitu eta deklinatuerr emaiten zaie, hala nola inesiboko izenorde aditz-lagun erakuslerr: *bango, horko, hemengo jendeak*.

Nunbaitikakoan (*hemendik, hortik, handik*) *-ko* gaineratzen da arteko *-a*- batekin: *hemendikako(a)*.

Nunbaitikako *-tik* eta laguntzazko *-kin* atzizkietan *-ko* atzizkiaren aitzinean nabar-lapurtarrak sartzen ditu ikusi den lehenbizikoan *-a*- mintzogaia (*nunbaitikako*), eta bigarreanean *-la*-silaba (aditz-lagun atzizkiaren berdina baina egitekoan erran-nahizkoa baino gehiago soinu arintzekoa) izen-lagun balioko osagailu batzuen egiteko: *leibo gorriekilako etxea*, izen-lagun *gorri*-ren ondotik *-e*- ainitzekoa, *-ki*-laguntzazkoa, *-la*- arteko silaba, *-ko* egitekoa bademan genitibokoa.

Zerbait hartaz egina den gaia erraiten duen *-(e)z* lankaiezko atzizkiari gaineraturik, *harri, harritz*, genitiboko *-ko* atzizkiak zertazko edo kalitatezko osagailuak egiten ditu: *urrezko gatina, zurezko etxea*.

Aditz-lagun galdezko eta erakuslen *-la* atzizkiari gaineraturik *-ko* izen-lagun baliokoak oihuzko erran-nahia hartzen du,

mi-resteko edo gaitzesteko ingurumen arau: *nolako lana! horrelako itsuskeriak!*

3) Euskaraz *-ko* atzizkia egiteko ainitzetakoa da: deklinabidean zertarako eta genitibokoa erabilpen guzietan eta erathorri guziekin, hiztegian izenen eta izen-lagunen ttipitzalea *-to-* eta bertze batzuekin azki errex aldizkatuz.

### 3.2. Izenaren aitzineko izen xoilak genitibo ez mugatua balio du.

1) Bertze baten osagailu den izenaren mugatzea beharrezkoa eztenean, aitzinean atzizki gabe ezartze xoilak osagailuaren balioa du, bien arteko lotze edo batzuntze argirik izan gabe hortakotz: *etxe oihalak liboex ziren, herri mina*; *-ko* atzizkiak berezitze bat ekhartzen du, eta orotasuneko ideia ekhertzen: *etxeo oihalak* (etxe berezi batekoak) eta b.; berdin *herriaren urrikia* ja mugaturik. Aitzinean ezartze ez mugatuak izen-lagun baten balioa ukan dezake: *esku lana, liburu jakintza*.

Baina idatzarako zailtasun bat gerta daiteke orduan: bi hitzak beharr direa batean lotu ala ez? Lehenbizikoak batzuntzeko marka bat hartzen badu (ikus urrunago) batzuna hitz bakarr bilakatzen da, arteko marrattoarekin idatzi behar dena hitz luzea denean oroz gainetik eta mintzogaiek elgarr hunkitzen dutenean ("hiatus"): *basa-ihizi*, baina *etxe ihizi* batzuntzeko markarik gabe, hala nola *etxe oihal*; berdin ere *Euskal-Herria* eta *euskal-ikaskuntza* (salbuespen ohikoak ikusi dira *-al(-) ara-*tik jalgiarekin). Arteko marra baliagarri agerr daiteke aldi batzuez, aditz eragile batzundu luzekin hala nola *ereman-arazte* irakurtzeko errextasunez gehien gehienik. Hautua orduan idazle bakoitzari dagoko, ohitza onean arte marra gehiegi ezartzea baztertuz.

2) Hitzen ondoratzeko eginara hori euskaraz hitz batzundu elemeniaren ithurburu izana da ageriki, ezpaita beti batzuntzea gehiago ageri zorrozki ikhertuz ere. Izenen bertze berezitasun guziak bezala aditz-izenari hertsiki emaiten zako eta hori da beharr bada berant, baina XVI-garren mendetik bederen euskalki

espainiarr batzuetako idazkietan (kantu bizkaitarr zaharr batzuetan salbu), errextasunez eta oraiko idazle ainitzen baitan hizkuntzara ohargabez, aditz-izena osoki zuzengaizki hala ezten "infini-  
nitibo" batentzat harr-arazi duten arrazoinetan bat, horrela euskara itxuraldatu duten erdal-errepika gotorrenetarik bat eginez.

Ondoratzetik edo aitzin-emaite ez mugatutik ala geniti-  
boan (mugatu ala ez mugatu) deklinatutik dathorren erran-nahiko ezperdintasuna osoa da: *gizon izaitea neke da* eta *gizonaren izaiteak baditu Lurrean ondorioak*; *ogi ephaita* erran-nahi orotakoan zen; eta *ogien (garien) ephaitera goaz* "ezagutzen ditugunen, guren ..." erran-nahi berezian.

### 3.3. Erranaldi "erlatiboa" izenaren osagailu.

Euskarak eztu izenorde "erlatiborik" erabiltzen, ezpada ohitza onean baztertu beharr den *zein* galdezkoa. Erlatiboko marka *-n* aditz atzizki juntagailua da eta aldi hortan erlatiboa, genitiboko *-ren*-ekin lekuzko *-n*-ekin baino erkidagarriago, erabilpenean bederen.

3.3.1. Izen osatuaren aitzinean berean den aditz jokatuari emaiten zako: erdaraz "aitzinekoa" diotena erranaldi erlatiboa da beraz eta ez horrek osatzen duen izena, behazunez: "*irakurri dukan liburua (erosi diat)*", gizon hikazko moldean. Horrelakoa da bederen erranaldi erlatibo "mugatzalea" edo lotua erraiten dena eta euskaraz ondoko izen osatutik ezin berexkarria.

3.3.2. Baina erranaldi erlatiboa berexia izaiten ahal da ere, gakotxaz idazkian, gelditzeaz eta doinuaz ahozkoan, eta gertaldizko balio bat hartzen du orduan hertsiki mugatzekoa baino gehiago. Orduan "argitzezkoa" erraiten ere da. Aldi hortan erranaldi erlatiboa izenaren ondotik emaiten da euskaraz, eta bi moldetan erraiten ahal:

1) aditz erlatiboa izenaren ondoratu bezala atzizkiturik eta beraz haren zenbateko eta egitekoaren markak errepikatuz (hemen izen-huts edo nominatibo bakun mugatua): *liburu ttipi hurai, atzo mabi gainean ikusi duzuna, galdu dut*;

2) aditz jokatua (aditz huts ala laguntzale) *-bai(t)-* kausazko aurhizkian ezarriz, horrek gertaldizko balioa azpimarratzen duela: *liburu ttipi bura, atzo mahi gainean ikusi baituzu, galdu dut.*

### 3.4. Izen eta hitz aldagaitz ondotikakoak erdarazko aitzin-hitz edo errantzen baliokoak.

Aitzineko hitzaren edo multzoaren deklinabideko kasuak deman egiteko gertaldizkoaren arabera lerroka daitezke:

3.4.1. Nominatibo edo izen huts ez mugatua genitibo edo ondoratu baliokoa aitzinean (ikus gorago):

*aitzin: jan aitzin;*

*barne: hori barne;*

*estakuru: lan estakuru (\*);*

(\*) Uste izan da hitz latineko *obstaculu*-ren egokitze bat dela, erran-nahiz aldaturik.

*gabe: hori gabe;* norapaitekoaren ondotik "aitzin" erran-nahia hartzen du: *hara gabe;*

*lekat edo lekot: lekat bura (\*);*

(\*) *Lekat/lekot* erabiltzetik galduak bezala dira, horien erathorriak berdin: *lekora* norapaitekoa nunbaitikako izen baten ondotik, *etxetik lekora* "etxetik kampo" erran-nahian; berdin *lekore* hitza, behar bada *leku* izenari lotua.

*ondo: bazkal(-)ondo;*

*salbu* (latineko *salvu*): izenaren ondotik ezarr daiteke orduan ondoratua eginez baina aldagaitza; *hau salbu* edo *salbu hau, liburuak salbu.*

3.4.2. Lankaiezkua aitzinean:

*bertzalde: huntuaz bertzalde.*

3.4.3. Datiboa aitzinean:

*eskerr: iguzkiari eskerr;*

*hurbil* eta *hurran*: *herriari hurbil, hurran;* harr dezake nunbaitikakoa *herritik hurbil.*

3.4.4. Izen genitibokoa aitzinean, aldi usuena dena alabaina:

*aiduru: berrien aiduru;*

*bizkarr. hori zure bizkarr,*  
*fabore edo fagore. emazten fabore (Dechepare 1545);*  
*gain. hori zure gain;*  
*gomendio. hori zure gomendio;*  
*kontra. norbaiten kontra gudukatzea.*

3.4.5. Lekuzko kasu bat aitzinean:

mugimendu gabea: *barna eta gaindi. oihanean barna, oihanean gaindi; barna norapaiteko zaharra da, gaindi nunbaitikakoa -k gabe;*  
*zeharr. liburuan zeharr,*  
nunbaitikakoa: *bazterr. etxetik bazterr,*  
*landa. bazkaritik landa (\*);*

(\*) Hiztegian "alhor" erran nahi duen *landa* hitzak (erdaran *larre* balio duen "lande" hitzetik erran-nahia aldatu) hartu duke hemen *kampo*-ren balioa.

*kampo. lanetik kampo.*

Lekuzko kasuetako ondo-hitzeak eta osatzen dituzten hitzek egiten dituzte orotako egituraren sartzen diren gertaldizko multzo osagailuak: behazenez *bazkariaren ondotik* gorago ikusi den *bazkaritik landa* erran nahi duena da.

Hala nola *barna* eta *gaindi* lekuzko zaharr batzu ez dira orotara gehiago horrela ezagunak:

*aitzina* norapaitekoa: *zozte aitzina;*  
*behera* berdina: *maldan behera;*

*gora* berdina: *mendian gora* edo datiboan *mendiari* ... Norapaiteko zaharr ahatzi hori izen-lagun xoil bilakatua da *-goi* Ertaroko leku-izenetan geldituaren orde;

*arteo* bururapenekoa usu arrazoinik gabe *arte*-ra laburtua: *sarri arto.*

## II. Izen eta izen-lagun atzizkiak deklinabidekoak baztertuz.

Euskarak nahitara derabiltzan izen atzizki ainitzak izen erroen erathortzeko eta erran-nahi berri batzuen emaitzeko erran-nahi horien gaien araura lerroka eta bil daitezke. Ainitz nasaiki

aurkitzen dira, XVI-garren mendea baino lehenagoko idazki jarraiki eskasez, Ertaroko izen bilduma aberatsean, leku izen oroz gainetik eta jende izen. Hitz oso eta hizkien arteko berexkuntza ezta beti osoki argia, usu gertatzen den bezala; hizkuntza erromanetan *mente* hitz oso latinak eman du frantsesean *-ment* arako aditz-lagun atzizkia, balio bereko *-mente* españolean.

Atzizkiak izenari lotuak izan daitezke loturazko joile batzuez, ohiki *-k-/-g-* edo *-t-/-d-* nun-nolako aldapen erregelaren araura. Loturazko joile horiek hitz batzunduen "gaizki mozteak" izenda daitezkeenen ithurburuak dira batzuetan hitz oso gaizki jin eta debaldeko batzu eginez.

### 1. Lekua dioten atzizkiak:

*-aga, -eta*: biak hitzari den bezala emaiten zazko, *ithurri*-tik *Ithurriaga* eta *Ithurrieta*, *eliza* > *Eliçaga*, *haritz* > *Haritzeta*; ziztukari ondotik *-eta*-k hartzen du batzuetan loturazko *-k-* bat: *sarats* > *Sarasketa*, *Laphitz* > *Lapiçketa* eta b. Biak ohiko ahots erduetan erdalduak dira, lehenik Ertaroko gaskoinaz gero frantsesaz *-ague* eta *-ette* edo *-et* moldetan: errexixtroko jende izen "Harriague, Harriet", leku izen "Hausquette" eta b.

*-azç, -eç, -iç, -oç*: atzizki ziztukaridun moldez ez hain segurrek (hasteko mintzogaia batzuetan izenetik ez berezkarria), eta erran-nahiz ere ("lekukoak" erraiten dira errextasunez), bereziki *-oç* azkena leku izenetan gaitzeko eremu batean hedatua, *Garros, Garris* (euskaraz *Garruçe*) eta bertze (*Carros*), Greziako *Cnossos, Naxos*-etarano eta b.

*-oki* edo loturazko joilearekin *-toki* "leku, gune": *harri*-tik hastuna galdurik *Arroki, zurçai* (*çubatç* bertze moldez) > *Zurçaitoki, muga* > *Mugoki, urd-* hitz zaharretik *Ordoki, aitç-etik* > *Aztoki* ...

*-te*: *garai*-tik > *Garate* (erdal-ahotsaran eta idazkian "Garat") bere erathorriekin *Açkarate* eta b. Aditz-izeneko *-te*-ren itxura du (*egoite*) eta hori dateke *urte* izenean, ethorkiz "uren aldia", igortzen baitu elhurr eta hormen "urtzeak" urteko aroaren bereztera eta

izendatzera ekhartzen zuten urruneko mendetara. Horrek egin du atzizki hori bilakatu dela edo hastetik izan aroaldietako atzizki bat nasaitasuneko erran-nahi bat hartuz: *eurite*, *elburte*, *ogite* (ogi ainitz den urtea), *Hauste* (hautsetako astezkena euskaraz) eta b. Eritasun hedatuen aroa erraiten du ere (ez bakarrik erdaraz "peste" diotena): *izurrite*.

*-tze* aditz-izenaren bertze atzizkia ezta bereziki lekuzkoa, baina ainitz leku izenetan aurkitzen ez aditz erran-nahi (egintza ala izaita) baten emaitako zuzen, baina gogoz hortarik hain urrun ezten landare jite edo handitze baten: *intzaurr* > *intzaurtze*, *ira* > *iratze* eta b.

*-un* eta *-gun*: hortik *Larraun* "larre leku edo gune", ahots-aran eta idazkian erdaldua "La Rhune" Lapurdin eta "Larraun" Zuberon azken sudurkaria gaskoinez galdurik, baina zuberotarrez *Larrañe*; ziztukari ondotik *Arizkun* (hatsa galdurik hor "haritz lekua") Nabarran, *Lescun* (erdaraz "Lascu(n)" ahozkatua: "lats lekua") Biarnoan. Euskarak erabiltzen ere baititu *une* eta *gune* izen osoak leku ala aro zati erraiteko, atzizkitze eta batzuntzeko molden artean gertatzen da hemen eta segurkiago moldagaira iragan hitz oso baten aitzinean.

*-egi* atzizkiak egin du *jauregi* hitza "jaunaren egoitza": moldez badu beharr bada zer ikus *egon/egoite* aditzarekin baina erran-nahiz segurki; goizik agertzen da loturazko herskariarekin *Aroztegi* (XII-garren mendean) "arotzaren egoitza", eta hitz oso bat (-)tegi egin du azkenean (ikus urrunago gaizki mozteak).

## 2. Usutasun eta nolakotasunezko atzizkiak.

*-arr* eta *-tarr* jende edo gauza baten ethorkiko herriaren erraiteko erabiltzen dira, hasteko mintzogai ala joilearen hautua ohiduran jarria izanez: *Baigorri* eta *Baigorriar*, *Heleta* eta *Heletarr*, *Azkarate* eta *Azkaratiarr*, *Garazi* eta *Garaztarr*, *Lobizun* eta *Lobizundarr*, *Donibane* eta *Donibandarr* eta b.

*-din* erabilpen gutikoak "idurikoa" erraiten du, hain zuzen *berdin* "ber baten idurikoa", *gordin* "ez ondua, ez guritua", "gorr"

edo "gogorr dena"; *urdin* margoz "uraren idurikoa" eta errannahiaren hedatzez "mutzi, zikin".

*-dun* eta *-duru* zerbaiten ukaile edo jabearen erraiteko dira: *euskaldun* zuzenki "euskara duena", Ertaroko aiphaldietan kontraktzen zako jadanik *erdaldun* "euskaraz bertze hizkuntza bat duena" (\*); *jakinduru* da "jakitate edo jakintza duena", usuago *jakintsun* (*-dun* barne duena) edo ere *jakintsu* (ikus urrunago).

(\*) *Erdaldun* eman duen *erdara*-ren lehen zatiak *erdi* hitzera digorra (*ert-* batzunduetan: *ertikara*, *Ertaro*): gogatu beharr ote da euskara mintzo zutenek bertze mintzarak "hizkuntza erdi" bezala zaduzkatela, ala beharr ote da *ert-* hortako bertze ithurburu zenbait bilatu?

*-garri* hedamen handikoak eta moldeaz *-garren* ordenuko zenbaki atzizkitik hurbilak izen edo aditz-erro molde bati emanik erraiten du "izan, egin, merezi daitekeena", "zerbaitetako egoki edo gai dena": *egingarri*, *laudagarri*, *maitagarri*, *irrigarri* edo *irriegingarri*, *urragarri* (irriz)" eta b.

*-i* atzizkia azken joilea *-n* sudurkaria eztuten aditz-erro zaharrerr emaiten zaie izen-laguna edo izena balio duten partizipa bururakorraren egiteko: *ibil* > *ibili*, *itzul* > *itzuli*, *igorr* > *igorry*, *ekbarr* > *ekbarri*, *egos* > *egosi*, *eros* > *erosi*, *-araz* > *-arazi*, *irets* > *iretsi*, *irez* > *irezi* ... Margoen izen lerro bat ezagun-arazten du, bereziki *hori*, *gori* ("burdin gori"), *gorri* ("gorr", "gogorr"-ekin ba ote du zer ikus?), *zuri* (zuraren barne argiagoa?); baina ere: *guri*, *bozi*, *jori*, *larri*, *sarri* ("tinki" erran-nahian, eta ere hortik "berehala"), *sori*, *zohi* ...

*-o* erran-nahi zuzena lekuzkoa ala nolatasun zerbaitetakoa duen ezta jakina baina leku izen erathorriak egin ditu: *berri* > *Berrio*, *lur(r)* > *Luro*, *zabal* > *Zabalo*, eta izen-lagun ezaguna *barro* lehenik "harrak joa, biphiatua" gero hortik "arin, nahasi" eta bertze. Ezin errana da *ero*, *zoro* eta *zozo*, *oso* bezalako hitzak atzizki horri lotuak zazkon ala ez.

*-oi* eta *-koi* ixuri baten, gustu baten erraiteko dira eta nahitara erabiltzen: *amakoi* amari atxikiegia den haurr bat, *emakoi* emazteari berdin gizon bat; atzizkiak egiten ere ditu *sagarroi*

("sagarr maitale") bezalako hitz batzu, *beda* aditz-errotik *hedoi* ("hedatzera emana"). Izan daiteke atzizki hori lotua dela *obi* izen eta izen-lagunari eta horren silaba bakuneko molde atzizkitua baizik ez.

-*orr* eta loturazko joilearekin -*korrr* erran-nahiz aitzinekotik hurbila da "zerbaitera ekharria" erranez: *harkorr* "hartzera ekharria", *lotsorr* "lotsatzera", *sarkorr* "sartzera", *sendikorr* "sendimendura" ...

-(*z*)*toi* eta -(*n*)*doi*, -(*l*)*doi* usu -*ti* eta -*di*-tan laburtuak biek bokalaren xoiltezez, landare edo bertze gauza batzuek egin multzo baten erraiteko dira, jendeak barne ere: *Hariztoi*, *Arandoi*, *Irati*, *Hardoi*, baina ere *lagundi* eta b. Atzizki hori aitzinean ikusi den -*oi*/-*koi*-ri lotua da beharr bada.

-*ti* atzizkiak izen-lagun ezagunetarik erathortzen ditu erran-nahiz edo motaz aldatu ahal diren hitzak: Ertaroko leku izenetan *gorri* > *Gorriti* lurraren itxura "gorria, idorra, gorraxta" erraiten duena; *goi* > *Goiti* "gainean jarria", *behe* > *Beheti* edo *Bebeiti* "beherean jarria": biek aditz-lagun balioa hartu dute "gaineko aldera, behereko aldera". Ohikiago egiten dira *artha* > *arthati* "artha emaitera ekharria", *egia* > *egiati* "zintzo" bertze moldez, *gezurr* > *gezurti* eta b.

-*tsu*-, -(*a*)*zu* ainitz dira leku izendegi zaharrean (*Artsu*, *Mendilaharsu*, *Errazu*, *Leizarazu*, *Sagartzazu* ...) baina beteki bizi orotako hiztegian argiki erranez nasaitasuna, eta ainitz aldiz latin -*osu* eta hortik erdarako -*oso*/-*eux* atzizkien balioa dute: *harritsu*, *urtsu*, baina ere *mukuzu*, *zorrizu* ... Azken -*u* mintzogaiaeren erorteak egin duke iduriz *aberats*, hastapeneko *aberatsu*\* batetik "aberez nasai" (latineko *habere* euskaraz "ukan/ukaite", gaskoinez *aver* bezala): "aberastasuna" egiten zuten etxe-ihizi handiez (*gorri*, *zuri*, *beltz*) eta ez xoilki "ihiziez", hutsez orai erraiten hasi den bezala. Hitz moldea *abere* > *abera*- ezta euskaran batzuntzeko molde zuzen *aber* > *abel*-ekin sortu (ikus urrunago) baina iduriz -*atsu*/-*azu* atzizki zaharreko-tik -*a*- hastapenekoa atxikirik.

### 3. Atzizki eta ahots ttipitzaleak.

Ttipitzeko euskarak baditu nahi bezala elgarren gainera emaiten ahal diren moldamen eta ahotsarako eginara batzu, euskararen erabil-moldeko ekhai handi bat dagitenak.

3.1. Atzizki batzuen zahartuek *-ando* eta *-sko* moldatu dute leku izen lerro laburr bat: etxeak eta lekuak aurkitzen dira izendatuak *Berango* beharr bada *behere-tik*, *Larrango* segurki *larre-tik*, *Ithurrusko* *ithurri-tik*, *Murrusko* *murru-tik* ("harresi" edo "mendi") eta b. Ziztukari sabaikatzearekin, Ertaroko idazki guzietan markatua etzena, aditz-lagun eta izen-laguner emanik *-xko* "apur bat gehiegi" erran-nahikoa da: *handixko*, *gutixko*, *soberaxko*, "ttipitzezko soberakin" mota bat eginez horrela.

Ertaroko leku izendegian bazen *-anda* atzizkia (*larre-tik* *Larranda*) eta latinarako molde eta erran-nahi emeak hartu ditu iduriz: *oilasko*-ren ondoan (*oyllasco* izengoiti XIV-garren mendean) *oilanda*, eta *otsanda* "otso emea" (*Otso* jende izen Ertaroan erdaraz "Loup/Lop" bezala) eta *Oxando* arrarenean X-garren mendean (959).

*-ka* eta *-ska*: ezta nahasi behar *-ka* ttipitzezko atzizkia molde bereko aditz-lagunekoarekin (ikus urrunago); itxuraz bada *neska* hitzean eta segurki egin du *bibi-tik* *bibika*, berdin *busti* > *mustuka*, *ñiñi* > *ñiñika* (begikoa, erdaraz "pupille"), *behorr* > *behoka* (behorr gaztea); *-ska* edo bizkarreko ziztukaria sabaikatuz *-xka* gutiesle bezala hartzen bada gaurregun (*mutikoska* "muiko arrunta", *gizonxka* "balio ttipikoa"), etzen hala Ertaroko izenean *Erlandeyxca* (Etxauzkoa Baigorriin).

*-ko*, *-to* eta *-no*: atzizki ttipitzale ohikoenak dira eta aski libreki aldizkatzen erran-nahian berexkuntzarik gabe, jakinez *-a* eta *-o* azken mintzogaiek eztutela euskaraz erdaran bezala arremetasunik entzun-arazten, eta Ertaroko izendegian *Maria*-ren ttipitua *Mariaco* zela, aro berrian *Mariaño* den bezala sabaikatzea gainera. Izen guzietako dira, berezi ala ez, eta izen-lagunetako: *etxeto*, *manddoko* (*mando*-ren sabaikatzea gainera), *gorriño* eta b. Atzizki ttipitzalea *-ko* aurkitzen da ere hungariarrean, zamoie-

dean, xaponesean, errusoan eta b. *Neska* hitzeko ttipitzale moldamanezkoaren ahazteak egin du gaineratu direla atzizki eta sabaikatzeak: *neskato* "zerbitzari, sehi", eta ere "laratz dilindako" sukaldean izenaldatzez; *nexka*, *nexkato* "haurr ttipi" edo "gazte".

3.2. Atzizki horien joile ziztukari, horzkari eta bazterkari guziak hiztegi orotakoak bezala sabaikatzen ("bustitzen" zioten erdaran lehenago) dira errankortasunez, amultsutasunez edo ere gutiesteko xedez ingurumenaren araura ohiko hizkuntzan eta haurrarakoan bereziki, hortik irauten baitute gero adinekoen izenetan edo orotako hiztegian. Sabaikatze horren ekhentzeak orduan handitzezko balioa hartzen du eta usu guties-ekoa;

1) *x* aho sabaikoak ordaintzen ditu bi ziztukariak, mihi puntako *s* (*samurr* "amultsu" erran-nahi zuzenean ahozkatzen da *xamurr*, eta sabaikatzerik gabe "norbaiten kontra haserretu" erran nahi du), eta bizkarreko *z*: *zozzo* eta *xoxo* edo "erokka", *zakurr* "gotorr, handi" erran-nahian eta *xakurr* "ttipi, maitagarri"; sartzen ere da mota orotako erabilpenetan edozein joile ordainduz, *m* bezala *txaingu* eginez *maingu* latinkitik eta b. Arthizki/atzizki *-xe* bat eta joile ondotik *-txe*, ahotsarako ekhai hutsa bezalakoa, batzuetan "apur bat, nunbait han" erran nahiz, aski libreki emaiten da: *irakurrixe du* ("abantzu, nunbait han"), *borr da* eta *hortxe da* ("hor berean") inesiboan *hortxetan*; *lehenago* "noizpait, aspaldi" eta *lehenxago* "apur bat lehenago" (ikus urrunago izenlagunaren mailak);

2) horzkari sabaikatuak: *d* ozena sabaikaturik *dd* idazteko orde ohiki *j* egiten da: *Domingo* izena *Jomingo*, etxe izenetan *ondo* hitza usu erraiten da *onjo* (baina *onjo*, lekaxin ala burubeltx, latineko *fungu*-tik sortu *bongo* erdarari mailegatua da): horrela *Ibarrondo* > *Ibarronjo*; eta *t* gogorra *tt* hala nola *ttipi* Ertaroko *xipi* ziztukari sabaikatutik aldatua eta galdarazten duena eztenez euskaraz lehenbiziko "ttipi" izana \**zipi* (orai *x-* > *z-* sabaikatze gabetua handitzale delarik);

3) *l* bazterkaria "bustirik" *ll* idatzia, *Ellande* gizon izen ezagunean Ertaroko *Erlande* edo *Arlande*-tik, "Roland" izenaren

molde zaharretarik jalgia (baina "Arnaut"-ekin nahasia zuberotarrez), haurrarako mintzaratik hara bekan agertzen da; berdin sudurkari sabaikatu *ñ* idatzia, *ñaño*, *ñiñi* eta b.

#### 4. Izenen bertze atzizki ainitzak.

**4.1. Lanbide eta egintzako atzizkiak:** *-ari* eta *-lari*, *-le* eta *-tzale*, *-gin*/*-kin* eta *-gile*, *-go*.

Lehena *-ari* latineko *-ariu* erran-nahi berekoaren eta erromanez *-ero*, *-ier* eta b. egin dituenaren hurbila da, baina ere *artze* "lan egite" aditz-izenaren partzipa *ari* aldagaitzaren berdina, ethorkiko galde bitxi bat sortzen baitu. Erraiten da *dendari* edo *musikari* hitzaren azken mintzogaia *denda*, *musika* bezalako hitzen *-a* denean, baina *bankolari*, *bertsulari*, *neurthizlari* bertze mintzogai edo joile batekin, horrek aieru emaiten baitu *\*-alari* zaharr baten laburpena dela *-ari*. Izaiten ahal dira *-ari* eta *-le* biak hala nola *maitari* edo *maitale*.

Bazterkariak *-lari* hortan zerbaitetan ari denaren *-le* atzizkia itxuratzen zukeen, horrela *egin* > *egile*, *jan* > *jale*, *edan* > *edale*, aldiz *edari* denean "edaten dena", *janaria* "jaten dena" bezala, horrek agertzera emaiten baitu atzizki horren erran-nahiko ainiztasun bat. Zerbaitetan artzeko atzizki erabiliena da *-le* euskaraz. Atzizki batzun *-tzale*-tan *-le* gaineratua zako *-tze* egintza dion aditz-izenekoari, *-tza*-ra aldaturik ala molde batzunduan ala molde mugatua *-tzea* laburturik: horrela *buruzagitzza* zerbaiten buru edo manatzale denaren ofizoa edo kargua. Egiten dira berdin *sal* aditz-errotik *saltzale*, *kanta* > *kantatzale*, eta ere *kantari* hemen ofizioa edo lan ohikoa orotako egintza bat baino lehen dion berexkuntza batekin. Mintzogai biekoa *-tzaile* moldean bigarren mailekoa da eta ez beharrezkoa.

Atzizki *-gin* et hunen aldapen nun-nolako *kin*-etan ezagutzen da *egin* erroa: *harría* lantzen duena *hargin*, *ilea* ilagin, *joste* egilea *joskin*, *ogi* > *okin*, "zapata" (oinetakoa) *zapatagin* eta b. Erran-nahi gehiago badu ere eta egintza baten ondorio ona edo gaitza emaiten: *moz* > *mozkin* (zuzenki "moztu denaren emaitza"),

*ondarr* > *ondarkin* ("ondarrean gelditzen dena"), *gaitz* > *gaitzkin* aldi berean "gaitz egile" eta "egintza gaitz".

Gizarteko izanara edo ofizioa erraiten ahal da erabilpen hein batean bekanekoa den *-go* atzizkia: *aphezgoa*, *soldadogoa* eta b.

#### 4.2. Gai eta lankaietako atzizkiak: *-ki*, *-gailu*.

Moldeaz *-ki* atzizkia aldi berean deklinabidean da ohiko *-kin*-en orde euskalki zuberotarrean laguntzazko *-ki*-rekin eta *-ki* aditz-lagun arazkoarekin (ikus urrunago).

Izen atzizki bezala gauza bat hartaz egina den gai oro erraiten du: azken mintzogaia gal dezakeen *burdina* hitza egin da *burdinki*, *oibalaz oibalki*, *zurez zurki* eta b. Haragi mota ororen erraiteko baliatzen da bereziki: *arrainki*, *bebiki* (euskaraz ezta erdaraz bezala "idiki!"), *bildoski*, *arrainki*, *urdaki* eta ere (ahots ezperdintzeko ondorioz dudarik gabe) *urdai* eta b. Atzizki berearekin egiten da *jende*-ren erathorria *jendaki* "familia hedatu bereko jende".

Iduriz *gai* hitzaz "zerbaitetako baliatzen dena" erran-nahian egina den *-gailu* atzizki batzunak erraiten du helburu berezi bateko erabiltzen den gauza oro, *edergailu*-tik ("edertzeko erabili gauza") *jostagailu*-ra ("jostatzeko") eta b. hitz-lerro ideki batean, lankaiak izen zuzen berezirik eztuen aldi oroz.

**4.3. Egintza, gogamen eta orotakotasunen atzizkiak:** *-men/-pen*, *-sun/-tasun*, *-kizun*, *-rio*, *-gia*, *-(t)zia*, *-eria*, *-zarre*.

Latinaren itxura handiko *-men* (euskaraz "botere" erran nahi duen *men* hitzaren berdina) eta *-pen*, bekanago *-mendu* ("salbamendu") atzizki aldapenek erathortzen dituzte egintzak: *aho* > *ahamen* ("ahotara aldia"), *gogo* > *gogamen* (edo *gogoeta*), *sal* > *salpen* (edo aditz-izenetik *saltzapen*) eta b.

Ainitz aldiz *-sun* edo *-tasun* atzizkiak erraiten du orotako ideia bat, sendimendu bat eta holako: *oso* > *osahun*, *maite* > *maitahun*, *alai* > *alaitahun*, *boz* > *boztahun*, *erne* > *ernetahun*, *zalu* > *zaltahun* eta b. Ezta sudurkari ondotik aldatzen: *bigun* > *biguntahun*, *on* > *ontahun* ("nork berea duena, aberastasuna") horri kontrakatzen baitzako *onezia* ("bihotz on ukaitea, emankortasu-

na"). Euskalki zuberotarrean atzizki horrek *-tarzun* moldea du, arrazoinez *-tasun* baino zaharrago izan beharr lukeena. Gutxi argigarri da halere, ezpada latineko *-ti-* ziztukari erromanera iragan ondoan, nabar-lapurtarrean eta zuberotarrean *-zione* egin duen latineko *-tione(m)* atzizkiarekin duen iduripen biziki ahuletik. Baina *osasun* hitzak, bertze moldez "osagarri", *oso*-tik eginak horr *-t-* loturazko joilea zela behar bada uste ukaitera uzten du.

Erabilpenez mugatuagoa da *-kizun* ("zerbaitetako gai") *-ki* gaikoaz egina: *ethorkizun* "geroan gertatuko den zerbait" *ethorr* aditz-errotik berdin egin den *ethorki* ("zerbaiten ithurburu dena") hitzetik, *emankizun* irrati eta telebixtetako bereziki, *gertakizun* aditz-erro *gerta*-tik (latineko aditz *certare* "gudukatze" erran-nahiz aldatu euskarari).

Zerrenda laburrekoak dira ere *-zarre* hala nola *bilzarre* erabiliena, *beteginzarre* (1657), eta *-rio*: *mixterio* elizako latin *mysteri*-tik egokitua, berdin *galbario*, *purgatorio*. Molde hortan egin edo berregin dira *ixtorio* (\*), *laudorio*, *bozkario*, *ondorio*.

(\*) Hitz biak elgarri lotu dira *ixtorio-mixterio* jendearen errantzan, hori baitzen Piarres Lafitte, gogo xorrotzeko idazle 'ta nabar-lapurtarraren jakile handiak *Gure Herria* astekarian idazten zituen ipuin laburren izenburua.

Ondoko hirur atzizkiek azken *-a* bat badute erromanetik egokitua iduri duena oro harr, izan daitekeen euskarako *-a* muga-tzaletik baino lehen:

egintza bateko berezia den leku bat *-gia* atzizkiaz erraiten ahal da: *alba* > *albagia*, *edan* > *edangia*, *sarr* > *sargia*, *etzan* > *etzangia* eta b.

hitz guti da *-(t)zia* atzizkiarekin: *zuburr* > *zurburtzia*, *gabe* > *gabezia*, *on* > *onezia*, *buru* > *burutzia* ("menperatzeko ahala");

aldiz *-eria* mailegu erromana bere *-a* azkenarekin ainitz hedatu da euskarari, usu trufako eta arruntasuneko ere berezitasun batekin: *gazteria* (lekuko jende gazte guziak), *gaztetasun* (gazte izaitze orotakoa) eta *gaztaro* (gazte den adina) hitzetarik berexen da; aldiz *zaharraro* edo *zahartzaro* hitzak "adina" diolarik bakarrik, *zaharrera* hitzak gutiesteko berezitasun azkarr bat

hartzen du; berdin ere *zikoitz* hitzaren erran-nahiaren gatik *zikoitzeria* edo *zikoitzkeria*. Alabaina ziztukari baten ondotik edo mintzogai artean loturazko *-k-* herskaria hartzen ahal du, horrela *gaixtakeria* (gogoa ala egintza) *gaitz*-en *gaixto* molde tipitzaletik. Ezta nahasia izan beharr euskarako osagailu (-)eria berdinarekin "eritasuna" erran-nahian, *eria* "eri den jendea" hitzaren erabilpen aldatzetik, horrela *bazteria*, *bezurreria* eta b.

### III. Izen-lagunaren hirur mailak.

#### 1. Erkidatzekoa.

**1.1. Berdintasunean erkidatzekoa** *bezain* aditz-lagun lokailuaz erraiten da izen-laguna ondotik: *liburu bat hori bezain handia*. Batzundurik *bat* zenbakiarekin *bezainbat* egiten du zenbateko erkidapeneko: *bazuten zuek bezainbat diru*.

**1.2. Ezperdintasunean erkidatzekoa** "gehitze-ko" *-ago* atzizkiaz erraiten da izen-lagunari emanik, erkidatzale erranaren ondotik *baino* bururapeneko kasuan atzizkitu aditz-laguna aitzinean ezarriz: *ni baino handiago zira*. Zuzentasuneko xedearen araura hitz erkidatua mugatzen ahal da edo ez: *aberatsago* edo *aberatsagoak ziren*. Handira erkidatzeko *gehiago* aditz-lagunaz erraiten ahal ere da izen-lagunaren aitzinean: *gehiago errex da* edo *errexago da*.

"Gutian" ezperdintasuna *gutiago* aditz-lagun aldagaitzaz erraiten da izen-lagunaren aitzinean ezarririk: *gutiago aberatsak ziren hek*.

Aditz partizipek eta aditz-lagunek ere hartzen dute *-ago* atzizkia: *handitzenago da*, *handizkiago ari da*.

Batzuetan erkidapeneko ideia hori bera, gehitzean ala gutitzean, *ezenez* (hitzez hitz *ezen/zeren* eta *ez*) batzunaz emaiten ahal da erkidatuaren aitzinean, sudurkari gabetzez euskalkia *eziez*, erkidatuaren ondoko *bano/baino* aditz-laguna ordaintzen du: *hura handiago da ezenez hau* eta *hau baino handiago da hura* bi molde berezietan gauza beraren erraita da.

1.2.1. Aditz-lagun *-la*-rekilakoek bezala *-ko* genitiboan atzizkitu erathorri erkidapenekoek egiten dituzte izen-lagun batzu

izenaren aitzinean edo ondotik ezarriak, *-a* mugatzaleak izenordetzen baititu: *esku<sup>z</sup>keo lan gotorrakoak eginak zintuzten, guk mekani<sup>z</sup>keo erre<sup>x</sup>agoak, horrelakoak, horienak bezalakoak eta gutiago.*

1.2.2. Baino erkidatzekorik gabe, hitz erkidatua, edo erkidatuaren osagailua bekanago, *-z* lankaiezko kasuan edo *-rik* nunbaitikakoan deklinatua izaiten ahal da, hala nola: *zu hartaz gorago zinauden, ni huntarik beherago.* Aldiz *baino*-rekin bakarrik izenlagunik edo erkidatzalerik erran gabe, ingurumenak onhartzen badu, erkidapena erran daiteke: *zu gu baino? - zu bezainbat!*

**1.3. Zenbatean erkidatzekoa** *-ago* atzizkiarekilako izenlagun mugatuaz edo ez mugatuaz erraiten da, *hare(n)* erakusle genitiboko laburpena edo molde zaharra den *are* hitza aitzinean: *hau handia baldin bada, hura are handigoa da.*

**1.4. Aroan aitzinatzeko erkidapena** "gehira" *gero 'ta gehiago* erranbidez emaiten da, eta "gutira" *gero 'ta gutiago* berdin. Erranbide horiek bakarrik erabiltzen ahal dira izenorde bezala (*baz<sup>en</sup> gero 'ta gutiago*) edo izenlagun aldagaitz bezala: *gero 'ta gutiago jende bai<sup>z</sup>ik et<sup>zen</sup>.* Ezezko erranaldiak beharr du *bai<sup>z</sup>ik* edo *bai<sup>zen</sup>* aditz-laguna, bai-ezko *bai* eta ezezko *e<sup>z</sup>* hitz biez eginak, nunbaitikako edo lekuzko geldian deklinaturik.

**1.5. "On" hitza da bakarrik**, latinean *bonus* eta *melior* bezala, erkidatzekoa hitz erro ezperdin batetik egina iduri duena edo erroaren molde zahartu (*ho-*) eta bertze moldeko atzizki erkidatzale batetik (*-be*): *hobe*, aldi berean izenlagun eta aditzlagun. Egitura horren ahaz-eak egiten du arrazoinik eztuen *habeago* erkidatzale errepikari bat erraiten dela batzuetan. Baina gehiegia *on* bitzetik egiten da: *onegi.*

## 2. Gehientzekoa.

**2.1. Gehientzeko "zerbaiten alderakoa"**, gauza baten edo gauza multzo baten eretzean "gehiena" erakusten duena, euskaraz zenbaki ordenukoan den *-en* atzizkiaz erraiten da izenlagunari emanik eta usuenean mugaturik: *handi-tik hori da handiena.*

Mugatzen duen izenaren ondotik ezartzen da zuzenez izen-lagun gehientzekoa eta beraz deklinatzen.

Gehientzekoaz osatu izena izen huts ez mugatua gelditzen da gauza bat baizik ezpada aiphatzen: *hori da lan ederrena, hoberena*; eta ezin zenbatua dion zatizkoan, gauzalde ez argi bateko zati bezala gogatua baldin bada: *egina zen lanik ederrena zen*.

Baina izena bertze kasu batzuetan jar daiteke ere:

**lekuzkoetan**, hala nola mugimendu gabeko ez mugatu aski bekanean eta aldiz usu den ainitzetik gaizki berexian: *liburutan ederrenak* ("liburu bezala"), edo errexkiago *liburuetan errexenak irakurtzeko*; edo nunbaitikako ainitzean: *liburnetarik lodienak ziren*;

**genitiboetan**: lehena edo "jabetasunezkoa" (*guzien ederrena*) eta ohikiago *artean* inesiboarekin edo *arteko* lekuzko genitiboarekin: *guzien artean/arteko errexenak*; genitibo bera inesibo ez mugatu edo ainitzari gaineraturik *-(e)tako* atzizkiarekin: *soineko guzi(e)tako merkenak* edo *merkerenak*;

**lankaiezko** atzizkia *-z* ezta *leben* zenbaki ala aditz-lagunarekin baizik sartzen, horrek egiten baitu aditz-laguneko errantza *oroz leben*.

"Gutira" gehientzeko, ezpada "gutia" dioten *-en*-ekilako gehientzekoetan beraz *gutiena*, eta *ttitpi* beraz *ttipiena*, eta "gutia-*ren*" eta "ttipiaren" erran-nahikoetan (*apur*, *xebe* eta b.), euskarak ezartzen du aditz-laguneko gehientzekoa nunbaitikakoan, *gutienik*, izen-lagunaren aitzinean: *gutienik diruduna da*.

**2.2. Gehientzeko "osoa"** euskaraz erraiten da ohikienik izen-laguna errepikatuz marrattoa artean: *etxe handi-handi batzu ikusi gintuen*. Erdaraz bezala arako aditz-lagun batzuek, hemen *-ki* atzizkiarekin, erraiten dute euskaraz gehientzeko osoa: *biziki*, *gogorki*, *itsuski* (erran-nahi zuzena galtzen du ingurumenaren araura: *itsuski maitte dute*, "ezin gehiago, sobera") eta b.

*Guziz* "guzi"-ren lankaiezkoak "guzien gaineratik" erran-nahia hartzen du *guziz ederra* bezalako erran-moldetan, eta erraiten da ere garbiki *oroz gaineratik*.

Egunorotako hizkuntzak erabiltzen ditu oraino molde batzu gutiago aphañak, hala nola erromankiak *arras* ("à ras" erdaraz), *arrunt* (gaskoinez *around* "biribil, biribilki" erran-nahiz aldaturik) "osoki".

### 3. Gehiegikoa.

Izen-lagunaren euskarako hirugarren mail horrek "soberakineko" ideia adi-arazten du eta mintzogai ala joile ondotik *-egi* atzizkiaz erraiten da: *handi* > *handiegi*, *abul* > *abulegi*. Hitzaren *-e* azken mintzogaia ohitza onean atzizkian urtu beharr du errepi-katu gabe, *-a* mintzogaia egiten den bezala: *gora* > *goregi*, *mebe* > *mebegi*.

Hizkuntza erromanen molde berezleak baderama euskal-atzizkitzeko moldamen bateratzalearen ahatz-araztera, *sobera* euskarara arte mintzogaiaz egokiturik latineko *supra* eta horren ondorio erromanetarik jalgia denaren abantailetan. Debalde da eta gehiegiaren erraiteko baztertzeko izen-lagunetan eta ere aditz-lagunetan: *xebeke* > *xebekiegi* eta b.

Atzizki molde berak erraiten ahal du gehiegia, erkidapena egiten den bezala, aditzaren izen-molde partizipetan: *ikas* > *ikasi* > *ikasiago* > *ikasiegi*, *jan* > *janago* > *janegi* eta b.

## IV. Aditz-lagunak eta aditz-lagun atzizkiak.

**1. Atzizkia -o** duten aditz-lagunek hitz gutitara bildu lerro hetsi bat egiten dute nabar-lapurtarrez, hala nola *atzo*, uste ukaiten ahal baita *batz* hitzaren erathorri bat dela ("esku, oin" eta uzten duten marka); *gero* iduriz *aro* euskaraz "dembora" latinkia erran-nahi orotan dionari lotua, aditz-lagun eta izen azkarki erabilia.

**2. Aditz-lagun -ka atzizkiak** izenerr emanik egiten du aditz-lagun lerro ideki bat, egintza, jestu, egonara eta bertzetako jarraipen, errepika mugarik gabeko bat erraiten duena, eta erdaraz

"gerundibo" deritzotena balio ukaiten ahal duena: *abarrausika, harrika, jauzika, joka, lasterka, oihuka, ostikoka* eta b.

### 3. Atzizki *-ki* eta *-la* "ara" erraiten dutenak.

1° Lehenak *-ki*, laguntzazko kasuko *-kin* eta zuberotarrean *-ki* atzizkiaren iduriak, ainitz egiteko dituenak euskaraz, izen-lagunak atzizkitzen dituen lerro ideki bat egiten du: *bereziki, ederki, ezteki, emeki, gogorki, goxoki, xoxoki, xuzenki* ... Sudurkari ondotik *-gi* da batzuetan: *ongi* "ara onean" (izena berdin: "egiten den ona"). Hitz batzuetan lankaiezko *-z-* lehenik emanik *-zki* moldea hartzen du: *handizki* baina *tipiki*, eta *arthoski* "artharekin" hemen ziztukaria mihi puntakora aldaturik; *particular* erdalki "ohitza onean" debaldekotik *partikularzki* erraiten da, *bereziki* euskarakoaren orde.

Aditz erroekin *-ki* atzizkiak erraiten du "ari den" gertakari bat: *egonki, joanki, ibilki* eta b.

2° Iduriz *ara*-tik bazterkarira aldaturik jalgia den *-la* atzizki-arekilako aditz-lagunek lerro hetsi bat egiten dute eta erathortzen dituzte:

2.1. galdezko aditz-lagun eta izenorde batzu: *nola, ehola* edo *nehola*, eta euskalkiz *zer*-tik *zelan*;

2.2. hirur erakusleak genitiboko molde batetik: *\*haurela > hunela, horrela, \*harela > harla > hala*, azken hunek *ere*-rekin batzundurik emaiten baitu *halere* ("bizkitartean, hala izanik ere");

2.3. *ber*-tik genitiboan egiten da *berehala* "orai berean"; eta *bezain* "neurri berean" dionetik *bezala* erkidapenekoa: *nola? hori bezala* (\*).

Genitiboko atzizki *-ko* emanik *-la*-rekilako aditz-lagunek izenaren aitzinean izen-lagun balioa hartzen dute eta *-a* mugatza-learekin inzenorde bilakatzen dira: *nolako etxeak ikusi dituzue? - horrelakoak, zure auzoarena bezalakoak*.

(\*) Izen-lagunen lerro berezitik landa, *-la* atzizkia aditz jokatuari ematen zako agiantzazko aditzen eta aditz nagusiaren osagailu diren erranaldi menperatu osatzalen egiteko: ikus 3-garren zatia.

#### 4. Aditz-lagun erran-nahiko izenak.

##### 4.1. Deklinabideko atzizkirik gabe (izen huts ez mugatua) (ikus Berezita III, 3, 4°):

*alegia*: "egiaren iduriko" eta "eginez bezala";

*alde bat*: "alderdi" eta "behin betikotz";

*barne*: "leku hetsi" eta "barnean hartuz";

*kampo*: "barne eztena" eta "kampoan utziz";

*berant*: "ordu gibelatu" eta "ordu eztenean";

*estakurr*: "arrazoin falsu, aitzaki" eta "arrazoinez";

*gora*: "gáinean jarri" eta "goraki";

*hurbil*: "auzo, urko" eta "ondo-ondoan";

*makurr*: "ez zuzena, nahigabe" eta "gaizki".

*zuzen*: "behar bezalako" eta "behar bezala" eta b.

**4.2. Hitz mugatu baten errepikapenak** arte-marratto-arekin izen-laguneko bezala, ainitz aldiz indarr gorena emaiten du aditz-laguneari eta horren erraiteko molde ohikoa *biziki* da aditz-lagun eta bertze horrelakoen aitzinean:

*argi-argia*: "azkarki argi" eta "argi-argiki";

*doi-doia*: "behar den neurri ttipienez" *donu* latinetik jalgi *doi* "neurri guti" erran-nahian (*doi bat* "apur bat");

*gora-gora*: "neurri gorenean";

*zuzen-zuzena*: "itzulingururik gabe" eta b.

**4.3. Zatizko -(r)ik atzizkiak** aditz-lagun balioa hartzen du, hala nola *bakarrik* (eta ere izen-lagun ondoratua "bertzerik gabe"), *baizik* (erranaldi ezezkoetan), *beharrik* "zorionez" (*beharr* erran-nahiz aldatutik), *goizik* (*berant*-en erran-nahi kontrakoa) eta b.

**4.4. Inesiboko -n atzizkiak** egiten ditu lekuzko aditz-lagun erakusleak: *hemen*, *han*; eta aroko: mugaturik *orduan* ("ephe berezi hartan", ez "orenean"); ez mugaturik *egun* (\*), eta *gaurregun* aitzinean *gau*-ren inesiboa *gaurr* "gau huntan" nabar-lapurtarrez ("egun huntan" erran-nahian erabilia dena ere) horrela *egun* aitzinekotik bertzelakatua, eta azkenean zuzenez *-r* xoil inesiboko *-n*

sudurkariaren aldapena azkarturik; bigarren erakusleko berdin *horr* "leku hortan".

(\*) Inesiboko atzizki aditz-lagun balioko bat gogoratzen duena *egun* hitzean *egu-* moldearen iraupena da *eguzki/iguzki*, *egubakoitz* (> *ebiakoitz*) *eguerdi*, *eguberri* bezalako hitz zaharr batzuetan. *Eguraldi* ("aro ederra") hitzean lehengo batzundu erran-nahi bereko bat bermoldatzen ahal da: *\*-egu-on-aldi*.

(\*\*) Aroko aditz-laguna *barda* ("iragan gauan") *gau* hitzari lotua dateke (herskariko *ga-* > *ba-* aldapen ohikotik?), baina argitzeko nekea.

Atzizki ber horrek *bedera* zenbaki banakatzeko eta *bederatzi* zenbakia egiten ere duenari emanik iduriz egin du *bederen* aditz-laguna. Egiten du ere *leben* "aitzineko aroan, aspaldi" erran-nahian eta ikusi den ordenuko zenbakia.

*Arte* izenaren *artean* inesibo mugatuak egiten ditu *anartean* erakusle genitibokoa *haren* laburturik > *an-*, eta *bi* zenbakiarekin genitiborik gabe *bitartean* eta *bizkitartean* (ikus lehen zatian, Berezita lehena: joileak ...).

Aditz-lagun balioko inesibo moldeak badira nasaiki: *aitzinean* "lehenago", *arestian* "duela guti" (ahozko arruntean *oixtion*-era aldatua, *-on* eztelarik hor *-an* inesiboaren molde gaizkitu bat baizik), *ondoan*, *gibelean*, *auberretan* edo *debaldetan* eta b. Aditz-lagun balioko *-n* hori lekua entzun-arazten duten ala eztuten hitzetara hedatu da: *bana* eta *baina(n)* eta horren batzundua *albaina(n)*, *orai(n)* eta b., hor beharrik batere gabe.

**4.5. Norapaiteko atzizkiak -ra** egiten ditu *aldera*, *araura*, *gogara*, *hautura* (*hautara* aldiz *haut(a)*) aditz erroaz eta *ara* izenaz egina delarik: "hautuko aran"), *itsura* eta b.

**4.6. Nunbaitikako atzizkiak** egiten ditu *gogotik* "gogo onez", *aitzitik* "kontra moldean", eta aditz-lagun erakusletan *hemendik*, *hortik* eta b.

**4.7. Lankaiezko -z atzizkiak** badu berez aditz-lagun balio bat: *noiz?* Mugagabeen egiten ditu *aldiz*, *oinez*, *gogoz*, *iduriz*, *nigarrez*, *nekez* eta b. Mugaturik *ber* egiten da *beraz* ondoriotzekoa, mugagabeen *berez* "bere baitarik, bertzerik gabe", nunbaitikakoan *berainik* bezala.

Atzizki horrek izen mugatuari ala ez mugatuari emanik egiten ditu aroko erran-molde batzu: *egunaz*, *egun argiz*, *gana*, *luzaz* ("aro luzean"), *xaz* edo *jaz* ("iragan urtean"), *geurtz* ("heldu den urtean") horren moldamena errex berregiten ahal baita: \**gero-urtez*. Hitz hortan salbu eta nahiz orotako ixuri bat baden azken ziztukari pherekarien aldatzeko afrikatueta, lankaiezko pherekaria da bakarrik ohitza onekoa. Berdintzez eta debaldetan hedatu da bertze aditz-lagun batzuetara, hala nola *bertzela* molde zuzenaren orde bazterkaria sudurkarira aldatuz *bertzenaz* ("bertze moldez").

## 5. Zenbakiko aditz-lagunak.

5.1. Zatziko *-ik* atzizkia ordenuko zenbakiari emaiten zako aditz-lagun zenbatzalen egiteko: *lebenik*, *laurgarrenik* ...

5.2. Aditz-lagun banakatzaleak ordenuko zenbakietarik egiten dira joile ondotik *-na* eta mintzogai ondotik *-ra* atzizkiekin: *batna* edo *bana* (\*) edo *bedera* "bat bakoitzarentzat", *bina* "bi bakoitzaren", *laurna* ("laur bakoitzaren"), *hamarna* ("hamarr ...") eta b.

(\*) Galdegiten ahal da *bana* (erdaraz "mais" latinean "gehiago" erran nahi duen *magis*-tik) mintzogai biekotan *baina* eztenez banakatzale hortarik jalgia, arrazoinamenduko gaien hartzeko eta kontraktzeko "banazka, bat bertzearen ondotik".

5.3. Errepikatzeko *-ka* atzizkiak aitzinean *-z* lankaiezkoarekin moldatzen du *-zka* aditz-lagun errantza balio duena zenbaki banakatzalearekin: *bedera* "bat bakoitzaren" > *bederazka* "aldian bat", *bira* > *birazka* "aldian bi", *hirurna* eta b. Baina erraiten ere da *zortzika* "zortziz zortzi", *hamarka* "hamarrez hamarr", *ebunka*, *milaka* eta b.

## V. Hitzen batzuntzea eta batzuntzeko moldamenen eginarak.

Atzizki emaitiaz edo atzizkien bidez erathortzeaz eta hitzen batzuntzeaz edo gaineratzeaz hizkuntza lotzalea izanez,

euskarak baderabiltza hortako ahotsarako eta moldameneko eginara bereziak. Lehen hitzeko azken ahotsen edo silaben berezitasunaren eta bigarreneko mintzogai edo joile hastapekoaren araura aldatzen dira. Batzuntzea egiten ahal da hitz bat baino gehiagorekin.

Eginara horiek hauk dira bereziki: 1) azkeneko mintzogaian erorteak eta aldapenak; 2) azken silaba herskaridunen aldapenak; 3) hastapeneko joile barneko bilakatuen aldapen nun-nolakoak; 4) ahozkamolde berdin edo hurbileko bi silabetan baten ekhentzeak edo "haplologiak", usu gertatzen direnak hirur silaba baino gehiagoko hitz batzunduetan.

### 1. Azken mintzogaiak hasteko joile aitzinean.

1.1 Azken *-e* eta *-o* mintzogaiak zuzenki *-a-* moldera aldatzen ziren: *eme* eta *gazte* hitzek *\*ema-gazte* lekukotasun gabeko aldi baten ondotik silaba baten erortez *emazte* egina dute. Eginara horri zorr zako "Xabier" bataio-izenaren sortzea, lehenik Ertaroko lekukotasunez *etxa-berri* (san Frantses Xabieren ethorkiko izen eta lekua), gero ahozka-molde gaztelarakoaren ondorioz atzento erromanaren azpian mintzogai bikuntzez aldaturik eta azken mintzogai atzentogabearen erortez *-bier* egin da eta hastapeneko *e-* galdurik (hala nola *Irumberri* > *Lumbier* Nabarran) eta azkenik *xa-* gaztelaran "jota"-ra aldatu; horrela gelditu dira "Etxamendi" bezalako izenak; *elhe* eta *ide* hitzetarik *elhaide* eta aldapenez *elhaire*; horrela *larre* > *Larraburu*, *othe* > *Othaburu* eta b.

Eginara hori, bizia-bizia Ertaroko hizkuntzan ez osoki orotakoa izan arren, iduriz ahuldu da gero, *-o* azkenaren *-a-*ra aldatzea bezala, utzi baititu *soro* hitzetik *Soraburu* eta *Sorano* (*Soroꝥabal*-en ondoan), eta mintzogai arteko herskariaren gogortzea gelditurik Amikuzeko *Sorhapuru*; *asto* eta *ibi* hitzek egina zuten *Astaibia* etxe izena; *ꝥoro* hitzak *ꝥoragarri* eta b.

Euskal-eremu akitaniarrean *baso* hitza galduxa da *oihan*-en abantailetan leku izen ainitz utzirik *basa-* molde batzunduan, hetan *Basaburu* abantzu herri orotakoa erdaldurik "Basseboure",

eta *baso* hitza gaztelaratik edateko untiak harturik; eta gaizki moztez bilakatu da *basa* izen laguna erran-nahi zuzenez "oihaneko", "sauvage" bezala erdaran *silvaticu* latinetik.

Ezta horren gatik arrazoinezkoa "desertu" erraiteko *basa-mortu* bezain batzundu berri bitxi baten egitea, *mortu* latineko *portu*-tik euskarak *bortu* egina duenaren aldapen ohikoarekin: "oihaneko lepho" edo "mendi gora" (Oihenartek itzultzen du "Pyrenées")! Gauden ohitza oneko *desertu* latinkian *Urxo xuria errazu* kantu ezagunean bezala: *gauak eta egunak, desertu eta oihanak*; edo latineko *desertu* "leku utzi, huts" hitzaren erran-nahi zuzena dion euskal-hitz bat molda dezagun: *leku bakartu*, eta ere *hutsalde* (jendez hutsa).

Ohigabeki *gizon* hitzaren molde batzundua *giza-* da (*gizagaizo*), erran-nahi bereko eta ixtorio aitzineko \**giz-* edo \**gizo* erro zenbaiten asmatzera uzten baitu, berdinak badituena eurasiarrean, laponean, ienizeiarrean.

Atzizki emaitak ekharr dezazke azken mintzogaian batzuntzeko aldapen berak: *soro*-tik *Sorano* leku izen zaharr tipitzalea, *etxe* > *etxano*, *asto* > *astano* eta b.

1.2. Azken mintzogaian erortzea hastapeneko mintzogai atxikien aitzinean ohikoa da. Baina azken mintzogai bat bereziki dardarari ondotik galdua izaiten ahal da joile aitzinean ere:

-e: *larre*-tik egin dira Larrondo eta Larzabal aipaldi guzietan, asma baitaiteke \**larrazabal* ez ezagun baten ezperdintzeko mintzogai erorte bat izana dela;

-i: *sarri* "tinki, landaretze tinki" hitzetik berdin \**sarzabal* eta ziztukarien berdintzez *sarzabal*; batzundu hastapenean *berri* hitzak egiten du *ber(r)*- errepikapenaren balioa hartuz: *bermoldatu* "berri moldatu" *molda* aditz erroitik, *egin*-etik *berregin*;

-o: *soro* hitzetik dira Sormendi, Sorzabal ziztukarien berdintzez aldaturik "Zorzabal", hori ere batzuntzearen ondorio-etarik bat, *zin* ("egia") eta *este* ("gogatze") aditz-izenaz egiten baitu *sineste*, lehenago *zineste*.

-u: *larru* hitzak egiten du *lar(r)-*, *larrantze* ("larruaren itxura"), *largorr*, *largorri* (laburturik *lakorri*), *larxilo*, *larxuri*.

**2. Joilek eta azken silaba barneko bilakatuek** batzuntzean edo atzizkiekin ahotsarako aldapen ohikoak jasaiten dituzte.

2.1. Dardarari azkena erortzen da: *-ka* ttipitzalearekin *behorr* > *behoka* "behor gazte"; *belarr* (landarea) eta *egile* > *belagile* ("sorgin"), *min*-ekin > *belamin*, *haz*i-rekin > *belhazi* ...; *lurr* eta *beltz* > *lubeltz*, *-pe*-rekin *lupe*, *lupeko* (batzuetan *lumpeko*), *sagarr*-ekin > *lusagarr* ongi itzulia eta batzundua "patata" sartu zenean XVIII-garren mendean, eta b.

2.2. Azken sudurkaria *-n* sudurkatzea galduz *-r* dardarari ahulera aldatzen zen joile ala mintzogai aitzinean : *jaun*-ek egiten ditu *jauregi*, *jaureste*, *Jaurgain* (etxe 'ta jende izena); *belhaun*-ek *belhauriko* edo *belhauniko*.

2.3. Azken silaba herskari ozendunak *-di*, *-ge*, *-gi* edo *-hi* hastuna barneko bilakaturik *-t* herskari gogorrera aldatzen dira batzuntzean: *errege* (aitzin mintzogaia gehiturik *rege* hitzaren ahozka-molde latina begiratu da hizkuntza erroman guzien kontrara: "re, rey, roi") hitzetik Ertaroko *erretibera* ("eihera"), aro berrian *erretate* (1657), *erret-bide* zuzenki laburturik *errepide* (orai "bide handi mundrunatu");

*begi* eta *eri* > *beteri* (begiko eritasuna), berdin *betile*, *betespal* (*ezpal* baino lehen *estal* herskariz aldaturik) eta b.

*ardi*, *behi* eta *idi* hitzek egiten dituzte "andana" erran-nahian *alde* hitzarekin batzundurik (ikus urrunago gaizki mozteak) *artalde*, *betalde*, *italde*, eta *-(t)egi* "egongia" erran-nahikoarekin *artegi* (ber-moldatzez ere *arditegi*), *betegi* eta *itegi*; *olha* ("borda") hitzarekin *arthola*, *bethola* eta *ithola*; *zain*-ekin berdin *artzain*, *betzain* eta *itzain*; *hots*-ekin *ithots* (lehenagoko idi uztartuen aitzinarazteko *ithots emaita*)...

2.4. Azken silabak *ara* ("moldea") hitzarekin batzunduetan eta berdin *-re* eta *-ri* atzizkidunetan, *l* bazterkariaren eta *-r* dardari

arinaren ahozka osoki hurbilaren eta jende guziek beharrian berexen eztutenaren gatik (\*), bazterkaria dardararira aldatzen du eta azken mintzogaia galtzen:

2.4.1. *-ara* > *-al* bilakatzen da, hala nola *euskara*-tik *Euskal-Herri* edo *euskalki*; *urtekara* ("urtean urte arau") > *urtekal* bilakatzen da (\*\*) eta ez beti idazle hoberenetan zuzen lizatekeen bezala ondoko hitzari marrattoaz lotzen;

(\*) Nahasmenak usu dira idazki zaharretan eta aiphatuena Kompostelako Beilariaren *Codex* liburuan da, 1140 inguruan euskaraz *presbyterum* ("apheza") hitz latinaren itzultzeko idazten baitu *belaterra* beharr zelarrik *bereterra*: beilari on dudarik gabe baina ahotsaralari gaixto, beharriak behar bada huts eginik (bi mende lehenago 961 *belaterra* bezala), hitza trufaz aztertzen du eta "lurr ederr" entzuten erdaraz bezala, ikusi gabe *-a* mugatu *bereterr* hori (1360 *vereterra*) euskal-ahotsaran, *pre-* > *bere-* hasteko ozentzearekin eta multzo arteko mintzogaiaarekin, ondorio zuzena dela, ez zuzenki *presbyteru* latinaren, baina frantses zaharreko "prestre" bezalako ararteko erroman batena.

(\*\*) Badiduri hitz hori *urteko ara* multzo zaharretik egin dela, laburturik eta erathortze ez egokian aditz-lagun aldagaitz lerrora iraganik.

2.4.2. *abere* hitzetik ("etxe ihizi handiak") egin dira batzundu lehenago ohikoak baina orai ahatzixeak *abelbeltz* (urde mota), *abelgorri* (behi mota), *abelzuri* (ardi mota);

2.4.3. *-ari* atzizkitu aphairu izenek *askari* (goizeko), *barazkari*/*bazkari* (eguerdiko), *auhari* (arratseko) badute molde batzundu eta ere aditz-erro balioko *-al* molde bat ohiki lotu gabe gelditzen dena: *askal*, *barazkal*, *auhal*, hala nola *askal ondo* ("askaldu eta"), *goizik auhal gaiten* eta b. Ezta *edari* ("edatekoa"), *janari* ("jatekoa") hitzetan horrelako molderik ezagutzen. Batzuntzeko moldea bera hitz bilakatu da, *baso* hitzaren molde batzundua den *baso* gaizki moztuan bezala (ikus urrunago): *Basajaun* lekuko mithologian "oihaneko jauna", eta horren lagun bitxia *basandre* (erdaraz "zona"), *Basaburu* eta b.

2.5. Heskariak *-t-* eta *-k-* mintzogai artean joile loturazko bezala erabiltzen dira: euskalki iberiarretan *ume* ("haurr, ttipi")

bigarren hitzarekin egiten da *emakume* (Akitaniako "emazte"); *su* eta *ondo* hitzekin orotan *sutondo*.

Aditz jokabidean -o- 3-garren personako datibo bakunaren arthizkia nabar-lapurtarrez -k- sabaiko herskariaz lotua zako aditz-erroari: hemen ohiko *dako* ("hark du hari") sortu da -au- mintzogai biekotik (\**edun* aditzaren erro jokatua \*-a(d)u- jokabidean higaturik), berreman beharr den *dauko* molde bateko, nabar-lapurtarreko jokabide lerro hori guzia berdinduz: *dauko*, *dauku*, *dautzu*, *daukote* eta b.; berdin *eman* aditz ezin hobeki "datibokoan" *demako* ("norbaitek zerbait norbaiti") bertze euskalki batzuetan herskari orde *yod* batekin da: *demaio*, *dako*/*dauko*-ren orde *dio* den bezala (ikus 3-garren zatia).

### 3. Atzizki emaite, batzuntze eta gaizki mozte.

Ezin aditzez, luma "jakintsun" batzuen baitan ere, eta naski lehengo hizkuntza ahozko baitezpada guti ezagunean oraino, batzundu eta atzizkitu batzu "gaizki moztuak" izan dira hitz berezi berri batzuen egiteko, ezpaitira beti euskal-ahotsarako berezitasunekin arautuak.

Horrela bi mintzogaian artean eman batzuntzeko herskari eta egitekoaz berextekoa dena, horzkari -t- hala nola *sutondo* edo sabaikari -k-, hastapeneko bilakatzen da behin ere ozendu gabe bizkitartean euskal-ahotsararen arabera. Ohitza onak nahi luke, bere egitekoaren, erran-nahiaren eta moldearen araura, batzungai horiek lehen hitzari lotuak egon daiten hitz bakarr batean, baina aski usu eta batzuetan aldebat "gaizki moztuak" dira eta idazkian berexiak.

**3.1. Sabaiko -k- herskariarekin** gaizki mozte horiek hunkitzen dituzte *-kara*, *-karia*, *-keta*, *-kide*, *-koi*, *-kume* hizkai eta atzizkiak:

*-kara ara* hitzaren molde lotua da eta balio du "araura", hala nola Oihenarten 209-garren atsohitzez ezagunean: *Handiek nabikara*, *xipiek abalara* (zuzenez "bere nahiaren, ahalaren araura"). Atzizki hori bera batzuntzean ikusi den bezala zuzenki

arte marrattoa galdegiten duen *-kal-* bilakatzen da, baina salbu-  
espen ainitzekin.

*-kari(a)* egintza dion *ari* hitzetik egina "zerbaiten aldian,  
orduan" aditz-lagun erran-nahian erabiltzen da: *igandekari*; azken  
*-a* bat hartzen du *ara* hitzaren idurikoa beharr bada hain molde  
onekoak ez diren gaizki moztetan: *zer karia?* - *hori dela karia* ("zein  
gertaldiko? - gertaldi hortako").

*-keta*: mintzogai ondoko *-keta* moldeak aditz-lagun errepi-  
karietako *-ka* eta hain zuzen *-eta* lekuzko atzizki ez mugatua  
gaineratuz egina iduri du eta ohi bezala laburtua: *\*-kaeta* > *-keta*:  
*berriketa noa* "berrien bila, eskatzera", erdaraz "en quête", hitz  
hortaz khotsatua izan dela uste ukaitera uzten baitu. Euskara  
hobean *bila* aditz erroarekin erraiten da *berri bila doa*. Atzizki  
hortarik egiten da *-ketari* "bilatzale", bekan berexia zorionez,  
ezpada oraino soberakina den arte marrattoaz.

*-kide* hiztegi gehienetan hitz berezi bezala emana ezta  
bizkitartean *ide* ("berdin, lagun") hitzaren molde batzuntzekoa  
baizik, herskaririk gabeko batzunduetan *haurride*, *elbaide* eta b.;  
baina gaizki mozteak azkenean ohiduratik baztertu du, beharr  
delarik alta berriz hortan sartu, *(-)kide* gaizki moztearen orde.

*-koi* "izen-lagun" eta hitz berezizat hartu ahal izana da  
nahi den moldez eztelarik hala, ezpada *-k-* loturazkoarekin *ohi*  
hitzaren aldapen silaba bakarreratu bezala.

*-kume* hitz berezi bezala *ume* hitzaren gaizki mozte osoki  
debaldekkoa da: *umea* "ihizi baten ttipia", eta gauza batena hala  
nola *Urumea* Gipuzkoan itsas-bazterreko lats baten izena, Garazin  
Ertaroko etxe batena Irume, Oztibarren Leritzume "Leritz ttipia"  
("Leritz" Ertarokoa). Hasteko joilearekilako molde zaharr bat  
izana ahal baliz *\*gume* osoki ez ezaguna izanen zen. Euskalki  
iberiarretan *emakume* hitza *eme* eta *ume* bi hitz ondoratuen  
amultsutasunezko batzun betagina da.

**3.2. Hortzetako -t- herskariarekin** eginak dira *(-)talde*,  
*(-)tarte*, *(-)tegi*, *(-)toki* eta *(-t)zale* gaizki mozteak.

Oraiko *talde* "multzo", *tarte* "arteka" hitzak hetan sortu diren euskalki iberiarretarik akitaniarretara iragan dira bi aldetako harreman berrien gatik, *kume* eta bertze batzu bezala osoki beharrgabeak direlarik euskaraz, lehenbiziko *alde* eta *arte* hitzek errannahi ber-bera zutenaz, eta atxiki dituzten ainitz mintzatzalen ahoan eta idazkian oraino dutenaz geroz.

Gaizki mozteak *talde*-tan eztu alta "multzo" erraiten bereziki "kantari, musikari" eta holakoetan baizik, *alde*-ren lehenbiziko errannahia "leku, eremuko zati" delarik eta hortik hedatuz "auzo, norapaiteko alde" eta ere "leku batean bildu multzo, eli" erabilpen osoki ohikoan: *artalde* "ardi multzo", *betalde* "behi multzo" eta b. Azken hitz horietan *-t-* joilea ezta batera mintzogai arteko herskaria baina bazuntzean, ikusi den bezala, *ardi*, *behi* hitzetan *begi*-tan bezala azken silaba ordaintzen duen ahotsa.

*-egi* eta *-tegi*: idazki zaharrenetan ezta *-tegi*, mintzogai artean eta ziztukari ondoan loturazko joilearekin (*-degi* bazterkari eta sudurkari ondotik) *jauregi* hain hedatuko *-egi* horren aldapena, jende izener loturik baizik aurkitzen, bataio izen, ofizio izen eta izengoiti: "Apheztegi, Aroztegi, Ehuldegi" eta b.; oraiko atzizkia atherbe ororena delarik, saldegi eta bertze: *oilategi*, *okindegi*, *saldegi* ... Oraiko hitz gaizki moztua *tegi* (luzaz eta ontsa debaldetan aztertu nahi ukana da) berdin emaiten da zerbaitetako "atherbe, leku hetsi" bezala eta b.

*-oki* eta *-toki*: Ertaroko ohidurak argiki erakusten du *oki* hitz erroa, zuberotarrez *hoki* molde hastunean gelditua eta zatiz errannahia aldaturik (gauzetako "alketx", gogoko "omere on, izanara egoki"), josturako joilerik gabe erabiltzen zela: *barri* > *Arroki*, *muga* > *Mugoki*, *iratze* > *Irazoqui*, *urd-* erro zaharretik > *ordoki*, eta ohiko hiztegian *barr-* "barnea" errannahi duen erroatik > *barroki*, baserriko etxetan bizitegiaren gibelean zen eta oraino den behitegiaren izena; edo loturazko joilearekin hala nola *zurzai* > *Zurzaitoki*, *aitz* > *Aztoki* eta b. Hitz hortarik egin daiteke *ahoki* "doluko jende multzoaren lekua elizan", eta hitz ordaintzez jende hori bera, iduriz *abaide* batzuketik ("familia hedatua": ikus gorago

ide) egin \**abaideoki* zaharr zenbaiten ondorioa silaba baten erortzez edo "haplologiaz". "Leku" eta "gune/une" hitzek erraiten baitute ere ideia bera, ohitza onean *-toki* hitz batzunduetako beharr da hobetsi.

*-tʒale* eta "*ʒale*": lehenbizikoa atzizkitze bikun bat da, *-tʒe* aditz-izenekoa *-tʒa-* batzuntzeko edo atzizkitzeko molde zuzenaz (ikus gortago) eta *-le* egileko atzizkiaz egina; alta hortik da egin, *-tʒ-* afrikatua euskal-ahotsaran hastapeneko ez egokia pherekarira aldatuz, *ʒale* hitz bitxia "egile" erran-nahia "maitale"-ra aldaturik, ohitza onak, agerian, ezin gomenda dezakeena.

#### 4. Gramatika eta idatzara.

Zuzenaldi gaitzeko eta aldi berean ezin xoilago bat erakaskuntzako mail orotan, ama-eskolan idazteko lehen entsegutik unibersitaterano nagusitu beharr da eta molde zuzena bilakatu, edo hobeki berbilakatu, baiezezko eta menperatzeko aurhizkien idaztean ahotsarak nahi dituen ondorio osoki zuzen guziekin erraiteko, aditz jokatuari lotuz bertze hizkiak bezaka (aurhizki, arthizki eta atzizki): *eʒtut*, *badut* bezala; *eʒpaitut*, *baitut* bezala eta b. Aldi berean baztertzen dira (Frantzian) euskaraz mintzatzale berri adin orotakoen ahozkatzeko molde ezin gaitzagoak *eʒʒ dut* eta horrelako, euskal-ahotsaran ezin gehiago arrotzak diren ziztukari ozenekin. Zorionez ahatzi dira ordu batez erabiltzen hasiak ziren *eʒ bait dut* bezalako molde beharr baino gehiago berezleak eta moztuak.

Ezta horr, aitzin-hitz edo lokailu erroman batzu balire bezala euskal-hizkien berezteko imitazioe erromanaren aitzineko ohiduretara itzultze zuzen bat baizik, XVIII-garren mende aitzineko euskal-idatzara guziarekin berdintasunean jartzea, eta aldi berean arrazoin onez "lotzalea" errana den hizkuntza baten jeinuarekin berarekin (\*).

(\*) Euskaldun eta euskal-hizkuntzalari orok edo bertzek Piarres Lafitte-ri zorr daukoten errespetu neurrigabea izanik ere, bere *Euskal-gramatika*-ko (ikus liburu zerrendako laburpena) lan neurrigabeko eta bide-

idekitzalearen gatik, nabar-lapurtarreko euskaraz mota guzietako oharpenen ithurburua, beharr da baitezpada ezeztatu, Lapurdin XVIII-garren mendean erdarako moldean harturik sortu zen euskararen idatzara ohitu "berexle-arekin" berdintasunean, aditz jokatuiko aurhizki bakarren berextea, berez osoki arrazoingabea, onharrarazi nahi duen haren arrazoinamendua: "Ahozka-moldeko idatzararen hortarano eremaitiaz axolatzea eztugu baliagarri dela sinesten. Agian sarri idatz-araziko daukute *dударик gabe*-ren orde *duaika*" (op. cit. or. 412). Alabaina bi gauza errotik ezperdin eta kontrakoan nahastea da eta batzaz bertzeko arrazoinkatzea: *dударик gabe*-ren orde *duaika* ahozko molde ezin gehiago nola nahikoa da eta higatua, hitz batez araugabea, ohitza on orotarik urrun eta bere hizkuntzan doi bat ohartiak direnek baztertzen dutena eta baztertu beharr. Baina baiezezko aditz moldeak beteak dira eta arautuak, ahozkoan idazkian bezain zuzenak, hala nola *eztu*, *ezpadut*, eta beharr dita horiek *atrebituki* (ibid.) idatzi."

## VI. Izen eta aditz.

### 1. Aditz-izena: aditz-erro atzizkitua.

#### 1.1. Aditz mugagabe eta aditz-izen.

Oihenartek 1637-1656-ko *Notitia*-n latinez emana zuen, lehen aldiko, euskararen eta euskal-aditz jokoaren erakuspen zorrotz eta zuzen bat, mendeak berantago baizik eztena berdindu. Latin eta greka hizkuntza zaharren ezagule ona, *nomen verbale* ("aditz izena") erran-bidea erabilia zuen latin eta erromaneko "infinibito" edo "mugagabeko" aditzaren izen molde batentzat hartzen deneko. Baina 1657-ko hiztegian frantseseko infinibito edo mugagabekoaz zuen itzultzen arrazoinaz izena bezala molde mugatuan aditz-izena: "*amerstea: se satisfaire* " eta b.

Infinibito latin edo erromana batzuetan "aditzaren izen moldea" deitzen bada ere eta izen bilaka badaiteke erdaran aldi berezi batzuez ("le rire, le boire, le manger"), aditzaren ikuspen "infinibito", izantza edo egintzaren mugarik ez mugabiderik gabekoa da bada. Hortako ziren latinez "erranaldi infinibitoak" egiten ohiki infinibitoak hor aditz jokatua balio baitzuen, oraian

(*esse* "da") ala iraganean (*fuisse* "zen"), eta gai edo egileak izan beharr baitzuen ez nominatiboan aditz jokatuena bezala baina "akusatiboan" aditz iragankorren jasaileak bezala. Euskal-aditz-izenak eztu arorik ez itxurarik erraiten.

Latinez bezalako "erranaldi infinitiborik", osagailu ala bertze, ezin egin da beraz euskaraz. Iragangaitzeko *dicunt* *Homorum cæcum fuisse* ezaguneko aditza jokatu beharr da erdaraz bezala: hitzez hitz *badiote* *Homeroz* *itsua* *zela* edo *izan dela/zela*. Ezin da *\*badiote* *Homeroz* *itsua* *izaitte* edo *itzu izaittea* egitura egin, salbu azken-azkenean aditz-izenaren orde partizipa bururakorra ezarriz: *badiote* *H. itsu izana. Homeroz izaittea* erran moldea nahitez *eri izaittea* bezala entzuten da: ondoratu xoil bat. Egiteko menperatu oro deklinabideko atzizkiak erraiten duen euskarak nahi du baitezpada aditz izenaren aitzineko osagailua ezarr dadin edo genitibo mugatuan edo balio bera duen ondoratze mugagabeen: izen berezi bat berez mugatua baita eztu ondoratzea onhartzen eta genitibo mugagabea behar du: *Homerozen itsu izaittea* hala nola *Homerozen izaittea*.

Aditz iragankorrekarekin latinaren errepika gaiztoago da oraino: *scio me nihil scire* hitzez hitz *badakit nik deus ez jakitea* beraz *badakit (nik) deus ezta kitala*, euskaraz *jakitea* aditz-izenarekin ezin asma baitaiteke. Arrazoinez *nik* ergatiboa aditz-izen bateko egiletzat ezta egoki, nahiz usu erabilia oroz gaintetik oihuzko erranaldietan, egiazki izen erranaldiak orduan (*zuk hori egitea!*); eta gehiago aditz laguntzale azpi-entzun bat asmatzera uzten duen partizipa buturagaitzarekin: *zuk hori egiten!* (ikus 3-garren zatia). Erranbide imitatu horietan aditz-izenak badu ez bakarrik ergatiboko egile bat hel egiteko mota indartu araugabeko bat bezala hartua, baina ere hitz hutseko jasaile bat, genitibo mugatu igurikatuaeren orde: *zuk horren egitea!*

Euskaraz aditz-izen bat egintza edo izantza bat da mugagabeen, izen guziak bezala mugatzen da eta deklinatzen. Izenen egiteko guziak baditu eta deklinabideko atzizki guziak hartzen, bakunean, ainitzean eta ez mugatuan: *izaittea, izaitteak, izaittek,*

*izaitean, izaitetan, izaitera, izaitetara, izaitetik, izaitetarik, izaitetz, izaitetaz, izaitekin, izaiterekin, izaiterako, izaiterano, izaitetara, izaitetaren, izaiten, izaiteren, izaiteko, izaitetako, izaitetzat.*

Aditz-izena "mugimendu gabeko lekua" dion *-n* inesibo ez mugatuan ezarriz du euskarak itxura bururagaitzeko partizipa ("oraikoa" diotena) balio duen izen moldea egiten: *ikuste(a)* aditz izenetik *ikusten*.

Inesibo ez mugatuko aditz izenaren osagailuak euskaraz, izen guzietako bezala, aitzinean ezarria beharr du, ala ez mugatu ondoratuan (*liburu irakurtzen* "liburu baten" edo orotara "liburu-en"), ala genitibo mugatuan (*liburuaren, liburuen irakurtzen*). Neurthitzlari batzuek nabar-lapurtarrez aski usu erregela horri huts egin badaukote ere, erroman imitatze guti edo aski jakinaz ala errextasunez, mintzariak etzaukoten ehoiz huts egiten.

Baitez-pada berezi beharr dira *oilaskoa jaten ari da* (oilaskoa bera) eta *oilaskoaren jaten ari da* (norbait), iragankorrean erraiten ere dena *oilaskoa jaten ari du* (norbaitek), horr *oilaskoa* egilea barne hartzen duen aditz multzoaren (*jaten ari du*) osagailu jasailea baita.

Aditz-izen partizipak *-r* atzizkia harturik doi-doietarik huts egin den izantza edo egintza erraiten du: *erortzer da* ("gutik egin du ezpaita erori"), *egiter dut*. Uste ukaiten ahal da *-ra* atzizkiarekilako adlatibo edo norapaiteko zahar bat dela mintzogai azkena galdurik, deklinabideko datibo ainitzean bezala.

## 1.2. Aditz-erro eta aditz-izen.

Euskaraz aditz-izena aditzaren ideia "hutsa" egiteko marrik gabe emaiten duen aditz-errotik *-te* edo *-tze* atzizkiaz erathorria da: *eman* erroa (eta ere partizipa) > *emaite* aditz-izena, *jakin* erroa (eta ere partizipa) > *jakite*, *eror* erroa > *erorte* edo *erortze*, *ibil* erroa > *ibiltze* eta b.

Aditz-erroa da beraz euskal-aditzaren egiazko "infiniti-boa", eta hortaz beharr da zuzenez itzuli erdarako "infiniti-boa", eta ez aditz-izenaz, mugaturik ere Oihenarten aroan egiten zen bezala; are gutiago partizipa bururakorraz, izen molde nahitara deklinagarri denaz, XVIII-garren mendeaz geroztik ("D'Urte eta

Larramendiren mendea") gramatika eta hiztegi guzietan egiten den bezala. Ezpada gorago erran den aldi osoki berezi batean, itxura guzien arabera nahasmenduen ethorkia, aditz eta izena ezin bereziak direnean: aditz-erroa aldi berean partizipa bururakorra delarik, hori gertatzen baita hastapenean mintzogaia eta azkenean *-n* sudurkaria duten aditz-erro jokagarrietan eta hetan bakarrik, euskal-aditzen moldameneko lerro lehenbizikotzat hartzen ahal baitira: *egon, eman, izan, igan* eta b.

Bertze bi aditz lerroetan, 1) hastapenean mintzogai eta bururapenean joile ez sudurkariarekilako erro hek ere jokagarrietan, 2) hastapeneko joilekilako aditz-erro laguntzalerik gabe ezin jokagarrietan, nahi nola aditz-erro bikaka daitezkeen izen alabaina ezin jokagarri guziak barne, partizipa bururakorra aditz-errotik berezia egiten da: *-i* atzizkiarekin lehenbizikoetan (*erori, ibil*), eta *-tu* edo *-du* atzizkiarekin bertze guzietan (*sartu, gizondu*). Partizipa horien berdineko erdal-infinitiboa osoki ez egokia da.

Izen oro, edo izen-lagun edo *-ka, -ki, -la* atzizkidun aditz-lagun ere, aditz-erro atzizki hargarria bezala erabil daiteke euskaraz: *gizon > gizondu, gizontze ... , bertzela* ("bertze moldez") *> bertzelakatu, bertzelakatze ...* Zer heinetarano izen eta aditz ideiak ezin bereziak diren euskaraz erraitea da (\*).

(\*) "Aitzinaroko turkan, aintz aldiz bezala, izena eta aditza etzatezkeen hastapenean bereziak. Gero batzuek "parasynthemak" deritzeeten hizki edo atzizkiak gaineratu dira, "synthema" aditz-erroa izanez. Infinitiboaren egiteko emaiten da *-mek* atzizkia: *gör-mek* "ikus(te)", *gel-mek* "ethor(tze)" (*\*kel-etik*, euskarako *hel-, hel-du*-ren iduri handikoa). Partizipa atzizki *-di(g)* edo *-du(g)* (edo *-mish*) batekin egiten da mintzogai harmoniaren araura: *gör-du* "ikusi", *al-di* "hartu". Joile gogorr ondotik, atzizki hori gogorr bilakatzen da: *-ti(g), -tu(g)*. Adizkia edo aditz-izena *-me* edo *-iç* atzizkiez egiten da: *gel-me, gel-iç* "ethortze(a)". Hizkiez mintzatzen da ondotik izenor-deko atzizki bat ("ene ehortzea" eta b.) emaiten ahal den neurrian turka hizkuntza lotzalea denaz geroz. Galdegin ahal laiteke *-me* "ethortze" aditz izeneko atzizkia *-mek* infinitiboko atzizkiarekin loturan denez ..." (M. Morvan-en argitasun baten itzulpena.)

## 2. Aditz-erro laguntzalerik gabe xoilki jokagarrien moldamena (laguntzaleak berak barne).

Azkarki berezia da eta euskal-jokabideko araren beharrekin egokitua, hau ezagugarria izanez hizkitzearen batzuntasunaz: ekhai aurrizkitu, arthizkitu eta atzizkituak aditz-erroaren bi alde-tan. Erroa abantzu ezin ezagutua bilakatu ahal da higitzez eta berdintzezko bermoldatzez laguntzale lehenean: *izan* iragan-gaitzeko eta *\*eun* edo *\*edun* iragankorreko.

**2.1.** "Aro" eta modu berezi nagusi batzuetan laguntzalerik gabe jokagarri diren aditzetan erroaren hastapeneko mintzogai baten ukaitea, *a-*, *e-*, *i-*, bekan *u-*, baitezpadakoa da, bakarrik duenez geroz, batzuetan *a*-ra aldaturik, *ba-*, *eɣ-* hitzen eta person-etako hizki jokabidean aurrizkituen ezartzea haizu uzten:

2.1.1. aurrizki menperatzaleak: *bai(t)*- kausakoa eta (*baldin*) *ba-* baldintzazkoa;

2.1.2. aro-moduetako aurrizkiak: *d-* oraia, *ɣ-* iragana, *l-* balizkoa eta *b-* manuzkoa, erraiten ezten 3-garren personako gaiak ala egileak edo jasaileak erroari aurrizkitua izan beharr-lukeenean;

2.1.3. lehen eta bigarren personako adizlarien hizki baitez-pada erranak eta aurrizkituak.

Hastapeneko mintzogai hori hitzekoa eta aditz-errokoa denez galdegin da, ala jokabideko aurrizki tresna, gaurregun urrundu hizkuntza zenbaiten hitz eta hitz-erro batzuekin erkida-tzek gogatzera utz lezkatena.

**2.2.** Aditz aurrizki eragile batek, *er(a)*- batzuetan *ir(a)*-, languntzalearekin baizik jokatzen ezten *arr/ari/artɣe* aditzari segurki lotuak egiten du laguntzalerik gabe jokagarri den aditz lerro den bezala ideki bat. Eragile erran-nahi lehenbizikoa batzuetan ahuldu da, aldatu edo ere ahatzi, moldea bera bezala.

Horrela: *atɣarr* eta *iratzarr*, *egin* eta *eragin*, *ekharr* eta *erakharr*, *eman* eta *ereman*, *entzun* eta *erantzun*, *igan* eta *iragan*, *ikas* eta *eraka(t)s*, *ikus* eta *erakuts*, *ikurr* (izena orai) eta *irakurr*, *jauts* eta *erauts*, *jauz*

eta *erantz*, *jeik* eta *eraiik*, *joan* eta *eroan*, *erran* (*esan* euskalki espainiarretan) eta *erasan*, beharr bada *jos* eta *eros*.

Aditz aurhizki eragile hori aurkitu da, euskal-aditzeko bertze berezitasun asko bezala, "proto-kartbekelika" deitzen den hizkuntzan, edo georgiatarr zaharrean.

**2.3.** Erroko *-n* joile azkena itzaltzen da molde jokatueta eta aditz-izenean, hau orduan *-ite* atzizkitzen baita gertaldiz mintzogai biekoa eginez errokoarekin: *eman/emaite*, *egon/egoite*, *jiri/jite*, *joan/joaite* eta b., erroko bertze joileak *-l*, *-r*, *-s*, *-z* aldatu gabe daudenean, *-tze* atzizkiarekin eta zuzenez *-te* ziztukari ondotik: *ibil/ibiltze*, *eror/erorte* edo *erortze*, *sarr/sartzze*, *jos/joste*, *haz/hazte*, eta berdin *-e* ez bezalako bertze mintzogai azkenetan: *haiza/haizatze*, *izi/izitze*, *bero/berotze*, *itsu/itsutze* ... Moldez bekana den *jo* aditzak salbuespenez egiten du *joite* eta *eho* erroak *ehaite*, baina *jaio/jaiotze*.

Ziztukari azkenek *-te* atzizkia ukaiten baitute afrikatuak pherekarira aldatzen dira atzizkiaren aitzinean: *has* (*bats* izenarekin lotua agerian) eta *haste*, *huts* eta *huste*, *latz* eta *lazte* ...

Mintzogai *-e* eta *-o* azkenak *-a* bilakatzen dira aditz izeneko atzizkiaren aitzinean ikusi diren batzuntzeko legen arabera: *mehe/mehatze*, *xehe/xehatze*, *zoro/xoratze*. Aldapen hori orotakoa izaitetik urrun dago, oraiko ohiduran bederen. Baina *-a* azkenarekilako batzuntzeko moldek badirenean eta azken dardarari *-l* bazterkarira aldatuarekilakoek, orduan bereziak bilakatuz, dituzte aditz-izenak bezala aditz-erroak egiten: *maite*-tik *maita dezagun urkoa*, *auhari*-tik *auhal gaiten goizik*.

### 3. Izen eta aditz-erro.

Aditz ezten euskal-hitz oro, izen ala izen-lagun, batzuetan aditz-lagun, aditz-errotzat hartua izan daiteke, aditz izenaren eta partizipen atzizkiak harr dezazke eta laguntzalerekin joka daiteke.

Aditz erro bilakatu horiek hartzen baitute orok *-tu* partizipa bururakorraren atzizkia, aski ohikoa da horietaz *-t* azken joilearekilako erro makurr batzuen egitea *-n* sudurkariaren ondo-

tik ere, azken *-d* euskaraz ezin egina denaz geroz. Ohiko behazun bat da aditz-errotzat *gizon* ("gizon bilakatze") eta hortik *gizondu* partizipa. Baina ezta arrazoinezkoa hortarik \**gizont* erro berri baten egitea, *gizon* hitza bera baita aditz-errotzat hartua: *beharr du jan mutiko horrek gizon dadin, edo gizontzeko..*

Berdin *taula* hitzarekin aditz-erro bezala ("taula ezarr") egiten da *taulatu* edo *taulaztatu* ("taulak ezarri"): *zurginak barne hori taulatu (edo taulaztatu) du*. Ezin asma daiteke alta, aitzinean bezala aditz-erro beharrezkoarekin nahizko jokabidean: *nabi nuen barne hori \*taulat zezan*. Hitz hutsa da alabaina aditz-errotzat hartu beharr eta erraiten ere den bezala ezarri: *nabi nuen barne hori taula zezan*.

Aldi batzu badira hetan *-t* ontsa ez egoki hori nagusitzen ezpada bederen onhartzen ahal baita: behazunez *hantze* aditz izenaren *han* erroa *han* ("leku hartan") aditz-lagun berdinarekin nahasten da eta *hant* moldean baizik eztaiteke hortarik berex, gaitzigarriegi ezten gauza, *hantze* denaz geroz *handitze* aditz-izen *handi* izen-lagunetik erathorriaren errankortasunezko molde laburtzat edukia: *handi dadila 'ta hant dadila bada!* Ezta neke bera gertatzen *lan* izen eta aditz-erro eta bertze horrelakoetan, ezpaitute den gutieneko dudarik uzten: *landu beharr baldin badugu lan dezagun beraz*.

Baina *lotu*-tan ere *lot* erroa baligarri da *lo* izenetik berex-teko, itxura guzien arabera hau bera bada ere hitzaren ethorkia: *lotu beharr badugu lot dezagun bada*; "loan sarr" erraiteko *lokharr* aditz erroa *harr* erroarekin batzun-dua delarik, *lok-* ergatibo zaharr ez mugatu bat baliz bezala, iduriz hori baita.

Ezin jakina da aro urrundu batean hastapeneko mintzogaidun izen edo erroak oro laguntzalerik gabe jokatzen ahal zirenez.

#### **4. Aditz-errotik erathorri izenki moldeak: partizipak eta "gerundiboak".**

Aditz-errotik beretik edo hartarik erathorri aditz izenetik moldatzen dira hetan jokabidea laguntzaleak dakharren eukal-

jokabideko "aroak": partizipa bururakorr edo beteginkorra ("iragana" diotena batzuetan), partizipa betegingaitza edo ez bururakorra (batzuetan "oraikoa" errana), eta geroko edo ethorkiko partizipa. Partizipa bururakorraren araura berexen dira euskal-aditzaren moldamenezko hirur motak:

lehen: erroa eta partizipa beteginkorra *-n* azken joilearekilakoa dutenak;

bigarrena: partizipa *-i* erroari atzizkitua dutenak;

herena: partizipan atzizkia *-tu/-ldu/-ndu* dutenak.

Lehen bi motek andana hetsia egiten dute, herena da bakarrik idekia.

#### **4.1. Azken *-n* duten aditzen erro eta partizipa bururakorra.**

4.1.1. Azken *-n* duten aditzetan erroa partizipa bururakorra da ere, beraz mugatzen den izen molde bat eta deklinatzen eratxikia zakon hitza bezala, iragangaitzeko gai ala iragankorreko egile :

*egon* lehen laguntzale iragangaitz *izan*-ekin jokatuak, *egon niz*, mugaturik gaiaren zenbata hartzen duen eta egiaz horren atributua den partizipa betegin bat egiten du: *egona niz*, *egonak ginen*.

*eman* lehen laguntzale iragankorr *\*edun*-ekin jokatuak, *eman du*, mugaturik jasailearen zenbata hartzen duen eta berdin horren atributua den partizipa betegin bat egiten du: *eman ditu*, *emanak ditu*.

4.1.2. Aditz-erro bera erro gelditzen da eta aldagaitz, bertzte aditz-erro mota guziak bezala, ahalezko eta manuzko edo agiantzazko molde bigarren laguntzalearekin jokatueta, eta bertzte partizipa molde batek ere ordain eztezake, aditz itxura bururakorr ala bururagaitz gabea da beraz:

iragangaitzean *\*edin* laguntzalearekin: *egon dadila*, *egin daitela*, *egon gaitzke*;

iragankorrean *\*ezan* laguntzalearekin: *eman dezala*, *eman ditzagula*, *eman dezazkezu*.

4.1.3. *Jo* aditzak, aditz izena *joite*, partizipa bururakorra erroaren berdina du ere, berdin *ebo* aditzak, aditz izena *ehaite*: lehen laguntzalearekin *jo ditu* hala nola *eman ditu*, *joak ditu* hala nola *emanak ditu*; eta bigarrenarekin *jo dezala*, *jo ditzala*, *jo daiteke* (*jo*-ren erran-nahi guzietan); *ebo daitela*, *eguerdiko eboak beharr dute*.

Izen eta izen-lagun den *ase* hitza erro bezala hartzen da: *ase beharr dute* hala nola *ase ditzagun*, eta *-tu* atzizki gabeko partizipa egiten du: *ase* edo (mugaturik) *aseak ditugu*.

Ezta edo ez gehiago *jaiio* erro eta partiziparen molde jokaturik ezagutzen, aditz izena *jaiotze*, hitz biziki zaharr bat daitekeena eta oraikotz guti erabilia, *sorr/sortu/sortze* mailaguak ordaindurik.

## 4.2. Bertze aditzen aditz-erroa eta partizipa bururakorra.

4.2.1. Aditz-erro andana handi batek, gehienak jokagarri (lehenago beharr bada oro) eta batzu oraino hala direnak edo idazki zaharretan hala izanak, horren berrikastea agiantzagarri baita, hastapeneko mintzogaia dutenean, eta horren gatik batzuetan "azkarrak" deituak, bere eraginezkoak bezala (eztira hemen aiphatzen, salbuespenez ezpada), partizipa bururakorra *-i* atzizkiak egiten du:

*ahatz* eta *ahatz**i*, eraginezko osagailua *araz/-eraz* eta *-araz**i*/*-eraz**i*, *ardiets* eta *ardiets**i* (\*), *arbets* eta *arbets**i*, *arr* eta *ari*, *atxik* eta *atxiki*, *atzarr* eta *atzarri*, *aurdik* eta *aurdiki*, *ausik* eta *ausiki*;

*ebak/ebaki*, *ebats/ebatsi*, *ebil (ibil)/ebili (ibili)*, *edats /edatsi*, *edek/edeki*, *eduk/eduki*, *egos/egosi*, *ehortz/ehortzi*, *ekharr/ekharri*, *ekhoitz/ekhoitzi*, *eraik/eraiki*, *erants/erantsi*, *eras/erasi*, *eraunts/erauntsi*, *erbaitz/erbaitzi*, *eriz/eritzi*, *eskain/eskaini*, *estal/estali*, *ethorr/ethorri*, *ezarr/ezarri*, *ezets/ezetsi*;

*has/hasi*, *hauts/hautsi*, *heraus/herausi*, *her(t)s/her(t)si*, *hets/hetsi*, *hez/hez**i*;

*iben/ibeni*, *ibil/ibili*, *idek/ideki*, *idok/idoki*, *igorr/igorri*, *igorz/igorzi*, *ikus/ikusi*, *ikbuz/ikbuzi*, *ildauts/ildautsi*, *inharros /inharrosi*,

*irabaz/irabazi, iraiz/iraizi, iranz/iranzi, iraul/irauli, irets/iretsi, irez/irez, itsabas/itsabasi, itzal/itzali, itzul/itzuli, itzur/itzuri, ixur/ixuri, jantz/jantzi, jarr/jarri, jauts/jautsi, jauz/jauzi, jeik/jeiki, jos/josi;*

*onets/onetsi, utz/utzi* eta b.

Partizipatzen emaiten den *iguriki* aditz-lagun *-ka* atzizkiaz erathorriarekin berdintzez aldatua dateke, *igurika* aditz erroa egiten baitu: *igurika dezagun*; eta partizipa moldea *-tu* hartzen du: *debaldetan igurikatu dugu*.

(\*) *Ardiets* aditza (*-ets*) "gogatzeko, jukatze, estimatze" erroarekin batzundua da, erabilpen berezian ez ezaguna batzunduetarik kampo, eta iduriz erran-nahi bereko *eritz/erizte* aditz hau ere usu batzuntzean erabiliaren laburpena dateke ziztukariz aldatu. Horrela dira: *askietsi, goretsi, gutietsi, ibardetsi, onetsi, oneritzi, sinetsi* (*zin*-etik ziztukariz berdindurik) eta b.

*Joan* eta *jakin* aditzen behazunak erakusten du lehengo hastapena *yod* idatzia *j-* (gaurregun horzkari sabaikatua) duten aditz erroak jokagarriak direla eta beharr bada oro lehenago hala izanak, laguntzale gabeko jokabidearen ohidura biziki ttipitu bada ere, hizkuntzaren ahultzeko seinale bat dena. Gauza bera ezin erran daiteke hastapeneko hatsarekin partizipa *-i* duten aditzez, *jakin* gabe hau bigarrena eta berantekoa denez ala lehena.

Azken *-i* duten hitz bereziki izen-lagun aski ainitzetan (\*) badaitezke partizipa zaharr batzu hitz berezi bilakatuak, euskal-etimologiak ezpadu ere horren jakitera uzten: behazunez *ageri* izen laguna *agerr* aditz-erroaren eretzean, laguntzalerik gabe jokatu ahal dena bertzela ere.

(\*) "Galdekatzen duena *-i* horrentzat da partizipetan, izenetan eta izen-lagunetan agertzen dela, horrek seinala baitezake moldamen-hiztegiaren gai horien arteko berexkuntza ahul bat aro osoki zaharr batean. Hizkuntza batzuek ere badute hitz ainitzetan errepikatzen den *-i* azkeneko bat, georgiarr kaukasiarren baina ere hizkuntza uraldarr batzuetan, behazunez "vogul"-ean hor aditz batzu *-i* bururatzen baitira partizipa iraganbururakorrak izan gabe hortako, hala nola *xasi, xosi* "hartze, ezagutze" gure *ikasi* iduri duena. Izan daiteke *-i* hori eztela erroarena." (M. Morvan-en ohar baten itzulpena).

4.2.2. Euskaraz aditz-errotzat erabili edo erabilgarri bertze hitz guziek, hasteko mintzogairik gabe eta ezin jokagarriek, *-tu* eta bazterkari *-l* edo sudurkari *-n* joilen ondotik *-du* atzizkiarekin dute partizipa:

*lauda/laudatu, meba/mebatu, hisi/hisitu, gazte/gaztetu, bero/berotu, usu/usutu;*

*barr/bartu, sarr/sartu, sorr/sortu* (bi erran-nahietan "elkortu" ala "jaino"), *ur/urtu, has/bastu* ("buluzi"), *hotz/hoztu, buts/bustu ...*

*askal/askaldu, barazkal/barazkaldu, ahalb/ahbaldu, bil/bildu, sal/saldu ...*

Partiziparen *-tu* atzizkia, latinekoaren idurikoa, berdintasunez hedatu da partizipa *-n* duten aditz batzuetara, hala nola leku batzuetan *izatu*, edo *irakurri* bezala *-i* zutenetara, hortik ainitz aldiz *irakurtu*. Ohitza onak nahi du betiko molde zuzenak hauta daiten.

Partizipa bururakorra aditzaren izen molde bat da eta beraz deklinatzen izen eta izen-lagun guziak bezala. Axularren *Gero* (1643) liburuko erranaldi ederr batek, hil berria zen Etxauzko Beltran Baionako apezpiku ohi Turs-ko arxapezpiku eta Luis XIII-garrenaren lehen Elemosinari bilakatuari eskaintzan badera-biltza, "*natutalezac berac*" apezpikuari eman dohainen erraiteko, hirur partizipa-izen jarraikian, *erori, isuri* (Ertaroko leku izendegian erabilia), *eman*: "*ohorera eta prestutasuera erori bat, isuri bat, eta eman bat ...*"

Mugatua denean eta deklinatua jokabidean hari doakon gai edo jasailearekin, partizipa bururakorra betegin bilakatzen da: *irakurri dut* orotakoan bertze xehetasunik gabe, eta *irakurriak ditut* liburuen irakurtzea osoki bururatu dela, betegina, entzun-araziz; eta iraganean, hor euskarak bururakorraren eta beteginaren ezperdintasuna argira emaiten baitu: *egon ginen* iragan xoilan "perfeto edo preterita" erdaraz, eta *egonak ginen* iragan betegina, erdaraz "plus-que-parfait" (ikus 3-garren zatian: jokabidea eta aditzaren itxurak).

### 4.3. Partizipa bururakorretik erathortzen dira geroko partizipa eta "gerundibo" lehena.

4.3.1. Partizipa bururakorrari genitiboko atzizkietarik bat gaineratuz, *-ren* edo *-ko* aditz eta leku arau zuzentasunik gabe banakatuak, egiten da jokabide langunduko geroa. Genitiboko izen molde hori, hizkuntzako egitura orotakoaren araura, jarrakitzen zakon hitzaren osagailua baliz bezala da; baina hori aditza da: laguntzalea nahi den aroan jokaturik. Partizipak laguntzalearen aitzinean dira beti, erdarako kontramoldera, salbu agerian ezartzeko erran-moldetan (ikus 3-garren zatia).

Geroko partizipa aldagaitz gelditzen da, eztu beraz partizipa bururakorrak bezala atributuaren egitekorik, zuzenez aitzintzen duen aditz laguntzale bakarrari lotua izanez izen ez mugatu bat bezala: *hara biharr joanen gira, han ikusiko ditugu*. Euskalki zuberotarrak bakarrik du begiratu geroa balio duen ahalezko laguntzale gabe bat, iduriz aditz egitura zaharr bat dena (ikus 3-garren zatian: ahalezko modua).

4.3.2. Partizipa bururakorrari emanaz *-z* lankaieko atzizkia ukaiten da zerbaiten egiteko edo ukaiteko bidea erraiten duen "gerundiboa". Partizipa orduan aldagaitza gelditzen da gehiengotan: *irakurri<sup>z</sup> ikasiko du<sup>zue</sup>*. Baina mugatua izan daiteke eta orduan izen balio bat hartzen du: *irakurria<sup>z</sup> ikasten da*. Euskalkiz aditzizen batek egiteko bera ukan dezake: *irakurtze<sup>z</sup>* edo *irakurtzea<sup>z</sup>* ...

### 4.4. Aditz-izenetik erathortzen dira partizipa bururagaitza eta aro erran-nahiko "gerundiboa".

4.4.1. Euskarako partizipa bururagaitza ("oraikoa" gaizki diotena ere) aditz-izena da *-n* inesibo ez mugatu batzuetan "zahartua" diotenean, ohiko hiztegian guti agertzen delakotz (ikus deklinabidea). Erdaraz jokabidean erabiltzen ezten partizipa "oraikoa" deritzotenaren balio bera du zuzenki: *joaite* eta *joaiten* ("joaiteko egintzan"), *sartze* eta *sartzen* ("sartzeko egintzan"). Hitzak erraiten duen bezala partizipa bururagaitzaz jokabide lagunduan edo batzunduan baliatzen da mintzo den orduan aditzak dion egintza edo izaitea ari edo jarraitzen delako

itxuraren erraiteko, eta ez, partizipa bururakorraz bezala, egina edo izana dela, edo, beteginean, osoki bururatua.

4.4.2. Aditz-izenak *-an* inesibo mugatuko atzizkiarekin egiten du bigarren "gerundiboa", egintza edo gertaldi bat aditz nagusi jokatuak emaiten duenaren ordu berekoa dela erraiten duena: *etxetik joaitean orboitu niz, aire hori etxera sartzean entzun(a) dut.*

\*

## Zati herena. Aditza eta erranaldia.

### Berezita I. Jokabidea.

#### I. Jokabide xoil eta lagundu.

Aditzean du bereziki euskarak agerian emaiten den hizkuzaren egiazko jite bateratzalea, eta ez, latin-erroman eta bertze hizkuntza batzuen bezalako berezlea. Euskaraz aditz jokatuak, laguntzale ala ez, bere osagailu nagusietan errepikatzen duen erranaldiaren egiazko laburpena, xoilenetik batzunenara doan egitura zuzeneko hitz bakarr bat da. Adizlari guziak, gai ala egile, jasaile eta ukaile, izenordetuak eta aditzean hizkituak baitira, aditz-lagun eta erranaldi menperaturik eztenean, erranaldi oso bat egiten du.

Xoilena eta ohituena, laguntzalerik gabeko bertze jokabide molde bateratzaleak edo "xoilak" deritzeeten guziak baztertuz, *da* eta *du* aditz eta laguntzaletan da. Hor bi ahots eta moldagaiek berez eta bertze batzuen eskasez erraiten dituzte::

- 1) aditz-erroa bakoitzak bere aldetik: *-a- izan* erroaren laburpena, *-u- \*edun* erroarena;
- 2) aro-modu oraia aurrizkiturik *d-*;
- 3) iragangaitzean 3-garren personako gai bakun ez errana;
- 4) iragankorrean 3-garren personako jasaile bakun ez errana ere, edo atributu bakuna berdin iragangaitzean. Iragan aroak eta batera moldatzeak ekharri dute bi aditz horietan, hizkuntzalariek argitu behar lituzketen moldamen eta ahotsarako egintza batzuen ondorioz, *izan* eta *\*e(d)un* erro jokatuaren laburtzea erran-molde xoilenera: *a* edo *u* mintzogaia.

(\*) Jokabidetik ondoriotu da molde jokatueta baizik erabiltzen ezten *\*e(d)un* aditz-erroa eta izen eta partizipa erathorrietako jokabiderik

eztuen *ukan-ez* ordaintzen da; erro beretik da iduriz *eduk*, partizipa *eduki* ("atxiki" balio du) baina hau jokutzen da.

Batzunena molde jokatueta da, aditz erroaren bi aldetarik gainera edo ezperdinki erraiten baitituzte: lehen eta bigarren personetako idazlariak (egile edo gai, jasaile, ukaile, eta gertaldiz nori mintzo den edo "alokutibo"), 3-garren personako idazlarien ainitza barne, ukailea bakunean eta ainitzean, aro-moduetako hizkiak egiazkoan, baldintzan edo manatzekoan, ahalezkoa, bai-ezko eta ezezko *ba-* edo *e(z)-* eta *bai(t)-* kausazko edo (*balidin*) *ba-* baldintzazko aurrizkiak, eta atzizki menperatzaleak *-n* edo *-la* lokailuak eta horien erathorriak, *-a* galdekari zuzena edo *-z* galdekari zehartua: gehienez gramatikako hamarr bat ekhai orotara.

Horrela *ikus* erroarekin *-akus-* agertzen dena molde jokatueta:

1) 3-garren personako adizlari egile eta jasaile ainitzeko beharrez erranekin eta **gizen azpimarraturik** idatziekin, egile ainitzekoa azkenean, atzizki menperatzaleak eta iraganekoa baino lehen:

*ez-t-akus-tza-ke-te-la-ko-(t)z*: oraia ahalezko modu *-ke-* art-hizkiak erranean;

*e-tz-akus-tza-te-la-ko-(t)z*: iragan bururagaitza;

*ez-pa-l-akus-tza-ke-te-k*: baldintza ahalezko moduan (*-ke-*) "hika" gizonari mintzatuz ("alokutiboa"); emazteari baliz *-k* atzizkiaren orde *-n* izanen zen;

2) personetako adizlari ainitzekoekin, lehen personako egile **gu** eta 2-garren personako jasaile **zu** berdin **gizen azpimarraturik**:

*ez-kint-akus-ke-zue-la-ko-(t)z*: ahalezko moduan oraia;

*ez-kint-akus-zue-la-ko-(t)z*: iragan bururagaitza;

*ez-pa-gint-akus-ke-zue-n*: ahalezko iragan bururagaitza baldintzan (aditzean lehen bi personen erraiteak baztertzan du alokutiboa).

Aditz molde horiek berak erranaldi nagusi osoak dira, edo erranaldi menperatu osoak. Duten batzuntasunak ereman ahal du

molde ez lagundu edo bateratzale horien baztertzeraz aditz laguntzaleak egite edo izaite osoa bere adizlariekin eta modu-aroetako hizki guzietan erraiten duen molde batzunduen abantailetan. Adizlariak (gai edo egile, jasaile, ukaile) izan daiten hitz berezietan gainera erranak, ala inzordetuak bakarrik eta aditz jokatuaren ezarriak, hau ezta aldatzen: *haurrek ogiak jan dituzte*, edo *jan dituzte* ("hek horiek" berex erran gabe).

## II. Aditz laguntzaleak eta aditz jokagarriak.

### 1. Laguntzale lehenak eta bigarrenak.

1.1. Salbu *izan*, laguntzalen aditz erroak ehoiz ez tira molde jokatuetarik hara ezagutzen den ixtorioko hizkuntzan agertzen, ez balio ez mugatuko aditz-erro berezi bezala, ez aditz-izen eta partizipetan erathorrikerik. Hortako da horien erro zerbait moldez "berregina", nahiz molde segurrekoa, beti izarttoa aitzinean emaiten: horrela *\*eun* edo *\*edun* egiten baititu *du* eta gainerateko jokabidea, ala aditz oso bezala, ala aditz-lagun, *ukan* erroaz ordaindua (*ukan dezazun*) aditz-erroaren egiteko eta aro-modu "batzunduetan" *\*edun* eta *\*ezan* iragankorreko laguntzalekin jokatzen diren partizipen:

*ukanen* ethorkizun edo geroko partizipa aditz-erroa genitibo ez mugatuan ezarriz egiten dena, genitibo lehena *-(r)en* edo bigarrena *-ko/- (n)go* aditz eta euskalki arauko ohiduran: *ukanen du*;

*ukaite* aditz-izena eta horren inesibo ez mugatuko (batzuetan "zahartua" diotena) *-n* atzizkiarekin *ukaiten* partizipa bururagaitza (hutsez "oraikoa" diotena).

1.2. Bigarren laguntzale berdin molde jokatuetarik hara ez erabiliek egiten dituzte batzuetan "nahizkoa" erraiten den (Jacques Allières, op. cit.) jokabideko aro-moduak, behin ere aditz-izenik ez partiziparik egin gabe. Moldeaz lehenbizikoen abantzu kontrakoak dira bakoitzaren erran-nahiko eretzean, horrek sortzen baititu ethorki eta moldakuntzako galde batzuetan, oraidano ez argituak:

\**edin* ("izan") iragangaitza (\**edun*-en idurikoa): *benedika dadila* (Dechepare 1545);

\**eʒan* ("ukan") iragankorra (\**iʒan*-en idurikoa): *egin deʒan*.

Bigarren laguntzalerekin dira bereziki 3-garren personako manuzkoak egiten (manuzkoa erran-nahi zuzenean beti lehen eta oroz gainetik bigarren personakoa izanez): *jin bedi* edo *jin dadila*, *kanta beʒa* edo *kanta deʒala*. Baina laguntzalerik gabe jokagarri diren aditz eta aroetan (ikus beherago), bada 3-garren personako oraian manuzko xoilak: *joan*-etik *bihoa* edo *doala*; *eman*-etik *bema* edo *demala*.

**2. Aditz-erro laguntzalerik gabe jokagarriak** aro-modu batzuetan, edo noizten bitxiki "azkarrak" erran diren aditzak.

### 2.1. Laur aro-moduetan.

Jokabidean, lehen edo bigarren personako idazlaria (3-garren personakoa bakunean ez errana izanez eta ainitzean ehoiz ez aurrizkitua), gaia edo egilea, ala jasailea, aurrizkiturik erraiten eztenean, erro jokagarriek laguntzalek bezala hartu beharr baitutuzte laur aro-moduetako joile aurrizkituak, *d*- oraia, *ʒ*- iragana, *l*- baldintza, *b*- 3-garren personako manuzkoa, mintzogai batetik hasten dira: *e*- (*eror*, *egin*, *eman*...), edo *i*- (*ibil*, *igorr* ...), *j*- erdi-joilea (*jakin*, *joan* ...) *d*- horzkari sabaikatura aldatua alta erroaren ahozkatzean, bekan *u*- (*utʒ*: Oihenarten baitan *duʒkizʒu*).

Hizkuntza guzietan bezala molde jokatu xoilak (laguntzalerik gabe) itzaltzera ari dira euskaran. "Ohitza onean" ezta horien ez berrerabiltzeko arrazoinik batere, molde horien lekukotasuna lehengo ohiduran baden aditzetan bederen eta haratago ere. Eztira bakarrik literaturan molde guzietako handizki baliagarri, lehengo idazki eta erran zaharrek derakutsaten bezala, baina ere hizkuntzaren nortasuneko beteginki bereziak.

Gorago eman diren lehenbiziko zazpi aditzek 3-garren personako adizlari bakun ez erran baina adituekin (iragangaitzeko gai edo iragankorreko egile, eta jasaile) aro-moduetako aurrizkiak

agertzera utziz eta *e-* edo *i-* hasteko mintzogaiei *-a-* aldapen ezperdinekin euskalki arau eta berdintzezkoekin, egiten dituzte:

1.1. oraia *d-*:

*deror, dagi, dema, dabil, digorr, daki, doa;*

1.2. iragana *z-(e)n*:

*zeroren, zegen, zeman, zabilan, zigorren, zakien, zolan;*

1.2. baldintza *l-*:

*(ba)leror, (ba)lagi, (ba)lema, (ba)labil, (ba)ligorr, (ba)laki, (ba)loa;*

1.3. hirugarren personako manuzkoa *b-*:

*beror, begi, bema, bibil, bigorr, beki, boa.*

Horrela jokatu aditz molde azken joiledunerr *-a* azkeneko baten gaineratzeak eztu erran-nahiko ez argibiderik ez baliorik: *dabila* horrela *dabil*-en orde da (baiezko erranean molde ohikoa da *badabila*), eta idazki zaharretan (Oihenart 1657) *hark nigorra* bezalako moldeak aurkitzen dira. Dударik gabe aditz-erro jokatu ainitz erabilietako azken *-a* mintzogaiaarekin (*eman > dema, joan > doa ...*) berdintzez emana dateke.

1.4. Manuzkoa, 2-garren personako hizkiez erranik ala ez persona bati edo gehiagori zuzen emana, moduko aurhizkirik batere gabe, da moldamenez euskarako aditz modu xoilena:

1.4.1. irangaitzean:

"hi" bakunak (zuzenez aurhizkituak) eztu markarik batere eta erro hutsa aski du lehen mintzogaia jokabideko *a-* hastape-nekora berdinduarekin: *egon > ago, ibil > abil* (berdintzez molde haskatu laburtu bat ohikoa da: *hail!*), *jeik > aika*, azken *-a* berdintzezkoarekin *nabila* bezala eta b. (\*);

"zu(ek)" ainitza oraikoaz erraiten da, bakarrik ingurumenaz eta doinuaz ezperdindurik: *zaude!* (ainitz zaharra, orai jendetasunezko bakuna), *zaudete!* (ainitza, ahozkoan laburtua *zante*).

(\*) Latinean ere erro hutsak egiten du manuzko bakuna, irangaitza eta iragankorra berexi gabe euskaraz bezala: *ama! lege!*, eta ainitzeko *-te* euskaraz orhoit-arazten duen atzikiarekin *amate, legete*.

1.4.2. iragankorrean egilea, bakun ala ainitz, zuzenki errana da eta atzizkitua: *egik/n*, *emak/n*, *jakik/n* eta b.; *egizu/egizue*, *emazu/emazue*, *jakizu/jakizue* eta b.

1.4.3. Ukaile-datiboa aditz iragangaitzean atzizkiak erraiten du eta iragankorr "datibodunetan" arthizkiak (3-garren personan *-(k)o-*), egilea atzizkitua denaz geroz iragankorr jokatu guzietan bezala:

bakunean: *agoko* ("hari"), *emok/emozu(e)* edo *-ko* moldeko datiboan *emakok* eta b., *egikok/egikozu(e)*;

ainitzeko datiboan: *emeek/n*, *egieek/n* eta b.

1.4.4. Usuenean manuzko molde xoilak baztertuak dira edo egiazki ez jakinak, manuzko beharr diren aditz-erro eta bigarren laguntzalearekilako molde batzunduen abantaileko:

*ago*, (*h*)*abil*, *aika* xoilan orde *egon hadi*, *ibil hadi*, *jeik hadi*;

*egik/n*, *emak/n*, *jakik/n* eta datiboarekin *egikok/n*, *emakok/n* xoilan orde *egin ezak/n*, *eman ezak/n* eta datiboarekin *ezok/n* edo *ezakok/n*, *jakin ezak/n* eta b. (ahozkoan usu laburtuak *egizak/n*, *jakizak/n* ...), ohitza onak alta galdatzen duelarik molde xoil biziki errankorr horiek atxikiak izan daiten edo ere berrerabiliak ahal denean.

1.4.5. Aditz-erro xoilak personagabeko manuzkoa erraiten du ohiko hizkuntzan: *egin!* *ikus!* *bil!* (ingurumen arau "hik, zuk" edo "zuek" azpi-entzunez). Euskalkietan partizipa bururakorren erabiltzea erran-nahi hortan (*ikusi!*, *bildu!* eta b.) ezta ez arrazoinezkoa ez nabar-lapurtarrean "ohitza onekoa".

## 2.2. Jokamolde bateratuak eta lagunduak.

Laguntzalerik gabe jokagarri diren aditz "azkarrak" erranetan baina ere guziak laguntzalearekin jokatzen ahal direnetan, aroan zeharr gero eta gehiago horrela egin baitira, hainbaterano nun oraiko mintzale ainitzek ezpaitakite molde xoil edo "bateratu" gehienak badirela ere, sortzen da erran-nahiko galdea: aditz aro ber bateko badea, mintzara heinekoaz edo estiloko hautuaz bertze, bi molden arteko ezperditasunik?

Horrela, aditz laguntzale iragangaitz eta iragankorr bakoi-tzarentzat baiezkoko behazun bat hartuz laur aro-moduetan, oraia, iragana, baldintza eta manuzkoa, 3-garren personako gai edo egile euskaraz ez erranean:

oraian: *egoiten da* eta *badago*;

*egon daite(ke)* eta *badagoke*;

*egiten du* eta *badagi*;

*egin dezake* eta *badagike*;

iraganean: *egoiten zen* eta *bazagon*;

*egon zaitkeen* eta *bazagokeen*;

*egiten zuen* eta *bazegien*;

*egin zezakeen* eta *bazegikeen*;

baldintzan: *egoiten baliz* eta (*baldin*) *balago*;

*egin baleza* eta (*baldin*) *balegi*;

manuzkoan: *egon bedi* eta *bego*;

*egin beza* eta *begi*.

Bi molden artean hautemaiten da, hoberenean, aditz itxurako berexkuntza bat: partizipa bururagaitzak zuzen erraiten du z izaitea edo egintza jarraipenean, partiziparen hutsak aldiz hori aditzari berari uzten daukolarik bereziki erran gabe, aditz aro xoil guziak izaitea edo egintza, den laburrena (behazunez "demat"), burura-gaitzeko eremuan erraiten dutenak izanik ere. Hautua beraz idatzararkoa da erran-nahikoa baino gehiago.

Aditz erroarekilako jokamoldetan, hala nola *ikus baneza*, aditzak eztu "ikuste" egintzaren jarraikitzeaz edo ez jarraikitzeaz deus erraiten: aditzaren itxura ezta errana.

\*

## Berezita II. Jokabideko moldamena.

### I. Euskal-jokabideko oinarria: gai edo egilearen 3-garren personako jokamoldea.

Ikusi den bezala, 3-garren personako adizlari gai edo egilearen eta jasailearen ez erraiteak agertzera uzten du jokabideko lerro guzietan aditz erroaren aitzinean aro-moduetako aurrizkia: *d-* oraia, *z-(e)n* iragana, *l-* baldintza, *b-* manuzkoa. Erran den "heren personako" jokabidea da beraz ageriki euskaraz jokabideko moldamenaren oinarria bera, bereziki bigarren laguntzalearekin jokatzeko diren molde guzietan: *\*edin* iragangaitza eta *\*ezan* iragankorra.

Aditz gehienak, eta jokabideko eremu zabal batzuetan salbuespenik gabe guziak, haiekin eta partizipekin edo erroarekin laur aro-modu nagusietan jokatzeko diren laur laguntzaletako, moldeak hauk dira:

1.1. iragangaitzean gaiarekin eta iragankorrean jasailearekin zuzendu partizipekin erabiltzeko diren laguntzale lehenak:

*izan* iragangaitza: *da*, *zen*, *liz*, *biz* (\*);

*\*edun* iragankorra: *du*, *zuen*, *lu*, *bu*;

1.2. aditz erro aldagaitzarekin erabiltzeko diren laguntzale bigarrenak:

*\*edin* iragangaitza: *dadi(n)*, *zadin*, *ladi(n)*, *bedi*;

*\*ezan* iragankorra: *deza(n)*, *zezan*, *leza(n)*, *beza*.

Parenthesien artean ezarri den sudurkariak laguntzale bigarrenetan ikusarazten du oraiko jokabidean molde horiek agertzen direla gehienetan aditz menperatu erran-nahiz xedezkoetan, helburukoetan eta b. Aurrizki *z-*en gainera iragana emaiten duen *-(e)n* atzizkiaren itzaltzeak egiten du *l-* aurrizkiaz errana den baldintza.

3-garren personako oinharri hortan xertatzera datoz, ekhai batzuen bertzelakatzeko, horietan bereziki gainerateko aditz

egitura aldatu gabe ordaintzen duten aro-moduko aurrizkia, lehen eta 2-garren personetako idazlari baitezpada erranen itxuratzeko hizkiak, hizkuntzaren gogozko egiturek nahi dutenean gai edo egile ala jasaile bezala aditz erroari aurrizkituak izan daiten.

Idazlarien aurrizkitze hori ezperdinki egiten da aditz iragangaitz eta iragankorren artean alde batetik; eta aditz "oraikoen" eta "ez oraikoen" artean, horiek baitira euskal-jokabideko moldamenaren egitura jartzen duten baitezpadako motak, bakarrik iragankorreko bertzetik.

(\*) Bigarren laguntzalen erroak beteki ezagutzen ahal badira jokabidean, horren gatik baitira nekerik gabe berregin ahal ixtorioeko hizkuntzan erabiltzen ez diren erro molde ez mugatuak, eztoa berdin laguntzale lehenetan. Oraian *izan* jokatu beharr izanen zen *\*diṣa*, *\*niṣa*, *\*hiṣa* eta b., lehenbiziko moldeak izanak baitatezke *da*, *niṣ*, *hiṣ* eta bertzeren orde; eta *\*e(d)un* berdin *\*da(d)u*, *\*da(d)ut*, *\*da(d)uk/n* eta b., *du*, *dut*, *duk/n* eta b. orde. Aroko higatzeak aintz egin duke laguntzale horien molde lehen-bizikoen gaitzeko, bertze aditz jokatueta ez bezala; horri gaineratzen zazko jokabideko aditz lerroen aldatze edo berregite jarraikiak berdintzez. Erroak orotara biziki gutiago aldatuak gelditu dira nabar-lapurtarrez idazlari ukailea hizkiez errana den datiboko moldetan: *egon ṣait/ ṣata \*diṣat*-en orde, *eman dauku \*da(d)uku*-ren.

Ezin da egiazki *d*-, *ṣ*-, *l*- eta *b*- bezain laur ahots-moldagai aurrizkitu ezperdinek gauza ber bat dezaten erran: idazlari "persona eztena" edo "3-garren persona" deritzotena, lehenik ahotsarako moldean, gero, iragan-gaitzean edo iragankorrean den arau, gai edo egile ala jasaile egitekoetan. Arrazoina eta ethorkia beharr dira beraz bertze nunbait bilatu: hertsiki aditzeko eta gogoko arokoen ideietan, orai eta iragan, alde batetik, eta, baldintza ala manu, xedekoetan bertzetik. Galde horren ihardespen argirik ezta oraino ikherlarien eta azterlarien menera erori.

## II. Aditz aro eta moduen egitura bikuna.

### 1. Orai eta ez-orai.

Jokabideko moldamenak erakusten du euskarak moldeaz berex ten dituela, hitz jokatu ko egitur an berean, beraz gogoan, izaite edo egintzako adizkiak oro oraian, jarraikitzen edo egiten ari direnak mintzariak erraiten dituen orduan edo ingurumenean horrela gogatuak direnak alde batetik, eta gainerateko guzia bertzetik:

1) lehenik mintzatzeko orduan jadanik egiazki iragana bezala errana dena;

2) bigarrenik oraiko edo iraganeko egia orotarik kampo baldintza bezala asmatua dena ere. Berexkuntza hori garbiki jarria da modu baldintzako aditzak iraganeko aditz moldean oinharritzen direlako egintzaz, horrek emaiten baitu euskal-jokabidearen ezagutzeko eta erakusteko baitezpadakoa den "ez-oraiko" goga mena bera.

Bi lehen aditz laguntzale *izan* iragangaitz eta \**edun* iragan korr, eta *egon* aditz iragangaitz eta *egin* aditz iragan korren behazuntzat, gai edo egile 3-garren personako ez erranekin eta lehen personako bakunarekin, eta iragan korrean 3-garren perso nako jasaile berdin ez erranarekin, erraiten dira jarraikian, O. oraian eta E.O. ez-oraian iragan ir. eta baldintza bal. (aditz hutsa ezartzen da *ba-* aurhizkia gabe):

O.-----	E.O. ir.-----	E.O. bal.-----
<i>da</i>	<i>zen</i>	<i>-liz(*)</i>
<i>niz</i>	<i>nintzan</i>	<i>-nintz</i>
<i>dago</i>	<i>zagon</i>	<i>-lago</i>
<i>nago</i>	<i>nindagon</i>	<i>-nindago</i>
<i>du</i>	<i>zuen</i>	<i>-lu</i>
<i>dut</i>	<i>nuen</i>	<i>-nu</i>
<i>dagi</i>	<i>zegien</i>	<i>-legi</i>
<i>dagit</i>	<i>nagien</i>	<i>-nagi</i>

(\*) Zuzenez iragan moldetik laburtua den *-liz* baldintzak erakustera emaiten du *izan*-en noizpaiteko iragana, bertze aditzetan bezala, \**zizan* moldekoa edo hurbila izana dela.

Geroko aroa ezta joko hortan sartzen, euskaraz geroa laguntzale oraian edo iraganean jokatuari geroko partizipa gaineratuz erraiten denaz geroz, baldintza zuzenez bazterturik.

## 2. Ahalezko modua eta *-ke* atzizki-arthizkia.

Aditz jokatu guziak euskaraz "ahalezkoa" erraiten den moduan eginak izaiten ahal dira *-ke(-)* arthizki-atzizkia ezarriz erroaren ondotik. Atzizki horren ondotik *-en* iraganeko edo loturazkoa *-ee-* luze batekin entzuna da garbiki, eta hori, liburu huntan erabiltzen den ereduaren kontrara, beti *-keen* idatzia izanen da.

*Izan* eta *\*edin* laguntzale iragangaitzek ahalezko moduan hartzen dute *-te* atzizkia usu berdintzez *-teke* luzaturik, eztelarik jakina, itxura handienekoa den bezala, herskariaren aldapen xoil bat baizik ez ote denez.

**2.1. Laur laguntzaleren jokabide ahalezkoa,** oraian, iraganean eta baldintzan gai edo egile 3, 1 eta 2-garren persona bakun eta ainitzetan.

*Izan* partizipekin jokatzen den laguntzalea:

Oraia: *dateke, nizateke, hizateke;*

*dirateke, giratezke, ziratezke/kete.*

Iragana: *zatekeen, ninzatekeen, hinzatekeen;*

*liratezkeen, ginatezkeen, zinatezke(te)n.*

Baldintza: *lizateke, ninzateke ...;*

*liratezke, ginatezke ...*

*\*Edin* aditz erroarekin jokatua:

Oraia: *daite(ke), naiteke, haiteke;*

*daitezke, gaitezke, zaitzezke(te).*

Iragana: *zaitzekeen, nintekeen/nindaitzekeen, hintekeen;*

*zaitzezkeen, gintezkeen, zintezkeen/keten.*

Baldintza: *laite(ke), ninteke ...;*

*laitezke, gintezke ...*

**\*Edun** partizipekin jokatua:

Oraia: *duke, duket, dukeke/n;*  
*dukete, dukegu, dukezu(e).*

Iragana: *zukeen, nukkeen, bukeen;*  
*zuketeten, ginukeen, zinuke(te)n;*

Baldintza: *luke, nuke, buke;*  
*lukete, ginuke, zinuke/te.*

**\*Ezan** aditz erroarekin jokatua:

Oraia: *dezake, dezaket, dezakeke/n;*  
*dezakete, dezakegu, dezakezu/e.*

Iragana: *zezakeen, nezakeen, hezakeen;*  
*zezaketeten, ginezakeen, zinezake(te)n.*

Baldintza: *lezake, nezake, hezake;*  
*lezakete, ginezake, zinezake(te).*

## 2.2. Ahalezko moduaren erran-nahiak eta mol-deak.

2.2.1. Ahalezko moduak erraiten du gertagarri edo egin-garri den ala ezten, zen edo etzen, izaiten ahal zen edo etzen izaiteko edo egintzako adizki bat:

*etxe hortan banagoke, banindagokeen, banindagoke;*  
*lan hori egin dezaket, nezakeen, nezake zuk bezain ontsa.*

2.2. Jokabide lagunduak gauza bera erran dezake eta erabiliago da alabaina egunorotako ohiduran, laguntzalerik gabeko aditz "azkarrak" erranetako ere. Baina adizkiaren moduko gogamen ahalezkoak beharr du bigarren laguntzalea aditz erroarekin: \*edin iragangaitza (jokabidean laburturik -ai-) eta \*ezan iragankorra. Goragoko erranaldi berek ordenu berean egiten dute orduan:

*etxe hortan egon naite, egon nindaikeen/nintekeen, egon ninteke*  
*/nindaike;*

*lan hori egin dezaket, nezakeen, nezake zuk bezain ontsa.*

2.2.3. Ahalezkoaren erraiteko heren molde bat erdarako aran da, *ahal izan* edo *ahal ukan* erran-moldez eta partizipa bururagaitzarekin oraian eta iraganean:

*etxe hortan egoiten ahal niz, egoiten ahal nintzan;*  
*lan hori egiten ahal dut, egiten ahal nuen.*

2.4. Geroko ahalezkoan partizipak *izan* edo *\*edun* laguntzale lehena galdegiten baitu erraiten da:

*etxe hortan egonen nintzate(ke); lan hori eginen nuke.*

Eta gero aitzinekoan: *etxe hortan egonen nintzatekeen; lan hori eginen nukeen.*

2.2.5. *Ahal ukan* erranbidearen orde, lehengo euskarak erabiltzen zuen "ahal ukaite" erran-nahiko erro iragankora *\*iron*, oraian eta ez oraian jokatu molde batzuetan ezaguna bakarrik, baina idazlari ukaileko molderik gabe, ez eta manuzkorik. Zahartua da baina errankortasunez eta erran-moldetan balia-garria: *diro, dirot, dirok/n, giro, ziro(e)* eta b. oraian; *diro(e)n, ginirokeen* eta b. iraganean; eta *(ba)liro, -niro, -hiro* eta b. baldintzan.

Duen erran-nahia izan arren, ahalezko atzizkia hartzen ahal du gaurregun hargarri den berexkuntzarik gaineratu gabe: oraian *diroke* ("ahal du"); baldintzan *(ba)liroke* ("ahal balu").

Laguntzale bigarren bezala erabil daiteke aditz erroarekin: *egin dirot*, eta orduan *egin dezaket* balio du. Baldintzan *egin niroke* ("egiten ahal nuke"), *egin nezake* edo laguntzalerik gabe *banegike* bezala.

## 2.3. Ahalezkoa eta baldintza.

2.3.1. Baldintzan *\*egoiten ahal nintz* eta *\*egiten ahal nu* ezin erabiliak dira, ezpadute aditz laguntzalearen aitzinean baldintza erraiten duen (-)ba- aurhizkia, *baldin* edo *balin* usuenean azpi-entzuna den hitz aditz-lagundu aldagaitzaren ondotik (idazki zaharretan izen bezala deklinaturik aurkitzen da *bal(d)inez*). Beharr da beraz erran *egoiten ahal (baldin) banintz*, *egiten ahal (baldin) banu*.  
(\* )

(\*) Agiantzazko erranaldietan *ba-* aurrizkiaren orde orai galduxa den *ai-* erabiltzen zen baldintzarekin: *ainins! ... bar ainandi!* (1657): "ahal baninz! harr ahal baldin banadi!".

*Baldin* hitza errana baldin bada, horrek du hartzen ezezko aurrizkia (*ezpaldin baninz*) eta ez aditz laguntzale jokatuak, hunek hartzen duelarik aldiz *ba-*ren aitzinean *baldin* azpi-entzuna denean: oraian *ezpaninz*, baldintzan *ezpanintz*. Erranmolde horien arteko hautua mintzarako motak eta heinak manatzen dute.

2.3.2. Ahalezko aditzak erran-nahiz eta moduko balioz aldatzen dira lehen laguntzalea partizipekin ala bigarrena aditz-erroarekin erabiltzen den arau. Lehen laguntzalearekin ahalezko xoilak edo gertatzeko itxura duena erraiten dute, gogoan egiaren aldekoa baita, eta bigarrenarekin "gerta daitekeena" ez egiazkoaren aldekoa dena.

Oraian:

ahalezko xoilak: *dakusket* edo *ikusten ahal dut*;

gertatzen delako itxura baduena: *ikusten duket* ("orai ikusten dutalako itxura badu");

gertatuko ahal dena diona: *ikus dezaket* edo *ikus dirot* ("noizpait ikusiko dutala gertatzen ahal da");

Iraganean:

ahalezko xoilak: *nakuskeen* edo *ikusten ahal nuen*;

gertatzen zelako itxura baduena: *ikusten nukkeen* ("ikusten nuelako itxura bazuen");

gertatzen ahal zena diona: *ikus nezakeen*, *ikus nirokeen* ("noizpait ikusiko nuela gertatzen ahal zen").

Baldintzan ahalezko xoilak da bakarrrik gogoan ukaiten ahal laguntzalearekin ala gabe: *ikusten ahal (baldin) banu* edo *ikus ahal baneza* edo (*baldin*) *banakuske*.

Geroko partiziparekin aditz-erroa galdegiten duen bigarren laguntzalea baztertua da:

*ikusiko duket* "itxura badu ikusiko dutala";

*ikusiko nukkeen* "itxura badu ikusiko nuela".

3.3. Lehenagoko gero-ahalezko *-te* eta *-ke* atzizkiez aditz laguntzalerik gabe erranak eztu euskalki zuberotarrean baizik iraun, baina idazki zaharretan hedatuagoa zen eta ordu batez euskaran egiazko gero moldamenezko eta bateratzalea izana ahal da.

Dechepare (1545) eta Leizarragaren (1570) nabar-lapurtarrean 1596-ko *Refranes* edo "erran zaharr" bizkaitarretan orobat aurkitzen da. Erabiltzen zen noiz lehen laguntzale eta partizipa bururagaitzarekin (*sartz̄en date* "sartuko da", *eskaint̄zen duket* "eskainiko dut"), noiz bigarrenarekin eta aditz-erroarekin (*sarr daite* "sartuko da", *ikus dezake* "ikusiko du"), horrek uzten baitu hautemaitea neke den itxurako eta arran-nahiko berexkuntza batzuez aieru emaitera.

2.3.4. Jokamoldetako hurbilatsunaren gatik baztertu beharr den nahasmendu bat jarri da ohiko hizkuntzan iragangaitzeko bi languntzalen ahalezko moldetan. *Izan* lehen laguntzalean ahalezkoa *date(ke)* da eta *\*edin* bi-garrenarena *daite(ke)*, hemen biek mintzogaia sortu baita iduriz *\*daditeke* zuzenaren higatzez eta laburtzez.

Badira horrela: *egon* edo *egona dateke*, *egona zatekeen* eta *egon daiteke*, hunek hartzen duelarik ere persona gabeko balio bat: ez "hau" edo "hori" baina "nor nahi egoiten ahal da". Iraganean *egon zatekeen* "hau edo hura egon ahal zen"; *egon zaitteen*: "hau edo hura" edo "nor nahi egoiten ahal zen".

Baldintzako 3-garren personan *izan*-ek *lizate(ke)* egiten du : *bala lizateke* "molde hartan izaiten ahal zen" edo "izanen ahal zen"; eta *\*edin*-ek *laiteke* egiten du: *hemen egon laiteke* (*\*laditeke* laburtua) "hemen (beharrez) egoiten ahal da". Berdin persona 1 eta 2-etan:

*egonen nintzateke* eta *egon nindaike/ninteke* "ni";  
*egonen hintzateke* eta *egon hindaike/hinteke* "hi";  
 ... *gin(tz)atezke* , ... *gintezke* "gu";  
 ... *zin(tz)atezke(te)*, ... *zintezke(te)* "zu(ek)".

## 2.4. Ahalgabea edo ezina.

Izaite edo egintzako adizki jokatu edo ez jokatu baten ahalgabea edo ezina *ezin* izenaz erraiten da, zuzenez izen bezala deklinagarri, baina aditz errantzaz aldagaitz eta aditz aitzinean ezarria: *ezin egin ginuen, ezin jasana zen*. Ahalezko aditz *-ke* aitzizkidunaren aitzinean izan daiteke, *deus ezin dukegu*; berdin aitzinean *ahal* ukan dezake ere, gramatikako halako errepikaldi bortxatu baina ohiko bat eginez: *erranen duta? ahal dezaket* (Oihenarten olerkietako lehen neurthitza, 1657).

Izen guziak bezala *ezin* aditz-erro izaiten ahal da aditz-izena eta partizipak eginez "ahitze" erraiteko iragankorreetan eta "indarrak galdurik izaita" iragan-gaitzean: *lanak ezindu ninduen, bere lanean ezindu zen*. Aditz-erro xoil bezala erabilirik bigarren jokabidean *ezin dezaket* egiten du oraian, *ezin nezakeen* iraganean eta b.

## 3. Bigarren laguntzalearen egitekoa aditzaren erranahian.

3.1. XVII-garren mendea barne lehengo idazkietako jokabide zaharreetan bigarren laguntzaleak aditz-erroarekin erdarako "pretérit" diotena edo "iragan xoil" balio zuen: *egon zedin* "egon zen", *egin nezan* "egin nuen". Hori da batzuetan jokabide "aoriztika" deitzen dena eta oraian ere erabiltzen ahal zen.

Ohidura hori osoki galdua da eta molde horiek egiazko modutik eta iraganetik baztertuak izan dira: XVIII-garren mendetik aurrera geroztik oraineko eta ez-oraineko erranaldi menperatuak emaiten dituzte bakarrik nahizko, agiantzazko eta b. aditz nagusien ondotik, horrek egiten baitu jokamolde horiek "nahizko jokabide" izena ukan ahal dutela:

oriaian: *nahi du egon nadin, egin dezatan*;

iraganean: ... *egon nindadin; egin nezan*.

Iduriz jokabideko *-n* atzizki lokailuaren lehentasuneko ondorioa den aldapan horrek egin du erdarako iragan mugatu edo orduzko "preterit" edo "iragan xoil" erranaren ordaina

gaurregungo euskaran beti lehen laguntzalearekin eta partizipa bururakorrarekin batzundu aditza dela: *ibili nintzan, ikusi nuen*.

Iraganeko molde horiek, itxuraren eta batzuetan erraiten denaren kontrara, eztira erdarako iragan beteginaren ("plus-que-parfait") ordainak euskaraz. Euskarako iragan betegina egiten da partizipa bururakorra, *egon, egin, ibili, ikasi, ikusi* eta b., betegineko heinera iragan-araziz eta den atributua bezala mugatuz eta deklinatuz, *egona, egina, ikusia* eta b., eta beraz zuzenduz:

1) gaiaren zenbakiarekin iragangaitzean: *han ibilia nintzan, etxe hortan egonak ginen*;

2) jasailearenarekin iragankorreen: *lan hori ikasia ginuen, lanak egin ginituen, eginak ginituen*. Euskarak bururakorr eta betegineko berexkuntza bera egiten du oraian: *etxe hortan egon gira eta egonak gira*.

3.2. Erranaldi nagusian menperatzeko atzizkirik gabe bigarren laguntzalea ezta manuaren edo agiantzaren erraiteko baizik erabiltzen.

3.2.1. 3-garren personako manuzkoa laguntzalerik gabe bakun eta ainitzean hau da, irangaitz eta iragankorr:

*izan: biz* (agiantzaz *hala biz*), *bire* edo *bira*;

*\*edun: beu* edo *bu, bute*;

*egon: bego, beude*;

*egin: begi, begite*; jasaile ainitzarekin *begitzate* eta b.

3.2.2. Molde bateratzale horiek gaizki jakinak direnean edo mintzarako hautuz, molde laguntzaledunak dira erabiltzen:

iragangaitzean: *egon bedi, egon b(e)ite*;

iragankorreen: *egin beza, egin bezate*; jasaile ainitzarekin *egin bitza, egin bitzate* eta b.

Molde lagundu hori beharrezkoa da alabaina bertze aro-moduetan laguntzalerik gabe ezin jokatuak edo jokagarri diren aditz guzietan. Ezta *eria betza* ezagutzen, baina *etzan bedi*; edo *liburna birakurr* baina *irakurr beza*. Arrazoin azkarragoaz erraiten da *geldi bedi* ("hura, bera"), *geldi beza* ("batek bertze bat").

3.2.3. Bertze egin ahal bat laguntzaleari *-la* erranaldi osagai-luko atzizkiaren emaita da, hala nola Dechepareren (1545) neurthitz erdi-neurthitz moztuan: *Garacico herria / Benedica dadila*. Norbaitek zerbaitez erran hitz bat baieztatuz usu erraiten da oihu doinuan: *dakizula!* ("jakin ezazula!"). Berdin oihu doinuan agiantza baten erraiteko: *hemen egon baladi! lan hori egin balez!*

### 3.3. Erranaldi menperatuan:

Manuzko edo agiantzazko aditz baten osatzeko eta helburu bat erraiten duten erranaldi menperatuetan, laguntzaleak *-n* atzizki lokailua hartzen du:

*hiri haren ikustera joan zaiten galdegiten dautzut*; gauza bera erraiten ahal ere da molde idorrago batez, izen huts mugatuan aditz-izenarekin jasailearen egitekoan: ... *hiri haren ikustera joaitea*; eta berdin: *nabi zuten lan hori egin ginezan*.

Atzizki lokailuarekilako erranaldi helburuzkoan gaineratzen ahal da *-tzat* alderako edo "prolatiboko" atzizkia iduriz erdararen imitatzez, baina debaldekoa erranarako beharrik ezpada: *haur errepikatzen dut orboitean atxik dezazun* edo *dezazuntzat*; iraganen: ... *nuen ... zinezan*.

3.4. Oraiko, iraganeko edo baldintzako erran-molde ustezko batean ustearen edo "hipotesiaren" ondorioa aro-moduko bigarren laguntzale ahalezkoan jokutzen da ustezko erran-molde *baldin ba-* eta ezeko *ezpaldin ba-* aitzinean, *baldin* (edo laburturik *balin*) hitza ainitz aldiz baztertua eta errangabea izanez bereziki ahozkoan:

*ordua ona baldin bada gerta daiteke;*  
*ordua ona bazen gerta zaitkeen;*  
*ordua ona baldin baliz gerta laiteke.*

Ahalezko modurik gabe hizkuntza zaharrak molde horiek oraian erabiltzen zituen mintzatzen den orduan gertakizun den zerbaiten erraiteko: *hori gerta badadi, berria jakin badeza*. Erran-

molde horiek idatzarako eta errankortasuneko baliagarri dita, *gertatzen bada, jakiten bada* ohikoen orde.

#### 4. Adizlarietako eta zenbakiko aditz hizkiak.

##### 4.1. Aditz iragangaitz eta iragankorr.

4.1.1. Euskal-aditz jokatuan 3-garren persona ezpaita errana ixildua izaitiaz baizik, salbu ainitz baitezpada erranaz eta atzizkitu edo arthizkituaz, eta ere datiboan edo ukaileko egitekoan, jarri beharr dira bakunean edo ainitzean, aditz-erroaren inguruan, elgarrizketako bi personak itxuratzen dituzten hizkien moldea eta lekua, bata bertzeari egokituak, dituzten egitekoen eta aro-moduen arabera: lehen persona *ni* bakunean, *gu* ainitzean, eta bigarrena *hi* bakunean eta *zu* jendetasunezko ainitzean, *zuek* egiazkoan. Hortan datza bertzela ezin gehiago zuzena den euskal-jokabidearen zinezko batzuntasuna, aditz iragankorretan ezperdintasuna badenaz geroz oraiko eta ez-oraiko jokamolden artean.

4.1.2. Hor da ere euskaraz erraiten arr eta eme moten artean den gramatikako eta moldameneko berexkuntza bakarra, hikatzeko idazlari atzizkituez errana: gaia eta jasailea atzizkituak izan beharr direnean, ukailea eta mintzo zaikona edo "alokuti-boa" beti atzizkituak, *-k* arra eta *-n* emea: *baduk* ("hik gizona"), *badun* ("hik emaztea").

Gero eta gutiago hikutzen baita euskaraz, espagnolaren kontratra behazunez, Angeles-Ipharramerikarr orok *you*-rekin zukatzen dutelarik (jakin gabe gehienetan), *zu*-taz itzultzen dira euskarara berexkuntzarik gabe erdarako hikatzek oro, hitzez-hizko eta literaturako itzulpen guzietan egiazki gramatikako huts bat baita, eta euskarako berezitasun handienetarik bat itzalarazten baitu.

4.1.3. Beharr dira baitezapada berexi hemen aditz iragangaitza, xoilagoa, lehenik ezartzen dena, eta iragankorra, berexkuntza hori lehen-lehena baita euskarako jokabidean eta gramatikako moldamenean.

"Iragangaitza" deitzen da aditz oso ala laguntzale erabilia den aditza, gehienetan "izantzakoa" deritzotena, erran-nahiaz eztuelarik gogoan beharrezko osagailurik batere galdegiten: *iz̃an, egon, ibil, joan* ... Aditz iragangaitza ezta zuzenki bere gai atributudunari ala gabeari baizik lotua.

"Iragankorra" da aldiz erran-nahiaz osagailu bat bederen, "jasailea" erran daitekeen osagailua entzun-arazten duen aditza, eta batzuetan biga: jasaileari erran-nahiak gaineratzen daukolarik baitezpada bigarren osagailu bat, ukailea, hau ere aditzaren erran-nahiaz egileari lotua, ezpada ere beti beharrez errana, eta izen eta izenorde bezala ukaileko kasuan, datiboan deklinatzen dena:

mota hortakoak dira *\*edun/ukan, egin, entzun, jakin* ...: "ukaiten" da, "egiten, entzuten, jakiten" badelalotz beti beharrez "ukaiteko, egiteko, entzuteko, jakiteko" den zerbait, ezpada ere beti garbiki zer den erraiten;

garbikiago bi osagailuekilako dira *eman* (latinez *dare*, hortik "datibo"), *ekharr, erakuts* ...: "emaiten" da, "ekhartzen, erakusten ..." badelakotz beti zerbait edo norbait "emaiteko, ekhartzeko, erakusteko ...", eta badelakotz ere beti norbait edo zerbait hari delakoa "emaiten, ekhartzen, erakusten ..." ahal zaukona. Egilea, jasailea eta datiboko ukailea aditzean hizkituak direnean euskarako jokabide "hirur personetako" da.

4.1.4. Irangangaitzera itzuli beharr da hemen: alabaina euskal-aditz irangangaitzak ere hizkitzen ahal du datiboko ukailea, eta euskaraz norbaiti "izaiten, egoiten, joaiten" ahal zako.

## **4.2. Adizlari gai edo egile, jasaile eta ukaitetako molde aurrizkitu eta atzizkituak berriz.**

### **4.2.1. Personetako aurrizkiak.**

Aro-modu arau jasailea 1 edo 2-garren personakoa den ala ezten arau, erraiten dituzte irangangaitzeko gaia eta iragankorreko egilea edo jasailea.

Bakunean, *ni* eta *hi*:

1) aurrizki *n*- eta *h*-:

1.1) iragangaitzeko oraian gaia: *niz, nago, nabil,*  
 eta iragankorreko oraian jasailea: *ikusi nau, ikusi nauzu, ikusi*  
*hangu* eta b. Deklinabidean gai eta jasaile horiek izen huts edo  
 "nominatiboan" dira. (\*)

(\*) Bi oharr: 1) persona bereko bi gai eta jasaile (*ni gu, bi zu*) bazter-  
 tuak dira; 2) molde horietan eta jasaile-datiboarekilakoetan *-au* biekoa *\*e(d)un*  
 erroaren lehenagoko *-a(d)u-* baten ondorioa ohitza onean atxikia da eta  
 atxikia izan beharr, nahiz *nauzu*-ren orde, *du dut*-ekin berdintzez entzuten  
 diren *nu, nuzu* eta b.

1.2) iragankorreko ez-oraian egilea: *nuen*, bakarrik hizkitua  
 eta beraz baitezpada aurrizkitua beharr duen 1 edo 2-garren  
 personako jasailerik ezpada: *ikusia nuen* eta *ikusia huen, ikusia babu*  
 eta b. (\*)

(\*) Ez-oraian jasailea persona 1 eta 2-koa eztenean eta beraz ez  
 aurrizkitua, iragankorreko egile aurrizkitu horrek hausten du jokabideko  
 arau berdina, oraiko eta ez-oraiko molden arteko berdintasun bakarrik  
 zatizko baten abantailetan: *dut* oraiia bezala iragana *\*zutun* eta b. izanen ahal  
 zen jasailea atzizkitua atxikiz eta beraz egitura guzia hein berdinean.  
 Moldeko batasun hori izana denez lehenago ezta jakina eta orduan zergatik  
 hautsirik izana lizatekeen, eta *\*zutun* horren eta hortarik biekooz baizik  
 berexten ezten datiboko *zutun* ("ni" datibokoarekin eta ez jasailearekin,  
 erdarako kopiaz "Lapurdi itsasaldeko huts" ezagunean egiten den bezala)  
 molde zuzenaren arteko nahasmenaren baztertzeko egin denez: hastapenean  
*\*zutun* moldeak ukana zukeen ere *\*za(d)utan*-en laburtzetik sortu *-au-* biekoa,  
 eta hortik nahasmen damugarri bat.

2) aurrizki *nind/ tɜ-* eta *hind/ tɜ-* :

2.1) gaia iragangaitzeko ez-oraian: *nintzan, hindagon, hinda-*  
*bilan;*

2.2) iragankorreko ez-oraian 1 eta 2-garren personako  
 jasailea: *ikusia ninduen, hinduen.*

Ainitzean: *gu* eta *zu/ zuek:*

1) aurrizki *g-* eta *ɜ-* gai iragangaitzeko oraian: *gira, gaude,*  
*gabilɜa;* *ɜira* zukatzean eta *ɜire(ɜ)te* ainitzean; *gaude, ɜaude* eta  
*ɜaude(ɜ)te;* *gabilɜa, ɜabilɜa* eta *ɜabilɜate;*

2) aurrizki *git-* eta *zit-* jasaile iragankorreko oraian, *-it-* ainitzeko arthizki *ditu* 3-garren persona ainitzekoaren berdinarekin: *ikusi gitu, zitu/ zituzte* (\*);

(\*) Baxe-nabartarr eta zuberotarr ahozkoek *\*edun* lehen laguntzaleko eztituzte eta eztituzten ehoiz erabiltzen *gaitu, zaitu* molde berdintzeko biekodunak, *izan* iragangaitzeko *nai* eta bertzeak baino gehiago, nahiz literaturako hobetzat edukiak diren, eta *ditu, gitu* moldea dute, *izan*-endako *ni* eta b. bezala. Kargudun nabartarraren eskuthitzak 1415-ean *ez nai* ezartzen du eta ez ohiko *eni* ezezkoa.

3) aurrizki *gin-* eta *zin-* iragangaitzeko gaian, eta iragankorreko egilean ezpada beharrez aurrizkitua den 1 eta 2-garren personako jasailerik:

*ginen, zinen/ zinezten* eta b.

*ginauden, zinauden/ zinaude(z)ten* eta b.

*ikusia ginuen, zinuen/ zinuten ...*

*ikusiak ginituen, zinituen/ zinituzten ...*

4) aurrizki *ginind-* eta *zinind-* ohian *gint-* eta *zint-* laburtuak iragankorreko jasaile:

*ikusiak gintuzten, zintuen/ zintuzten,*

*gintuzun/ gintuzuen, zintugun/ zintuztegun ...*

(\*) Ez-oraiko aditz aurrizki personako *-in-/ -int-* molde sudurkaridun luzatu horien ethorkizko argibide ezagunik ezta batere, beharr bada baldintzan itzaltzen den eta euskalki batzuetan huts egiten zuen *-(e)n* iraganeko atzizkiaren emaita aitzinatu bat ezpada.

#### 4.2.2. Personetako atzizki eta arthizkiak.

Iragankorreko egilea erraiten dute oraian, eta 1 eta 2-garren personako jasailea errana ezpaldin bada ez-oraian, eta ere idazlari ukaile datiboko persona guziak, eta mintzo zaikon 2-garren persona (alokutiboa). Atzizki oro arthizki bilakatzen da aditzak bertze atzizki bat baldin badaduka, ala personako egilea ukaile datibokoaren ondotik iragankorrean, ala aldi guzietz aditz menperatuko atzizki bat.

Euskal-aditz jokatuaren egiturak usu manatzen duen personetako bi atzizkietako joilen elgarr hunkitzea baztertua da *-a-*

arteko mintzogai ("epenthesis") jokabideko *-e-* mintzogaiaren egitekoari erkidagarriaz: *emana dautzut*-etan *-tzu-* ukaile bakun datibo (*"zuri"*) eta *-t* egilea (*"nik"*) elgarri errex jarraikitzen dira, baina *daunat*-etan *-n-* ukaile datibo emea (*"hiri"*) eta *-t* egile bera (*"nik"*) beraxiak dira eta ahozkarri bilakatuak mintzogai artekoaz.

### 1) Bakunean:

*-t* "nik, ni", *-k* "hik, hi" (arra), *-n* "hik, hi" (emea):

1.1) egile iragankorreko oraian eta ez oraian, jasaile beharrez aurrizkitua persona 1 eta 2-koa baldin bada:

*ikusi dut, haut, nauk; badakit, badakin; deramatzat;*

*ikusia hindutan; aurkitzen baninduk;*

1.2) jasailea iragangaitzean eta iragankorrean:

iragangaitzean: *egon zait* (euskalkiz *zata*), *jin zaizkait* (euskalkiz *zazta*), *atzo arratsean etborri zizaztan*, *egun etborri balizaizkait*;

iragankorrean: *eman dauzkik*, *emanak dauzkiat* (\*), *eman dauzkinat*;

(\*) Datiboko hikatze arra (*"hiri gizon"*) ezta *-k-* igurikatuaz errana baina *-a-* loturazko mintzogai xoilaz: hori behar bada lehenbiziko arthizkia *bi* ordaintzen zuen *-b-* hazkatze xoil bat zatekeelakotz eta ez haren ahozkatze zintzurreko atzizkitua *-k(-)*, emeko *-n-* aldiz beti agertzen delarik.

### 2) Ainitzean:

*-gu*, *-zu(é)*, eta datiboan *-ku*, *-tzu(é)*:

2.1) egilea iragankorreko oraian eta ez oraian:

*dugu, haugu, ikusi gitzue; hindugun, ikusia baldin bahindugu, ereman bazintugu;*

2.2) ukaile datibokoa iragangaitzean berdin, beti erroaren ondotik eta azkenik, gertaldiz ohi bezala aditz atzizki menperatzalen aitzinean:

*atzo egon zaiku* (\*), *joan zaizkigun* edo *zaizkun* (euskalkiz *zazkun*), *joana zaitzu*;

2.3) ukaile datibokoa iragankorrean berdin, aditz-erroaren ondotik eta ergatibo egilearen aitzinean:

*eman danku, emanak zauzkiguten, ereman balauzkik, eremanak balauzkitzute, ... balauzkitzute.*

(\*) 1) Iragangaitzen datiboko aurhizki horrek oraian *d-* izan behar zuen hala nola *dabilku* eta iragankorren *danku*, eta *zaiku*, *zaitzu* bezalako moldeak eta b. lehenagoko molde *\*dizaiku*, *\*dizaitzu* eta b. ez ezagunen laburtzetik jalgiak datezke.

2) Berdintzezko nahasmendu bat jarri da molde horietan *danku* iragankorr eta *zaiku*-ren orde *zanku* eta b. iragangaitzekoen artean, Oihenartek bildu atsohitzetan (1657) aurkitzen dena jadanik. Ohitza onean ageriki baztertu behar da.

### 3) 3-garren personako datibo bakuna eta ainitza.

Euskal-aditz jokatuan 3-garren persona ezta errana ukaile-datiboko egitekoan baizik, beti ixildua izanez gai edo egile eta jasaile bakunetan, eta egiteko horietan beti arthizkitua edo atzizkitua ainitzean *-e(-)* eta loturazko joilearekin *-te(-)*: *ikus du, ikusi dute* (ikus urrunago ainitzeko hizkiak).

3.1) Datiboko *-o-* atzizki-arthizki bakuna aditz-erroari zuzen lotua izan daiteke edo ere ezabatua erroko azken mintzogaian urturik, ala euskalkiz hari lotua *-k-* herskariaren edo *yod* ("i erdi-joilea") baten bitartez:

loturazko *-k-* hori bereziki Akitaniako euskalkietakoa da: *atzo etxean egon zako, horr badagoko*; eta iragankorren: *liburua eman danke, zankon ...* Biekoaren laburtze ohikoaz *zako* bezala ahozkatzen dira *dako* eta b., ohitza onean zuzendu behar dena datiboko lerro guzian bezala: iraganean *naukon, haukon, zaukon* eta b., bigarren personako *naukan, nautzun* bezala. Idazlarien 3-garren personan, iragankorren egile eta ukaile bakunetan eta jasaile ainitzean, *dauzko* dena *-zki-* ainitzarekilako *\*dauz-keio* zuzenaren laburtzez, lapurtarr barnekoak datibo moldea horren hizki aldapenezko *diozka* du.

*Eman* aditzeko manuzkoan *emok* erraiten da *emakok* bezainbat, eta oraian *demako* bezala *demaio* edo *demo* eta b. Datiboko ahots loturazko horren molde *-keio-* bat bada, *-k-* eta *yod* akomeaturik bezala: *baloakio* baldintzan *baloako*-ren orde.

Loturazko *yod* horrekin aldapeneko egintza luze baten ondotik, ezpada *\*edun* erroaz bertze *\*ion* bezalako zenbait horr sartu, *\*daduyo* > *\*danyo* > *\*deyo*, sortu ahal da bi silabakoa gelditzen den *dio*, eta duen arintasunaz literaturako hobetzat edukia, jadanik Dechepare garaztarraren baitan: *euskarari eman dio* ...

Aditz molde datiboko *-o-* horren ethorkiaz ondorio argirik gabe galdekatu da, bertze moldez erabiltzen ere baita hiztegiko atzizkitzat eta deklinabidean bururapeneko kasuan, erran-nahiko lotura den gutienekorik jarri ahal gabe horien artean. Hizkuntzaren barneko ikhertzean hurbilena, ustez, *hori* erakuslea lizateke, aditz-laguna *horr*, ukaile erakutsia izan ahal laitekeena erakusleko balioa galdu baino lehen.

3.2) *\*Edin* bigarren laguntzaleak datiboko moldeak *-ki-* arthizki batekin ditu, horren egitekoa eta ethorkia jakinak izan gabe, ezpada bertze atzizki eta aditz batzuekin (*jakin*, euskalkiko *ekin* ...) duen berdintasuna: *egon balakio*, *egon balakit*, *joan banindakio* ...

#### 4.2.3. Idazlarietako ainitzaren erran-moldeak.

Eztira hemen ikhertzen gorago ikusi diren ainitzeko *gu* eta *zu* personetakoan erran-moldeak aditzean, baina aditzean ainiztasuna bakarrik erraiten duten hizki bereziak eta horien lekua aditz jokatu egituran, leku eta molde ohi bezala elgarri egokituak izanez.

1) **Ainiztasuneko *-e* hizkia** aurkitzen da izenaren deklinabidean, salbu izen huts edo nominatibo mugatuan beti *-ak* baina egileko ergatiboan *-ek* (ikus Bigarren zatia, Berezita III), eta ere aditzaren jokabidean, hor egiten baitu, 3-garren eta 2-garren persona ainitzetako gai eta egilen gainera, ukaile datiboko atzizki-arthizki ainitzekoa *-e(-)* eta loturazko herskariarekin *-te(-)*:

iragangaitzean *izan* aditzaren molde higatu eta araugabe-tuetan: *joan zai*e ahozkoan *zee* laburtua; *joan zeztee* hor datibo ukailea *-e* baita eta gai atzizkitua *-zte-* arthizkia; erranaldi osagai-luko atzizkiarekin *badiote joan zezteela*; *dande* datibo gabetik ikusi da

(e)go(n) erroa agerian emanik datiboko *-te-* ainitzarekin *dagotena-* (1657);

iragankorreetan: *emana du* eta 3-garren personako datibo ainitzarekin *emana daue*; ohitza onean atxikitzea baliagarri den molde zuzen horrek usu gertatu den bezala jasan du *-au-* bieko mintzogaiaaren aldatzea *dee* edo *die*, hortik ere berregite batzunago eta guti baliagarri batzu. Loturazko herskari baten eskasak eta *-au-* erroko biekoaren aldatzeak egiten ditu hel egitezko edo "alokutiboak": *ikusi die* ("hiri gizonari"), *dine* ("hiri emazteari").

**2) Atzizki berak** erraiten du jasaileko eta ukaileko ainitza iragankorreetan: *du* moldeak orduan hartzen du *deztee* molde higitzez araugabetua. 3-garren personako hirur adizlariak, egile, jasaile eta ukaile, ainitzak direnean hirurak erranak behar dira: *emanak dezteete* ("hek haier haiek"), horr *deztee*-tan bezala mintzogaiaen errepika beharrezkoa baita eta ahozkoan laur silabakoa ontsa entzuna.

Laburtze hori (*eginak*) *d-au-zki-gu-te* ("horiek guri haiek") moldearekin erkidatuz hartzen da: jarraikian *d-* oraia, *-au-* aditzerroa, *-zki-* jasaile ainitzeko arthizkia, *-gu-* ukaileko arthizkia, *-te* egile ainitzeko atzizkia.

2-garren personako ainitzak *zu* izenorde zaharr Ertaroa baino lehen jendetasunezko bakun bilakatuari *-e* ainitza gaineratzen dauko, eta deklinatzen da: nominatiboan *zuek* gai eta jasaile, genitiboan *zuen*, datiboan *zuerr/zueri* eta b. Molde jokatuan aitzineko *dauzkitzute*-ren arau berdinekoa *dauzkitzute* da eta berdin aztertzen *d-au-zki-tzu-e-te*, hor *-tzu-* ziztukari afrikatuak datibo ukaileko ("zuri") moldea berexen baitu *-zu* egilekotik; baldintzan aldiz *emanak baldin ba-l-au-zki-gu-zu(e)*: ukaile-datiboa *-gu-* da, egilea *-zu(e)*.

### 3) Ainitzeko adizlarien bertze hizkiak:

**-it(u)-** eta **-(u)zte(-)**: *-it-* ainitzeko arthizkia beti erroaren aitzinean (\**edun-*entzat *-u-*) ezarria da: 3-garren personako jasaile bakun ez errana *du*, ainitza *ditu*. Berez ainitzak diren *gu* eta (lehen-go) *zu* personetako ainitzetan errepikaldizko ainitza egiten du

berdintzez: *gitu* bezala *zitu*, *zitu**gu*, hau aintzeko molde zaharra zukatzean gelditua, egiazko aintzaren erraitera bortxatzen baitu -*zte*- hizki berri batzunaz beti erroaren ondotik ezarririk: *ikusiak zitu**zte**gu*;

-(*u*)*zki*:- beti erroaren ondotik ezarriak 3-garren personako jasaile ainitza erraiten du: *badazkik/n* (*badakizkik/n* laburturik: "hik gizonak, hik emazteak"), *dautzu* jasaile bakuna eta *dauzkitzu* ainitza; manuzkoan *eramazkik/n*, *egizkizu(e)*; eta 2-garren personako gaiaren ainitz errepikaldizkoa iraganean *zinagozkigun*;

-*tza*(-) eta -*zki*(-) aldizkatzen ahal dira: jasaile aintzeko *deramazkitzute*, *bagineramatza*, *badematza*; 3-garren personako ainitzarekin *deramatzate*; eta manuzkoan *deramtza(te)la*;

-*z*- bakarrak aintzeko hizki bat egiten du: silaba baten erortzez (haplologia) *badakizki* > *badazki*; iragan-gaitzean gai bakuna *bazabilan* eta *bazabilzan* ainitza; iragankorrean berdin jasaileko *eman zautan* eta *eman zauztan* ...

Aintzeko ikurr ziztukariaren berdintasun bat ikusten ahal da euskaran aditz hizki horien eta latinean izenen deklinabidekoen artean: *rosa/rosam* "arrosa", *rosas* "arrosak", *rosis* "arrosatarik/arroserr"; *homo* "gizona", *homines* "gizonak", *hominibus* "gizonatarik/gizonerr" eta b.; aditzaren jokabidean aintzeko 1 eta 2-garren personetan: *legimus* "irakurtzen dugu", *legitis* "irakurtzen duzue".

### III. Jokabide bi personetako, hirur personetako eta "alokutibokoa".

1. Latineko jokabidean eta haren ondoreak diren hizkuntza erromanetan aditza ezta aldatzen haren gaia edo egilea erraiten duten atzizkietan baizik, bakunean eta aintzean, oraian *lego*, *legis*, *legit* "irakurtzen dut, duk/n, du"; *legimus*, *legitis*, *legunt* "...dugu, duzue, dute".

Euskal-jokabideak, behazun eta personako hizkie-tarik ikusi den bezala, erraiten ahal ditu gaiaren edo egilearen gainera, ukaile datiboko bat iragangaitzean ere, horrek egiten baitu bi personetako jokabide iragangaitza, eta iragankorrean jasailea eta beharr denean datiboko ukailea, horrek egiten baitu iragankorreko jokabide bi personetako edo hirur personetako. Hizkuntzako egituraren ondorioz 3-garren persona idazlaria ezta ainitzean baizik errana eta ukaile datibokoa badelarik bakunean eta ainitzean.

Gainera elgarrizketako mintzaran euskal-aditzak erraiten ahal ditu, 2-garren personako nahitez, hari mintzo zakon edo haierr mintzo zezteen persona edo personak, adizlari izan gabe, ez gai edo egile, ez jasaile, ez ukaile. Hori da batzuetan "datibo ethika" ("bizi moduetakoa" erran-nahian) deritzotena eta latinak *tibi* ("hiri") 2-garren personako datiboaz erraiten zuena norbaiti mintzatuz, erdaraz berdin (frantsesez "te" edo "vous"): holakoetan izenordeak eztu erranaldian mintzo zakon personaren erraitiaz bertze egiteko gramatikakorik.

**2. Adizlarietako hizkien lekua** aditz jokatuan, laguntzale ala ez, badarraiko aitzinean erakutsi den orotako ordenuari, zein diren ere aditzeko bertze hizkien zenbata eta mota: baiezezko eta menperatzeko aurhizki, ala lokailu eta gertaldizko atzizki. Baina guzia aditzaren mota iragangaitz ala iragankorraren meneko da.

2.1. Iragangaitzean gaia euskaraz kasu atsolutibo edo nomi-natiboan baita, iragankorreko jasailea bezala, 1 eta 2-garren personako hizki gaia beti hastapenean da, molde laburrean (*n-*, *h-* bakuna, *g-*, *z-* ainitza) oraian, molde luzatuan (*nind-*, *hind-*; *gin-*, *zin-*) ez-oraian; eta hirur personetako ukailea aditz-erroaren ondotik.

2.2. Iragankorrean egilea euskaraz, hizkuntza "ergatiboan", kasu aritzalean edo ergatiboan baita, 1 eta 2-garren personetako jasaile kasu nominatibokoa da iragangaitzeko gaia bezala hastapenean jartzen **orai**an; **baina ez-orai**an (**iragan eta baldintza**) **jasaile ez errana 3-garren personakoa denean ez**, eta lekua

uzten du beraz aro-moduetako aurhizkiari: *z*- iragana edo *l*- baldintza; orduan egileko hizkia ere erroaren ondotik jartzen da. Georgiatarr zaharrear iragangaitzeko gai hizkia eta iragankorreko egilekoa aditz jokatuan aurhizkituak ziren ere.

2.3. Ukaile datiboko hizkia, aldi oroz, erroaren ondotik jartzen da, eta egile ergatiboa atzizkitua delarik iragankorrean egilearen aitzinean.

Euskal-aditzaren jokabidea "ainitz personetako" dela erraiten da beraz, georgiatarr zaharrarena zen bezala: ala bi personetako gai eta ukaile erranak direlarik iragangaitzean, edo egile eta jasaile iragankorrean, ala hirur personetako egile, jasaile eta ukaile erranak direlarik iragankorrean. Elgarrizketako persona bera ezin daiteke izan aldi berean gai edo egile eta ukaile ("nik eni, hik hiri, guk guri, zuk zuri ...") jokabide guzian.

## 1. Bi personetako jokabide iragangaitza.

**Oharra.** Marra zeharrak berexten ditu hikatze arreko eta emeko hizkiak *-k/n-* eta parenthesisiek badematzate euskalkietako aldapen batzu eta *zu* 2-garren personako (*e*) ainitzeko hizkia.

### 1.1. *Izan* aditz eta laguntzalea.

Jokabide xoil moldean ez zuzena orhoit-arazten da lehenik, beti 3, 1, 2 persona bakun eta ainitzetako ordenu berean:

*da, niz, hiz; dira, gira, zira/ zirezte.*

Bi personetako jokabideko idazlarien ordenua:

- luzaran ezartzen dira:

persona ukaileak 3, 1, 2 bakunean eta ainitzean: *hari, eni, hiri; haierr (haieri); guri, zuri (zuer/ zueri);*

- zutean:

gaiak bakun eta ainitzeko ordenu berean: *hura, ni, hi; haiek, gu, zu(ek).*

**Oraia:**

Gai bakun:

*zako* (*zai*o), *zait* (*zara*), *zai*k/n; *zai*e, *zai*ku, *zait*zu(e);  
*nako* (*nizai*o, *na*zai<sub>o</sub>), *ni*(na)*zai*k/n; *nizai*e, *nizait*zu(e);  
*bako* (*bat*zai<sub>o</sub>, *hit*zai<sub>o</sub>), *hit*zait; *hai*e, *hit*zai<sub>ku</sub>.

Gai ainitz:

*zaz*ko, *zaz*ta (*zai*zkit), *za*(i)z*zik*/n; *ze*ztee, *za*(i)z*ku* (*zai*z*kigu*),  
*za*(i)z*kit*zu(e);

*git*zazko (*gat*zazko), *gi*(ga)t*zaz*kik/n; *git*zai<sub>e</sub>, *git*zai<sub>zu</sub>(e);

*zit*zazko(te), *zit*za(i)z*t*(ate); *zit*zeztee, *zit*zai<sub>ku</sub>(te);

*zit*zazko(te), *zit*za(i)z*t*(ate); *zit*zbaeztee(te-; *zit*zai<sub>ku</sub>(te).

### **Iragana:**

Gai bakun:

*ziz*akon, *ziz*atan, *ziz*ak/nan; *zize*en (*ziz*ai<sub>en</sub>), *ziz*ai<sub>ku</sub>n, *ziz*ai-  
*tzu*(e)n;

*nind*akon, *nind*ak/nan; *ninde*en (-*dai*en), *nint*zai<sub>zu</sub>(e)n;

*hind*akon, *hind*atan; *hinde*en (-*dai*en), *hind*akun;

*zind*ako(te)n, *zind*aku(te)n.

Gai ainitz:

*ziz*azkon, *ziz*aztan, *ziz*azk/nan; *zize*zteen, *ziz*azkun (*ziz*a-  
*zki*gun), *ziz*akitzu(e)n;

*gin*azkon, *gin*azk/nan; *gine*zteen, *gin*azkitzu(e)n;

*zin*azko(te)n, *zin*azta(te)n; *zine*zte(te)n, *zin*azku(te)n.

### **Baldintza:**

Gai bakun: *baliz*ako, -*liz*ait (-*liz*ata), *liz*ai<sub>k</sub>/n; -*liz*ai<sub>e</sub> (-*liz*ee),  
 -*liz*agu, -*liz*azu(e);

*baniz*ako (-*niz*ai<sub>o</sub>), -*niz*ai<sub>k</sub>/n; -*niz*ai<sub>e</sub> (-*niz*ee), *niz*aitzu(e); -  
*hiz*ako (-*hiz*ai<sub>o</sub>), -*hiz*ait; -*hiz*ai<sub>e</sub>, -*hiz*ai<sub>ku</sub>.

Gai ainitz: *baliz*azko, -*liz*azkit, -*liz*azkik/n; -*liz*eztee, -*liz*azki-  
*gu*, *liz*azkizu(e);

*bagin*azko, -*gin*azkik/n; -*gine*ztee, -*gin*azkizu(e);

-*zin*azko(te), -*zin*azkit(ate); -*zine*ztee(te), -*zin*azku(te).

### **1.2. Egon aditz iragangaitza.**

Egitura berean eta oraiaren jokabide xoilak orhoit-araziz:  
*dago*, *nago*, *hago*; *dande*, *gaude*, *zande*(zte).

**Oraia:**

Gai bakun: *dagoko, dagot, dagok/n; dagotza, dagoku, dago-  
tzu(e); nagoko, nagokok/n; nagote, nagotzu(e);  
bagoko, bagot; bagote, bagoku.*

Gai ainitz: *dagozko, dagozkit, dagozkik/n;  
dagozkie, dagozkigu, dagozkitzu(e);  
gagozk(i)o, gagozkik/n; gagozkie; gagozkitzu(e);  
zagozk(i)o, zagozkit; zagozkie, zagozkigu.*

### **Iragana:**

Gai bakun: *zagokon, zagotan, zagok/nan;  
zagoten, zagokun, zagotzu(e)n;  
nindagokon, nindagok/nan; nindagoten, nindabotzu(e)n;  
hindagokon, hindagotan; hindagoten, hindagokun;*

Gai ainitz: *zagozkon, zagoztan, zagozk/nan;  
zagozkien, zagozkigun, zagozkitzu(e)n;  
ginagozkon, ginagozkan/zkinan;  
ginagozkien, ginagoskitzu(e)n;  
zinagozko(te)n, zinagozta(te)n;  
zinagozkie(te)n, zinagozku(te)n.*

**Baldintza:** *balagoko, -lagot, -lagok/n, -lagote* eta b.

## **2. Bi personetako jokabide iragankorra.**

### **2.1. \*Edun aditz laguntzale iragankorra.**

Laguntzalearen idazlari egile eta jasaile:

- luzaran: jasaile 3, 1, 2 bakun, 3, 1, 2 ainitz;

- zutean: egile 3, 1, 2 berdin:

### **Oraia:**

Egile bakun:

*du, nau, hau; ditu, gitu, zitu(zte);*

*dut, haut; ditut, zitu(zte)t;*

*duk/n, nauk/n; dituk/n, gituk/n.*

Egile ainitz:

*dute, naute, haute; dituzte, gituzte, zitu(zte)te;*

*dugu, haugu; ditugu, zitu(zte)gu;*

*duzu(e), nauzu(e); dituzu(e), gituzu(e).*

**Iragana:**

Egile bakun:

*zuen, ninduen, hinduen; zituen, gintuen, zintu(zt)en;*  
*nuen, hindutan; nituen, zintu(zte)tan;*  
*buen, ninduk/ nan; hituen, gintuk/ nan.*

Egile ainitz:

*zuten, ninduten, hinduten;*  
*zituzten, gintuzten, zintu(zte)ten;*  
*ginuen, hintugun; ginituen, zintu(zte)gun;*  
*zinuen, ninduzu(e)n; zintu(zt)en, gintuzu(e)n.*

**Baldintza:**

Egile bakun:

*balu, banindu, -hindu; -litu, -gintu, -zintu(zte);*  
*banu, bahindut; -nitu, -zintu(zte)t; bahu eta b.*

Egile ainitz:

*balute, -nindute, -hindute; -lituzte, -gintuzte eta b.*  
*baginu, -hindugu; -ginitu, -zintu(zte)gu eta b.*

**2.2. Egin aditz iragankorra.**

Idazlari egile eta jasaile 3, 1, 2 ordenu berean:

**Oraia:**

Egile bakun:

*dagi, nagi, hagi; dagitza, gagitza, zagitza(te);*  
*dagit, hagit; dagitzat (\*), zagitza(zte)t;*  
*dagik, nagik/ n; dagitzak, nagitzak/ n.*

Egile ainitz:

*dagite, nagite, hagite; dagitzate, gagitxate, zagitza(z)te;*  
*dagigu, hagu; dagitzagu, zagitza(te)gu;*  
*dagizu(e), nagizu(e); dakitzazu(e), nagitzatzu(e). (\*)*  
 (\*) Bertze moldez: *dagizkit, daizkizu(e), nagizkizu(e) ...*

**Iragana:**

Egile bakun:

*zegien, negien, hegien; zegitzan, negitzan, hegitzan.*

Egile ainitz:

*zegiten, nindegiten, hindegiten;*  
*zegitzaten, gintegiten, zinegi(z)ten;*  
*ginegien, hindegigun; ginegitzan, zinegi(zte)gun;*  
*zinegie(te)n, nindegizu(e)n; zinegitza(te)n, gintegizu(e)n.*

**Baldintza:**

Egile bakun:

*balegi, -negi, -hegi; -legitza, -negitza, -begitza.*

Egile ainitz:

*balegite, -nindegite, -hindegite; baligitzate eta b.*

### 3. Hirur personetako iragankorra.

#### 3.1. \*Edun aditz laguntzalea.

3.1.1. Egile 3, 1, 2 personetako bakunak; jasailea eta ukailea 3, 1, 3 personetako bakuna eta ainitza.g

**Oraia:**

Jasaile bakun:

*dauko, daut, dauk/n; daue, dauku, dautzu(e).*

Jasaile ainitz:

*dauzk(i)o, dauzkit (dauzta), dauzkik/n;*

*deztee, dauzkigu (dauzku), dauzkitzu(e).*

**Iragana:**

Jasaile bakun:

*zaukon, zautan, zauk/nan; zauen, zaukun, zautzu(e)n.*

Jasaile ainitz:

*zauzkon, zauztan, zauzk/nan; zezteen, zauzkikuten (zauzku-  
ten), zauzkitzu(e)n.*

**Baldintza:**

*balauko, balaut ...; baleztee, balauzku (-lauzkigu) ...*

3.1.2. Egile et jasaile 3-garren persona ainitzean, ukaile datibokoa 3, 1, 2 personetan.

**Oraia:**

*dauzkote, dauzkitate (dauztate), dauzkiate/kinate;*

*dezteete, dauzkigute (dauzkute), dauzkitzu(e)te.*

**Iragana:**

*zauzkoten, zauztaten, zauzkiaten/kinaten;*  
*zezteeten, zauzkiguten (zauzkuten), zuzkitzu(e)-ten.*

**Baldintza:**

*balauzkote, -lauztate, -lauzkiate/kinate, -lezteete ...*

3.1.3. Lehen personako egilea eta 2-garreneko jasailea; bakunak eta anitzak aldizkatuz, ukaile datiboa 3-garren persona bakun eta ainitzekoa ("nik hi hari, hik ni hari; nik hi haierr ..."):

**Oraia:**

*baukot, hauet, naukok/n, nauke/n;*  
*zau(z)kogu, zaue(zte)gu; gaukozu(e), gauezu(e).*

**Iragana:**

*baukotan, hauetan; naukok/nan, nauke/nan;*  
*zintau(z)kogun, zintau(zte)egun;*  
*gintaukozu(e)n, gintauezu(e)n.*

**Baldintza:**

*babaukot, bahauet; -naukok/n, nauke/n;*  
*-zintau(z)kogu, zintau(zte)egun ...*

3.1.4. Ukaile datibo 3-garren persona bakuna eta ainitza:

- luzaran egileak 3, 1, 2 persona bakun eta ainitz;

- zutean jasaileak berdin ("hark hura hari, ... haierr ..., ni hari, ... haierr ...):

**Oraia:**

3 bakun: *dauko, daue; nauko, naue; bauko, haue;*

*dauzko, deztee; gauzko, gestee; zauzko(te), zaztee(te);*

1 bakun: *daukot, dauet; baukot, hauet;*

*dauzkot, dezteet; zauzko(te)t, zeztee(te)t.*

2 bakun: *daukok/n, dauke/n; naukok/n, nauke/n;*

*dauzkok/n, dezteek/n; gauzkok/n, gesteek/n.*

3 ainitz: *dauzkote, dezteete; naukote, nauete; baukote, haute;*

*gauzkote, gezteete; zauzko(te); zeztee(te).*

1 ainitz: *daukogu, daegu; baukogu, haegu;*

*dauzkogu, dezteegu; zau(z)kogu, zau(zt)egu.*

2 ainitz: *daukozu(e), dauezu(e); naukozu(e), nauezu(e),  
dauzkozu(e), desteezu(e); gaukozu(e), gauezu(e).*

**Iragana:**

3 bakun: *zaukon, zauen; ninduakon, nindauen;  
hindaukon, hindauen; gintaukon, gintauen;  
zintau(z)kon, zintaue(z)t(en).*

1 bakun: *naukon, nauen; haukotan, hauetan;  
nauzkon, nezteen; zintau(z)kotan, zitau(z)t-etan.*

2 bakun: *haukon, hauen; nindaukok/ nan, nindauek/ nan;  
hauzkon, hezteen; gintauzkok/ nan, gintauek/ nan.*

3 ainitz: *zaukoten, zaueten; nindaukoten, nindaueten;  
hindaukoten, hindaueten; gintaukoten, gintaueten;  
zintau(z)koten, zintzue(z)ten.*

1 ainitz: *ginau kon, ginauen; ginauk/ nan, gainauzkek/ nan;  
ginauzkon, ginezteen; zintauko(te)gun, zintaue(te)gun.*

2 ainitz: *zinauko(t)en, zinaue(te)n; nindaukozue(te)n,  
nindauezue(te)n; gintaukozue(te)n, ginteztuezue(te)n.*

**Baldintza:** iraganeko *-(e)n* atzikia itzaltzen da eta *z-* iraganeko aurhizkia ordaintzen du *l-* aurhizkiak egilea 3-garren perdosakoa denean eta ez errana.

*balauko, -nauko, -hauko ... , -lauzko, -nauzko, -hauzko ... ; -  
nindauko, -hindauko; -naue, -bindaue* eta b.

**3.2. Eman aditz "datiboa".**

Oraia datiborik gabe:

*dema, demat, demak/ n; demate, demagu, demazu(e).*

**3.2.1. Egile eta jasaile 3-garren personako** bakun, ukaile datiboa 3, 1, 2-garren personetako bakun eta ainitz: "hark hura hari, ... ni hari ... haierr, hik ...".

**Oraia:**

*dema (demako), demata, demak/ na;  
demee, demoku, demotzu(e).*

1) Berdin, jasailea 3-garren ainitzean: "hark hek hari, ... hek eni...":

*demaꝛko (dematꝛako), dezmaꝛta, demaꝛk/na;*  
*demeꝛtee, demaꝛku (demaꝛkigu), demaꝛkitꝛu(e).*

2) Egile eta jasaile 3-garren personako ainitza, ukaile 3, 1, 2 berdin: "hek hari hek, hek eni ...":

*demaꝛkote, demaꝛtate, demaꝛkate/kinate;*  
*demeꝛteete, demaꝛkute, demaꝛkitꝛu(e)te.*

3) Egile persona 1-eko eta jasaile 2-eko bakun eta ainitza aldizkatuz, ukaile 3-garreneko bakun eta ainitz: "nik hi hari, ... haierr, hik ni hari ...":

*hemakot, hemeet, nemakok/n, nemeek/n;*  
*ꝛematꝛa(ꝛ)kogu, ꝛematꝛe(ꝛte)egu,*  
*gematꝛakoꝛu(e), gematꝛeeꝛu(e).*

### **Iragana.**

1) Egile eta jasaile 3-garreneko eta b.:

Jasaile bakun ("hark hura hari, nik hura ..."):

*ꝛemakon, ꝛematan, ꝛemak/nan;*  
*ꝛemaen (ꝛemeen), ꝛemakun, ꝛematꝛu(e)n.*

Jasaile ainitz ("hark hek hari, ... eni, ..."):

*ꝛemaꝛkon, ꝛemaꝛtan, ꝛemaꝛk/nan;*  
*ꝛemaꝛteen, ꝛemaꝛkuten, ꝛemaꝛkitꝛu(e)ten.*

### **Baldintza (berdin):**

... bakun: *balemako, balemata, balemak/na;*  
*-lemae, -lemaku, -lematꝛu(e).*

... ainitz: *-lemaꝛko, -lemaꝛta, -lemaꝛk/na;*  
*-lemaꝛtee, -lemakute, -lemaꝛkitꝛu(e)te.*

### **3.2.2. Datiboko ukailea 3-garren personako bakun eta ainitzean:**

#### **Oraia:**

Jasaile bakun ("hark hura hari ...; hek hura ...") eta ainitz ("hark hek ..."):

3 bakuna : *dema (demako), demae (deme); nemako, neme;*

*hemako, heme; dematꝛako, dematꝛee;*

*gematꝛako, gematꝛee; ꝛematꝛa(ꝛ)ko, ꝛematꝛe(ꝛte)e.*

1 "nik": *demot (demakot), demee; hemakot, hemeet (\*);*

- dematzakot, dematzet; zemaꝛko(te)t, zematze(zte)et.*
- 2 "hik": *demok/n, demEEK/n; nemakok/n, nemeek/n;*  
*dematzakok/n, dematzazteek/n;*  
*gematzakok/n, gematze(zte)ek/n;*
- 3 ainitza: *demote, demeztee; nemakote, nemaztee;*  
*hemakote, hemeztee; dematzakote, dematzaztee;*  
*gematzakote, gematzeete; zematza(z)kote, zematze(zte)e.*
- 1 "guk": *dem(ak)ogu, dzematzakogu; hemakogu, hemzteegu;*  
*demeegu, demezteegu; zematza(z)kogu, zematza(z)tegu.*
- 2 "zu(e)k": *dem(ak)ozu(e), demeezu(e);*  
*nemakozu(e), nemeezu(e); gematzeezu(e), gematzeezu(e).*  
 (\*) Datibo ainitzeko -e- duen -ae- mintzogai biekoa -ee- berdindua da  
 ahozkatzean aditz hori manuzkoan ohiki erabilia baita: *emeezu(e), emezteezu(e).*

### **Iragana:**

- Jasaile bakun ("hark hura hari, ... hura haierr, ... ni hari ...") eta ainitz ("hark hek hari, ... hek haierr ..."):
- 3 bakuna: *zemon (zemaꝛkon), zemeen; nindemaꝛkon, nindemeen;*  
*zemaꝛkon, zemezteen; gintematzaꝛkon, gintematzaꝛen;*  
*zintematzaꝛkok/nan, zintematze(zte)en.*
- 1 "nik": *nem(ak)on, nemeen; hindemakotan, hindemeetan;*  
*nemaꝛkon, nemezteen;*  
*zintematza(z)kotan, zintematze(zte)etan.*
2. "hik": *hemakon, hemeen; nindemakok/nan, nindemeetan;*  
*hemaꝛkon, hemazteen;*  
*gintematzaꝛkok/nan, gintemetzeek/nan.*
- 3 ainitza: *zemoten, zemezteen; nindemakoten, nindemeeten;*  
*hindemakoten, hindemeeten; gintzematzaꝛkoten,*  
*gintematzeeten; zintematza(z)koten, zintzematze(zte)en.*
- 1 "guk": *ginemaꝛkon, ginemeen; hindemakogun, hindemeegun;*  
*ginemaꝛkon, ginemezteen;*  
*zintematza(z)kogun, zintematze(zte)egun.*
- 2 "zu(e)k": *zinemako(te)n, zinemee(te)n; nindemakozu(e)n,*  
*nindemeezu(e)n; zinemaꝛko(te)n, zineme(zte)etan;*  
*gintematzaꝛkozu(e)n, gintelatzeezu(e)n.*

**Baldintza:**

Ordenu berean, iraganeko *-an* ekhjentzen da:

*balemo (balemak), -lemee, -nindemako, -nindemee* eta b.

**4. Jokabide alokutibokoa.**

Alokutiboko jokabidean bigarren personako atzizki batek erraiten du nori mintzo zakon, zinez ala alegiaz, bakunean ("hi") ala aintz jendetasunezkoan ("zu") edo egiazkoan ("zuek"). Ezta erabiltzen ahal bigarren persona bera aditz jokatu bereko adizlarietarik bat (gai ala egile, jasaile, ukaile) bezala errana eztenean baizik.

**4.1. Atzizki alokutiboaren moldea eta lekua.**

4.1.1. Atzizkiaren itxura ezta aldatzen: *-k(-)* gizon baten hikatzeko, eta *-n(-)* emazte baten, izan dadin emazten ala gizonen artean. Aditz iragangaitzaren azkenean ezartzen da, eta iragan-korreko egilearen aitzinean hau lehen persona atzizkitua denean, eta aditz orotan bezala, erranaldi menperatuetan atzizki lokailuak eta gertaldizkoak alokutibokoaren ondotik, azkenik ezarriak dira:

*egun hautan hemen nagok; errana daunat hemen nagonala*: aditz laguntzale nagusi lehenak *daunat* datibo emeko *-n-* derabila, eta *nagonala* menperatu bigarrenak alokutibokoa *-la* osagailu menperatzalea baino lehen.

Jende bat baino gehiagori mintzatzean edo jendetasun- ezko zukan mintzatzeko ingumenaren arabera, alokutiboko atzizkia *-zu* da lehen aldian eta *-zue* bigarrenean, ingurumena aski izanez molde bereko datiboa ala alokutiboa denez erakusteko:

*gaur hemen nagozu* ("zuri mintzo nizaizu") edo *nagozue* ("zueri ...").

4.1.2. "Etxekoa" erran daitekeen mintzara ttipitzale amultsuan, haurrer mintzatzean bereziki, *zu* errex sabaikatua da *xu* eginez, eta eginara hori ohiko errantza osora hedatu da zorrozki mugatzea hain errex ezten Garazi aldeko eremu baxe-nabartarr aski zabal batean eta inguruan: hori da "xuka mintzatzea" deitzen dena.

4.1.3. Alokutiboan edo alokutiborik gabe datiboan ikusi den bezala, *-k* hizki arra ezabatzen da *-n* emearen kontrara: *errana deat* datiboan "hiri gizonari" eta *dakeat* "hari hiri gizonari mintzatzean", eta "hi" emearekin datiboan *errana daunat* edo biekoaren laburtzez *denat* "hiri emazteari", eta alokutiboan *dakenat* "hari hiri emazteari mintzatzean". Euskalki nabar-lapurtarreko eremuan 3-garren personako aditz datibodun zuzena *dauko* izan beharr da (bertze batzuetan *dio* ja errana eta argitua den bezala), baina ohian bieko mintzogaia gaizki *dako*-ra laburtuz erabilia, *dauku* eta b. gelditu direlarik: ohitza onean zuzentzea egoki da aitzineko zatiko lerro guzietan egin den bezala.

4.1.4. Baina "bizimoldeko datiboa" den alokutiboa ontsa akomeatzen da alabaina 1 edo 3-garren personako datibo egiazko batekin:

*eremanak zezteekan/nan* ("hek haierr hiri gizonari/ emazteari mintzatzuz");

*ekbarriak zanztatenan* ("hek eni hiri emazteari mintzatzuz").

## 4. 2. Aditz molde alokutibokoaren aldapena.

Alokutiboko aditz moldea zuzena gelditzen da bertze aditz guzietan: *nagok* ("hiri mintzatzuz"), *beneramak* ("hark nerama hiri mintzatzuz") bi erran-nahietako moldea, mintzarako ingurumenak bakarrik jakin-arazten ahal baitu alokutiboa denez ala ez ("hik neramak"). Baina laguntzale lehenek, *izan*-ek oroz gainetik, aldapen handienak ukaiten dituzte.

Alokutiboan *etxean da* bilakatzen da *etxean duka/n*, hortan *\*edun* aditzak eztuelarik zuzen ohiko "ukaite" erran-nahia. Iraganeko *etxean zen* alokutibo arrear *etxean zian* da, *etxean zuen* iragan-korreko ere alokutiboa balio duena ("hiri gizonari mintzatzuz"). Baina alokutibo emean *etxean zunan* iragangaitza da bakarrik ("etxean zen hiri emazteari mintzatzuz"), iragankorreko iraganean aldiz *zinan* ("zuen hiri emazteari mintzatzuz"), ainitza *zitanan* ("zituen hiri...") delarik.

Iragan eme *zinan* horrek ("zuen hiri emazteari...") baditu oraian arau berdineko arra eta emea: *etxean diki/n* "du hiri mintzatzuz" balio duena. Iragangaitzeko eta iragankorreko alokutibo eta alokutibo gabeko molden gurutzatze hori, ethorkiaren eta argipenaren aurkitzeko, alokutiboko egitura berdin bat duten bertze hizkuntza batzuekin erkidatua beharriz lizatekeen berezitasun bat gelditzen da.

## IV. Baiezezko eta menperatzeko aditz hizkiak.

### 1. Baiezezko aurrizkiak.

**1.1. Baiezko errana**, euskalki nabar-lapurtarrean *ba* zena eta dena oraino ohian *bai* biek mintzogatze gabe mintzatzalen baitan, den bezala aurrizkitzen zako aditz jokatuari aski libreki baina muga osoki garbietan: ezezkoa ezten aditz erranaldi oso (edo erranaldi menperatu) oro *ba-* aurrizkitua da, baina aditz batzunduetan ehoiz ez laguntzalea, ez ere, erran gabe doa, partizipa:

- *badutea lanik?* - *ba, badute, ukana dute aurtan.*

Ehoiz ezta xoilki erraiten bakarrik *dira* edo *daude* baina *badira* eta *badaude*, ez *dute* edo *dituzte* baino gehiago, baina *baditu* eta *badituzte*.

Baiezko errana baztertua da galdeko izenorde edo aditzlagun bat duten erranaldietan, baina ikusi den bezala beharrezkoa laguntzalerik gabeko aditz hutsa duten galdatze zuzen ala zeharrietan:

*Bazutena lanik?* - *Eztaikit bazutenez.*

Baiezko aurrizkia ohian ezartzen da aditza erranaldiko hastapenenan delarik, euskaraz usu gertatzen eztena erranaldi batzunduetan, eta solasaren baiezkotasuna horrela agerian emaiten da: *bazeramatzan etxera* beharrezko erran moldea da, baina *etxera zeramaten* eta *bazeramaten etxera* bien arteko hautua mintzariak nahi duen indarr neurriari dagoko aski nahasiki, edo erran-nahiko baino gehiago erran-moldeko ohidura bati.

Baiezko aurrizkia *ba-* hortarik jalgiak diren balio ezperdineko bertze bi hizkiekin lotua da, baina baiezkozat horren erabiltzea arrazoinez debekatzen dutenekin: *ba-* baldintzazkoa *baldin* hitzaren ondotik, eta *baldin* biziki usu ixildua denean eta azpi-entzuna dudatzekorik batere utzi gabe horren gatik, errannahi hortan bakarrik da, nahitara ezartzen den *baldin* hitzetik baldintzako *ba-* hori batzuetan partizipaz berexia den laguntzale jokatuari gaineratzen zakonaz geroz: *egina baldin baduzu* edo *egina baduzu hobe!* Beganago ukaiten ahal da: *hobe baldin egin baduzue!*

Baiezko hizki hori bera da mintzogai biekko moldean (ikus Zati lehena, Ahotsara) beraz indartuan *bai(t)-* aditz jokatuari aurrizkitua kausako errannahi baten emaiteko, beraz menperatzale baten; baina gehienetan lokailua ("zeren") balio du xoilki. Ahotsarako erregela ohikoaren arau aditzaren joile hastapeneko ozena bazen barneko bilakaturik gogortzen da eta ziztukaria pherakari bazen afrikatzen: *bagira* baikoan eta *baikira* kausakoan usu *baigira* idatzia, berdin *bazira* eta *baitzira*. Ikhermenak eztu gure ustez *bai(t)-* aurrizkitik *bait* hitz oso baten egitera den gutienik uzten, eta etzako berea ez tuen parentheses arteko *-(t)-* ohiduraz baizik gaineratzen, errextasunez ala baliagarritasunez baino gehiago.

**1.2. Ezezko hitza *ez*** aurrizkitzen da eta aurrizkitu beharr da ezezko aditz orotan baiezko *ba* bezain erregulariki ahotsaran erakutsi den bezala (ikus Zati lehena), idazkian ahozkoan bezain ontsa, eta baitezpada salbuespenik batere gabe, euskaraz den ezezko ikurr bakarra denaz geroz. Ikusi da aurrizkitze horrek ekhartzen zitulea erregulariki alde batetik *-d-* oraiko aditzaren aurrizkia gogortzera *-(z)t-* eta gaineratzen zakon iraganeko *z-* ziztukaria afrikatzera *-tz-* moldean, eta bertzetik *-b-*, *-l-* era *-n-* joilen aitzineko ziztukariak ezabatzeraz: *ebuen*, *eluke*, *enezake*. Ikusi da ezezko izenorde *ehorr*, *iñorr*, *nehorr*, ahots eginara beretik sortua.

*Baldin ba-* baldintzazko egituran eza *baldin* hitzari aurrizkitzen zako: *ikus ez baldin baduzue*; eta *baldin* ixildua den ohiko aldietan *ba-* aurrizkia duen aditzari: *ez paduzue*.

Mintzatzeko eginara ez argiratuan eza zuzenez aditz jokatuari bakarrik aurhizkitzen zako: *liburu hori ez-tut irakurri, enuen irakurria*. Baina erranaldiko hitz bat argiratu denean hitzen ordenu ohikoaren aldapen baten bidez (ikus ondoko berezita), eza partiziparen aitzinean jartzen da, behin ere aurhizkitua izan gabe: *liburu horiek nituen ez irakurri, horiek nituen ez irakurriak*.

Ezezko manuetan personagabeko manua balio duen aditz-erroaren aitzinean den eza berex gelditzen da aurhizkitua izan gabe: *ez jan ez edan*.

Hitzen batzuntzean aldiz eza, bertze bat bezalako izen bat dena berez (*baia, eza*), ohiki ezezko erran-nahia duten hitz erdarako *in-* eta horren moldetako aurhizkien erraiteko erabiltzen da aurhizkiturik. Aurhizkitze horrek, eza erraiten duten bertze aldi batzuetan ere egiten denak, derakharr ahozkoan eta beraz idazkian, ahotsaran ikusi den bezala, herskari ozenen gogorretara aldatze zuzena: *bai* eta *ez-pai*, *berdin* eta *ez-perdin*, *deus* eta *ez-teus* ... Arrazoin beraz da *ez-in* ("ahal gabe": ikus aitzineko zatia) hitza hartua izaiten ahal lehenagoko *\*ez-egin* baten laburpena bezala, edo hobeki beharr bada *\*in* "emaite" erran-nahiko erro zaharretik *\*ez-in* batena (haurrer erakasten zizaien agurtzeko molde ohikoan: *Jainkoak dizu(e)la egun on*). Izan daiteke *-e* mintzogaitik hasten diren bertze hitz batzu horrelako molde zaharr ezeztatzeko batzuetarik jalgiak direla, hala nola *etsai*, *ez-kibel*, *ez-kerr* eta b.

**2. Aurhizki menperatzaleak:** (*baldin*) *ba-* baldintzakoa, *bai(t)-* kausakoa.

Aditz aurhizki horiek bereziak dira, personetako hizkiak ezpada aurhizki guti bezain atzizki ainitz duen euskaran, ezpada bederen hitz osoekin egiten den "hiztegiko batzuntzea" gramatikako moldagai hitz osoak eztiren aurhizki eta atzizkiekin egiten den hizkitzearekin nahasten. Ikusi da *ba-* baldintzako eta *bai(t)-*kausako bi aurhizki menperatzalek ethorki ber bat dutela, *ba* hitzerran baiezkoa, baina ezperdindu direla moldean, erran-nahian eta erabilaran.

2.1. Ustea dion *baldin* edo *balin* hitzarekin ala gabe eta hortarik bekan berexia izanez, aditz osoari ala laguntzaleari aurrizkitzen zakon *ba-* hizkiak hasten du baldintzako erran moldeak: *baldin banaki, ikasia banu, erran nezauzuke*.

2.1.1. Erranaldi ezezkoan, eza *baldin* hitzari aurrizkitzen zako errana bada, eta ezpada zuzenki *ba-*ri: *ezpaldin banaki, ikasia ezpanu, enezauzuke erran*. Dударik gabe *baldin* hitzak *ezpaldin* ezezko moldeak bezain ontsa lotua beharr luke aditz hitzaren gaineratekoari, *baldin banaki* bezala *ezpaldinbaginaki*, mintzo emanaldi bakarr bat baizik eztenaz geroz, euskarako egitura lotzalearen araura, eta hori da idazki zaharretan aurkitzen. Idazteko errextasun hutsez, batzuntzez ala hizkitzez jadanik luzeak diren euskalhitzen ez gehiegi luzatzeko da, batzuetan, berextera ausartzen ahal.

2.1.2. Baldintzazko (*baldin*) *ba* hastapenekoak ere hitzaz jarraikia denean kontra-gogoko balio bat hartzen du: *errana baduzu ere abatzia dut*.

2.2. Baiko ethorki bereko *bai(t)-* bertze aurrizki menperatzaleak kausako erran-nahi bat hartua du euskaraz, bederen aditz aurrizkitua berexkuntza ageririk gabe aditz nagusiari dagokoa aldi oroz: *hori gertatu da ez-paitzinnuen beharr zena egin*. Ikusiko da gauza bera erran daitekeela euskaraz argikiago menperatzalea den atzizki batekin. Baina erranaldi menperatua aditz nagusiaren aitzinean eta hartarik berexia izaiten ahal da: *hiria urrunxko baitzen, doi-doia heldu ziren gauko*. Berexteko ahal horrek egiten du, ikusi den bezala, *bai(t)-*ekilako erranaldi menperatuak errexti harr dezakeela gertaldizko balioa duen erdarako erranaldi erlatibo baten egitekoa: *etxe hura, atzo aiphatu bainautzun, saldu da*.

**3. Atzizki menperatzale lokailuak, erlatiboak eta haien erathorriak: *-n* eta erathorriak, *-la* eta erathorriak, *-(e)z*.**

**3.1. Atzizki lokailua *-n* egiteko ainitzetakoa da, bertzela *-n* atzizkia bera den bezala (ikus Zati lehena: Ahotsara), eta joile**

ondotik *-an* moldea hartzen du mintzogai loturazkoarekin: *hori jakin dut, jakin dutan berri hori ...* Iraganeko aditzen *-(e)n* atzizkia atzizki menperatzalez ordaindua izaiten da, *-n* lokailuaz *-la* osagailuaz bezainbat: *ikasiaz zuten berria gezurra zela jakin zuten*. Lokailu eta erlatiboa *da-rentzat den* da, *du-rentzat duen*.

### 3.1.1. Erranaldi nagusi edo berexean:

1) *Izan* edo *\*edun* lehen laguntzalearekin, oihuzko erranaldietan: *zein ederr den! zenbat leku ikusi duzuen!*

2) Aditz xoilarekin edo bigarren laguntzalearekin, lehen personako manuzkoan: *atzarr gaiten* (Eguberriko kantu ezagun baten hastapena); *abia nadin; gauden etxean; lo dagigun* (XVI-garren mendeko olerki batean), laguntzalearekin erraiten ere dena *lo egin dezagun*.

### 3.1.2. Erranaldi menperatuan:

Hartzen duten aditzak eta aditzaren multzoak horrela juntaturaz bertze hitz bati lotuz, izen ala aditz, eta "menperatuz", *-n* atzizkiak arrazoin onez hartzen ahal du "lokailu" izena, eta badu egiteko bat baino gehiago:

1) **Menperatu erlatiboan:** izen baten osatzeko aditzak hartzen duen *-n* atzizkiak latineko eta hizkuntza erromanetako "izenorde erlatibo" delakoaren egiteko bera daduka; baina horren kontramoldera eta euskararen orotako egituraren araura, aditz erlatiboduna osatzen duen izenaren edo izen multzoaren aitzinean berean ezartzen da artekorik gabe erranaldi erlatiboak mugatzaleak eta ezin berexkarriak direnean (izen-lagun tinkia balio dute), izen genitibokoa bezala zuzen: euskal-erranaldi erlatibo-lokailuak osatzen du beraz ez "aitzinekoa" baina "ondokoa".-Erlatibo egiten bada *atzo ikusia dugun* erranaldi berexa eta *etxe ttipi hura berritzen ari dute* bertzearen osagailu ezartzen, erraiten da *atzo ikusia dugun etxe ttipi hura berritzen ari dute*: aditz erlatiboa *dugun* da, osatzen duen ondokoa *etxe ttipi hura* izen multzoa, eta euskarako hitz guziak erdararen lizatezkeenaren ordenu kontramoldekoan dira zuzenki.

Aditz erlatiboaren moldea eztagoko deusetan latineko edo erromaneko erlatiboaren egitekoari ez moldeari: zein izan dadin ere hau (frantsesez "qui, que, quoi, dont, où" ...), euskaraz *-n* atzizkiarekilako molde xoil eta bakarreko aditza izaiten da beti, beharrez erranaldiko bertze hitz batzuez osatzekotan:

*mintzatu deN gizona,*  
*ikusi duguN etxea,*  
*heldu gireN hiria,*  
*bizi zineN herria,*  
*mintzatu naukoN hori eta b.*

Bi erran-molde ezperdinek dute euskaraz erraiten erdaraz erranaldi erlatibo argigailu edo berexia deritzotena, gakotxaz berezirik idazkian, ixil batez ahozkoan:

1) lehenik *bai(t)*- aurrizki kausakoa emanez aditz erlatiboari: *etxe handi bura, atzo erakutsia bainautzun, saldu da;*

2) bigarrenik aditz erlatibo *-a* atzizkiak mugatua osatzen duen izenaren ondotik ezarriz eta deklinatuz egiazki den atributu bat bezala haren kasu berean: *etxe handi bura, atzo erakutsia nautzuna, saldu da; etxeak, atzo erakutsi nautzunik, bazituen bi baratze.*

Molde berean da egiten frantsesez "erlatibo izendua" deritzotena, aditz erlatiba mugatuz eta menperatuak erranaldian duen egitekoaren araura deklinatuz: *ikasiaz zinuena egiaz zen* (erlatiba *zen* aditzaren gai); *garregun gertatzen dena ezin sinetsia da* (berdin *da* aditzaren); *entzuna nuenetik ondorio huntara heldu nintzan*: hemen *entzuna nuenetik* aditz nagusiaren (*heldu nintzan*) osagailu nunbaitiakoa da.

**2) Erranaldi menperatu ez erlatiban *n-* atzizki lokailuak** badu egiteko bat baino gehiago:

1. *izan* edo *\*edun* lehen laguntzale eta partizipekin:

- galde zehartua erranaldi menperatua galdezko batetik hasten denean, *nor, zer, noiz, zein* eta b.: *jakin nahi nuke noiz abiatu behar duzun eta zenbat egun egonen ziren han;*

- erranaldi menperatu kontra-gogokoa, ala zuzenki: *dena den hori egiten dugu*; ala aditz aitzinean *nabiz* edo ondotik *arren*

hitzarekin: *nabiz biharr ikusi beharr dutan* edo *biharr ikusi beharr dutan arren, ez tut hari mintzatze ko astirik ukanen;*

- baldintzako erranaldi hertsikorr eta ezezkoa *nun* galdezkoren ondotik: *nun ez ten bertzerik gertatzen, hori eginen dugu;* gauza bera erraiten da ohiko *ezpada* ezezko baldintzarekin, erran-nahiko ezperdintasunik hauteman gabe erran-moldean salbu;

- kausako erranaldia, aditz lokailuduna *ber* hitzaz jarraikia denean: *bi oren igurikatu dugun ber, aski da;*

- erkidapenean *bezain* edo *bezainbat* aditz-lagun erkidagailuarekin: *hiri hura ttipia den bezain ederra da;*

2. \**edin* edo \**ezan* bigarren laguntzalearekin eta aditz-erroarekin:

- erranaldi osagailua xedezko, nahizko, beharrezko aditzekin: *nabi zuten lan hori egin nezan; hara joan nindadin behar-beharrezkoa zen;*

- erranaldi helburukoa: *emozu liburu haur ontsa irakurr dezan; goizetik abiatzen niz arratseko hara heldua izan abal nadin.*

**3.2. Lokailu -n atzizkitik erathorri atzizki menperatzaleak** izen deklinabideko atzizkiekin egiten dira kasu bakoitzeko erran-nahiaren araura, bereziki lekuzkoekin:

-*nean* arozko menperatzale aditz nagusiko eta menperatuko ordu bera erraiten duena moldamenez eta erran-nahiz inesibo mugatu bat da eta "orduan" balio du: *ethorri girenean ikusi dugu;* arozko -*nean* atzizkia usu aldizkatzen da erran-nahi ezperdin gutirekin edo batere gabe -*larik* atzizkiarekin (ikus urrunago); -*n* lokailuaren ondotik emanez *batean* zenbaki inesibokoa, ordu bera dela garbikiago erraiten da eta azpimarratzen: *irakurtzen ginuen batean kantuz ari ginen;*

-*netik* nunbaitikotik egina ondoriozkoa da eta egintza baten jarraipena edo ondorioa zer den edo izanen den erraiten du: *ethorri zirenetik gauzak aldatu dira;* ideia bera erran daiteke aditz lankaiezko ez mugatuaz *geroz* aditz-lagun lankaiezko atzizkiare-

kilakoa ondotik: *ethorri zirenez geroz ...*, nahasi beharr eztena ondokoarekin:

**-na<sup>z</sup> geroz** erran-moldea, aditz lokailudun mugatuaz lankaiezkoan eta *geroz* aditz-lagun edo mugagabeko izen lankaiezkoan (edo nunbaitikakoan luzaturik *geroztik*) egina, bere ondorioetan kausaren erraiteko moldetarik bat da: *hori gertatu denaz geroz beharr da leku<sup>z</sup> aldatu*; -

**-neko** prolatibokoak (hala nola *biharko ...*) erraiten du berehalakoa, arterik gabekoa: *bururatua ukanen duzuneko abiatuko gira*; ideia bera erran daiteke *bezain lasterr* hitzekin: *burutana ukanen duzun bezain lasterr ...*

**-(e)nez** egina dena *-n-* lokailuari *-(e)z* lankaiezkoa gaineratuz galdeko hitz erranik gabeko galde zehartuen atzizkia da: *jakin nahi zuten erran lanak eginak ginituenez*; joilen arteko *-e-* mintzogaia huts egiten zuen idazki zaharretan: *denez-en orde denz*;

**-no** bururapenakoak "bezain luzaz" balio du: *hemen gaudeno* ("gauden bezain luzaz") *deus ezta gertatuko*; aditz lokailudun horrek ordain dezake *arteo* bururapenekoaz egiten den erran-molde ohikoagoa: *zu ethorriko ziren arteo ezkira higituko*, edo ... *ethorriko zireno ...*, edo errexkiago laguntzalea jautziz *zu ethorri arteo ...*

### 3.3. Atzizki **-la** osagailukoa eta erathorriak:

**3.3.1. Atzizki **-la** osagailukoa** arazko aditz-lagune-tako *-la* bera da: *nola, horrela, bezala* eta b.; *aithortze, erraite, gogatzte, ezagutzte, jakite, uste ukaite* eta "aburukoak" deritzeeten bertze aditzen erranaldi osatzale jasailea emaiten du. Egituraz, erranaldi menpe-ratuak aditz-lagun baten iduriko egitekoa du. Atzizki horrekin erranaldi menperatua aditz nagusiaren osagailu "jasailea" balio duena da: *badiot arrazoin duzula, aithorr dut huts egin dutala, orhoit niz han izana zirela, uste dugu hori egia dela ...*

Erranaldi osatzalearen nagusi den aditza ezezkoa denean aditz osagailua *-la* atzizkiarekin da ere zuzenez: *hori egia dela ez tut sinesten*. Bada ixuri bat horr *-la-*ren orde *n-* lokailuaren ezartzeko,

beharr bada aditza aldi hortan "subjuntiboan" ezartzen duen erdarak bezala egiteko.

Erranmolde ohikoan *duela* personagabeko osagailua mintzo den orduan iragana den aroaren erraiteko erabiltzen da: *hori duela bi urte gertatua zen*.

Erranaldi nagusi bat balio duten *buna, horra, hara* erakustzalek *-la* osagailua galdatzen dute: *horra azkenean heldu dela*. Baina *nun* aditz-lagun galdezko-lekuzkoa errana delarik aditz lokailuduna nahi du: *horra nun heldu nizan orai lasterka*.

Menpekotasunetik kampo aditz nagusi edo berex batek bigarren laguntzalearekin *-la* atzizkiturik manua edo agiantza erraiten du: *on dagizula* erraiten da *zure osagarrairi!* erranari ihardespenez emaitzeko. Manuzkoaren molde eztitu bat izaiten ahal da: *egin ditzaizula lan horiekin lehen bai (\*) lehen*.

(\*) Hemen *bai* hori ezta baiezkoa baina *baino* erkida-tzekoaren laburpen bat *lehen* "aitzinean" balio duenarekin.

Laguntzalerik gabe jokatu aditzek gauza bera erraiten dute 3-garren personan: *daudela horr*. Lehen personan egonara berean lokailua erabiltzen da (*gauden hemen, goazen*) eta bigarrean manuzko modua.

### 3.3.2. Osagailuko *-la*-tik erathorri menperatzaleak:

*-larik* zatizkoan ezarriak (ezpada *-tik* elatiboaren moldeko zatizkoa) badu erabilpen bat baino gehiago:

1) arokoa usuenean eta *-an* lokailudunetik erran-nahiz guti edo batere ezperdina, orduan ezperdintasuna erran-moldekoa izanez: *ikusi nituenean* edo *ikusi nituelarik abiatzera zoazen*. Kontragogoko berexkuntza arin bat errana izaiten ahal da, bertze erabilpen batzuen ithurburua dena: *euria ari zelarik bek oraino bazabiltzan* ("nahiz euria ari zen ..."). Erran-nahi bereko *-rik* atzizkia ohiki baztertua izaiten ahal da darraikan moldekoa bezalako erranaldietan: *bek horr zaudela, hau gertatu zen*. Osagailua batzuetan (*e*)ta batez azkartzen da (*horr zaudela (e)ta ...*), loturako egitekorik gabe eta balio gutikoa;

2) kausakoa edo kontragogokoa ingurumenaren araura: garbiki kontragogokoa da *hori ikusia nuelariak alta, hara joan nintzan* ("nahiz ikusia nuen, bizkitartean ..."); baina kausakoa *bidaiia hura egina nuelarik, banakien zer gertatuko zen* ("egina nuelako arrazoinaren gatik ..."), nahiz arrazoinaren erraiteko ara argiagorik baden;

**-lakotz** atzizkia *-la-* osagailua *-ko* prolatibokoaz eta lankaietzko *-z* usu bururapenean *-tz* afrikatura azkartuaz luzatua da, eta kausako menperatzalearen erran molde ohikoenetarik bat da euskaraz: *hori erraiten dantzut ikasia dutalakotz*;

**-lakoan, -lakotan** atzizki batzunek prolatiboko *-ko* atzikiaren ondotik *-z* lankaiezkoa inesiboko *-an* edo *-tan* mugatuaz ordaintzen dute "estakuruz" edo "itxaro-penez" aski ustegabeko erran-nahiarekin: *zailagi zelakoan lan hura utzi zuten; hirian jartzekotan zauden omen*.

Izen baten osatzeko erranaldi osagailuak ohian genitiboko *-ko* atzizkia hartzen du: *hori gertatua zelako gogamena ukana nuen*.

**4. Galdezko -a atzizkia** menperatzeko eremutik kampo gelditzen da (ikus III-garren zatian galdezkoak, Berezita II, III).

## V. Iragankorr eta iragangaitz.

**1. Euskal-moldamen eta juntadurako berexkuntza baitezpadako bat: aditzaren iragankortasu-na eta iragan-gaiztasuna.**

Egile den adizlariaz eta egintzaren jasaile denaz, hau izan dadin errana ala ixildua baina gogoz aditzean berean entzuna, mintzo den aditzaren, eta gaia ondoriorik batere galdatzen ez tuen egonara berezi batean erraiten duenaren arteko ezperdintasunak du egiten aditz "iragankorrek", lehenbiziko moldekoak, eta "iragangaitzak", bigarrenekoak, berexten dituen orotako ordenua.

Euskaraz mintzatzean, hortakotz hizkuntza "ergatiboa" deritzotenean, mintzale orok badaki aitzinetik erabiliko duen

aditza iragankorra bada beharr duela ez bakarrik "ukaite" dion laguntzale bat beharrez erabili, baina oroz gainetik, laguntzale ala aditz nagusi, egilea kasu ergatibo edo "egintzakoan" ezarriko duela, hori baita euskaraz aditz "iragankorr" erran ororen egilea markatzen duena: *-k* aldi oroz. Berdin, jakinez aditza iragangaitza izanen dela, aditzaren erran-nahia ez dela jasaile batera iragaiten ahal den egintza, beharrez hartuko du "izaite" (ez "egite" edo "ukaite") erraiten duen laguntzalea, baina oroz gainetik, laguntzale ala ez, zer-baiten egile ezten aditzaren gaia utziko du, iragankorraren ez egilea baina osagailu "egina" bezala, izen hutseko edo atsolutiboko (edo "nominatiboko") kasuan, hori markarik gabe baita ez mugatuan, eta behin ere ez *-k* bakunean.

Ainitzak orduan sartzen du zatiz egiturako araugabe bat, iragangaitzeko gaiaren ainitzak atzizkia *ak* duenaz geroz, iragankorreko jasaile bakunak *-ak* duen bezala: *ikusi ditut etxeak; etxeak bazituen leihoak*. Atzizkitze horren moldatzeaz eta arau berdin gabe hortaz deus ezta jakina. Baina eztu deusetan ahultzen euskara eta hunen moldamena gobernatzen dituen iragangaiztasun eta iragankortasunaren arteko berexkuntza.

## 2. Bi eta hirur idazlarietako iragankorra (aditz "datiboak").

Euskaraz aditz iragangaitz batek onhartzen duenaz geroz aldi oroz aditz jokatuan ukaile datibokoa dion hizki bat (*banako, joan nintzazizun erraitera ...*) aditzaren erran-nahiarekilako lotura zuzenik gabe, erran-nahi horrek zuzenez galdatzen dituen aditzeko osatzale bat edo bien izaitea, aditzaren gaitasuna erran daitekeena, ezta aditz iragankorretako baizik baliagarri.

Aditzeko egilearekin, jasailea edo osatzale zuzena eta osatzale bigarrena edo hobebi euskarako ukaile datibokoa, erran nahi da aditzari hizkituak zazkon adizlariak dira bakarrik sartzen jokabideko mugabide personetakoan, segurki bazterturik bigarren maileko osatzale zuzenki "gertaldizkoak", deklinabidean hizki bereziez erranak: aro, kausa, kontragogo, ondorio eta baldintza.

Bi moten arteko muga osorik ezpada aldi oroz, badira zuzenez osatzale bakarr bateko aditz datiboko ukailerik galdatzen eztutenak. Baina beharrez onharr dezakete: *jan dut, ogia jan dut; baina ogia jan dankot* ("hari, norbaiti"). Bertze batzu gaitasun bikoitzekoak dira hala nola *eman*, beti entzun-araztera uzten baititu emaiten den gauza, jasailea, eta hori emaiten zaukon ukailea, ezpadira ere Obiak beti erranak: *emana dut* erraiten da beharr denean *emana dankot* eta b. bezain ontsa.

**3. Aditz iragankorrek eta iragangaitzak eztira beti berak** euskaran eta hizkuntza erromanetan, ez ere ukailea entzun-arazten duten aditz datiboak.

Izena eta izen-laguna bereziak eztiren euskaran *gose, egarri, barur, beldurr* eta *lotsa* hitzak izen dira eta izen-lagun; erraiten da beraz *gose, egarri, barur, beldurr* edo *lotsa gira* (ez *dugu*); berdin *haurrak jostagura dira*; edo *hotz niz, bero niz*. Baina erdaraz bezala *izerdi*-ko (\*) *izan* erabiltzen da: *izerdi zira*, edo *izerditan zira*.

(\*) *Izerdi* hitza "ur" erraiten duen *iz* zaharr eta *hotz*-ekin *izotz* egiten duenarekin (eta ere iduriz, ziztukarien berdintzes *itsaso*, eta ere *izurde* zuzenki "ureko urde"), eta *erdi* ("erdi da": "ume egin du") hitzarekin batzundu zaharr-zaharr bat da.

*Mintzo* (*mibi*-ren \**minbi* molde zaharretik egina) izenetik erathorri *mintza* aditz-erroak baditu bertze ainitzek bezala bi erabilara: 1) iragangaitza: *ontsa mintzatu da*, datiboko ukailearekin *haurrari ontsa mintzatu zizakon*; 2) iragankorr zuzena: *auzapheza mintzatu dut*.

Aditz-erro bezala *iduri* izena iragangaitzean eta iragan-korreetan jokutzen da: *iduritzen* (edo *iduri*) *zizatan euria heldu zela*, eta *iduri zuen eurituko zuela, zuhatz horrek eihartua iduri du* (edo *badiduri*); baina iragankorr zuzenean bakarrik "(zerbaiten) egite ukaite" erran nahi duenean: *zuek aita iduri duzu*, bertze moldez erraiten ere dena izen osoarekin: *zuek aitaren iduria baduzu*.

Euskaraz *jarraik* (edo *jarrain* euskalki iberiarretan) aditz datiboa da: "norbaiti jarraikitzea" erraiten da, *jarraik zaiete*

("haierr" datibo ainitzean), eta laguntzalerik gabe datibo baku-nean *hari narrai*ko. Izan daiteke persona osatzaleak *a* aitzinhitz erromanarekin sartzen dituen gaztelarak eragin ukan duela horr egun batez, oraiko euskalkietan "datibo falsuetako" behazun ainitzetan bezala, nabar-lapurtarreko ohitza onak ageriki horien baztertzea galdegiten duelarik.

**4. Izen aldagaitz eta aditz erro batez egin erranaldi batzuek** euskaraz emaiten dituzte aditz ideia xoil batzu:

4.1. **Egin erroarekin:** *lan egin, lo egin, so egin* eta b. Erranaldi horiek laguntzalerik gabe edo laguntzale iragankorrekarekin jokatzen dira: *egizu lan, egizu lo, so egizu*; geroan: *lan eginen duzue*; izenaren erran-nahi zuzenean eta ainitzean: *lo on batzu egin ginituen ban*. Izen guziek bezala aditz-erro eta partizipak egin dezazkete: *ilea lantzen dugu*.

Baina *lo* izenak, aditz-erro denean *lotze* aditz-izenetik *lot* idatziak, hartzen ditu ingurumenaren araura "lotze" (eratxikitze), "arthatze" (zauri bati "lotura emaitte"), "hartze" (landare baten-tzat) erran-nahi bereziak, oro ber batetik erperdinduak: iragan-korrean *paperari lotu dut; zauri hori lotu beharr duzu*; baina iragangaitzean bakarrik: *zure porruak lotu dira*.

*So* izenarekin ("behako" erran-nahian) erran badateke *emozu so bat* (hirur personetako jokabidea), *egin*-en jokabide iragankorrek *\*edun* laguntzalearekin datiboa hartzen du: *so egin daukozu*.

4.2. **Ukan erroarekin (jokabidean \*edun):** *ahal* ("bote-re"), *beharr, nahi, uste* izen aldagaitzekin egiten dira *ahal ukan, beharr ukan, nahi ukan, uste ukan*. Erran-molde horietan *ahal, beharr, nahi* eta *uste* izenen jasaile izaiteko egiteko lehena ahatzia baita jasaile deklinatua onhartzen dute gainera, eta *uste*-rekin erranaldi osatzalea: *lan horiek egiten ahal dituzu; biharr joan beharr dut; lan horiek egin beharr dituzte; nahi ginituen eskualde ederr hek ikusi; gezurra ziniola uste nuen*.

Zorr izenarekin *zorr ukan* erran moldearen erabilpena berezia da: zuzenez erraiten da *eztaunkot sos bat zorr*, baina ere *zu zorr zitut*, *auzoa zorr dut*, hitzez hitz "auzoa hartzedun dut", "zorr" gauzaren "hartzedun den jendera" izenaldatzearen ondorioz.

**5. Personetako jokabidean iragankorr diren aditzek laguntzale iragangaitza hartzen dute** persona gabekoaren eta izenordekoaren erraiteko, eta aditz zuzenez iragangaitzak, kontramoldera, iragankorr bilaka daitezke egintzako erran-nahia hartuz:

*ikusten dut* edo *badakusat*, eta *ikusten da*; *ikusten dute* edo *badakusate*, eta *hemendik etxeak ikusten dira*; *itsasoa ikusten da* (\*); *lokhartu da* eta *lokhartu duzu*; *ibiliak dira* eta *ibiliak ditugu* eta b.

(\*) Euskaraz ez tira personagabea edo heren persona orotako ez mugatua (erdaraz "on") nahasten, ez ere orotako hori eta lehen personako ainitza "gu", bat edo bertzea ezarri beharr da. Orotako erran-nahian: *udan goizik jeikitzen da*. Baina *zer ari zirezte?* galdeari ihardesteak eztu personagabekorik onhartzen, personakoa izan beharr du: *lanean ari gira*, edo laguntzalea ixilduz *lanean ari*, edo aditz guzia ixilduz *lanean*.

Berez personagabekoak diren erran-molde guziek euskaraz aditz edo laguntzale iragangaitza dute: *bada jende* edo *jendea*; *beharr da so egin* edo *so egin beharr da*. Bada alde batetik personagekoa: *lan hori egin beharr da*; bertzetik personako egilea iragankorrean: *lan hori egin behar du* ("norbaitek, hark ...").

*Ari da* ("egintzan da") aditz lagunduarekin egiten dira aroko erran-moldeak hala nola *euria ari da* (batzuetan erraiten da ere egiazko egile nahasi bat entzun-arazten duen iragankorra-ekin: *ari du*), edo *xoilki euria da*, *bero da*, *hotz da*, *sapa da*, *negua da*

...

\*

## Berezita III

### Hitzen eta hitz multzoen ordenua.

Aitzinean erakutsi den guzitik ageri da garbiki euskaraz hitzen ordenua, juntaturako batasun edo sintagma bakoitzean, erranaldiko laburpena den aditz jokatuan aditz hizkiena bezala, orotako lege huni jarraikitzen zakola: osatzalea osatuaren aitzinean da. Horrek egiten du ekhai nagusietako salbuespen gutirekin hitzen ordenu ohikoa zuzen frantseseko edo espāñolekoaren kontramoldekoa dela. Ingurumen hortan adizlari guziak berak erraiten dituen eta erranaldiko egitura orotakoaren egiazko laburpena den aditz nagusia badoala errex, baitezpadako beharrik batere gabe, erranaldi azkenean jartzera.

Baina ere hitzen ordenuko libertatea, osoa izan gabe, erdara horietan baino ainitzez handiagoa da, latinean ere zen bezala eta arrazoin beren gatik. Alabaina gehienean deklinabidearen ondorioa da, egiteko bakoitza erranaldian emaiten baitu atzizkitu den hitzaren moldeaz beraz, eta horrela bere egitekoan ezagutua izaiten ahal baita zein duen ere lekua erranaldian.

Hemen hunkitzen den gaiak eztitu izenaren mugabideko legeak biziki hunkitzen ez eta mugatzalen lekua, ezin aldatua dena gehienetan salbuespen guti-gutirekin bigarren zatiko Berezita III-an ikusi den bezala: osatzale genitibokoaren (*-re, -ren, -keo* kasu atzizkiak) eta balio bereko ondoratze xoilaren motakoa den oro egitekoaren arau deklinatzen den izenaren aitzinean ezartzen da, jabetasunezko mugatzale diren personetako izenorde genitibokoak eta genitinoko itxura duen zenbatzale ordenukoa barne; eta bertze mugatzale berezle eta orotako guziak, izen edo izen multzoko egitekoaren atzizki deklinatua harturik, izenaren ondotik.

### I. Erranaldi xoil eta batzun.

#### 1. Erranaldi xoil.

##### 1.1. Atributu gabeko erranaldi iragangaitza.

Gertaldizko osatzale batekin aditza baitezpada hastapenean ezartzen da baiezko edo ezezko hitzerranaz aurhizkitua bada: *bageaude etxean, ezkaude gehiago hemen.*

Baiezkorik gabe aditza osatzalearen ondotik ezartzen da: *etxean gaude, hemen ginauden*; baina ezezkoarekin *ezkinauden hemen.*

**1.2. Erranaldi atributuduna** euskaraz ohian "gai-atributu-aditz" edo G.At.Ad. ordenuan da: *zerua argi da, zubatx horiek saratsak dira.* Aldapen orok jarraipen hortan xede berezi bati ihardesten dauko, aditz lokailuak erranaldia ezin has dezakeela salbu.

**1.3. Erranaldi iragankorr jasailekunak** errexkiago ezartzen du aditza, xoil ala batzun, azkenean: *badazkeigu egungo berriak* edo *iragan dituzue mendiak* arruntago dira edo gutiago ereduko *egungo berriak badazkeigu* edo *mendiak iragan dituzte* baino. Berdin egilezat izen batekin: *mendiak iraganak dituzte bidariek*, baina ere *bidariek iraganak dituzte mendiak* edo *bidariek mendiak iraganak dituzte.* Beraz "egile-aditz-jasaile" ordenua jarraikian Ja.Ad.Eg. da edo Eg.Ad.Ja. edo Eg.Ja.Ad., hirur ordenuen artean erran-moldeko berexkuntza arin bat baino gehiago senditua izan gabe.

**1.4. Aditz batzuna ezezkoa denean** partizipa beharrez aditz jokatuaren ondotik da, jasailea aditzaren eta partiziparen artean jartzen ahal denaz geroz: *mendiak eztituzte iraganak ...* edo *eztituzte mendiak iraganak.*

Baina egile errana aditzaren eta partiziparen artean jarzen ahal da ere eta usu gertatzen da (hemen aditz-lagun batekin): *mendiak eztituzte (oraino) :bidariek iraganak.*

**1.5. Erranaldi iragankorr hirur adizlaridunak** ukailearekin datiboan, egileaz Eg., aditzaz Ad., jasaileaz Ja. eta ukaileaz Uk. eginak, molde bat baino gehiago onhartzen du, eta bat edo bertzearen hautatzera ereman dezakeen errantzako edo ixtorioko ingurumenaren araura, ondoko laur moldetarik batek, lauretan gelditzeko, eztauko euskarako ordenu ohikoari huts egiten:

Eg. Uk. Ad. Ja.: *baratzegilek extekandereari bazemazkoten gerezi onduak;*

Eg. Ja. Ad. Uk.: *baratzegilek gerezi onduak bazemazkoten etxekandereari;*

Ja. Ad. Eg. Uk.: *gerezi onduak bazemazkoten baratzegilek etxekandereari;*

Uk. Eg. Uk. Ad.: *etxekandereari baratzegilek gerezi onduak bazemazkoten.*

Gauza bera da ezezko aditzarekin: *etzemazkoten.*

Ustegabekoena lizateke iduriz hartan aditza erranaldi has-tean lizatekeena, nahiz ingurumen berezi batean elizatekeen bate-re baztertua.

**1.6. Laguntzalearekilako erranaldi ezezkoan**, partiziparen (part.) ezartzea beharrez ezezko laguntzalearen (Adez.) ondolik salbu, ordenua ezta gutiago idekia:

Eg. Uk. Adez. Jas.: *baratzegilek etxekandereari etzaukoten ekharri gerezi onduak;*

Eg. Adez. Uk. Jas. part.: *baratzegilek etzauzkoten etxekandereari gerezionduak ekharri;*

Adez. Eg. Uk. part. Jas.: *etzauzkoten baratzegilek etxekandereari ekharri gerezi onduak.*

Aditz jokatua aitzinean ezartzen duen azken ordenu hunek gogatzera uzten du ez tirela baitezpada "baratzegileak" izan etxekandereari geriziak ekharri zauzkotenak baina berantago izendatuak izaiten ahal lizatezkeen bertze jende batzu.

**1.7. Aditz-lagunak** edo aditzondokoak, ezpada berezia eta beraz argian ezarria, eztu leku segurrik hartzen. Aditz aitzinekoa hobesten badu, aski libreki lekuz aldatzen ahal da mintzariak duen xedearen arabera: jadanik aiphatua den erranaldian ("bidariek" eta b.) *oraino erranaldi hastean izan laiteke: oraino eztituzte bidariek mendiak iraganak;* edo ere azkenean: *mendiak eztituzte bidariek iraganak oraino ...*

## 2. Erranaldi batzuna.

"Erranaldi batzunaz" hemen erran nahi da aditz nagusiari erranaldi menperatu bat edo gehiago gaineratzen dauzkona (gre-

kaz *hypotaxis* "azpian ezartze"), beraz *eta* edo '*ta, ala, edo, alabaina, bada, baina/bana, beraz, zeren* edo *ezen* hitzen bidez elgarri lotuez (grekaz *parataxis* "bat bertzeari lotze") eginak direnak baztertuz.

Izena osatzen duten erranaldi erlatiboen izaiteaz batzunik diren erranaldiek, izan daiten mugatzale ondoratuak ala bereziak eta argigailuak (ikus 2-garren zatian izenaren osatzaleak), eztute hitzen ordenuari doakonaz oharrik batere galdatzen. Lekua segurra duten erranaldi bakarrak dira horiek.

Aro, kausa, kontragogo, ondorio eta baldintzako erranaldi gertaldizkoen lekua mintzalearen edo idazlearen hautuari dagoko neurri handi batean, lehentasun guti aldagarri batekin: azkenik erranaldi nagusiaren, eta hortan erranaldiaren "phizua" zerbait moldez hartzen duen aditzaren ezartzerako ixuria, arrazoinezko eta entzuna izaiteko beharra kontra ezpadoako.

### 3. Lekuz hitzen aldatzeak eta argiratzeak erranaldian.

Erranaldi xoil ala batzuneko hitz guziak abantzu lekuz aldatuak izan daitezke errankortasun edo xoilki erran-moldeko arrazoin batzuen gatik.

Hartzen bada *zuk egia diozu* erranaldi xoil, aitzinean aditzaren ezartzea salbu, ezpaita egingarri baiez edo ezezko aurhizkiarekin baizik erran-nahitik ezer aldatu gabe (*zuk badiozu / eztiogu egia*), badira bi eginahal:

*zuk diozu egia* "zu zira egia diona" balio duena aditzaren eta osatzalearen aldizkatze xoiletik;

*egia zuk diozu* "egia diona zu zira" balio duena, osatzalea hastapenean ezarriz argiratzen baita lehenik eta hortik beretik *zuk* erdiko hitza bigarrenik.

*Zuk egia diozu* hastapeneko erranaldiak bere erran-kortasun berezia hartzen zuen egile beraren errepika-tzetik egiteko berean baina bi molde ezperdinetan (*zuk ... -zu*) eta erranaldiko bi buruetan, erdaraz ez bezala ("vous vous dites..."), eta horrela argiratu. Argiratze gabeko erranaldia molde ohikoenean *egia diozu* da.

Poesiako idatzarak lekuz hitzen aldatze ohigabeko-agoak onhartzen ditu ohian euskaraz aitzinekoak diren osatzaleak ondotik ezarriz ere, hala nola genitiboko hitzak eta hitz multzoak, salbu, erran gabe doa, erlati-boko erranaldi mugatzaleak. Horrela egunorotako mintza moldean ere erraiten entzun laiteke, mintzatzalea ohitua ezten ber aditz-izeneko osatzalen ezartzen nominatibo mugatuan: *orduan gertatua zen hasi zela irakurtzen liburua berri batzuen*. Ustegabatzekorik deus ezta erranarak, errimak gainera, neurthitz itxura bat (errima bakuneko zortzi silabako hirurkuna) emaiten badauko erranaldiari, bertsulariek aski ohikoa duten egitatea hizkuntzaren ahal bereziak errankortasuneko ontsa eta oldez menperatzen dituztenean.

## II. Aditzaren lekua eta hutsa.

### 1. Lekua.

Aski librea da, ikusi diren bortxu berezien arabera, oroz gainetik molde languntzaledunetan eta baiezezko aurhizkiekilako aditz xoiletan; baina aditz jokatua erran-aldi azkenean jartzera ari da. Erranaldian dadukan egiteko lehenaren ondorioa da hori, bere ekhai nagusi guziekin emaiten baitu laburzki, adizlarien gainera aditzaren ekhai bereziak erranez (baiezezko, aro, modu eta itxura). Hain zuzen nun aditz bakarr ezin moztu batek itxuratzen baitu ohiki erdarako erranaldi oso bat, darraikaten iraganeko hauek bezala:

baiezkoan *bazerama<sup>z</sup>kitzuten* ("zuri hek horiek eremaiten zauzkitzuten") ala ezezkoan *etzerama<sup>z</sup>kitzuten*;

kausako erranaldi menperatu ezezkoan erraiten da *etzerama<sup>z</sup>kitzutelakotz* ("zuri haiek horiek eremaiten etzauzkitzutelakotz"); jasaile erranarekin *gauza horiek* eta erranaldi menperatua aditz nagusiaren ondotik (ala aitzin-ean argiratze eta erran-molde nahituen araura), eta ere jasailea osatzen duen aditz erlatiboarekin aitzinean: *hori gertatua zen erranak ginituen gauzak etzinerak*

*matzate(zte)lakotz*; "zuek" egile ainitzarekin agertzen da ainitzeko (-zte-) arthizkia.

Gaia *hori* beharrez azkenean ezarririk, erranaldi nagusia menperatuaren ondotik izan ahal laiteke: *erranak ginituen gauzak etzineratate(zte)lakotz gertatua zen hori*: aitzinean ezartzeak erakus- teko agerian ematea balio du orduan.

## 2. Aditz jokatuaren huts egitea.

Aditzaren ez erraitea bizkitarten aski usu egiten da euska- raz gertaldi batzuetan, bereziki ahozko mintzaran. Ikusi da horre- la manuzko erran-nahia *egon horr* aditz-erro hutsarekin adizlari bat baino gehiagori emanik entzuna izaiten ahal dela, horiek bereziki aiphatuak izan beharr ere gabe, edo aditz xoilean ("zaudezte") edo laguntzalean ("egon zaitezte").

Aditz huts egina ordaindua izaiten ahal da *hea!* "dakusa- gun" edo horrelako zerbait balio duen arte-oihuaz eta galde zehartuko osatzalea manatzen duenaz ohiko hizkiekin: *hea hori irakurriko duzunez!*, *horr -(e)z atzizkia batzuetan axildua delarik (duzun!); hea nola doazen zure egitekoak ...*

Aditzaren ixiltzea ohikoa da oroz gainetik *izan* aditzeko, bereziki oihuzko balioa eta doinua duten erranaldietan, hala nola: *eta bek horr egonki!* (erroak *-ki* aditz-laguneko moldea hartzen du), edo *egoiten!* (partizipa, *dira* aditza azpi-entzunik).

Euskaraz ainitz erabili den atsohitzen erran-moldeko berezitasun bat da ere, XVI-garren mendetik XVII-garreneira idatzi eta agertu diren zerrenda eta bildumek derakutsaten bezala: Espainian bera erran zaharr biltzale (1592) zen Garibay-en gain emaiten diren Iruñako 539 *Refranes* (1596) delakoak, Frantzian Zalgiz zuberotarrarenak (1600 inguruan) gero Belarenak, eta oroz gainetik Oihenartek bildu 706 "*refraua*" (1657).

Ohiki jendeak erraiten zuen aditzik gabe *ustea erdia ustela* bertze huntaz ontsa osatua: *ikus eta sinets*, manuzkoa balio duten bi aditz-erroekin. Aditz ixildua batzunago izaiten ahal da, Oihen- arten 464-garren erran zaharrear bezala, bere diruko egia azkarre-

an: *urhea bere ondora*, azpi-entzuten den aditza *badoa* edo *ari da* mugimendukoa dela *-ra* norapaiteko atzizkiak aski argitzen baitu.

Manu, nahi edo agiantzazko molde *-la* osagailuaz atzizkitu-etarik hara, horr aditz nagusi baten ixiltzea itxurazkoa baita egiazkoa baino gehiago, aditz nagusi erran-nahi eta molde batzune-ko batek ere huts egin dezake partizipa edo erroa bakarrik errana denean jokabide motaren arabera, erran-nahiko nekerik gabe orduan ingurumenak ordaintzen baitu. Ohigabeko behazun bat bada Oihenarten *Ot-en gaztaroa* (1657) bildumako XVI-garren olerkian, bortz neurriko laurkun errima gurutzatuez eginean: lehenbizikoa, bi bertsu lehenak hartzen dituen erranaldi osoaren lehen zatia egiten baitu, ondoko hau da, aditz nagusi erranik gabe, hemen *\*ezan* iragankorreko bigarren laguntzalea baldintzan edo aha-lezkoan jokaturik:

*Nabiz ezpegi*  
*Gauaz ilhargi,*  
*Ni zure begi*  
*Ederrek argi,*

...

Hastapenean ezezko erranaldi manuzko personagabeak kontragogoko menperatua balio du, bertze moldez erranik: "egiten ezpada ere gauaz ilargi ...". Erranaldi nagusiko aditza gero *argi* aditz-erro xoilak emaiten du laguntzale jokatua azpientzunik, ezpaitaiteke *nindezakete* bigarren laguntzale iragankorr ahalezkoa baizik izan, bortz silaba edo neurriko azpientzun bat eginez. Bigarren bertsuak erranaldia baldintzako menperatuaz otsazen du aditz nagusiko laguntzale azpientzunak iragarririk, aditz ezezkoan *ezpazin' ari* sinalefa eginez Oihenartek ohi duen bezala: "ari ezpazine ..."

Izen eta izen-laguna *argi* aditz-errotzat hartua da hitz oro izan daitekeen bezala euskaraz. Hitz-neurkuntzako errima aberat-sa zuzen da *ilhargi* hitzean *-argi* izen osatzale denaz geroz eta berezirik *argi* aditz-erro, beraz egiteko ezperdinetan. Olerki egin-

tza goiena dudarik gabe, baina hizkuntzako berezitasun nagusi-  
enerr deusetan eztauen huts egiten.

Egunorotako hizkuntzan alabaina laguntzale jokatuena ixil-  
tzeak ohikoak dira aditzak barne hartzen duen gai edo egile  
ixilduaz dudarik batere ezten ber, molde jokatu azpientzuna  
ezperdina izanik ere: *orduan hara joan ginen eta beharr zena egin*,  
laguntzale jokatu ixildua eztearik *ginen iragangaitzaren errepika*,  
baina *ginnuen iragankorra*.

Arrazoin azkarragoz loturazko lerro batean aditz laguntza-  
le ber baten ez errepikatzea ohikoa da: *gertatu zen hara abiatu zirela*,  
*eta han laketu, baina han gelditu ere alde bat*. Euskarak ixiltzen du  
aditz jokatu osoa egilea barne partizipa bururakorra bakarrik  
utziz, ingurumen arau betegina izaiten ahal laitekeena ere eta egile  
ixilduarekin deklinatua (*abiatuak, laketuak, geldituak ...*) edo berdin  
geroko aldagaitza (*abiatuko, laketuko, geldituko ...*).

\*

\*\*

\*\*\*

\*\*

\*

### Gramatikako hiztegi laburra euskal-erdaraz.

aditz: verbe.

aditz-erro: radical verbal.

aditz-izen: nom verbal.

aditz-lagun, aditzondo: adverbe.

aditz laguntzale: verbe auxiliaire.

adizlari: actant du verbe (sujet, objet, bénéficiaire).

afrikatu: affriquée (consonne sifflante).

ahalezko: potentiel.

ahots: phonème.

ahotsara: phonétique.

ahozka, ahozkatzte: prononcer.

ahozkagune: point d'articulation.

ahozkara: prononciation.

ahozko: oral.

ainitz: pluriel, beaucoup.

alokutibo: allocutif.

argira, argiratzte: focaliser, mettre en valeur.

argirale: présentatif.

aro: temps (d'un verbe, et au sens général).

arthizki: infixe.

atsolutibo: absolutif.

atzizki: suffixe.

aurhizki: préfixe.

azpientzun: sous-entendre, sous-entendu.

baiezko: positif, assertion positive.

bakun: singulier, à un seul élément.

baldin ba-: si (conditionnel).

baldintza: condition, conditionnel, hypothèse.

batzun: composé, complexe.

batzuntze, batzuntasun: composition.

berezle: défini (article).

betegin: parfait (participe).

bururagaitz: imperfectif (participe).

bururakorr: perfectif (participe).  
 bururapeneko: terminatif (déclinaison).  
 deklinabide: déclinaison.  
 egile: sujet de verbe transitif.  
 egiteko: rôle, fonction (grammaticale).  
 erakusle: démonstratif.  
 erathorri: dérivé.  
 erkidapen: comparaison.  
 erkidatzeko: comparatif.  
 erranaldi: phrase, proposition.  
 erranara, erran-molde, errantza: expression.  
 erranbide: tournure (d'expression).  
 errankorr: expressif.  
 errankortasun: expressivité.  
 ethorki: origine (linguistique).  
 ethorkizun: futur.  
 ezezko: négatif, assertion négative.  
 ez mugatu: indéterminé.  
 ez-orai: non présent.  
 ezpainkari: labial.  
 gai: sujet de verbe intransitif.  
 galde: interrogation.  
 galdezko: interrogatif.  
 gehiegiko: excessif.  
 gehientzeko: superlatif.  
 gero: futur.  
 hastun: aspiré.  
 hats: aspiration.  
 herskari: occlusif (phonème consonantique).  
 hika, hikatze: tutoyer, tutoiement.  
 hitz: mot.  
 hizkai: lexème.  
 hizki: suffixe.  
 hizkuntza: langue (système linguistique).

hiztegi: lexique, dictionnaire.  
 hobi: alvéole du palais.  
 hortz-hobietako: dental alvéolaire.  
 horzkari: dental (phonème).  
 burbiltzezko: approximatif.  
 idazki: écrit (substantif opposé à "oral").  
 iragan: passé.  
 iragangaitz: intransitif (verbe).  
 iragankorr: transitif (verbe).  
 izen: nom.  
 izen berezi: nom propre.  
 izen-lagun: adjectif, qualificatif.  
 jabetasunezko: possessif (adjectif).  
 jasaile: complément d'objet (du verbe intransitif).  
 jokabide: conjugaison.  
 joile: consonne.  
 laguntzazko: comitatif (déclinaison).  
 lankaiezko: instrumental (déclinaison).  
 laxo, hitz laxo: prose.  
 lekuzko: locatif (déclinaison).  
 lerro: ligne, rang.  
 mailegu: emprunt (mot d').  
 manu, manuzko: impératif.  
 menpera, menperatze: subordonner, subordination.  
 menperatzale: subordonnant.  
 mihi: langue (organe).  
 mihi-punta: "apex", bout de la langue.  
 mihi-puntako: apical.  
 mintzara: langage.  
 mintzari, mintzale: locuteur, parleur.  
 mintzo: voix.  
 mintzogai: voyelle.  
 molde: forme (dans tous les sens).  
 moldakuntza: formation.

moldagai: morphème.  
 moldamen: morphologie.  
 muga, mugatze: déterminer.  
 mugabide: détermination.  
 mugatzale: déterminant, déterminatif.  
 multzo: groupe (nominal, verbal etc.).  
 norapaiteko: adlatif (déclinaison).  
 nunbaitikako: élatif (déclinaison).  
 ondo-hitz: terme postposé, postposition.  
 orai: présent.  
 ordenu: ordre.  
 orotako: indéfini (article), général.  
 osagailuko: complétif.  
 osatzale: complément..  
 pherekari: fricative (consonne sifflante).  
 sabai, aho-sabai: palais (voûte du palais).  
 sabaika, sabaikatze: palataliser.  
 sabaikari, sabaiko: palatal.  
 ukaile: bénéficiaire (actant).  
 zertarako: prolatif (déclinaison).  
 ziztukari, xiztukari: sifflante (consonne).

\*

### Liburu zerrenda laburra.

Allières (Jacques): *Manuel pratique de basque*, Picard, Paris 1979.

Axular (P. de): *Gero*, Milanges, Bordeaux, 1643.

Etchebarne (Michel): *Aditza*, Elkar, Bayonne, 2002.

Lafitte (Pierre): *Grammaire basque*, Ikas, Bayonne, 1978.

Lafon (René): *Le système du verbe basque au XVIe siècle*, Delmas, Bordeaux 1944.

Leizarraga (Ioannes): *Iesus Christ gure iaunaren Testamentu berria*, La Rochelle 1571.

Lhande (Pierre): *Dictionnaire basque-français*, Beauchesne, Paris, 1923.

Michelena (Luis): *Fonética histórica vasca*, Saint-Sébastien, 1977.

Morvan (Michel): *Dictionnaire étymologique basque*, à consulter en ligne.

Orpustan (Jean-Baptiste) (sous la direction de): *La langue basque parmi les autres, Influences et comparaisons*, Izpegi, Baïgorry, 1995 (articles de J. Allières, J. Braun, R. Gomez, M. Morvan, J.-B. Orpustan, B. Oyharçabal, G. Rebuschi, P. Urkizu).

Orpustan (Jean-Baptiste): *Basque et français. Méthode abrégée de traduction (navarro-labourdin classique)*, Izpegi Baïgorry 1997, nouvelle version corrigée en ligne: [www.tipirena.net](http://www.tipirena.net).

*La langue basque au moyen âge (IXe-XVe siècles)*, Izpegi, Baïgorry 1999. Nouvelle version avec Annexe: "Du basque médiéval au basque antique: les inscriptions de Veleia-Iruña", à consulter en ligne: [www.tipirena.net](http://www.tipirena.net).

Oyhénart (Arnaud d'):

*Les proverbes basques recueillis par le Sr d'Oihenart, plus les Poésies basques du mesme Auteur*, Paris 1657; Izpegi, Baïgorry 1997.

*Notitia utriusque Vasconia...* Cramoisy, Paris 1638-1656. Traduction française de J.-B. Orpustan, Haritzeta, Baïgorry, 2014.

### Aurkibidea.

Aitzin-solas .....	or. 3
Sarr-hitza .....	or. 4
<b>Zati lehena.</b> Euskarako ahotsara .....	or. 7
Berezita I. Joileak edo konsonantak .....	or. 7
Berezita II. Mintzogaiak .....	or. 27
<b>Zati bigarrena.</b> Hiztegia. Hiztegiko eta gramatikako egitekoen moldamena .....	or. 31
Berezita I. Hiztegi berezi eta hiztegi mailegatu .....	or. 31
Berezita II. Izenordeak eta izenaren mugatzaleak .....	or. 39
I. Izenorde personalak eta mugatzale jabetasunezkoak .....	or. 39
II. Izenorde eta mugatzale erakusleak .....	or. 43
III. Galdezko izenorde, aditz-lagun eta mugatzaleak .....	or. 45
IV. Mugatzale berezleak eta orotakoak .....	or. 48
V. Izen-lagun tinki, atributu, ondoratu .....	or. 54
Berezita III. Izen, izen-lagun, aditz-lagun eta aditzen moldamena .....	or. 57
I. Izenaren deklinabidea .....	or. 57
II. Izen eta izen-lagun atzizkiak deklinabidekoak baz-tertzuz.....	or. 70
III. Izen-lagunaren hirur mailak .....	or. 80
IV. Aditz-lagunak eta aditz-lagun atzizkiak .....	or. 83
V. Hitzen batzuntzea eta batzuntzeko moldamenen eginarak .....	or. 87
VI. Izen eta aditz .....	or. 96
<b>Zati herena.</b> Aditza eta erranaldia .....	or. 109
Berezita I. Jokabidea .....	or. 109
I. Jokabide xoilak eta lagundua .....	or. 109
II. Aditz laguntzaleak eta aditz jokagarriak .....	or. 111
Berezita II. Jokabideko moldamena .....	or. 116
I. Euskal-jokabideko oinarria: gai edo egilearen 3-garren personako jokamoldea .....	or. 116

II. Aditz aro eta moduen egitura bikuna .....	or. 117
III. Jokabide bi personetako, hirur personetako eta "alokutibokoa" .....	or. 135
1. Bi personetako jokabide iragangaitza .....	or. 137
2. Bi personetako jokabide iragankorra .....	or. 139
3. Hirur personetako iragankorra .....	or. 141
4. Jokabide alokutiboa .....	or. 146
IV. Baiezezko eta menperatzeko aditz hizkiak .....	or. 148
V. Iragankorr eta iragangaitz .....	or. 157
Berezita III. Hitzen eta hitz multzoen ordenua .....	or. 162
I. Erranaldi xoil eta batzun .....	or. 162
II. Aditzaren lekua eta hutsa .....	or. 166
Gramatikako hiztegia euskal-erdaraz .....	or. 170
Liburu zerrenda laburra .....	or. 174

\*